Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Markina-Xemein

Aurkibidea

Udalerria: Markina-Xemein

Sarrera

Bizkaiko Lea-Artibai eskualdeko herria. Artibai ibaiaren erdialdean dago, Artibai eta Urko ibaiek bat egiten duten lekuan. Iparraldera, Amoroto eta Berriatua ditu mugakide; hegoaldean, Mallabia eta Berriz; ekialdean, Etxebarria eta Gipuzkoa; mendebaldean, Aulesti eta Ziortza-Bolibar. Markina-Xemeingo udalerria herri bik osatzen dute: Markinako hiribildua eta Xemeingo elizatea. 1969. urtean Ziortzako elizatea erantsi zitzaien, Bolibar herriagaz batera, 2005eko urtarrilaren 1ean desanexionatu zirenak Markina-Xemeingandik.

- **Biztanleak**: 4.604
- **Euskaldunak**: %88,7

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **165**
- Zintak: **189**
- Pasarteak: **727**
- Transkribatutakoak: **150**
- Audioak: **18**
- Bideoak: **678**

Proiektuak

- Ahaztuen Oroimena
- Berriz 1936 gogoratzen
- Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Ermua eta Eitzako euskara
- Ermuko eta Mallabiko "Drogetenitturri" aldizkaria
- Etxebarriko ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus
- Euskararen historia soziala Elgoibarren
- Gazte gara gazte
- Ikasbidea ikastola
- IRALEren Bizkaiera Bilduma
- Lea-Artibaiko ahotsak

- Markina-Xemeingo ahotsak
- Markina-Xemeingo hezkuntza publikoa (1844-2025): hazitik lorera
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)

Hizlariak

Amaia Afan Lejardi (1970)

Eskolako jantokiko hezitzailea. 1999an hasi zen Bekobenta eskolako jantokian umeei jaten ematen laguntzen. Hasieran Gaska enpresan hasi zen; ondoren, Auzolagunekin; gero, Eurest enpresarekin. Orain berriro Auzolaguneko langilea da.

Kasilde Aginaga Barinagarrementeria (1916-2012)

Okerra kalean jaio zen 1916. urtean. Gurasoak ere markinarrak zituen: aita etxe azpian tailerra zuen zapatari ezaguna eta ama Urberuaga auzoko Belaustegi baserrikoa. 8 urtegaz joan zen eskolara, baina 11 urterekin "Erromonanekue" janari-dendan hasi zen lanean eta bi urtez egon zen bertan. Primo de Riveraren garaian, 7 urte zituela, galarazita zeuden mezuak, ezkutuan pasatzen zituen. Gerra aurretik hasi zen Esperantza lantegian lanean, eta 43 urtez egon zen bertan, azken 25 urteak zentralitan. Amak 'Euzkadi' egunkaria saltzen zuen. Aita kartzelan izan zuen eta zekien guztia kontatzeko biluzarazi egin zutela kontatu digu Kasildek; ondorio psikologiko latzak utzi zizkion eta handik gutxira hil zen. Familia abertzalekoa izaki, batzokiko Emakumeen Batzako kidea izan zen eta 1938. urtean Bilboko Orue txaleteko kartzelan hartu zuten preso. Epaimahai militar batek epaitu eta urte bete eta hilabete bateko zigorra ezarri zioten; azkenean, 6 hilabete eta egun batekoa bete zuen. Mutil-laguna ere gerratearen ondorioz galdu zuen, gerran zauritu eta gerraostean, ezkontzear zeudela, hil baitzen zaurien ondorioz. Gerra Zibilak erditik ebaki zuen emakumea dela dio.

Agustina Agirre Ibarzabal (1926-2014)

Barinaga auzoko Isurixa baserrian jaio zen, Bizkaia eta Gipuzkoako muga-mugan, Urko mendiaren barrenean. Gerra garaiko bizipenak jasotzeko egin zioten elkarrizketa 2011n Ahaztuen Oroimena taldekoek (euren webgunean ikusgai).

Eufemi Agirreamalloa Kaltzakorta (1930)

1930. urteko Santa Eufemia egunez sortu zen Barinaga auzoko Espilla baserrian. Gurasoak ere markinarrak zituen eta 11 senidetatik seigarrena izan zen. Gerraosteko eskola ezagutu zuen, baina 11 urtegaz maistraren umeak zaintzen umezain lanetan hasi eta ikasketok utzi zituen. Amagaz batera sarritan joaten zen Eibarko plazara baserriko jeneroa saltzen. 14 urtegaz Etxebarrin josten ikasi ostean Lekeition jantzigintza ikasi zuen. Ordudanik, jostun lanetan aritu zen. Markina-Xemeinen ezaguna izan da hainbat herritarrentzako arropak eta soinekoak egin baitzituen, baita ezkontzetarako soineko zuriak ere. Atxondo auzoko Ibazetara ezkondu zen, baina handik gutxira kale aldera etorri ziren.

Juan Jose Agirregomezkorta Eizagirre (1932)

Iturretako Zuluaga baserrian jaio zen, baina gero Aginaga (Eibar) auzoko Oreinzar baserrira ezkondu zen. Baserri honen erdia Eibar da eta beste erdia Markina. Horregatik, Eibarren erroldatuta daude, baina kontribuzioa Markinan ordaintzen dute. Baserriaren inguruko gorabeherak kontatu zizkigun Juan Josek berarekin egon ginenean. Honez gain, baserriko abereen inguruko hainbat konturen gainean egin genuen berba, Juan Josek aita tratantea zuen-eta. "Eibarko Ermitak" proiektuan parte hartu zuen, baserri ondoan daukaten San Migel Oregizar edo San Migel Txiki santutxuuari buruz hizketan.

Zeberi Agirregomezkorta Eizagirre (1937)

1937an Markinan jaioa eta 20 urterekin Ermura joana.

Jose Alberdi Arriola (1934)

Erdiko kaleko 15. zenbakian jaio zen. Lehenengo jaunartzea egin arte Monjas de la Caridad-en ibili zen, eta gero liburutegiko eskolan.

Jose Alberdi Omar *Kafetero* (1944)

Maguregigoikoa (Magureigoitti) baserrikoa. Lau edo bost urterekin hasi zen Barinagako eskolan, eta hantxe ikasi zuen 12 urte ingurura arte; gero, Esperantzaneko eskolan ere ibili zen.

Sara Aldazabal Kortazar (1999)

Bekobenta eskolan ibili zen 2 urtetik DBH amaitu arte.

Mari Karmen Aldazabal Urionabarrenetxea (1947)

Markina-Xemeingo Urberuaga auzoko Ubillabarri baserrikoa. 4 urtetik 10 urtera arte Azpiltzako eskolan ikasi zuen. Mari Asun Lejardirekin batera agertzen da elkarrizketa honetan.

Felipe Amutxastegi Duralde (1936)

4-5 urterekin hasi zen eskolan. Lehenbizi, "Monjas de la Caridad"-en ibili zen, eta gero, herriko liburutegian kokatzen zen eskolan.

Mari Karmen Amutxastegi Duralde (1940)

Markina-Xemeingoa. Monjas de la Caridad-en eta liburutegiko eskolan ibili zen.

Jesusa Anitua Lejardi (1926)

Ituerta auzoko Sumiña baserrian jaio zen 1926. urtean, Inpernusierra izenez ezaguna den zonaldean. Jaiotzez Estefania du izena, baina beti deitu diote Jesusa. Aita bertakoa zuen eta ama Barinagako Lurkana baserrikoa. Zazpi neba-arrebako familiako alaba. Umetan, Markinako eskola publikora eta Ospitalekora joan zen. Altza baserrira joan zen gazterik neskame lanetan eta handik Bilbora eta Parisera joan zen. Parisen 28 urte igaro zituen, harik eta erretiratu eta herrira bueltatu arte. Bilbotar batekin ezkondu zen Parisen. Bere neba Jose Marirekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Jose Mari Anitua Lejardi (1924)

Ituerta auzoko Sumiña baserrian jaio zen 1924. urtean, Inpernusierra izenez ezaguna den zonaldean. Aita bertakoa zuen eta ama Barinagako Lurkana baserrikoa. Zazpi neba-arrebako familiako semea. Umetan, Markinako eskola publikora eta Ospitalekora joan zen. Eskola ostean, osabarenera, Makotegira, joan zen morroi lanetan. Markinako latonerian zein baserriko lanetan lanean ibilitakoa da. Umetatik datorkio ehizarako eta arrantzarako zaletasuna. Bere arreba Jesusarekin batera egin zitzaion lehenbiziko grabazioa; gainontzeko elkarrizketetan fabrikako langileen bizimoduaz, errepublika garaiaz eta baserriko lanez luze berba egin zigun.

Juan Anitua Lejardi *Sumiña* (1929)

Ituerta auzoko Sumiña baserrian jaio zen 1929. urtean, Inpernusierra izenez ezaguna den zonaldean. Aita bertakoa zuen; eta ama, Barinagako Lurkana baserrikoa. Eskolara gutxi joan zen, eta dakiena gerora ikasi zuela dio: Barinagako barberian, arotzerian eta Esperantza lantegiko arotzerian.

Ramon Anitua Lejardi *Sumiña* (1932-2018)

Ituerta auzoko Sumiña baserrian jaio zen, Inpernusierra izenez ezaguna den zonaldean. Aita bertakoa zuen; eta ama, Barinagako Lurkana baserrikoa. Umetan Markinako eskolara jeisten zen baserriko lanek uzten ziotenean; hala ere, gerora eskola partikularretara joan zen. Behar desberdinetan aritu ostean 20 urtez Esperantza lantegian aritu zen. Erlijioaren eragina, erromeria eta neska-kontuak, baserritar-kaletar harremana, ohitura zaharrak, sagardogintza... izan ditu mintzagai bere lagun Pedro Lejardi "Gabixola"ren laguntzarekin. Argazkian ezkerrean dagoena da Ramon.

Eva Ansola Ugarte (1957)

Markina-Xemeinen jaio zen eta Etxebarrin bizi da. Bekobentako irakaslea eta DBHko hasierako urteetako zuzendaria izan zen.

Jose Aransolo Etxebarrieta (1929)

Markina-Xemeingo Meabe auzoko Gerriketxe baserrian jaiotakoa. Arretxinagako eskolan eta Esperantzanekoan ibili zen.

Jose Aransolo Ibaibarriaga (1941)

Markina-Xemeingo Etzezabal baserrian jaioa. 1948-1952 bitartean Iruzubietako eskolan ibili zen.

Jokin Arbe Izagirre (1991)

Bekobenta eskolan ibili zen DBH bukatu zuen arte.

Imanol Aretxabaleta

Elisabet Aretxabaleta Goikoetxea (1921)

Abesua kalean jaio zen bere senitartekoen konfiteria gainean, eta bertan bizi izan zen gerra zibilera arte. Bere aitak ondoan zuen zapatari-tailerra. Bederatzi neba-arreba izan ziren, baina zazpik egin zuten aurrera. Gerra garaiak zuzen-zuzenean eragin zion Elisabeti eta bere familiari: amaren jaiotetxean, Aulestiko Etxetxun, pasa zituzten gerra garaiko bi urteak; 19 urteko neba gerran hil zen; aita zazpi urtean izan zuten preso Iruñeako San Kristobalgo fortean; osaba bat Larrinagako kartzelan egon ostean fusilatu zuten; beste osaba batek, alkatea zenak, herritik alde egin eta 15 urte egin zituen erbestean; aitaren tailerra konfiskatu zuten... Gerraostean, Aulestitik Gasteizera joan zen neskame aritzeko. Handik Donostiara eta Bilbora joan zen lanbide berean jarraitzeko. Bilboko Olabeagan lanean zebilela, bertako senarra ezagutu eta bertan bizi izan zen 1989. urtera arte, jaioterrira bueltatu zen arte.

Laurentzi Aretxabaleta Goikoetxea (1930)

Markinan jaio zen eta bertako alkatea izan zen 22 urtean. Kaletarra izan da, nahiz eta aitita-amamak baserrikoak eduki. Bizimodu gogorra eduki du Laurentzik: ama gaixorik eduki zuen, gose handia pasatu zuen umetan eta berrogei urte zituela alargun geratu zen bost ume txikirekin. Gerran ere asko sufritu zuen familiak: osaba batek ihes egin behar izan zuen gerra sartu zenean, beste osaba bat fusilatu egin zuten, anaia zaharra gerran hil zen eta aita kartzelan egon zen zazpi urtean. Aita kartzelatik bueltatu zenean, ofizioa ikasi zuen berarekin: gurpilak konpontzen. Alargun geratu ostean, bigarrenez ezkondu zen. Bizitzan pasatutako momentu latzak eta gozoak umoretsu kontatu zizkigun. Kontalari aparta da Laurentzi eta umetako urte gogorren gainean hitz egin zigun berarekin egon ginenean, gerrako kontuez eta alkate ibilitako urte horien guztien gainekoak (Markinako ikastolako hasiera, ETAkoen gainekoak....), besteak beste.

Edur Aretxabaleta Lartitegi (1990)

Bekobenta eskolan ikasi zuen 17 urtera arte.

Asensio Arizmendiarrieta Pagaegi (1961)

Markina-Xemeingo Ituiño (Itxoiño) baserrikoa. Azpiltzako eskolan ikasi zuen 5-9 urte bitartean, eta Bekobentan 9-14 bitartean.

Maria Jesus Arizmendiarrieta Pagaegi (1963)

Markina-Xemeingo Ituiño (Itxoiño) baserrikoa. Azpiltzako eskolan ikasi zuen 5-9 urte bitartean, eta Bekobentan 9-14 bitartean.

Txomin Arizmendiarrieta Txintxurreta (1935)

Markina-Xemeingo Ituiño (Itxoiño) baserrikoa. Azpiltzako eskolan eta Arretxinagakoan ikasi zuen.

Mari Karmen Arrate Aginaga (1938)

Txoribenta (Txorixa) baserrikoa. Bekobenta eskolako sukaldaria 48 urte zituenetik erretiroa hartu zuen arte.

Garbiñe Arrate Urigoitia (1944)

Markina-Xemeingoa. 3 urtetik 6ra bitartean monjekin ikasi zuen, eta gero 14 urtera arte liburutegiko eskolan. 6 urtetik 14ra bitartean joan zen eskolara. Zerutxu Ikastolako lehenengotako maistra izan zen.

Juan Arrazua Arinaga (1939)

Barinagako Oterrea baserrikoa. Barinagako eskolan ikasi zuen.

Karlos Arrazua Garetxana (1975)

Barinagako eskolan ibili zen eta gero Bekobentan amaitu zuen OHO.

Agustina Arregi

Markinako Iruzubieta auzokoa. Pasadizo labur bat kontatzen du (emakumezkoen hika forman).

Joakin Arrieta (1884)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Nekazaria, 29 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: bizkaiera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.215

Frantzisko Arrieta Gabilondo (1932)

Xemeindeko Iñuspe baserriak jaio zen eta bertan egin behar ziren beharrak zirela eta gutxi joan zen eskolara. Baserritik kanpo ere, behar asko egindako gizona da: Berriatuan morroi, basoan pinuak sartzen, jatetxe baterako bildotsak erretzen, fabrikan... Aita bertako baserrikoa zuen eta bi aldiz ezkondu zen, lehenengo ezkontzatik alargun geratu ondoren. Bigarren ezkontzako semerik gazteena izan da Frantzisko. Anaia nagusiena, lehenengo ezkontzakoa, gerran hil zitzaien. Gerrako kontuak kontatu zizkigun berarekin egon ginenean, egindako beharren gorabeherak eta baita gaztetako ibilerak ere.

Juan Arrieta Martinez (1924)

Markinan jaio zen, kalean. Aita Iñuspekoa zuen eta ama Urberuagakoa. Bost neba-arrebatatik laugarrena izan zen. Aita Ameriketara ardizain joan zen gaztetan. Gero, Juan jaio ostean, taberna zabaldu zuen herrian. Juan zestan jokatzen ibili zen profesional Oviedon, baina laster utzi zuen eta etxera bueltatu zen etxeko dendan laguntzera. Urteak pasatu ahala, negozio gehiago eduki izan ditu Juanek: Ondarroako arrainak kanpora garraiatzeko negozioa eta etxeak eraikitzekoa, esaterako. Ume sasoiko Markinako giroaz hitz egin genuen berarekin egon ginenean, gerrako kontuez, Markinako denda eta fabrikez eta pilotari ibilitako sasoiaz, besteak beste.

June Arrieta Perez (2002)

Bekobenta eskolan ibili zen bi urtetik DBH bukatu zuen arte.

Jose Maria Arriola Garramiola (1951)

Markina-Xemeingo Eizagirre (Eizar) baserrikoa. Azpiltzako eskolan ibili zen 7 urtetik 12ra arte.

Jesus Maria Arriola Maguregi (1951)

Markina-Xemeingoa. Bekobentako maisu eta zuzendari ohia. Bekobentan egin zuen lan 1982tik erretiroa hartu arte.

Paz Aulestiarte Arakistain (1943)

Markina-Xemeingo Txatxana baserrian jaiotakoa. Azpiltzako eskolan ikasi zuen.

Mari Carmen Azkune Arrate *Giputxanekue* (1928)

1928. urtean munduratu zen "Giputxanekue"neko Mari Carmen. Aita Azpeitiko Lasao auzoko Gallegi baserritik etorri zen Markinara eta bere ama Urberuaga auzoko Olazarrekoa zen. Umetan Okerra kalean bizi ziren eta gerora Zehar kalean, "Giputxanekue" taberna zuten bertan. Bere aitak frontoiko tabernaren ardura ere bazuen; hori dela eta, gazterik hasi zen tabernako beharretan. Gerra garaian, erasoak hasi zirenean, Munitibarreko baserri batera joan ziren familia bi, baina Gernikako bonbardaketa egunean etxe hura erre zuten eta Mendatara joan ziren. Herrira bueltatzerakoan, beraien etxea hustuta aurkitu zuten eta aitonaren etxera joan behar izan zuten. Soldadutzara Markinara joandako nafar familiadun beasaindar batekin ezkondu zen. Kaletarra izanda, garai bateko kaleko giroa eta kontuak oso ondo gomutatzen ditu.

Mirari Azkune Kaltzakorta (1989)

Etxebarrin jaioa, Maguregi baserrian, 1989an. *"Telekomunikazioak eta informatika sistemak"* goi-mailako zikloa egin zuen lehendabizi eta, ondoren, *"Ikus-entzunezko komunikazioa"* ikasi zuen Leioan. Ume-umetan hasi zen soinu txikia jotzen eta plaza askotan aritu izan da ordutik. *Aire-aire* izeneko erromeria taldeko kide ere izan zen bi urtez. Umetatik datorkio kanturako zaletasuna ere eta kantu-txapelketa askotan parte hartu izan du. Bai trikiti-txapelketetan, bai kantuan, sariak irabazia da. Bere beste zaletasunetako bat rallyak dira. Xabat Urresti lagunarekin batera elkarrizketatu genuen, eta euren zaletasunez hitz egin ziguten.

Aritz Azpiazu Olabarria (1985)

Bekobentan ikasi zuen DBH amaitu zuen arte.

Jose Andres Azpiri Malaxetxebarria (1911-2014)

1911. urtean jaio zen Plazakolako Torretxun eta bizimodua ere bertan egin du. Etxea Xemeinen egon arren, elizaz Berriatua da. Aita bertakoa zuen eta ama Elizburukoa. Aitak etxe ondoan zegoen zentralean egiten zuen behar, "Salto Rios Ondarroa" izenekoan; hori dela-eta, 30. hamarkadatik ezagutu ditu argia eta telefonoa etxean bertan. 101 urte betetzear izan arren, oso gogotsu kontatu zizkigun bere garaiko eta baita aurreko kontuak ere, auzoan bizkondea zegoen garaikoak eta bere jaiotetxea abade-etxea izan zenekoa, esate baterako. Sei urte zituela ama hil zitzaien eta aitagaz eta amamagaz hazi ziren. 10 urte zituela zabaldu zen Aspiltzako eskolan eta bertara joan zen 15 urtera arte. 1932ko kintoa da eta soldadutza ostean, ezkondu eta semea baten aita zela, Itxasalde batailoiko Boga-boga konpainiarekin frontera boluntario joan zen. 1936ko urrian joan eta 1937an bere burua Bilboko Carlton hotelean entregatu eta preso hartu zuten. Bilbon, Logroñon, Asturiasen, Torrelavegan... egon zen langile-batailoietan barbero lanak egiten zituen bitartean, zubiak zein abiazio-zelaiak konpontzen 1939. urteko ekainean askatu zuten arte. Gazterik alargundu zen, baina berriro ezkondu zen aurretik etxean izan zuen neskameagaz. Beti aritu izan zen baserriko beharretan, kanpoan lan gutxi egin baitzuen. Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarrizketa, gerrako bizipenak jasotzeko (ikusi euren webgunean).

Eugenio Barrenetxea Duralde (1934)

Markina-Xemeingoa. 4 urterekin hasi zen eskolan. Arretxinagako eskolan eta liburutegikoan ibili zen.

Judith Barrutia Arrizabalaga (1960)

Oizpe guraso elkarteko kidea izan zen.

Maritxu Barrutia Totorikaguena *Maritxu Jose Andres* (1920)

Markinan jaio zen, kalean. Aita Elgoibarkoa zuen eta ama Ziortzako Agarre baserrikoa. Lau neba-arrebatatik gazteena zen eta neska bakarra, horregatik gurasoek begiko eduki ei zuten. Neba bi pilotariak zituen, Kuban ibilitakoak. Hala ere, Gerra Zibilak Afrikan harrapatu zuen nebarik gazteena eta gorriak ikusi behar izan zituen. Urte gogorrak izan ziren familiarentzat, baina ez ei zuten inoiz goserik izan, aitak harategia zeukan-eta. Harategiko kontuez eta neben ibilerez hitz egin genuen berarekin egon ginenean, besteak beste.

Alizia Barrutia Zarragoikoetxea (1970)

Markina-Xemeingoa. Bekobenta eskolan OHO egin zuen 5 urtetik 14ra arte.

Jabier Baskaran Baskaran (1959)

Markina-Xemeingo Barinaga auzoko Baskaranabeletxe baserrikoa. Barinagako eskolan ikasia. Mari Karmen Muguruzarekin batera agertzen da elkarrizketa honetan.

Dominika Baskaran Elordi (1930)

Barinaga auzoko Baskaran-Abeletxe baserrikoa.

Josune Baskaran Etxeberria (1986)

Barinaga auzoko Santa Marina baserrikoa. Bekobentako ikaslea izan zen, derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatu arte.

Josefa Baskaran Oregi (1914-2008)

Barinaga auzoko Illoro baserrian jaio zen 1914an. Auzo bereko Azabel Behekora ezkondu zen, Jose Agirregomezkortarekin (1910). Handik zortzi hilabetera hasi zen gerra eta hamahiru hilabetera senarra eraman zioten. Bi urte eta erdiren buruan itzuli zen senarra. Gerrako bizipenak jasotzeko elkarrizketatu zuten Josefa Ahaztuen Oroimena taldekoek 2008an (ikusi euren webgunean).

Begoña Basterretxea Ibaibarriaga (1950)

Juan Mari Bengoa Unanue *Chino* (1940)

Aita Etxebarrikoa zuen, ama Aulestikoa. Hiru senidetan bigarrena, Xemeinen jaio zen eta eskola publikoan ibili zen, 16 urtera arte. Sei urte zituenean erregeak zesta puntako zestoa ekarri zioten, eta halaxe hasi zen pilotan jokatzen. 9-10 urterekin irabazi zuen lehen saria pilota txapelketa batean. 1956an Palma de Mallorcan debutatu zuen, profesional gisa, eta 1957an Kubara joan zen, La Habanara. Handik Daytonara (Florida), 1959an. Miamin ere aritu zen pilotan. Denboraldi erdi Floridan eta beste erdia EHan egiten hasi zen gero, 1968an greba egin zuten arte: Ameriketara joatera boikota egin zioten. 1969an Bartzelonara joan zen eta sei urte egin zituen han. 1976an, berriz, Bridgeporteko (Connecticut) frontoia inauguratu zuten. 1981ean Daytonara joan zen intendente moduan eta 1988ko grebararte egon zen han. Markina-Xemeinera bueltatu zen gero. Elkarrizketa egin genionean Jose Luis Altuna pilotaria ere bertan zen.

Carmelo Bilbao Aretxabaleta (1945)

Markinan jaio zen, kokoteak egiten zituzten gozotegi batean. Bederatzi urte zituela, ama hil zitzaien eta etxeko negozioan lanean hasi behar izan zuen. Eskola nazionalean ikasi zuen 14 urtera arte. Zesta-puntan jokatzen zuen eta 16 urterekin Mallorcara joan zen jokatzera eta, bide batez, han soldaduska egitera. Hemezortzi urterekin Markinara bueltatu zen, baina Ameriketara jokatzera joateko kontratua egin zioten. Pneumonia baten ondorioz, pilota utzi behar izan zuen eta Elgoibarko Danobat lantegian hasi zen lanean. Baina lanean hasi eta hilabete gutxira Ameriketara bueltatzeko aukera eman zioten, pilotako epaile bezala, eta hara joan zen lantegian baimena eskatuta. 1973an Etxepe lantegia sortu zuen beste zenbait bazkiderekin batera. Lantegian euskararen aldeko apustu handia egin izan dute sorreratik. "*Elgoibarko euskararen historia soziala*" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

Zipriano Bilbao Urkiza (1918-1998)

Atxondoa auzoko Axpe etxekoa.

Rosario Bustindui Azumendi (1937)

Ziortza-Bilobarren jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama Amorotokoa. Denda eduki zuten etxean, baina gerra sartu zenean jenero guztiak eraman zizkieten. Aita eta aitita Huesca ingurura eraman zituzten bideak-eta egiten zigor moduan, "batallón de trabajadores" delakora. Markina-Xemeinera joan zen bizitzera. Jesusa Etxabe lagunarekin egin genion elkarrizketa eta gerraren inguruko kontuak eta etxean eduki zuten dendarenak kontatu zizkigun, besteak beste.

Rosario Duralde Olabarria (1938)

Joseba Egia Egia (1962)

Markina-Xemeingo Barendabekoa baserrikoa. Liburutegia dagoen eskolan eta Bekobentan ibili zen.

Mari Karmen Egia Urionabarrenetxea (1946)

Markina-Xemeingo Balda baserrikoa. Iturretako eskolan ibili zen.

Jesusa Egia Urkiola (1942)

Markina-Xemeingo Arantzabal baserrikoa. 6-10 urte bitartean Azpiltzako eskolan ikasi zuen, eta 10-13 bitartean Arretxinagan.

Irene Egurrola Urzuriaga (1937)

Markinako Iturreta auzoko "Adorrixa" baserrian jaio zen 1937 urtean, 4 neska eta mutil bakarreko familian. Iturretako auzo-eskolan bertan joan zen eskolara eta doktrinara. Haren hiru ahizpak Ermura etorri ziren bizitzera eta, Elias Izagirre Bildosola ezagutu ostean, bera ere Ermura ezkondu zen. Hiru seme-alabaren ama da. Umetako oroitzapenak ondo gogoratzen ditu. Bere jatorrizko hizkera mantendu du.

Ainara Eizagirre Lejardi (1983)

Markina-Xemeingo Lasartetxikia baserrian jaiotakoa. Bekobenta eskolan ikasi zuen 3 urtetik DBH amaitu zuen arte.

Jose Mari Eizagirre Urionabarrenetxea (1913-2012)

Iruzubieta auzoko Albitxu baserrikoa.

Maria Elorza Asumendi (1924)

Larruskain auzoko Garramiola baserrikoa.

Jose Elorza Salaberria (1920)

Etxebarriko Egixarren jaio zen, baina sei urte zituela Markinako Guen kalera etorri eta bertan egin zuen bizimodua ordudanik. Ama Etxebarrikoa zuen eta aita Ameriketan artzain ibilitako Lasturko semea (Deba, Gipuzkoa). Kaleko eskolara joan ostean, 15 urte zituela, Esperantzaren lantegian hasi zen beharrean eta bertan aritu zen erretiratu artean. Lantegiko lehen urtean eskolak ere jaso zituen, baina Gerra Zibilean lantegia Derio eta Zamudio aldera eroan zuten eta bertara joan ziren lantegia militarizatuta egon baitzen. 1939. urtean soldadu joan zen, justu-justu libratu zen gerrara joan barik. Ezpata-dantza kontuak, Gerra Zibileko bizipen gogorrak, zesta-punta, gurasoek eta gero berak izan zuen tabernako gora-beherak... izan ditugu berbagai. Lehen zintan, Enrike Guenetxearekin eta Raimunda Ibarluzearekin egin genion elkarrizketa.

Lur Epelde Sierra (1981)

Bekobentako ikaslea 3 urtetik OHO amaitu zuen arte. Xabier Epelderekin batera egin zitzaion elkarrizketa

Xabier Epelde Sierra (1986)

Bekobentako ikaslea 3 urtetik OHO amaitu zuen arte. Lur Epelderekin batera agertzen da elkarrizketa honetan.

Ricardo Aitor Escobar Coira (1987)

Bekobentako eskolan ikasi zuen DBH amaitu zuen arte.

Jesusa Etxabe Bermeosolo (1937)

Aulestin jaio zen; bertakoak zituen gurasoak ere. Gizona Australiara joan zen lanean hamasei urterekin; gero, bueltatu, Jesusarekin ezkondu eta biak joan ziren berriro Australiara. Bertan, zortzi urte eman zituzten eta ume bi eduki zituzten. Handik etorrita, Markina-Xemeinen bizi izan dira. Rosario Bustindui lagunarekin batera egin genion elkarrizketa eta Australian ibili zeneko kontuak kontatu zizkigun eta baita gerran aita kartzelan eduki zuenekoak ere.

Juana Etxaniz Barruetabeña (1929)

Larruskaingo Olazar baserrian jaio zen 1929an. Gerra garaian, Ziortza-Bolibarren babestu ziren lehenik eta gero Amalloko Zamora baserrian, amaren etxean. Osaba Itxas-Alde batailoiko kapitaina izan zen; hori dela-eta errekete eta karlistek Olazarko etxea erre eta bertako gauza guztiak kendu zizkieten. Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek 2011n (ikusi euren webgunean).

Feli Etxaniz Guenetxea (1952)

Markinan jaio zen 1952an, Larruskain auzoko Olazar baserrian. Bilbora joan zen lanera eta ezkondu zenean senarrak ere Bilbon lan egiten zuenez, bertan geratu ziren bizitzen. Bere semea da elkarrizketatzailea.

Juanita Etxaniz Muguruza (1923-2016)

Barinagako Ziarreta baserrian jaio zen 1923. urtean. Gurasoak ere auzo berekoak zituen. Gerra Zibileko frontea etxe ondoan izan zuten eta San Andres batailoiko gudariak eurenean egon ziren. 9 urterekin eskola utzi eta baserriko beharrei ekin zien. 18 urterekin jaten mizkina zela-eta, amak Eibarko Arraten bizi zen izekoarenera bidali zuen, baina han ere beharra zen nagusi. Ezkondu ostean Iturrietara joan zen bizitzera. Feli Pagaegi lagunak lagunduta egin zuen berriketaldia. Jaiak eta erromeriak, erremedio naturalak, nobio kontuak, erlijioaren garrantzia, baserriko bizimodua... izan zituzten berbagai. Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko (ikusi euren webgunean).

Antonia Etxebarria Astorkia (1928)

Iruzubieta auzoko Bekoetxekoa.

Denis Florea (1999)

Errumanian jaio zen eta Markina-Xemeinera etorri zen bizitzera sei urterekin. Bekobenta eskolan ikasi zuen DBH amaitu arte.

Sergio Gabikagojeaskoa Jaio (1970)

Markina-Xemeingoa (aita Isparterrekoa eta ama Nabarnizkoa) 1992an ardi-lanera joan zen Ameriketara, hiru urteko kontratuarekin. Boisera (Idaho) artzain joandako azken euskalduna izan zen. Parman egin zuen lana, “campero”. Bere asmoa gero Euskal Herrira bueltatzea baldin bazen ere, Teresa Gerrikabeitia ezagutu zuen (gaztetan Parmara Joana; haren aita ere artzain joan zen Ameriketara) eta bertan geratu zen bizitzen. Ezkondu eta seme bat izan zuten. Meridianen bizi dira. Hainbat lanetan jardín du Sergiok: harategi batean, zerrategi batean, elektronika konpainia batean... auto-saltoki batean ziharduen elkarrizketatu genuenean. Boiseko euskal etxean egin genion elkarrizketa, musean jokatzera joaten delako igandero bertara.

Juan Ignacio Gallastegi Gerenabarrena (1961)

Monjas de la Caridad, Arretxinagan (Maritxu Aldaperekin), liburutegiko eskolan eta bekobentan ikasi du.

Dolores Gandiaga Gandiaga (1953)

Markina-Xemeingo Jauregi baserrikoa. Iturretako eskolan ikasi zuen 14 urtera arte.

Gregoria Gandiaga Onaindia (1919-2019)

Bolibarren jaio zen, baina Ziortzan hazi zuten, amak ez zeukan bularrik-eta. Hamar seme-alabatatik laugarrena izan zen Gregoria eta horregatik amamarekin eman zuen haurtzaroa. Bederatzi urte zituela, neskame joan zen Markinako baserri batera eta bertan urtebete igaro zuen. Gero, Lekeition ere egon zen neskame, bertako kapitain baten etxean; harik eta gerra sartu eta etxera itzuli behar izan zuen arte. Gerrako kontuez hitz egin zigun Gregoriak berarekin egon ginenean, neskame lanez eta baserriko bizimoduaz.

Maria Garate Zabala (1910-2009)

Xemeingo Osoloetxebarri baserrian jaio zen 1910. urtean (oraindik Markina eta Xemein bi herri zirenean). Ume zela hasi zen lanean. Bederatzi urterekin Aulestiko etxe batera joan zen umezain eta geroago beste etxe batzuetan ere jardun zuen beharrean. Familia abertzalekoa, gerran une latzak bizi izan zituen: aitak lau urte igaro zituen kartzelan (EAJ alderdiko zinegotzi izan zelako), senargaia fusilatu egin zioten, eta Maria bera ere lanera behartu zuten, nazionalek Markinako Munibe jauregian jarri zuten ospitalean laguntzera. Gerra ondoren Berriatuara ezkondu zen eta hantxe bizi izan da harrezkero (1944. urteaz geroztik). Hizkerari dagokionez tartekoa dauka, Markinakoa eta Berriatuakoa, nahiz eta berak esaten duen moduan, batetik besterako aldea oso txikia den.

Maite Garcia Iriondo

Juan Gerebarrena Solozabal *Larriñe* (1933)

Iturreta auzoko Larriñe baserrian jaio zen eta gurasoak ere Iturretakoak bertakoak zituen. Zortzi neba-arrebatatik seigarrena zen. Umetan, baserriko beharretan lagundu behar izaten zuen, baina beti eduki zuen zestan ibiltzeko astia. Gauzak honela, hogeita bi urte zituela jokatu zuen lehenengoz profesional Durangon. Hala ere, laster utzi zuen zaletasuna altzari-denda zabaltzeko. Gaztea zela zesteru ikasten hasi zen, ofizioa ikasten. Zesta asko egin zituen, baina ez zuen bere burua zesteru ontzat. Geroago, altzari-denda zabaldu zuen Markinan.

Ines Gerenabarrena Artetxe (1957)

Markina-Xemeingo Etxetxua baserrian jaioa. Iturretako eskolan ikasi zuen.

Isidro Gerenabarrena Artetxe (1952)

Markina-Xemeingo Etxetxua baserrian jaioa. 13 urtera arte Iturretako eskolan ikasi zuen.

Mertxe Geretxana Arriaga (1950)

Markina-Xemeingo Barinaga auzoko Arantzetabarrena (Astabarren) baserrikoa. Barinagako eskolan ikasi zuen.

Tomas Goiogana Urbieta (1941)

Artibai kalean jaio zen 1941. urtean eta bertan hazi zen, aitak jostundegia zuen bertan. Gurasoak ere markinarrak zituen. Zesta puntako pilotari prefesionala izan zen, atzelari postuan aritu zen. Herriko mutiko gehienak bezala umetan hasi zen frontoian jolasten, zortzi urte ingururekin eta 16 urte zituela. 1957. urtean Miamira (Florida, AEB) joan zen eta 1986an, 46 urtegaz erretiratu zen Bridgeport-en (Connecticut, AEB). Beraien etxean beti izan dute zesta puntan aritzeko ohitura, bera bere osaba baten bitartez murgildu zen horrexetan eta suhiak eta bilobak ere aritutakoak ditu. Jai-Alaiko puntako pilotari honegaz zesta puntari buruzko berriketaldia egin genuen. Euskal Herrian, Ameriketan zein Bartzelonan zesta puntako garairik onenak bizi izan zituen, 1968ko greba iskanbilatsua tarteko. Hiru belaunaldi desberdinetako pilotariak izan ditu kantxan lagun eta urte luze horietako bizi izandakoak eta zesta puntari buruzko zirrikitu guztiak izan genituen berbagai. Berriro jaioko balitz, zestalaria izan gurako zuela dio.

Enrike Guenetxea Arriaga (1928)

Etxebarriko Ibargurenen jaio zen, baina 11 urtegaz, gerra bukatuta, Larruskaingo Damakortara joan ziren bizitzera, Gipuzkoatik hasita Bizkaiko lehenengo etxera. Zortzi neba-arrebatatik zazpik egin zuten aurrera. 11 urtetara arte baino ez zen joan eskolara, gerrak asmo guztiak suntsitu zituen-eta. Raimunda Ibarluzeagaz eta Jose Elorzarekin batera kontatu zizkigun antzinako bizimoduko eta Gerra Zibileko hainbat kontu. Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko (ikusi euren webgunean).

Mila Guenetxea Lapazaran (1957)

Markina-Xemeingo Larruskain auzoko Damukorta baserrikoa. Larruskaingo eskolan ibili zen 5 urtetik 13ra arte.

Maria Luisa Ibaibarriaga (1925)

Larruskain auzokoa.

Joakina Ibaibarriaga Anakabe (1938)

Markina-Xemeingo Meabe auzoko Larruskain baserrian jaioa. Iruzubietako eskolan ikasi zuen 1946- 1952 urteen artean.

Mari Karmen Ibaibarriaga Larruskain (1962)

Iruzubietako eskolan ikasi zuen 1966tik 1974ra bitartean.

Hilarion Ibarluzea Imaz (1923)

1923. urtean jaio zen Santa Eufemia aldeko Gabaro baserrian. Arretxinagako eskolara gutxi joan zen eta aitagaz ikasi zuen eskola apur bat. Mutikotan ikazkin eta karobian lanean aritutakoa da, besteak beste.

Raimunda Ibarluzea Imaz (1920-2014)

1920. urteko San Ageda egunean jaio zen Santa Eufemia aldeko Gabaro baserrian. Gurasoak ere baserritarrak zituen, ama Amorotokoa. Arretxinagako eskolara ostera bakarra egindakoa da umetan ere behar eta behar aritzen baitzen. 10 urte zituenetik neskame beharretan pasatu zuen gazte denbora. Enrike Guenetxearekin eta Jose Elorzarekin batera kontatu zizkigun antzinako bizimoduko eta Gerra Zibileko hainbat kontu.

Antonio Ibarluzea Loiola *Lauzirika* (1933)

Antonio Ibarluzea Loiola, "Lauzirika", Markina-Xemeinen jaio zen 1933an. Lauzirika baserrian bizi izan da bizitza guztian. Umetatik bola-jokoarekin harreman estua izan du eta bolak eta txirloak egiten hasi zen 60 urterekin. Argindarrik erabili gabe egiten ditu, dena eskuz eta berak sortutako tresna batzuekin.

Iñigo Ibarra Lizundia *Ander Lipus* (1971)

Ander Lipus, jaiotzez Iñigo Ibarra, Markina-Xemein jaio zen 1971an. Antzerkiko eta zineko antzezlea, antzerki zuzendaria, bertsolaria eta bufoia da. Jon Lopategi irakasle zuela ikasi zuen bertsotan umea zelarik. Madrilen egin zituen antzerki-ikasketak eta bere ibilbide profesionala antzerkiko ikerketara eta esperimentaziora bideratu du. 1998an *Antzerkiola Imaginarioa* sortu zuen eta 2007an *Artedrama Arte Eszenikoen Plataforma,* antzerkia eta artearen lengoaiak ikertu eta sortzeko helburuarekin. Donostiako Antzerki Saria hainbatetan irabazi du.

Mikaela Ibarrolaza

Nahia Ibarzabal Gisasola (1996)

Markina-Xemeingo Barinaga auzoko Azarisabelgoikoa (Asabelgoiko) baserrikoa. Bekobentan ikasi zuen 2 urterekin hasi eta DBH bukatu zuen arte.

Nerea Ibarzabal Salegi (1994)

Zumarragan jaioa, umea zela familia Markinara joan zen bizitzera. Ikastolan hasi zen bertsotan, eta gero Markinako bertso eskolan. Hainbat sari irabazi ditu eta ibilbide polita ari da egiten bertsolari moduan. Kazetaria da ikasketaz, eta hainbat lanetan jardun du: gidoilari, kazetari, iritzi-emaile, idazle... Txakur Gorria sormen kolektiboko kidea da. Bertsolaritzari buruz egin diogu elkarrizketa: emakumeak bertsolaritzan.

Ana Felisa Idoeta Baskaran (1956)

Eibarren jaioa eta Markina-Xemeingo Lasartenagusia baserrian bizi izandakoa zenbait urtez. Iturretako eskolan ikasi zuen 10-11 urte zituen arte.

Igor Idoeta Irazabal

Bekobentako ikaslea izan zen, hiruzpalau urte zituenetik OHO amaitu zuen arte. Herriko liburuzaina eta eskolako irakurketa-planaren bultzatzailea.

Juan Irigoien Garitaonandia (1963)

Bilbotarra jaiotzez eta Lekeitioko bizilaguna. Bekobentako irakaslea 2001etik. 18 urtez izan da DBHko ikasketaburua.

Pedro Iriondo Azpiri (1925-2019)

Atxondoa auzoko Aizmenditorren jaio, hazi eta bizi izandakoa da Pedro. Aita zuen bertakoa eta ama Bauskaingoa. Gerra Zibileko oroitzapenen berri eman zigun, oso ondo akordatzen baita orduko bizipenekin: hainbat errefuxiatu egon ziren beraien etxean eta gerraostean ere estraperloan ibili zen. Gaztetan, eskola utzi eta osaba-izekoen dendara joan zen lanera Bilbora. 15 urtegaz aita hil eta etxera bueltatu zen. Etxe aurrean karobia izan zuten, bera umea zela eraiki zuten eta 1945ean utzi zioten karea egiteari, bera soldadutzan zegoe garaian. Etxe ondoko iltze-fabrikaren eta San Eufemiako elurzuloaren berri ere eman zigun, besteak beste.

Jose Manuel Iriondo Iruguenpagate (1923-2012)

Amalloa auzoko Retolaza auzoan jaio zen, 9 neba-arrebadun familian. Etxea Xemeingo herrian egon arren, elizaz Etxebarria da. Aita ere xemeindarra zuen eta ama Etxebarrikoa. Gerrako bizipenak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Maria Luisa Iriondo Iruguenpagate (1919)

Amalloa auzoko Retolaza auzoan jaio zen, eta 9 neba-arrebadun familian bera izan zen nagusiena. Etxea Xemeingo herrian egon arren, elizaz Etxebarria da. Aita ere xemeindarra zuen eta ama Etxebarrikoa. Etxebarriko eskolara joan ostean, 13-14 urtegaz, bere borondatez neskame lanetan hasi zen Markinan, bitarte horretan josten ikasi ahal izateko. Familia batean eta Munibe jauregian egon zen gerraostera arte. Eibarren eta Bilbon ile-apaintzaile lanak ikasi eta herrian bertan, Guen kalean, zabaldu zuen ile-apaindegia lanbide bereko familiako lehen belaunaldia sortuz.

Mari Jose Iriondo Zenarruzabeitia (1964)

Markina-Xemeingo Larruskain auzoko Kortatxupe baserrian jaioa. Larruskaingo eskolan eta Bekobentan ikasi zuen. Nere Sololuzerekin batera elkarrziketatu zen.

Rikardo Iruguenpagate Garate (1964)

Markina-Xemeingo Ibasetaormaetxe baserrian jaioa. Arretxinaga auzoko eskolan ikasi zuen Maritxu Azpirirekin, gero liburutegiko eskolan eta gero Bekobentan.

Jose Iturraran Larrañaga (1926)

Markina-Xemeingo Goierri auzoko Axola baserrikoa. Goierriko eskolan ibili zen. Gero, Aldapenean Maritxu Azpirirekin.

Txus Jaio Arrizabalaga (1975)

Euskal rally gidari profesional ohia, lortutako bi Espainiako txapelketengatik ezaguna. Gaur egun, eraikuntzaren munduan lan egiten du eta zaletasun gisa tokiko lasterketetan lehiatzen jarraitzen du.

Kristina Jaio Ibarluzea (1955)

Oizpe guraso elkarteko kidea izan zen.

Txomin Juaristi Arrieta (1995)

Bekobentako ikaslea DBH bukatu zuen arte.

Juliana Kaltzakorta Sololuze

Amalloa auzoko Egurrola baserrikoa.

Karmen Tere Kortabitarte Antsotegi (1959)

Eskolako irakaslea 1982tik 2019ra arte. Zuzendaritza taldeko kide ere izan zen.

Ian Laka Aldekoa (2002)

Bekobenta eskolan ibili zen bi urtetik DBH bukatu zuen arte.

Hilaria Lapazaran Etxebarria (1933)

Markina-Xemein eta Etxebarri arteko mugan dagoen Imitola baserrikoa. Larruskaingo eskolan ibili zen 7 urtetik 10 urtera bitartean.

Gregorio Larrañaga Mandiola *Mañukorta* (1943-2022)

1943an jaio zen Markina-Xemeingo Larruskain auzoko Mañukorta baserrian. Ama Etxebarrikoa zuen eta aita Mañukortakoa bertakoa. Larruskaingo eskolan ibili zen. Oso buru argikoa izan da beti, baina 5 anai-arrebatan zaharrena izanik, ikasketak ez zituela beharko pentsaturik, 14 urterekin utzi zuen eskola. 1965ean soldadutzara joan behar izan zuen eta 2 urte egin zituen marinan, Canarias gerraontzian. Soldadutzatik bueltan, 1968ko otsailaren 14an, Ameriketara joan zen artzain, 3 urterako kontratu batekin. Guztira 5 urte egin zituen Ameriketan (azken urteak bertako gisa) eta hasieran artzain gisa joan arren, azken urteetan "kanpero" lanetan ere ibili zen. Ameriketatik itzuli zenean Elgoibarko Danobat lantegian hasi zen lanean. Gero Berriatuako Cikautxo lantegira pasa zen eta bertan lan egin zuen erretiroa hartu arte. Mutikotan bertsotarako zaletasun handirik ez zuen arren, pixkanaka hasi zen bertsotan. 1966an, artean soldadutzan zegoela, Bizkaiko bertsolari txapelketan parte hartu zuen. Lea-Artibaiko kanporaketa irabazi ostean, Lekeitioko finalaurrekoan bigarren geratu zen eta Durangoko finaleraino iritsi zen. Hala ere, Ameriketatik itzuli ostean hasi zen plazetan kantatzen. Mugartegi izan omen zuen maisu. Gerora Lazkao Txiki izan zuen sarritan bertsotarako lagun eta azken urteetan Zeberiorekin ibili izan da sarri. Txiste-kontalari gisa ere jardun izan du.

Begoña Larrinaga Zelaia (1960)

Markina-Xemeingo Arizmendi baserrian jaiotakoa. Liburutegiko eskolan hasi zituen ikasketak eta Bekobentan amaitu zituen.

Maria Larruskain Arano (1918-2014)

Barinaga auzoko Etxenagusikoa.

Mari Karmen Larruskain Etxaniz (1949)

Markina-Xemeingo Larrinagatxu baserrikoa. Iturretako eskolan ibili zen.

Pedro Lejardi Goiogana *Gabixola* (1939)

Xemein herriko Amalloa auzoko Gabixola baserriko semea. Ama bertakoa zuen eta aita auzo bereko Laparrakoa. Bost neba-arrebatatik gazteena izan zen. Mutikotan Aspiltza auzoko eskolara joan zen. Lantoki desberdinetan aritu ostean, azken 30 urteak Fagorren egin zituen. Elkarrizketa egin zitzaion garaian kalean bizi arren, oraindik baserriko lanetan eta erlezaintzan jarraitzen zuen. Jaiotetxean okeletako behiak zituzten, Pirenaikak, eta horietako ederrena diputazioak Madrilera eroan zuen behin Francoren aurrean desfila zezan. Erlijioaren eraginaz, erromeriez eta neska-kontuez, baserritar-kaletar harremanaz, ohitura zaharrez, sagardogintzaz... aritu da besteak beste Ramon Anitua "Sumiña"gaz batera. Argazkian eskumaldean dagoena da Pedro.

Mari Asun Lejardi Kareaga (1950)

Markina-Xemeingo Gabiola baserrian jaiotakoa. Azpiltzako eskolan ikasi zuen. Proiektu honetarako, Mari Karmen Aldazabalekin batera elkarrizketatu zen.

Maria Jesus Lejardi Urionabarrenetxea (1953)

Markina-Xemeingo Jauregi baserrikoa. 14 urte ingurura arte ikasi zuen Iturretako eskolan.

Florita Lejardi Urkidi (1929)

Markina-Xemeingo (garai batean Xemeingo) Urberuagakoa.

Pedro Leturiondo Orbe

Barinaga auzoko Oriatxiki baserrikoa. Gerrako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, Eusebia Urkiri emaztearekin batera.

Julian Maguregi Amesti (1924)

Gurasoak Markinakoak zituen, baserrikoak, baina kalera ezkondu ziren eta bertan jaio zen Julian. Hamahiru neba-arreba izan dira Julianen etxean, zaharrenak berak baino hamabost urte gehiago eduki zituen eta gazteenak berak baino hamahiru gutxiago. Ama hemeretzi urte zituela ezkondu zen eta azken semea berrogeita zortzi urte zituela eduki zuen. Aita erementaria eta ferratzailea izan zen eta tailerra eduki zuen. Gerra sasoian, inguruan zegoen ferratzaile bakarra izan zen eta Ondarroara joan behar izaten zuen astean bitan ganaduak ferratzera. Julianek ezin izan zuen eskola handirik jaso, gerra aurrean baino ez zen joan-eta. Hala ere, fabrikan hasi zenean bertan jasotzen zituen eskolak iluntzetan. Aitaren tailerreko lanaren inguruan hitz egin genuen berarekin egon ginenean, gerrako kontuez baita gaztetako ibileraz ere (jaiak, erromeriak...), besteak beste.

Jose Mari Maguregi Arrieta (1940)

Xemeingo Oruntzekoa.

Sabina Maguregi Gisasola (1930)

Barinagako Oreibarri baserrian jaio zen, baina hogeita hiru urte zituela Etxebarrira ezkondu zen. Ama Agiñagakoa zuen eta aita Oreibarrikoa bertakoa. Ahizpa bi baino ez ziren izan, Sabina zaharrena. Ama Ondarroara, Elgoibarrera eta Eibarrera joaten zen baserriko produktuak saltzera. Ezkondu ostean, Sabina bera hasi zen plazetara joaten. Lehengo bizimoduaz hitz egin zigun berarekin egon ginenean, umetako urteez, erlijioaz eta baserriko bizimoduaz, besteak beste. Eusebia Urkiri lagunarekin batera egin genion elkarrizketa.

Mahai-ingurua Xemeinen

Xemeingo udaletxe zaharreko arkupeetan batu genituen bertako lau emakume beraien ume eta gazte sasoiko Xemein gogora ekartzeko. Hauek izan ziren protagonistak, argazkiak ezkerretik eskumara: Juanita Garramiola Irusta (1920-2013. Berriatuako Asterrika auzoko Burgainen jaioa, Ondarroako Goimendiako Ikaitabarrira ezkondua eta elkarrizketa aurreko 30 urteetan Markina-Xemeinen bizi izandakoa), Josefa Garate Arizmendiarrieta (1927an Urberuagako Askurrinan sortua eta Arretxinagako Padarran bizi izandakoa), Isabel Ugartetxea Arrieta (1918, Amallo auzoko Bauskain baserrikoa) eta Juli Kintana Ibarrolaza (1929an Aspiltza auzoko Belaustegi jaioa eta Xemeingo taberna eta denda zen Ituarten hazitakoa).

Mari Tere Mandiola Areitio (1923)

Barinaga auzoko Zubiaurrekoa.

Isidro Mandiola Solozabal (1924)

1924. urteko San Isidro bezperan jaio zen Etxebarriko Iturreta auzoko Iturretaubei baserrian. Hamabi urtera arte ibili zen auzoko eskolan eta gerra aurreko zein osteko eskolak ezagutu zituen. Etxeko aititak karlistadei buruz kontatutakoak, Errepublika garaiko kontuak eta Gerra Zibilean bizitakoak kontatuz ondo irudikatu du azken mende eta erdiko gure herriko historia. Osabak familian sartutako afizioa, zesta puntarena, izan da gerora ere bere zaletasunik handienetakoa, bi anaia ere profesionalak izan zituen eta horren berri ere eman zigun. 44 urte zituela Markina-Xemeinera joan zen bizitzera eta 1972an Esperanza lantegian hasi zen beharrean.

Sabino Mandiola Ugartetxea (1919-2021)

None Martinez Arrieta (1977)

Bekobenta eskolan ibili zen eta OHO bertan bukatu zuen.

Ismene Martinez Arrieta (1977)

Bekobenta eskolan ibili zen eta OHO bertan bukatu zuen.

Jose Antonio Martinez de Lagos Zabala (1945)

Monjas de la Caridad-en hasi zen eskolan, eta han ibili zen 5-6 urtera arte; gero Maritxu Azpirirekin ibili zen, eta gero liburutegiko eskolan.

Mikaela

Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zuenekoa da grabazio hau.

Mari Karmen Moreno Delgado (1965)

6 urterekin hasi zen liburutegiko eskolan eta 4. maila egitera etorri zen Bekobenta eskolara.

Mari Karmen Muguruza Salaberria (1960)

Markina-Xemeingo Barinaga auzoko Azkonabieta baserrikoa. Barinagako eskolan hasi zen 6 urterekin. Jabier Baskaranekin batera agertzen da elkarrizketa honetan.

Jose Odiaga Kintana (1931)

Xemeingo Ituarte baserrikoa. Gerrako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa Juan Mari anaiarekin batera.

Juan Mari Odiaga Kintana (1936)

Xemeingo Ituarte baserrikoa. Gerrako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa Jose anaiarekin batera.

Ikerne Oiarzabal Urtiaga *Visi* (1930)

Markina-Xemeinen jaio zen 1930ean. Gurasoek Visitacion jarri zioten izena, eta horregatik "Visi" deitu izan diote. Hamasei urterekin Batxilergoa egin zuen Bilbon eta 20 urterekin Santiago de Compostelara abiatu zen, bekadun moduan, kimikako lizentziatura egitera. Oviedon lan egin zuen, 1973an Gasteizera etortzeko aukera sortu zitzaion arte. Arabako Aldundiak sortu berri zuen Euskara Zerbitzuan hasi zen lanean. Ez zeukan ezer. Eta euskara zerbitzua antolatzen hasteaz gain, Ikasbidea ikastola jarri zuen martxan. Ikasbide ikastolaren 40. urteurrenaren harira kaleratu zen libururako egin zitzaion elkarrizketa.

Pedro Olabarria Laka (1950)

Bekobentako irakasle eta zuzendari ohia. Bekobentan egin du lan 1979tik 2010ean erretiroa hartu zuen arte.

Irati Onko Etxebarria (2000)

Bekobenta eskolan ibili zen 2 urtetik DBH amaitu zuen arte.

Jon Ormaetxebarria Kortabitarte (1992)

Bekobenta eskolan ibili zen DBH bukatu zuen arte.

Andoni Ozerinjauregi Egiluz (1950)

Zeanurin jaiotakoa eta Markina-Xemeinera ezkondua. Oizpe guraso elkarteko kidea izan zen, eta BIGEkoa (Bizkaiko Ikasleen Guraso Elkartea) ere bai.

Feli Pagaegi Eizagirre (1928-2013)

Goierrin auzoko Arrate baserriko alaba. Aita bertakoa zuen eta ama Amorotokoa. Aspiltzako eskolara joan zen 13 urtera artean. Gerra Zibilean milizianoak izan zituzten jaiotetxeko ganbaran bertan, beraiekin oso ondo portatu ziren eta jaten ere ematen zieten. 54 urterekin kale aldera etorri zen bizitzera. Juanita Etxanizekin batera egin genion elkarrizketa. Jaiak eta erromeriak, erremedio naturalak, nobio kontuak, erlijioaren garrantzia, baserriko bizimodua... izan zituzten berbagai.

Felix Pagegi Solaegi (1924)

Nora Robles Gonzalez (1982)

Hiru urterekin hasi eta OHO bukatu zuen arte Bekobentako ikaslea izan zen.

Arantza Sarasua Zenarruzabeitia (1959)

Markina-Xemeingoa. Larruskaingoikoa baserrikoa. Larruskaingo eskolan ibili zen 5 urtetik 13 urtera arte.

Nere Sololuze Txurruka (1956)

Markina-Xemeingo Amallogarai (Garai) baserrian jaiotakoa. Larruskaingo eskolan ikasi zuen. Mari Jose Iriondorekin batera agertzen da elkarrizketa honetan.

Anton Solozabal (1898)

Markinako Barinaga auzokoa. 1989an egin zitzaion grabazioa 91 urte zituela. Bere emaztea, Justa Madariaga (Makardagoikoa baserria, Markina-Xemein), ere bertan zegoen grabazioa egin zitzaionean.

Luis Txopitea Apoita (1925-2015)

Xemeinen jaio zen 1925ean, *Txebetxabixen*. Hamairu neba arrebatan gazteena. Gerra garaian guraso eta neba-arrebak kartzelara sartu zituztenean Zeinkeko Ormetxera joan behar izan zuen amaren jaiotetxera, bere izebarengana bizitzera. Gerra garaiko kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek 2011n (ikusi euren webgunean).

Txomin Txurruka Foruria (1982)

Bekobenta eskolan ikasi zuen, OHO egin zuen.

Jose Mari Ugaldea D´Uralde *Willy* (1965)

Markina-Xemeinen jaioa 1965ean. AEKko irakaslea eta Bizkaiko koordinatzailea izan zen. Bittor Kapanagaren "Euskera erro eta gara" liburuaren berrargitalpenean kolaboratzaile izan zen 2014an. 2017an "Euskal toponimia munduan" liburua argitaratu zuen. "Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia" dokumentalerako egin zitzaion elkarrizketa.

Jose Inazio Ugartetxea Milikua *Fotero* (1943)

Zeharkalean jaio zen "Fotero" zesta-egilea. Okina zen amamarengandik jaso zuen ezizena. Aita ere okina zuen, eta, tarteka lanbide horretan aritu arren, gazterik hasi zen herriko zesta-puntako pilotariek hain beharrezko zituzten zestak egiten. Juan Gerebarrena `Larriñe´ k erakutsi zion dakien guztia. 17 urtegaz Mallorcara (Balear Uharteak) joan zen pilotari eta zesta-egile bezala, 1964an Kanaria Handira (Kanariar Uharteak) eta beranduago Miamira (Florida, AEB). Gugaz egon zenean, erretiratuta egon arren, oraindik bere taillerrean gogotsu zebilen hurbileko pilotari batzuen enkarguak egiten. Zesta bat pausuz pausu nola egiten den erakutsi zigun.

Miren Unamuno Bereziartua (1933)

Iturreta auzoko Sakoneta baserrikoa. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko.

Gregorio Urizarbarrena Garramiola (1951)

Markina-Xemeingo Ategurentorre (Ateun) baserrikoa. Azpiltzako eskolan ibili zen 7 urtetik 12 urtera.

Gregoria Urkidi Alzibararetxuluaga (1934)

Markina-Xemeingo Barinaga auzoko Oriagatxikia (Oriatxiki) baserrikoa. Barinagako eskolan ibili zen.

Eusebia Urkiri Lejardi (1933)

Xemeingo Saratsu baserrian jaio zen eta Etxebarrira ezkondu zen hogeita bost urte zituela. Ama Bolibarkoa zuen eta aita Xemeingoa bertakoa. Bederatzi neba-arrebatatik bigarrena izan zen. Hamar urte zituela, tuberkulosia harrapatu zuen eta bost urte eman behar izan zituen Gorlizko sanatorioan. Hori dela-eta, eskola gutxi jaso zuen Eusebiak. Hala ere, oroitzapen onak ditu urte horietaz, ondo zaindu zutela dio-eta. Umezaroaz gain, aitak egiten zituen txondorrez ere hitz egin zigun, eskolaz, umetako jolasez eta gaztezaroko urteez, besteak beste. Sabina Maguregi lagunarekin batera egin genion elkarrizketa.

Xabat Urresti Olaizola *Xabato* (1988)

Markina-Xemeinen jaioa 1988an. "Telekomunikazioak eta informatika sistemak" goi-mailako zikloa egin zuen lehenbizi eta gero "Erregulazio eta Kontrol Automatikoko Sistemak". Bere denbora librean aisialdiko hezitzaile moduan ibiltzen da Markina-Xemeinen bertan, baina bere zaletasunik handiena rallyak dira. Kopiloto gisa ibiltzen da lasterketetan, eta baita antolatzaile lanetan ere Lea-Artibaiko rallyan. Gai honen inguruan hitz egin zigun batez ere, Mirari Azkune adiskidearekin batera egin genion elkarrizketan.

Maria Urriolabeitia Urkidi (1933)

Amalloa auzoko Laiz baserrikoa.

Jose Mari Urriolausokoa Laurizika *Lezan* (1918)

Atxondo auzoko Lezan baserrian jaio eta bizi izandakoa. Gurasoak ere xemeindarrak zituen. 11 neba-arrebatatik gazteena izan zen. Jose Mari eta beste bi anaia gerran aritu ziren borrokan, baten berri ez zuten gehiago izan Lemoako batailan hil baitzen. Umetan gutxi joan zen Arretxinagako eskolara eta batik bat baserriko beharretan aritu izan zen.

Dzenana Usanovic Guso (1989)

Sarajevon jaio zen. Hiru urte zituela etorri ziren Markina-Xemeinera Bosniako gerratik ihesi. Bekobenta eskolan ikasi zuen DBH.

Juan Zabala Sololuze (1936-2010)

Amulategin jaio zen. Oso gertutik bizi izan zuen gerra zibila eta haren inguruko kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek 2010ean (ikusi euren webgunean).

Juanita Zelaia Balenziaga (1918)

1918. urtean sortu zen Aspiltza auzoko Askurrina baserrian. Gurasoak auzokoak bertakoa zituen, hamaika neba-arrebatatik hirugarrena da. Zazpi urterekin Aspiltzako eskolan hasi zen. 17 urterekin neskame joan zen Ondarroako kaleko etxe batera eta bertan egon zen lau urtez. Gerra sasoian, Ondarroan egon zen eta zazpi hilabetez etxekoen berririk jakin barik egon zen inkomunikaturik. Baserriko lanetan ibili izan da beti. 28 urtegaz Etxebarriko Aulesti auzora ezkondu eta geroztik bertan bizi izan da. Beraiena izan zen Etxebarriko Txominen tabernan ospatutako lehen ezkontza. Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko (ikusi euren webgunean).

Luisito Zelaia Balenziaga (1925-2018)

Xemeingo Amallo auzoko Askurrina baserrian jaio, hazi eta bizi izandakoa. 11 neba-arrebatan, zazpigarrena eta lehen semea izan zen. Aita bertako semea zen eta ama Gatzatu baserrikoa. Bederatzi urterekin Urberuagako kapillan monagilo lanetan hasi zen eta eskolara joan orduko bertan aritzen zen; hori dela-eta, askotan berandu joaten zen eskolara. Gerra Zibilean bizi izandako oroitzapenak bizi-bizi ditu oraindik ere: Agarre baserriko mezan monagilo lanetan aritu zenekoa, 7 hilabetez artzain etxetik kanpo egon zenekoa, etxe osteko lurpeko ezkutalekuak, osabari irrati eta txakurra errekisatu ziotenekoa, etxea milizianoentzako taberna legez funtzionatu zuenekoa, Urberuagako soldaduen egonaldiak, errotara gauean egindako osterak... Ikazkin beharretan bi txondorretan ere aritu zen gaztetan eta lanbide horren berri ere eman zigun. Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko (ikusi euren webgunean).

Mari Luz Zelaia Guenaga (1951)

Markina-Xemeingo Oxillain baserrian jaiotakoa. Arretxinagako eskolan eta liburutegiko eskolan ibili zen.

Pedro Mari Zelaia Totorikaguena (1950)

Aita Aulestikoa zuen eta ama markinarra. Arretxinagan bizi ziren. Bost senide ziren. 1973an AEBetara joan zen (aurretik amaren bi lehengusu joan ziren), artzain, hiru urteko kontratuarekin. Hammet herrira joan zen (Idaho), Wilber Wilsonen arrantxora. Lau urte egin zituen lan horretan eta ondoren ganaduarekin hasi zen, beste arrantxo batean (30 urtean). Amerikar batekin ezkondu zen (Betty) eta Mountain Homen bizi da.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Mutil aberats baten pasadizoak

- **Hizlaria(k)**: Solozabal, Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrieta, Aintzane
- **Erref**: MAR-003/001
- **Iraupena**: 0:05:05. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:05:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Ezkontzera zihoan mutil aberats baten inguruko pasadizoa kontatzen du.

Transkripzioa
Mutil aberatsan kontuoi ordun esan biherko dogu /bikogu/. Hori mutil bat ei zan, aberatsa edo, behintzet ondo bizixe edo... holan, ezta? Baiña berak pentsamentuen euken, bere zerien, neska ederra ta aberatsa izen biher eban. Halan, denporie beti aurrera juten da, ta ezin eban /eziban/, hori aberatsa bazan, pobrie, aberatsa bazan feie edo, bere gustokue ez zan behintzet. Diruduna bazan, zeozer beti.

Halan, igerri barik, denporie aurrera jun jakon hari be. Ta gero heldu zan berrogeta hamar urtera, ta bigotiek eukezan. Ta bigotiek urdintzen hasi jakozan. Disimuletako, botikie edo inbentue eitten eutsen. Gero buruko miñek hartzen eben. Jun zan medikuana, ta medikuk esan eutsen /esatzen/ eze: "Ezkondu, edo bigotie kendu!" esan eutsen, erremedixue. Ez eban nahi bigotie kentzeik be, baiña, ba, ezkontzeko ta, neska bat gustau jakon berai, baiña ezin eutsen /ezitsen/ esan hala ta hola, behintzet sasoie bigotie kendu barik, zertzeko ta abar. Baiña amai ein eutsen errekaue. Amak baietz, aberatsa zala ta... berak nobixue eukela ta ez. Ta holan ibilli zien. Baiña tire ba, amak derrigorrien edo ez, konbentzidu eban.

Halan jun zien kontratue eitten. Kontratue zer dan jakingo dozu /jakingozu/ zuk. Kontratu eitten jun zien. Eurixe eitten ei eban /eixeban/ gogor, "gaur euri-egun handixe edo" baten batek esan. "Bart nire gerrixek ezagun izen dau zer eitten eban". Neska hori jagi edo, hanka eitteko edo, geldi egoteko

andriek bere onduen azkenin domiñau eban edo, tire. Aurrera! Ostabe ein eben /eiben/ eskriturioi, ta bueno, firmau ein biher zala /bizala/. Gizona zala lehenengo firmetako ta, kolkotik antijuk ata ei zittuen, ta esan ei eban /eixeban/ horretxek neskiorrek gerrixen pronostikue ta kolkun bistie eukenik berak ez ebala biher...

Gero zertzen nobixuaz, esan eutsen /esatzen/: "ezkondu ein biher dogu /biogu/, bestela ama gurik ostera be enplaston bat jirauko doste ta, ezkondu ein biher dogu /biogu/.

Ezkondu ei zien. Baina enbidixie bestiorrek be, ta baserrixen, nik ez dakit nun izengo zan hori, baiña dana dala, bakizu lehena, oin pistie da danetako, baiña lehena sasi bittarteko bide zaztarrak zien. Ta halan gero, jentie, gero, mezeta be bakizu oin [mihetz] juten da, baiña ordun danak ixeixe... Ba, [por milagroz] egongo zan Bariñan be, ez zan egongo bat mezaik entzuten ez ebanik, saso haretan, baiña, dana dala, geure denporan be.

Ta halan, zeleta eitta juten zan, zeleta zer dan jakingo dozu /jakingozu/ ezta? Bai, konparaziñorako, ba, harek hemen bizi die, ezta? Konparaziñorako, hemen deuke euren kuartue, ta hor bentanatik obserbaziñoie, haren inbidixie, gixajue be ha zeozer.

Obserbau ein eben /eiben/... Zapatu baten, zain edo ta etorri zan zeletara edo. Ate bi eukezan etxiek, bi estuek izengo zien lehenengokuek. Halan, andra-gizon zaharrak ate batetik etorri zien, bestetik erdixen hartu eben ta harrrapau eben. Sartu eben barrure ta, kuarto batek giltze emotekue baeuken itxurie, ta han sartu eben ta goxera artien han euki eben.

Gero mezeta jentie joien sasoien, bakizu, lehena aldrak juten zien. Ta halan, mezeta jentie joien sasoien agindu eutsen kendu erropa danak, ta zera euken guztixe joien bille... Neska aldra bat joien kontizu, ta harek garrasixe, piztixa bat ete zan edo... albuta alde ei zien [...].

Gelditzeko esan eutsen, harek baekixen pertsonie zer zan, ta dana dala. Harek geldittu, ta amantal bana [...], batak aurretik epiñi eutsen /epiñitzen/, ta bestik atzetik, ta gero halan jun zan [...]. Behintzet disimulautxua gero. Halan amaittu zan hori.

1.2. Morroi baten inguruko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Solozabal, Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrieta, Aintzane
- **Erref**: MAR-003/002
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:05:05. **Bukatu**: 00:09:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Morroi baten inguruko pasadizoak kontatzen ditu; astoarekin gertatutako komeriak.

Transkripzioa
Ta gero beste morroi batena esango (do)tsut, ezta? Morro(i) bat zan, baserri baten euen morro(i), baiña zan pixkat urtitan aurra joiena ta edadie be pixkat [...]. Ez holako dana kabal-kabala be, itxurie. Halan, ze einde, holako lekuen bizitte Bariñara lez bajau beste partien gora junde, ei eukezan terreno zati batzuk. Halan, hara batien bedarreta, bestien belarrondota, hurrengo simaurre eruta, "saratsa" esango (do)tsezue zuek, simaurre. Juten zan ganauekin ta han gaiñien benta bat euen. Bentak badakixu zer diren? Lehena, holako karamateruek eta karreteruek eta, Naparru aldera ta hemendik burdi galantekin juten ei zien. Ta han trabakue, benta zaharra ta lez, gainien benta bat eitxen eben. Soloko biherrak edo jira-birak eitxen etxerako edo, bentara juten zan. Ta han neska bat mostradorien ta tontakerixak esaten haregaz egoten zan. Txikitue edan ta txikitue... azkenerako politto plantau...

Egun baten bedarronduta jun zan. Bedarrondue zer dan jakingo'zu ezta? Bedarra siketu eitten da negureko, hori jakingo'zu. Bedarronduta jun ei zan ta, lehen esan dotena, han gelditzen zan, illundu artien hantxe [...] Pentsau eban bastante zertute euela, burdi gaiñera igo eban. Por si akaso lotu zan, baiña hankatik lotu! Gero behera bajau zien ganauek eta errebillie hartu etxerako, biderako, kunetie albuen, badoie ganauek ardaran hartu dabela ta kunetien rans... ein dabenien burdixek, jausi da!... [...] Atzera gaiñien plantau, ñiau... emo(n)´tsen ganauek. Ta juen zan, etxera, ondo, ez jakon okerrik gehixau pasau ta, ondo.

Gero beste baten be jun zan, simaurre eruten jun zan. Han beheien gora eitxeko astue erun eban aurrerixe eitteko, tiretzeko, ganauei laguntzeko. Ta halan astuoi erun dau, ta lehen esan dotena, ein dau soloko hustu burdixoi ta bentan sartu da ta ostabe lehena...

Astue lotu etsen burdixai atzien ta, baiña mutil gaztiek, estudiantiek esaten jakuenak, mutil gaztiek, ha barruen zan bittartien burdixe kendu ta burdixan giñera astuoi sartu... lotute.

Gero emon deutse eurixek ta trumoiek. Bera penaz edo, bastante hasarre samar joien. Astuoi atzetik soltetako jun da ta, koño, astoik ez! Ta nagusixai edo ugazabai esateko bajoian armailletan gora ta oiñaztu batek argittasunien nun ikusten daben astue burdi gaiñien. Astuoi emon ei eutsen eurek bera ta oiñez ta ganauek... ta astue burdi gaiñera igonda! Baiña berak ez otsen igon, estudiantiek lotu eutsien. Jo eban makilliaz musturrien ta ein eban tirekadan eten eban sokie ta jo eban behie astu horrek ta jota seko bertan akabaute gatu jakon.

1.3. 'Pernando amezketarra'ren pasadizoa

- **Hizlaria(k)**: Solozabal, Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrieta, Aintzane
- **Erref**: MAR-003/003
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:09:10. **Bukatu**: 00:11:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Pernando amezketarraren pasadizo bat kontatzen du.

Transkripzioa
Pernando egun baten jun zan, badakizu pobre bizi zan, bederatzi seme-alaba be bai ta, sagar landara batzuk saltza jun zan astuaz Tolosara. Tolosan saldu zittun sagar landarok eta, dirurik ez eban sekula eukitxen hak, ez erregular. Alperraua izen biher eban... ta gizon txiki bat ei zan. Saldu zittun sagar landarok, astue arboliai lotu ta edatera. Badakizu, gustetan jakona zan ta, kontizu.

Politto edan dau ta gero astue ahaztu jakon ta beran lagunekin etorri zan Tolosara. Tabernan akordau, orduntxe, berak astue zelan itxi eban zerien. Baiña astue, baten batek soltau edo halan-holan behintzet, bera etorri zan etxera ta ate onduen arrantza egin ebanien andriek sartu eban barrure. Andriai, asmau eben gizon batek behixe erosi ebala txahal txikixaz ta astue eskatu eutsola txahal txikixe eruteko ta halan emon eutsola. Tire ba, halan jun zan, andriai halan esan eutson ta bueno. Andriek astue oillotokixen euken baiña ez eutsen kontraziño bat be...

Bixamon goixien ekarriko ebala ta juen zan han lotute euki eban lekure baiña han astorik ez! Ostabe ze esan pentsau eban: behixek, asto gainien txahal txikixe halan ikusi ebanien, adarraz jo eta mankau egin ebala astuoi. Halan ekarteko, berak ezautu ebala ta, baiña egun batzutan han euki ta gero ekarriko ebala esan eutsen.

Horretxek esanten diharduela, barriz, astuek arrantza! Ta andriek esan eutsen: "Oillotokixen dauena astu handixe, baiña hi haundixaue" esan eutsen.

1.4. 'Pernando amezketarra'k txerria ostu zuenekoa

- **Hizlaria(k)**: Solozabal, Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrieta, Aintzane
- **Erref**: MAR-003/004
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:11:15. **Bukatu**: 00:13:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Pernando amezketarrak apaizari txerria ostu zioneko pasadizoa kontatzen du.

Transkripzioa
Pernando, ba, e, abadiek txarrixe hazi (e)ban ta aurreko urtitan herri guztixek eruten otsezan erregaluek ta gero ba txarrixe be abadiek eitxen (e)ban. Bariñakuek be hazten (e)ban, Don Inazio, zuk eztakit ezautuko zendun [...] eukitxen eban txarrixe handixe.

Halan, abadiek txarrixe hazi ei zeban. Aurreko urtietan beti danak

erregaluk eruten otsiezan, herri guztixek, ta pentsau (e)ban haren beste zor daukela. Pernando listue zala ta, pentsau (e)ban Pernandorena jun... ta esa(n)´tsen Pernandok zera... horrek erremedixo erretza dauke ba... hiltzeko txarrixe ta eseteko balkopien. Ta gabien barrure sartu ta ostu ei(n)´tsuela esan. Horrena einde deukela. [...].

Bildu (e)ban harakiñe edo karnizeruan bille krixedie ta hilde epiñi (e)ban balkoien. Gaberdi ingurun barrure sartzeko esa(n)´tsen baiña Pernando bera junde gabeko hamarretan ostu´tzen txarrixoi. Bixamonien han ebilen, zera, txarrixe ostu´tziela eta, "Bai, holantxe esan bida, bai" esaten otsen Pernandok. "Ez, baiñe benetan". "Bai, benetan, olgetan barik" esan bi´dala Pernandok esaten otsen. Ez, baiña zera, txarrixe ostu ei(n)´tsela ta. "Ostu txarrixe?" esan utsen, halako baten, entendidu [jauan]. "Ba etorri nigana, errezelu baukezu etxe dana erakutsiko´tzut". Ez eukela berak errezeloik. Baiña baietz eta erun (e)ban. Zera, kuman, ez zan txarri handixe izengo, umian kuman, umie txarrixan gañien. Erdi negarrez ei zeuen umioi, ta andrioi berai eraitxen. Bazter guztixek errejistrau bezan baiña ha kumie ez eben errejistrau...

1.5. Aulestin sorgin batekin gertatutakoa

- **Hizlaria(k)**: Solozabal, Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrieta, Aintzane
- **Erref**: MAR-003/005
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:14:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Badiola , Lexuri
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Aulestin mutil bati sorgin batekin gertatutako pasadizoa kontatzen du.

Transkripzioa
- Ba holan nik ez dakit nun izengo zan baiña…
- Allustin (Aulestin) nunbaitten.
- Bueno e zuek e ia hori iñun bez ez da pasauko eta hori ba halan ba e. Mutil batek e sorgiñe e ein ei zeban aixkide, haixe ein ei zeban. Ta gero etxekuek ez ei zeben nahi ixen, ez ez ei zeben nahi ta bera iñundik iñora ezin galazo mutil horri ta sorgin horreaz trateta ei zeben mutil horrek. Eta halan be zer ein eben ba, mutil hori? ba sorgin batek haitzik ez zeben nahi ixan eta ortuen e ebai ta mutille odolustute hil ein eben. Ta gero ba e gaubelie edo danalakue da “ra!”. Berez e […] andriai, urrezko zer esango dotsut ba nik? Urrezko sobrekamie edo dana dalakue, sobrekamie edo dana dalakoa zertu ei zan eta esan ein zeben ba ze: “ez zaittu ba atzera erungo”, ta hortzakin josi jasi […], baiña eguna zabaleran hor da atzera uztailian seixan errezibiduten juen. Siñesten dostezu?

1.6. Sorginkerien inguruko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Solozabal, Anton

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrieta, Aintzane
- **Erref**: MAR-003/006
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:14:50. **Bukatu**: 00:16:16
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- **Laburpena**: "Aramaitako" kanpaiak joz gero, etxe ondoko iturrian gertatzen zirenak. Auzora etorri zen emakume batek sorginak ikusten omen zituen.

Transkripzioa
Neure ama zanak eta be... lehena itturrixe... oin ure harrixen eta ekarritte deukegu ta ure nahiku deukegu, baiña lehena soluan barreneko zuluen euen hiru etxentzako itturrixe. Iñoz, "aramaittekue" esaten jakon, oin jo be ezta eitten. Etxebarrin be ezta joko, ezta, aramaitteku? Joten da oin be? Bariñan ezta joten. Aramaitteku jo ezkero, gaizkillek ibiltten ziela ta, [illintzixe] sartzen otsen urai. Hori beroi da... esate baterako. Hori fedioi, nik ez dot izen. Neu adiña heldu nintzenetik aurrerakuek die horrek gauzok. Ni txikixe nintzenekuek, hamabi edo hamahiru urte neukezela hil zan. Horrexetako fedie eukien. Ta gero, ikusixek eta... Maruri aldekuek eta etorri zien, Aulestitik, errenteruek. Oterrekue, Juantxo Bariñako ezautzen dozu, ez? Horretxen jaixotetxekue zan andrie, ta gizona, zerekue... Aitteginarreba ta amagiñarrebaz, hara ezkondu zirela uste dot baina horraxe etorri zien ni txikixe nengula, errenteru. Kornelia eban izena amama horrek, eta harek sorgiñek eta ikusten ei zittuen.

1.7. "Sasi guztien gainetik..."

- **Hizlaria(k)**: Solozabal, Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrieta, Aintzane
- **Erref**: MAR-003/008
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:17:18. **Bukatu**: 00:18:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Sorginen "Sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik" esaldia alderantziz esatearren, behin bati gertatu zitzaiona.

Transkripzioa
Hori egitten dabe ba, eguenetan, "sasidxen gaiñetik eta hodeidxen azpittik"? Lehena ama-alabakin morroi ei euen mutil bat. Bera ohera bidaltzen ei zeben eta eurak ezkatzien geatzen ei zien. "Zegaittik geatzen die, -pentsau eban- horrek zer egitten ete juek..." Han ez dakit zelako [...] zulo batetik atera ei zeben botilla moduko katxarro bat eta, zera, handidxek atera eben zeozer ta buruko uliek orraztu zittuen. "Hodeixen azpittik eta sasixen gaiñetik" esan eta tximinidxan gora jun ei zien. Bera be zelatien geratu zan, ohera jun barik. Berak be pentsau eban: "Ni erungo ete najak?". Aprobie eitteko, baiña, bankillue, jarteko bankillue bakizu zer

dien, porsiakaso, hankatik lotu eban bankillue, tximinidxan gora pasau ez eixen. Baiña ein dau botikioi ta harek... zer esan ez ekixala "Sasixen azpittik eta hodeidxen gaiñetik" esan eban. Aiba! Urten dau, beran bankillo ta guzti, urten dau, goidxen laiñuez gain pasau zan ta hurrengo sasidxen azpittik.

1.8. Jentilen inguruko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Solozabal, Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrieta, Aintzane
- **Erref**: MAR-003/009
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:18:48. **Bukatu**: 00:21:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Badiola , Lexuri
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Jentilen inguruko kontuak.

Transkripzioa
- Oizeko istoridxena.

- Bai ba Oizen jentille, jentille bat ei zan Zekeridxan, zelakua itturrietatik aurreratxuago mendidxek honantz heltzen diren bide bat euen eta hantxen pare onduan euan Zekeridxua esaten dxako. Eta han euan jentil bat, hanka bakarra ei zan, hanka batekua ei zan-ta, baiña paleti handidxe, hanki bera eutsi soñin lepo gaiñean plantaute hara eitten eban aterpera. Ta gero ardidxek eta bere eittekuek eukazan hor, halan da, zera e belardixok ein dan eua zan da, baiña Oizen be beste jentil batzuk eta tratatzen ei zeben didarraz-ta, bestela be tratako eben kontixu baiña dana dala. Ta gero mutil koskorrak, ez dakit nik zelako mutil koskor batzuk jun die, hantxe zertu die eta zera e zelan e zizuen izenak eta batek “Nadie” esan ebala esan zetsen izena ta bestien izena ez naz akordetan eta zelako izenak eta zera, e gero jentille horrek jan eta, juan die bere etxera edo danalako lekure, ta jentil horreaz kontu-kontu, mutil koxkorra konfixantzie hartute ta zer ein eban jentil horrek e? harri handidxe hartu e, harri handixe eta atiari ipini eban , “koño hontxe gazak ondo!” pentsa ein eben eurek, eta halan ba orixu ixaten dan leku bertan ipiñi ei zeban jentil horrek ta lukartu ein zan bera, eta zer ei zeban ba “Nadie” izena eban horrek? hartu ta “ba!” begi bistara jaurti otsen ta itsututa gelditu zan eta aittitteri diarka […] horrek, eta “¿quién te hace daño?” esaten eutsen Oizkok eta “Nadie” ez, “Nadie”, eta zer jainkoan milagroren bat izango zala ta ez ziren atrebitu etorten Zekerixora, ta ba besti horrek zer ein eban ba, ez ebela urteko zera e bera zertu barik baiña ardi-narru mordu zeukezan ta ardidxei izenaz deitzen zotsen, danak han bere izenaz juten ein jakozan atin, eta denak lepun ikusite aurrera bialten ein zittuen. Zer ein ben mutil koskorrok e? hartxe ardi-narruak hartu behien gainetik eta ardidxan izenien zertu ta lanian ikusi aurrera, azkenengoa konturatu zan baiña azkenenguk e kolpe zotson gogor ardidxai lanetik, baiña zera narrutik, baina azpittik urten eta hil ei zen bera eta halan danak apartau zien.

1.9. Jentilen inguruko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Solozabal, Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrieta, Aintzane
- **Erref**: MAR-003/010
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:21:35. **Bukatu**: 00:22:34
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Urkaregi , Amaia
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Oizen jentilekin gertatua.

Transkripzioa
- Hori politte da, konteu [...].
- Hori, hori, bueno hori ixengo da baiña ez dakit baiña, Bueno Oizen Oizko harrixen errotarridxek eitteko-ta harri klasie da, ezta? Entenditzen dozu? errotarrixe, bata harri bat azpitxik ta bestie gaiñetik lehena urune eitten zan ta oin ez dakit ba, ta holako errotarridxek zertzen ziren. Ta jun zan jentil bat Albizuri, hortxe Ixura allau baiño beheratxua, ta baserridxe ia oin ia deseindde eongo da ha baserrixe da baiña Albizuri. Eta gero, Oizera jun eta errotarri bi ein ta pikatxoi kirtenie hartun lepun eta jentilla ei joien ta ya Eibarrera monteten joien-edo juteko ta “bai”, bostortzetan ei ziharduen zerorrek ta halanik ikusi banien errotarridxek lepuen zittuela berak be bostortzetan ei ziharduen, bost hortzeko herraminttie ididxek aurrin ta eskukin altzau holan ididxek eta hor mendixan ostin erakutsi otsen.

1.10. Kobazuloko deabruaren ipuina

- **Hizlaria(k)**: Solozabal, Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrieta, Aintzane
- **Erref**: MAR-003/011
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:22:34. **Bukatu**: 00:23:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Herriko pertsonaia baten eta kobazuloko deabruaren inguruko ipuina.

Transkripzioa
Ta gero bai, e, Juanillo ei zan gizon handixe ta gogorra be bai, ta... kueban baten diabrue euela han ta zertu ei zien. Ta bakarrik ez ei zan atrebitzen deabru horren bille juten Juanillo hori, baiña beste bi topau zittuen: burdi-bolantie ta idixek errekan lepun hartute paseten zittuna bata, ta bestie, jo ipurdixaz ta mendixek zapaltzen zittuna. Jun die kueban barrure; horretarako, mille kinttaleko katxiporrie eruban txaleko-botoitik eseitte Juanillok. Beste bixok garbittu ei zittuen diabru horrek, baiña etorri ei jakon berai, ta jo ei xeban burun diabrue... baiña diabru gogorra. Mihiñe hagin bittartien suertau ta, hagiñen bittartien jota erdibittu ei zan mihiñoi. Baiña Juanillo horrek atzera be urten ei xeban, diabruoi han gatu ei zan baiña...

1.11. Eskolako ebaluazio sistema

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/004
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:03:15. **Bukatu**: 00:04:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Neska-mutilak elkarrekin ibili ziren eskolan ere. Zer ikasten zuten. Ebaluazio sistema. Maistra.

Transkripzioa
- Ta mutillekaz olgetan zenduen?
- Mutilek-neskak, gu eskolan be, mutilek-neskak egon giñen. Bai. Mutil ta neska, nahaste. Maistriaz edo mutilek-neskak. Harek ipintten eban sesiñoi, ezta? “Primera sesion, segunda, tercera” ta “elemental”. Eta gero ba gehixen ekixenenetik sesiñoien, segixen. Ta gero ba maistriek urteneran, beno lelengo hortako eitten euskun lez, lesiñoie ta prolemak-eta hartzen oskuzen /hartzoskuzen/. Ta gero, ipintte eban ondo bazenkixen, ipintte eban, “muy bien”. Harek balixo eban, bost punto; ta “bien, cuatro”; ta “bastante bien”, hiru punto; “Regular”, punto bi. Ta gero zero, txarto-edo faltetan bazendun, zero, ta harek kentzen zittun bost punto, kentzen zittun. Eta gero hillan azkenien kontau puntuek danak. Ta zeiñek gehixen euken, ba aurreratu ze-zerien, beran sesiñoien, aurreratu. Ta gero urteneran, maistriai emoten geuntsen bueltan eskolan zenbat, ze etara gendun. Ta apunteten eban harek kuadernun, ta hilie allegaten zanin, pasau bata ta bestie, kontau harek. Ta zeinek gehixen euken, hoixe. Bai.

1.12. Eskolako liburua; euskaraz egiteagatik zigorra

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/005
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:04:49. **Bukatu**: 00:07:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena**: Liburuak eskolan bertan izaten ziren: historia sakratua, aritmetika, higiene... Mapak. Maistrak ez zekien euskaraz eta beraiek erdaraz ere ez. Euskaraz egiteagatik zigorra: karretea eskuz esku.

Transkripzioa
- Eta libururik-edo euki zenduen?

- Bai. Ene liburuik? Beno, liburuk bertan eskolan eukitten genduzan guk. Eskolan, “Historia Sagrada” ta Aritmetika ta horrek, emoten genduzen. Arimetika, ta “Higiene”, ta “Ciencias Fisicas”, ta zera be bai, kapitalak Espaiñakuk. Ta Ameriketakuk be bai. Eta gero ba, mapatan, mapan danak errekak-eta ikusten genduzen. Zein erreka, ta mendixe zein-ta, horrek danok, erakusten dozkuzen. Maistra ona izen zan gurie.
- Nongoa euki zenduen? Nongoa?
- Bilbokue-edo zan, ta ez ekixen euskaraik, ta guk erderaik ez, Guk erderaik bapez. Ta gero, ipiñi oskun /ipiñiskun/ euskeraz ein ez deigun karretie kastigue, karretie pasau: ta justamente, nik berba eitten baneban euskaraz, zuk niri pasau karretie, ta nik beste bati. Ta holan karretie bizkor ibili zan lelengotan. Danak eskas, ez genkixen ezebe-ta. Gero ipiñi oskun /ipiñiskun/ karretie azkenin eukenai, kastigue. Bai, hoixe, holanxe, bestela ez genkixen erderaik. Ta berak espliketeko, ez ekixen euskaraik, ba, txarto. Bai. Eta hori ikesteko kalte handixe zan. Ze zuk leitzen zendun, baiña ez zenkixen zer esaten zendun. Kalte handixe.
- Ta ze kastigu-edo izeten zan?
- Ba kastigu izeten zan hoixe puntuk kendu edo errekreo barik itxi edo holakoxi. Bai, kastigu, hoixe. Ez aban harek iñor jo eta holan eitten.
- Ez. Ona zan orduan?
- Bai bai, erakusten ona. Harek, haren kastigu. A, ta “sin comer”, hori be esaten eban, beste bat. Beste bat ez bazan leziñoie eiberdixen: “sin comer hoy, te vas a quedar sin comer”. Ta hori. Eukittie pixka baten ta gerotxua. Ta hoixe zan “sin comer”oi; berandua, pixka baten han ikesten.

1.13. Eskolan bazkaltzeklo aukera zegoen

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/006
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:07:05. **Bukatu**: 00:08:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Eskolan jaten zuten urrutikoek, baina beraiek ez. Maistrak ere bai; Markinan bizi zen, eta egunero bizikletan joaten zen. Sukaldaria ere bazuten, eskola diputazioarena zen eta. Eskola non zegoen.

Transkripzioa
- Ta bertan jaten zenduen?
- Bertan urriñekuek jaten eben. Mendixetan urriñin bizi zienak. Baina guk urran geunken. Bai eta gu gure etxie eskolatik bistan euen, bertan urran. Baiña urriñekuek, ba goxien etorritte ezin leixen atzera etorri. Mendixetan iguel Santa Eugeni ingurun-edo han goixen, Txepetxabixekuk, Axolakuk ta horrek, ta ba harek bertan jaten eben. Ta maistri bera be Markiñen bizi zan. Ta eunero etorten zan bizikletan; negu ta ude bizikletan. Ta eskolan bertan jaten eban. Gero eskolan, koziñi ta danak. Diputaziñoiana zan ba, “escuela, escuela barriada” zan. Ta diputaziñoiek zertzen eban. Ta harek, koziñi ta danak ipiñi oskuzen; eskoliai ipiñi eitsezan koziñie ta platerak eta maixok eta ezkatza konpleto. Ta gero ba, lan bik eitten eben, eskola juten zanien

ba, maistrik be bertan jaten ebanetik, maistrian lapikotxue bestien zerai, kargu hartuz egoten zin bi, neska bi txandan. Egoten zin.
- Ta eskolie, non egon zan, Azpiltzan edo Urberuan?
- Bai, Azpiltzan. Hointxe be hantxe da pasaizin. Bai, Azpiltzan. Bat da eskola bat euen andrazkuena, maistriana; eta besti mutillena. Bi eskola junto. Baiña barruen lelengo mutillek eote zin eskola baten eta bestin neskak. Baiñe gerora, neskak eta mutillek eskolan nahaste. Bai.

1.14. Maistrak fama ona zuen

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/007
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:08:47. **Bukatu**: 00:10:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena**: Nongo umeak joaten ziren eskolara; Ondarroatik ere bai, Maria Angeles Agirre maistrak fama zuen-eta. Azterketa eta inspektorearen bisita. Pizarra, bakoitzak berea.

Transkripzioa
- Eta nongo umiek joaten ziñien hara?
- Ba hantxe ingurukuek. Eta Berrittutik be bai batzuk. Maistrik famie hartu eban, ba. Bai, fama haundixe hartu eban. Ta Ondarrutik be batzuk, etortzen zin. Fama haundixe hartu eban.
- Ta maistrin ixena?
- Mari Angeles Agirre. Bai. Ta ha asko etorri zan eskola hara. Ta bueno! Harek ondo erakusten eban. Ta gero eitten eban urtien hori, examiñak ipintten oskuzen. Ta etortzen zan ispektorie, etortzen zan Bilbotik: don Pedro, gizon txiki bat. Eta hori examiñak eukazanako, maistri elegante ipintzen zan. Uniforme azulek geunkezan eta gero ipintten ozkuzen, lazo zurixek lazo handixekin, papel, zedazko zurixe-ta ipiñi ta hori. Gero preguntak, sesiño bakotxai preguntaten otsen /preguntatotsen/. Eta preguntak eta esaten oskun /esatoskun/ maistrik: “Bueno, zuk ez badakizu, ta nik jakin harek preguntaten dabena, esateko hari”. Ispektoriek, ez eban nahi izaten hori. Baiña maistrik, bai. Klaro, maistrik esaten bana, batek be ez badaki, ba, erakutsi ez daben itxurie, ezta? Baiña batak eta bestik badaki, señalie erakusten, berak zertu dabena, erakutsi dabena.
- Beran fallu ez dala?
- Ez dala beran fallue, bai.
- Eta holan pizarrarik-edo?
- Ene! pizarrak be bai! Pizarrak eukitten genduzen bakotxak beri. Bai mahaixen eskolan hantxe, beran izenakin-ta. Liburuk be bai. Mahaixan hori eukenetik zera gordeteko leku, hantxe. Lelengo jun giñen eskribitzeko, plana-edo esaten jakona. Letrak eukezena, haren gaiñin ein ta ikesteko.

1.15. Nahiago eskola, etxeko lanak baino

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/008
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:10:58. **Bukatu**: 00:13:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
  Aisia » Oporrak
- **Laburpena**: Adin askotako umeak zebiltzan eskolan. Bera zazpi urterekin hasi zen. Egunero joaten zen, ez zuen etxean gelditu nahi. Errotara irin bila joateko, maistrari baimena eskatu behar. Oporrak, udan. Ostegun arratsaldea jai, larunbatean eskola.

Transkripzioa
- Eta holan zemat, zenbat edadeko umik egote ziñien batera-edo?
- Ba, nik ez dakit, ze. Txikixek be bai. Zortzi bat, zazpi- zortzi, ni zazpi urteaz sartu nitzen eskola. Ordun beste maistra bat egon zan. Ta gero etor zan hori. Eta ba gero harek eta zertu arte; ba, sesiñoiek eoten zienetik, hiru sesiño: Handitxuenak, lelengoko zerin; “grado medio, segundo, tercero” ta holan, egoten giñen gaztiauek.
- Egunero joaten ziñien eskolara?
- Bai sarritten ni neu bai juten nitzen.
- Ez ziñen etxien geratuten, biherrak eitten-edo?
- Ez naban nahi izaten nik gelditzeik. Eta maistrik be, ene! Harek emoten eban bueno, inportantzixe eskola jutiai! Ta beti. Ba, gu neba-arreba asko giñen. Ta beste batzuk ba, etxin geratzen zin. Ta gero na-na jun biher bazendun be, igul lehena ba, errota-ta jun biher izeten zan ba. Ba urunaz astukin-ta. Eta permisu eskatu ta errekreuko denporan izten eban. Goxaua urten, ze bestelan negu partin illune, ta iña be ezin jun. Baiña goxaua errekreoko denporan ba, permisu eskatu, ta ba eitten eban. Ta hori, bai.
- Eta bakaziñoak-eta eukitten zenduazan-edo?
- Bai, udan. Udan eukitten genduzen, ba juniuan, juliun. Karmenak, hortxe hamabi, hortxe. Eta Santa Eugeni, “hasta el diecisiete de...”, setienbrian hamazazpira arte eukitten genduzan bakaziñoiek. Ta eguen atsaldetan be, jai. Bai.
- Ta zapatutan jai?
- Zapututan eskolam baiña eguen atsaldi jaixe.

1.16. Dotrina, eskolan bertan

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/009
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:13:02. **Bukatu**: 00:14:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Eskolan ikasten zuten dotrina ere. Egun bakoitzean zer egiten zuten. Aritmetika, Espainiako historia eta dotrina; euskaraz eta erdaraz, biak. Apaizak agertzen ziren noizean behin, lezioa hartzera. Erdara ikasi zuten.

Transkripzioa
- Eta eskolan eskolako kontuek bakarrik edo dotriñe-ta be bai?
- Dotriñi be bai. Leziñoie, lelengo bi eukitten genduzen. Bueno astelenin ba, iguel arimetika ta ba beste bat. Bi: arimetika ta ba. Historia, “historia de España” be ikasten gendun. Ta bi, bakotxin, bi. Eta gero dotreñi gaiñera. Ta dotriñi be kartilli be, euskeraz ta erderaz bixek. Ta gero abadik etorten zin lantzin behin preguntetan- ta, baiña hantxe ikesten gendun dotriñi be. Bai.
- Baia dotriñie, abadiegaz ?
- Ez, ez. Abadik etortzen zin, pasiuen ta lantzin behin. Ta ba, etorten zin, pregunta batzuk eittera- ta baina ostantzin, ez. Bertan kartillak, kartillak emoten zittuen.
- Ta handixik…
- Ta handixeik ikesi.
- Ze,maistrie be erdaldune bazan, dotriñi be erderaz.
- Bai, bai, bai, bixeta. Erderaz gitxia ikesten gendun. Ta euskerazkue, bai ba guk hantxe ikesi gendun pixkat genkixena euskeraz ta erderioi, eskolan.

1.17. Jaunartzea, zeru koloreko soinekoarekin

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/011
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:14:13. **Bukatu**: 00:15:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- **Laburpena**: Jaunartze bakarra egin zuen, 7-8 urterekin. Elizan binaka jartzen zituzten, Jauna hartzeko. Etxean ospakizuna. Janzkera berezia. Soinekoa egin zioten berari.

Transkripzioa
- Eta gero, komuñinoa-ta zuk, ze, ein zendun lelengo, komuniño txikixe eta gero haundixe edo?
- Ez, ez, komuniño bat. Ba, nik ez dakit ba, zortzi urte-edo, zazpi- zortzi, hoixe izette zan […] komuniñue, danak edade batekuk jeneralin, holantxe.
- Ta zelakoa zan ordun han sasoien komuniñoa?
- Gure ustez ona. Parejaka, ipintte zittuen elixan biñaka. Ta ba alkarren lagunek biñaka juten zien edo jute giñen komulgeta. Ta gero hoixe, gero etxin ba zelebraziñue zeozer ta.
- Ta erropie ta?
- Erropie, be bai. Bakizu, batzuk elegantiaue beste batzuk hori baiña. Eta beste batzuk, ba igul, aiztiana-edo aurrekuanak-edo. Baiña beti erropie diferentie. Niri neuri ama besutakok ein osten /eisten/ ta. Bai, soiñeko

politte ein osten /eisten/, zeru kolorekue. Bai politte zan plisauekin, ta zintturoie be, trenzi einde ta pilitte zan, bai.
- Dotore joan ziñen?
- Bai ustez bai. Bai, soiñeko politte zan. Gero, beste aiztie be haretxaz soinekuaz ein zan. Bai, politte zan soiñeku, fiñe ta politte zan.

1.18. Errepublika garaian eskolan

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/025
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:34:20. **Bukatu**: 00:35:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Errepublika garaian ibili zen eskolan. Politikaz ez zekiten ezer ere. Errepublikako bandera jarri zuten eskolan ere. Gerra hasi zenean, CNTkoen eta komunisten beldur izaten ziren.

Transkripzioa
- Banderi eskolan be bai. Bandera errepublikanu, euki gendun eskolan be. Bai, bai. Nazionala eduki gendun aurretik eta gero, republikanu. Republikik urten ebanin.
- Ta ze kanbixo egon zan eskolan?
- Eskoli be, ez gendun. Maistra bat geunken ta iguel. Maistrie ez zanetik kanbixau ba iguel.
- Ta kurtziek eta ez ebezan kendu-eta?
- Ez. Guk han ez. Hori zan gerra denporan gehixa. Gerrie urten ebanien, Ondarrun be, ni akordetan naz, elixa juten ta be, billurtute. CNTekuk eta komunistak-eta euezen. Ta mantillak eta ikusten baeben, lehena, mantillekin jun biher izeten /bizete/ zan. Eta mantillak eta be, ikusten baeben ta. Hor, gerran denporan billurre gehixa, gerratien. Ordun euezen han zerak, komunistak eta republikanuk eta danak.

1.19. Gerraosteko miseria eta ogi beltza; estraperloa

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/027
- **Iraupena**: 0:03:29. **Hasi**: 00:35:50. **Bukatu**: 00:39:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerraosteko miseria. Errazionamendua. Ogi beltza eta txikia. Ondarroan ez zuen goserik pasatu. Estraperloa: errotara gauez, itxi egin zituztelako. Etxean ehotzeko aparatuak. Garia entregatu beharra, etxerako falta arren. Kupoia.

Transkripzioa

- Gero, Franco sartu zanien, ta gerra denboran, hortxe miserixi. Bakizu, dana zerin, regimenin ta. Regimenin esan dot, razionamentu ta.
- Ta zelan zan hori, razionamentu kontue-ta?
- Ba, hori, orixue razionamentuen. Ta gauza guzti razionamentun: honenbeste, bakotxai ta handik gehixa ezin zeinken erosi. Bai. Razionamentun ta ogixe be, bakizu. Ogixe, baltza ta bera txikixe ta jan eziñekue. Zeaz eindde euen ez dakit nik, garbantzuk ta nahastik eta edozer. Ta bera be gitxi, txiki-txikixe emoten eben.
- Ta zu, Ondarrun egon ziñenin, goserik ez zendun paseu?
- Ez neban nik paseu goseik.
- Ta dirue euki zenduelako han ?
- Bai ba, nik harek eroste ben-ta.
- Estraperloa-ta be, egongo zan?
- Bai, estraperlue bai gerra denporan, bai. Errotak-eta gabaz ta jun biher-ta uruneta-ta. Baserrixetatik be, ta gauza asko. Mendixetan-ta be, bakizu, ta gero pasetako-ta batetik bestera- eta. Ez eben, muga batetik bestera ezin pasau-ta.
- Errotakaz, ze paseu zen ba?
- Zarratu ei zittuen errotak. Ta egunez-ta biherra ezin ein. Ta ixilik jentie gabaz-ta, bai.
- Karo, baiña orduen gabaz, zabaltze biezan tranpan, tranpie eindde?
- Tranpie, gabaz ez zan ikusten, ta ba, jun ein biher. Jan ein biher ta jateko. Bai, urriña-ta jun biher ta illunien.
- Zuen parajeko errotak, danak zarratu biezan, ez zan egon baten bat?
- Baten bat euen Lekeitto partien.
- Zabalik?
- Bai. Ta gero jentik erosi eban holako aparato batzuk, granue apurtu te urune eindde. Ez zan urune naturala, ez zan baiña, zeozer.
- Ixoteko?
- Bai.
- Ta zuei etxien be pasauko jatzuen hori baserrixen, entrega ein biherra garixe-ta.
- Bai, garixe bai. Hori urte askun, baiña gerrie amaittu ta gero.
- Gerraostien ?
- Bai gerraostien, bai. Garixe entregau, gero honenbeste gari entregau ein biher.
- Ta hori etxe danak-edo?
- Bai. Danak, danak.
- Ta ez eukenak?
- Baiña baserrixen danak euken garixe. Nahitte etxerako falta ha ipiñitteko zera, entregau ein biher.
- Igual erein biher ?
- Ha kupoie, lehena garixe erein barik ez zan iñor gatzen. Ta gero, itxi zanin be, ene! Garixe erein barik, zelan ogixe jango ba? Ta hoixe pentsetan: garixe erein ezik, ezin leikela jan ogik. Eta lehena, hoixe zan: garixe ta hartu, ereitta-ta, jateku erein, ipiñi biher zan /bizan/ soluen. Oingo moduen ganauek be, ederto ta pentsau bez ! Erein biher zan /bizan/ba: artue, garixe eta patati ta gauzi hartu biher zendun /bizendun/, jatekue. Bai.
- Eta egon zan holan baserritxarrik zuen parajin bera ibil zana baserriko gauzakaz estraperloan?
- Baten batzuk ibiliko zin, bai. Baten batzuk ibiliko zin beti.

1.20. Artilezko galtzak; depilazioa

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/031
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:43:34. **Bukatu**: 00:44:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Artilezko galtzak, soineko azpian. Depilazioa; hankak eta besazpiak. Aitak labanarekin egiten zuen bizarra.

Transkripzioa
- Ta goniezgaz-eta ze ibiltzen zenduzen gero, kaltzak-edo?
- kaltzak bai. Kaltzak abarkakin-ta, kaltza lanazkuek en jeneralin abarkakin.

- Ta gero, bernak-eta? depileu-eta eitten ziñien zuek?
- Bai, gero nahastu giñenien bai. Klaro, bestelan itsusidxe.
- Ta zelan depiletan ziñien lehen?
- Ba bizerra kentzeko horrekin, makiñiaz. Honek, ze esaten jako horrei?
- Atxurregaz-edo?
- Hori, hori.
- Ba ze, aitteri-edo kendute edo...?
- Ez. Ez aittek, aittek labaiñeaz eitten eban, labainie euken aittek. Bai, baia saltzen egoten zin horrek.
- Orduen zuek be kentzen zenduezan uliek.
- Bai, bai hankakuek bai.
- Kaltzarpekoak-eta?
- Kaltzarpekuk be geroruz bai, baia lehena manga luzek eruten ziñetik mangiaz, gero manga motzakaz azkenien bai. Ze niri hori itsusi begittantzen dxat kaltzarpeku.
- Izerdidxe-ta.
- Izerdidxe ta han manga motzak-eta bistan ta hori, niri hori ez jaten gustan. Itsusidxori.

1.21. Gorputza garbitzen; etxea garbitzen

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/033
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:47:08. **Bukatu**: 00:48:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Gorputza nola garbitzen zuten, ur gutxirekin eta noizean behin. Etxea, berriz, erratzarekin garbitzen zuten. Lurra nolakoa zen. Lanbasik ez zegoen.

Transkripzioa
- Ta zuen gorputze-edo?

- Gure gorputze lantzin behin, garbittu uraz-ta. Ure be, tamaiñu.
- Baia errekan edo etxin?
- Etxin. Ekarri ure ta baldan-ta garbittasun haundik ez. Danak halantxeik ta akabo, konforme.
- Etxie?
- Etxi zer?
- Etxi garbitzeko?
- Etxi garbitzeko eskobie. Hautsek kentzeko ta hori-ta.
- Ta baldosie-ta garbitzeko-ta?
- Bai, baldosaik non euen ordun? Ordun…
- Terrazue edo ez?
- Ordun, egurre-edo izeten zan jeneralin beheian gañin. Ta ezkatzin-ta be, lurre-edo eote zan. Baiña gero, […] hasi zan baiña ordun lelengotan.
- Ta lelengo fregonie, zuk zenbat urtegaz hartu zendun lelengo fregonie?
- Hori, ez dakit. Hoixe fregonie, noz? Krixeda eon nintzenin izengo zan. Lelengo fregonie, baserrixetan, fregonaik ez zan usetan ordun. Keba, ez.
- Baia zer, karue zalako edo ez zalako egon?
- Ordun pentsau bez! Ta ze garbittuko zendun, beheie, zera pasau fregoniaz be? Ez zan ordun ez zan fregonaik baserrixen. Eskobi.

1.22. Ur bila errekara; "andrazkoen lanak"

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/034
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:48:31. **Bukatu**: 00:49:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Ur bila errekara eta baita arropak garbitzera ere. Harria. Emakumeen lana zen. Etxeko lanak egiten zituzten mutilak ez zituzten begi onez ikusten.

Transkripzioa
- Ta uren bille nora joaten ziñien-edo?
- Erreka. Ta guk hamen urran geunken. Ta urrin eukenak. Bai, erreka jun biher arropak zertza, aklareta be. Harrixe eote zan, harrixe jo ta harrixe.
- Ta hori, andrak bakarrik?
- Bai, andrak. Gizonak pentsau bez, ene! Ta gizonak, andrak ez eben nahi gizonak biherrin ikusi. Ene, marikitak zin gizonak biherrin ekitten baben. Bai. Nik, ez dot nahi holako gizonik eukitterik. Marikitatzat, biherra eitten baben! Ezkatza garbittu edo hori-edo. Andrezkuen biherra eitten baben, marikiti.
- Oin, bestelakuk nahixa, ba?
- Oiñ, kanbixau de.
- Oin, ez badau eitzen etxetik kanpora doa.

1.23. Erlijioaren indarra; dantzarako zaletasuna

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/038
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:51:00. **Bukatu**: 00:52:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Erlijioaren indarra. Mezara joan gabe ez zegoen irteterik. Markinara hiru kilometro zituzten. Neska kuadrilla joaten ziren. Goizean meza eta arratsaldean elizara. Maiatzeko loreak. Txakur handiaren truke, ogia menbriloarekin. Gramola eta danbolina. Beko Bentako erromeria. Beti dantzan, soltean eta helduta ere bai. Mutilak.

Transkripzioa
- Gu elixa jun barik, elixa juten ez bazin mezetara, ezin leixen urten atsaldien. Pentsau bez! Ta elixara jun biher izeten gendun Urberuatik Markiña hiru kilometro. Ta baserrittik bajautakun, beste bide zati bat. Eta goxien mezetara ta arratsaldin elixara. Elixekue eoten zan arratsaldin, erresaixu ta sermoie-ta. Junteten giñen kuadrilla bat, Urberuan inguruko neska kuadrilla bat juten giñen Markiña. Markiña, beti elixara: maietza bazan, maietzeko lora. Ta gero eitte gendun, handik urtendakun, erosten gendun menbrillu ta ogixe-edo. Ta txakur haundi baten emoten eben. Txakur haundixe, txori haundixe esaten dotse Ondarrun. Ta baiña ogixe honakoxe zatixetan, barrun menbrilluaz gozue. Bai. Ta kuadrillan pasieta gero. Gero, Markiñen eote zan gramoli joten eben eta tanboliñe lantzin-lantzin. Eta han tanboliñin eitten gendun dantzan. Eta gero, Beko Bentan eote zan, pilarmonikiaz erromerixie. Dantzan ein barik gu ez ginen eoten. Soiñu jo ezkero, dantzan ein biher.
- Baltsiun?
- Baltsiun be bai. Bai. Pilarmonikik joten banin, baltsiuk-eta joten zittun, ta ba danak.
- Ordun, mutillekaz-eta be, ibiltzen ziñien?
- Ba, klaro! Sasoie geunken ordun. Hamasei bat urte-edo, mutillekin dantzan-ta bai.

1.24. Mezak, latinez; meza-liburuak

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/045
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:59:17. **Bukatu**: 01:01:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: Markinan mezak latinez izaten ziren lehen. Ez zuten ezer ulertzen; meza-liburuekin jarraitzen zuten. Andrazkoek eramaten zituzten liburuak. Mezara, dotoreago, baina denak antzera. Konformidadea. Beti goizez, meza. Baraurik komulgatzera.

Transkripzioa
- Ta lehen mezak zelakoak izeten zien, zelan-edo?
- Lehena, latin. Mezi lehena-lehena, latin zan. Latiñin. Ez genkixen ze esaten eben, ze latin ez gengixen ta. Baiña liburuk eoten zin, meza-liburuek. Ta handixeik oraziñoiek-eta hantxe eukitzen zittun liburuek. Liburuk zaintzen eban mezi zelan joien: ze, non, zoiezan ta noz dan kredu, ta noz dan hau ta liburuk eukitten eban. Ta andrazkuk eruten eben liburu. Orain, gizonezkuk, ez eben liburuik eruten. Gizonezkuk, ez.
- Ta lehen esan dozu mezetara dotore janzten ziñela, mezatarako.
- Mezarako, dotore-edo hobetutxua, asteuneku barik, hoixe. Bat bazeunken, ba bera, hoixe.
- Garbixe ta arropa garbixe.
- Bai, bai, hoixe. Eta danak antzera, danak antzera bizi giñenetik. Ta konforme, halantxeik zala- ta. Konformidadi, lehen konformidadie euen.
- Ta mezetara zer joaten ziñien, goixin goixetik edo euberdi partien-edo?
- Bai, goxetik. Lehen, goxien goxetik eon zan orduen. Gero, ipiñi eben atsaldin-ta, baiña ordun, gure hor gazte denporan goxien mezie. Ta baruik jun bizeten zan komulgeta. Gabien afaldu ta hamabixek aurretik, ta gero baruik jun biher ziñen /biziñen/ komulgetako.
- Eta orduen ez zin arratsaldien joan mezetara?
- Ez, ez euen mezarik arratsaldien. Ez euen arratsaldin, goxien. Goxin, seiretako mezeta-ta juten zin. Harek mendikuk-eta bueno! Gu mezeta goizela, igul etxerutz harek, mezi amaittutte. Goizeko seiretan-ta. Mezi bai.

1.25. Aste Santuko prozesioak

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/047
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 01:01:49. **Bukatu**: 01:04:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- **Laburpena**: Aste Santuko prozesioak, Markinan. Berriatuatik ere joaten zen jendea. Santuak. Jesu Kristoren irudia eramaten zuten, San Juan, Doloretako Ama Birjina... Andrazkoak Madalenaz janzten ziren, beltzez, eta baita Doloretako Ama Birjinaz ere beste bat.

Transkripzioa
- Aste Santuten-eta prozesiñoak egoten zien?
- Bai, ene! horixe bai! Aste Santuen Markinen Jemeinen Baridxaku Santu egunien-eta ikusi ein biher ze jente, Berrittutik-eta, nundik ez? Bolibartik-eta, Barinaga aldetik eta dana jenti egoten zan, elizi haundidxe, baia dana beteta. Jente asko prozesiñoan gero santuk-eta ataten zittuen, [...] bueltan

ziher, Zelaidxen ziher-eta, bai.
- Eta ze santu edo ze Ama Birjiñe-edo eroaten eben?
- Ba Aste Santuen Jesus Kristo "Oración del huerto", zereaz, olibue aurrien eta zer haundidxe, mahaidxelako zerin. Ta zera be bai San Juan be bai, Ama Birjiñe Doloretakue, eta ez dakitz ba, mordue daz-ta. Gero enterrue be bai kaji, kajan hildde be bai, eta kurutzie be bai, ta santu asko.
- Ta nortzuk eroaten eben.
- Ba herriko zerak. Batan batzuk han egongo zien eruteko santuek.
- Mutillek?
- Bai mutillek, gizonezkuek. Eta andrazkuek janzten zin, bata jantzen zan Madalena, ule luzie solte, zakuzko jantzidxe. Ta gero, beste batzuk "Madalenas"-edo esaten eutsenak andrak, harek baltz jantzitte, harek mantilla haundidxekin, dana baltz-baltz beheraiño, gonak-eta be beheraiño, ta Ama Birjiñe Doloretaku jantzitte beste bat.
- Ta ze rekorridu-edo?
- Ba Jemeindik urten eta kalin zir, eta gero, Zelaidxan bueltie, ta atza Jemeina.
- Orduen elizara-eta ez zan sartzen?
- Bai, atza elizara.
- A Jemeinen.
- Jemeingo eliza, bai bai.

1.26. Letaniak eta apaizak

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/048
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 01:04:01. **Bukatu**: 01:06:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Letaniak. Santa Kruzera, Santa Engrazira, San Martinera... ermitetara. Letaniak errezatzen joaten ziren bidean. Markinan egon ziren apaizak.

Transkripzioa
- Ta holan letaiñarik-eta?
- Ene letaiñak, zemat bider, letaiñak. Joaten giñen, bueno! Santa Kurtzara eta Santa Engrazire ta Etxebarrin be hor gorutz juten giñen, zerin, zemat lekutan? Santa Engrazia eta Santa Kurtza...
- Santa Eufemi, ez?
- Ez Santa Eufemi Etxebarrittik urrin da. Horrexetara ermintteta juten giñen. Santa Kurtza bai. Han joaten giñen behetik gora. Abadie ta Unai hori zera Buztiñeku-edo auen ta harek bizkor juten zin, ta edadetuk-eta joiezenak han atzin ezin segidute, bueno!
- Errosaridxoa errezetan edo letaiñie-edo.
- Letaiñie, letaiñie errezetan.
- Letaiñie, ta zein izeten zan?
- Ba abadie bat eta sakristaue-edo danak jente guzti, handik joiena. San Martinera be igoten zan.

- Bertan egunin bakarrik, San Martin egunin.
- Egun baten, egun bat hori zien: Asentzidxo bueltan hiru egoten zin, hortxe letaiñak egoten zin. Egunetan.
- Zuk Markiñen ze abade ezetu zenduzen?
- Abadiek asko nik ezetu nittun Markiñen, Jesus! bai.
- Ta zuk zeiñegaz ein zendun komuniñoa-edo?
- Horixe ez dakitz. Hiru abade-edo egoten zin batera ta, hiru-lau ta. Dotriñie lantzien batek emoten eben ta nik be ez daitz, apartekorik ez euen.

1.27. Eskolaren leku-aldaketak

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/005
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:05:52. **Bukatu**: 00:07:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Sarri aldatu zen eskolaz. Ospitalera joan zen lehenbizi, gero Kaleko eskolara, eta azkenik oin Jubilatuek dauden lekura.

Transkripzioa
-Ta, ez jata /etxatta/ sekulo ahaztuko. Baten be, ondiok gaztiek, e! zemat urte euko genduzen? Lelengo jun giñen, ospittela, eskola. Gero, ospitteletik kaleko eskola. Kaleko eskolie, oiñ lehen Correos egonda, ba? Hantxe euen atzeko partien, eskola bat mutillena; ta, aurrekuen, neskena. Ta, haraxe juten giñen. Ta, gero hortik, jun giñen, oin jubilauek badaz ba? Haraxe. Jubilauetan egon giñen eskolan, han be.
- Zer dala-ta, hor hainbeste kanbixo?
- Ospittela. Txikixek eote zien. Txikixek ez euen ostontzien. Ta, gero hamen bestien. Gero, hor kendu eiben. Hortik kendu ein zittuen. Dan-danok, etxe barrixe-edo, bai. Bai, barrixe eiben ta haraxe jun giñen danok.

1.28. Eskolan adin ezberdinekoak batera

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/007
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:07:30. **Bukatu**: 00:08:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Batera ibiltzen ziren adin ezberdinekoak. Bera ez ez ikasle ona izan. Bazuten, ostera, lagun bat ikasi gabe dena jakiten zuena.

Transkripzioa
- Eta, eskolako ze gomuta daukezu?
- Ona. Bueno, ordun ez zan oingo kontuik. Ordun maistra bat edo maixo

bat. Ta, danak beragaz. Hasi txikixena ta nausixena arte. Ez euen besteik. Orduen bat. Ta, oiñ bai. Oin badaz primero, segundo-ta. Ni, eskasa izen nitzen estudixetan. Nire lagun bat zan, demasa Guada. Ez takit, hamentxe bizi de oin, lehen Zaragoza ezkondu zan baiña. Oin, hementxe bizi de. Ta ha, ha beti, sekulo ez euen ha, estudixetan. Gu beti, dale ta dale. Hak, sekulo bez! Ta, dana jakitten eban. Preguntoton otsen /preguntototsen/, ta dana jakitten eban; guk ezebez. Batzutik bestera, zelako aldie dauen! Guk, eitten gendun ahalegiñe!

1.29. Maistrak apopilo etxeetan

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/008
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:08:28. **Bukatu**: 00:10:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Maistrak erakutsitako kantua kantatzen du. Maistra bat zamorarra izan zuen. Apopilo egoten ziren etxeetan. Baten seme-alaben zehaztasunak.

Transkripzioa
- Ta zertzuk ikesten zenduezan ba?
- Han, e... Maestra bat euki genduen... Harek kantetan erakusten oskun: "Con el ringiringiringi" ta esaten zittuen: "Que lleva la boticaria"...
- Zelan da hori?
- "Con el ringiringiringi, que lleva la boticaria, parece que va diciendo...". Horrek gauzok ahaztu be ez die eitten, e!
- Ta andereñue nungue zan? Hamengue ez...
- Zamora. Ha bai. Beste bat be euki genduen, hau hobie zan, e? Baiña ha ez dakit nungue zan.
- Ta maistrak eta nun bizi zien?
- Apopillo egoten zin jeneralin. Bat egon zan, "que era muy buena", hor Itxulapikoneko, oin be Itxulapikoneko denda da... ta hantxe eon zan, nik pentsetan dot /pentsetot/ honen Itxulapikonekuen ama ta aitten etxien, eurekin egon zala pentsetan dot nik. Beste bat egon zan, Herminia edo ez dakit zelan eban izena, ha Xemeinen, "donde Oiarzabal". Baiña horrek hilde daz, ta haren semie Elgoibarren bat, eta Kuban beste bat, ta monja beste bat. Baiñe nik pentsetan dot harek be hilde egongo diela ya. Derrigor, "son muchos años", gure aldien zaharrak, nik larogeta bat, asike derrigor hilde egon biher dabe /bidabe/ harek.

1.30. Partikularrean

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/009
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:10:01. **Bukatu**: 00:11:22

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Ez zitzaion eskola gehiegi gustatzen, baina amak partikularrera bidaltzen zuen 14 urte bete eta gero. Kaleko jende asko joaten zen partikularrera.

Transkripzioa
- Ta ordun eskola zu, halanda be, gustora joaten ziñen?
- Bai, bueno... Niri sekule ez jata /etxata/ gustau estudixetaik. Niri puntue eta gantxillue ta horrek bai, baiña ostantzien... no, no, no! Niretzako ez zan. Baiña eskolatik urten genduen hamalau urtegaz edo. Baiña partikularra beti. Nik partikularretan ikusi dot...! Ama gurik ezegaittik be ez eban nahi izeten, bueno... Partikularrin ibiltten giñen.
- Hamalau urte eta gero?
- Bai. Maritxu Oruntzegaz ta berorren lehengosiña bat, Juanita. Deuston bizi de oin. Egon zan ba, delegaue, Agirre? Haren andrie. Kafekue zan. Begoña Kafeko, ha ezautuko zenduen? Haren aiztie. Begoña hil zen, baiña ha... larogeta lau edo eukiko dittu Juanitak, baiña bizi de. Ze ondiok ez da denpora asko ikusi nebala.
- Ta partikularretara joatie normala zan?
- Bai, asko juten zan. Ba... asko? Asko ez, baserrixen ta ez, baiña kalien bai. Kalien jentiek eitten eban ahalegiñe. Larregi ez gendun ikesi, baiña bueno...

1.31. Ardoa eta kopak, edari nagusiak

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/014
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:17:39. **Bukatu**: 00:20:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Ardoa edaten zen gehienbat, eta kopak. Alondigatik ekartzen zen ardoa. Alondigaren arduradunen izenak. Zahagia ekartzen zen handik. Botilakoa Cune ezagutu zuen bakarrik.

Transkripzioa
-Eta, lehen zer edaten zan, holan jeneralien?
-Ardaue. Oingo moduen, horrek-eta, kopie, kopak. Gehixen, kopie.
-Ta, nungo ardaue ta, eukitten zenduen?
-E?
-Ardaue, nundik ekarten zenduen?
-Hamendik, Ontzu egote zan, bat. Alondegie euken non esango dotsut? Kanpantorrie baiño pixkat honuntzatxua.
-Xemeiñen?
-Ez, hamen. Kanpantorrie, han bistan dauena? Han, dauena? Han da, kanpantorrie. Haren azpixen, pixkat ezkerreta.
-Oin e, hori dauen lekun-edo? Relojeruk dauken lekun-edo?
-Ez, honuntza. Bai, udaletxian azpixen. Oin, ez dakit han ez dauen

“Alcohólicos Anónimos” edo zeozer. Ta, han euen, Alondigie. Ta, han ipinitte euen, Eusebio Iturbe. Pepita Ramonan, -zuk ez dozu ezautzen-, aittitte? Zelan esango dotsut? Zuk, Pepita ez dozu ezautzen baiña haren lobie, bai: Yolanda, Sakrisenekuaz ezkondute dauena. Ba, haretxen aittitte izengo zan, Ramon, bai, haretxen aittitte egoten zan. Eta, harek hartzen eban ba, batak ekarte baban Alondigan, egoten zan Ontzu, ta Campos. Ondarrun euken harek be, aiuntamentu azpixen edo ez dakit nun euken. Eta, hantxe ekarten zittuen. Haretxek emoten eben.
-Eta, ardau zer, zaragixen-edo?
-Zaragixen. Bueno, enbotellaue be, bauen. Orduen, nik ezautu naban “Cune”. Nik besteik ez naban ezautu. Ta, ostontzien, zuk esan dozu, zaragixe. Hobiaue edo txarraue, zaragixe.
-Eta, zenbatekoak izeten zin? Zenbat litro-edo?
-Nik ez takitt harek zenbat litro euko eban zaragixek. Baiña harek, bastante eukiko zittuen, e! Ez dakit zenbat.
-Ta, etxerako be, saltzen zenduen, jentientzako ta?
-Bai, bai, bai, bai, bai.
-Horrek, ya, botillak?
-Bai. Eurek ekarten eben katxarrue ta bai.
-A, eurek ekarten eben botillie?
-Bai, eurek ekarten eben.

1.32. Lutoaz bi urte

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/023
- **Iraupena**: 0:04:33. **Hasi**: 00:29:17. **Bukatu**: 00:33:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- **Laburpena**: Bi tindategi zeuden Markinan eta haietara eramaten zituzten arropak. Ondarroan ere baziren tindategiak. Lagun baten kasua kontatzen du: ahizpa hil zitzaionean, urtebetez zinera joan barik egon zen, lutoaz urte bi, urtebetez beltz-beltz eta hurrengoa "alivio"a, medio-lutoa. Garizuma guztian ezin zen dantzarik egin.

Transkripzioa
- Ta, erropak-eta, ze eitten zien, tinteu edo?
- Batzuk tintau ta beste batzuk. Baiña gurin, amama ta, ni ez naz ondo akordetan. Neu akordetan naz, josten nebillela, txaketa bat josi neutsen. Amak neure amak esanda. “Ein, ein biher jako /bijako/ amamai te ein ein biher jako /bijako/”. Baiña ostontzien, sekulo barrik ez notsen ikusi nik. Beti, bataz. Beti, bataz.
- Ta, zuekin bizi zan amama edo?
- Ez, Olazarren. Olazarren. Ta gero, han geldittu zen, beran seme bat: Pedro. Ta, ezkondu zan ha, Itturrango alaba bataz. E, zera, Jeronima. Ta, ha kuttaue, txarto juten zan; burutik ibiltten zan, txarto. Ta, hainbeste ume

euki zittuen, ta umie eukitten ebanien, beti ondo euen. Ta, famelixe eukitten eban “y, ya se fastidió”. Euki zittuen sei-edo. Bat, hil ein zen. Ta oin, Mari Karmen, Mari Tere, Rosita, Begoña, Maritxu, Agustina…
- Danak neskak?
- Mutil bat. Ta, bera da, Olazarren.
-Hombre, maiorazku!
-Ha, be, Pedro. Ha, be, Pedro. Ez, maixorazku ez dot pentdetan danik.
-Gizon, mutil bakarra bada?
- A, bai, hori bai. Mutille, bakarra. Bera bakarrik. Eta, berak be, mutil bat euki dau. Ta, neskak, hiru.
- Beno, ta lehen, erropaka zibil garela–ta, hori, tinteu eitten ziela batzuk, ta nun tintetan zenduezan?
- Tintorerixan.
- Nun, euen?
- Bat euen, oiñ e, oin be, garbitzeko tintorerixi-edo garbitzekue, Antiguan... Eta bestie, Goiogananeko azpixen. Oin, Elenak bauke ba, jostenekue?
- A, bai?
- Hantxe.
- Ha, Goioganekuena zan?
- Guk, hamentxe. Ondarrua be, juten giñen baiña. Ondarruen beti egon die bi edo, bai. Baiña, beti hamentxe, tintau. Nik neuk, aittitte ta amama lantxeik, ez naban ipini. Gero, hamen bizi gariela, bai. Hamen ziela ama ta aitte, ta orduen, bai baiña ostontzin…
- Zenbat denpora, ama ta aittegaittik?
- Ama, “en el año ochenta”; umie baiño pixkat aurreratxua. Lobie, hil jakun hamahiru hilabeteaz eta ha, baiño aurreratxua.
- Ta, zenbat denpora eon biher zan /bizan/ lutuaz?
- Nire lagun baten aiztie hil zen Juanita. Sakriseneaz ezkondute dauena, Josefina. Mari Tereaz, ta ibiltten zan, nire aiztiaz ta, Josefita. Ta, ha, hil zen hamalau urtegaz-edo, pentseten dot izen zala. Ta, ha, hil zanien, haren haren aiztie, Juanita eon zan, ziñera jun barik urtebetien. Ez dotsen /etxotsen/ izten etxien lutue. Ta, eongo zan, lutuaz urte bixen bai. Igul eongo zan “de alivio”. Izeten zan gero, iguel urtebeten baltz-baltz “y luego, alivio”. Oin, ez da holakoik!
- “De alivio”, zer zan?
- “Alivio” zan ba, medio-lutue. Gonie, baltza ta iguel ba, blusie, zurixe-edo. Ba, hoixe. Edo erropie, baltzaz ta zirixaz edo, estanpaue edo, zeozer.
- Ta, ama ta bazin hiltzen ziñek?
- Baltz-baltz, urte bi.
- Urte bi?
- Bai.
- Ta, jantzaik ein barik?
- Bai, [arrime ze]. Ta, oingo moduen Aste Santuen-ta, “los siete semana”s, zazpi aste, ez zan juten ziñera be, ta inora bez. Pasietan Markiñen, zelaire jun, zelaire jun ta hantxe pasieu.
- Karnabaletaik Aste Santuta? osea hortxe…
- Ez. Bai, bai, da Karnabala hasten zan, Aste Santu pasaten zanin, orduntxe. Orduntxe ostabe.

1.33. Elizan eta eskolan erdaraz

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/027

- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:37:05. **Bukatu**: 00:39:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Apaiz gehienek erdaraz egiten zuten. Mutrikuko seme batek ere beti erdaraz. Mezak eta dotrina erdaraz, eskola bezala. Ez zieten euskaraz egiten uzten eta jo egiten zituzten. Maistra guztiak erdaldunak ziren. Munitibarrera joan ziren gerra denboran eta han egin zuen komunioa.

Transkripzioa
- Baiña medikuai-ta, erderaz?
- Erderaz. Nik pentseten dot, don Domingok, euskeraz be, baekixen; ze, ha, basarri guztixetan ibiltten zan. Baiña nik pentseten dot, don Manuelek, entendidu ta hori eingo eban, Motrikoku zan-ta. Baiña, jakin ostontzien, nik ez dot pentsetan. Erderaz daki harek dana.
- Ta, orduen zuek mezatan-eta, elizako kontutan-ta, dana erderie ibillten zuen beti?
- Denpora askun, bai. Oin, ez, e. Oin, dana euskeraz baiña lehen-lehen, bai.
- Bai?
- Hombre!
- Ta, mezak eta?
- Erderaz, erderaz dana.
- Erderaz.
- Ta, eskolie be, erderazkue dakigu. Ez doskuen izten euskeraz eitten. Emoten oskuezan ederrak.
- A, bai? Euskeraz eittiarren-edo?
- Eurek ez ekixen-ta. Maestrak, ez ekixen ta harek ez eben nahi.
- Zuek, zuen artien be, ezin zenduen?
- Geure artien be, asko ez. Guk, hantxe ikesi gendun erderaz, derrigorrien ikesi genduen. Maestra danak erdaldunek, e! Ni neuk, ez dot pentsetan euki dotenik, maestra bat euskeraz dakixenik. Dana erderazkue. Bai, guk ez dogu Auki.
- Eta, dotriña kontuek?
- Ha be erderaz. Nik, ointxe ikesi dot neure artien euskeraz errezetan. Nik, bizi guztixen erderaz ein dot.
- Ta zeñegaz ikesi zendun dotriñie?
- Bueno, dotriñie be emoten oskuen maestrak. Baiña eskolie, Xemeiña be, juten giñen. Ni neuk, komunioie ein naban Munittibarren. Bai.

1.34. Gizonak emakumeak baino gehiago eskolara

- **Hizlaria(k)**: Anitua Lejardi, Jesusa ; Anitua Lejardi, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-011/005
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:03:57. **Bukatu**: 00:07:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Umetan konformidade asko zuten. Markinara joaten ziren eskolara, baina oso gutxi joan ziren, Jesusa gutxiago joan zen mutilak gehiago joaten baitziren. Gela desberdinetan zeuden neskak eta mutilak. Ospitalean zegoen eskolan ere ibili ziren apur batean. Jesusak Sor Maria eta Sor Modesta dakartza gogora. Herrian don Jesus eta beste maisu-maistrak batzuk ezagutu zituzten.

Transkripzioa
- Ta zer, zuen umetako biximodue ta zelakoa zan hemen?
- Joxe Mari: Bueno, konformidadi oin baiño gehixa. Hori benetan diñotsut.
- Jesusa: Udan postrie be bageunken, keixi nahikue egoten zan, ta keixak batu, ta postre modure ein ta...
- Gero, eskolara-eta nora juten ziñien?
- J.M: Markiña.
- Markiña. Ordun ze eskola euen Markiñen, zuen denporan?
- J.M: Zauen... oin zera dauen lekun... Bueno, leku bitten egon zan eskoli Markiñen, nire denporan. Bata Kruzelegin tallarra badakizue, Kruzelegin taillarra?
- J: Lehena Correo zaharra euen lekun.
- J.M: Haren atzeko partin.
- Artibai kalien, atzeko partien.
- J.M: Atzeko partien. Gero kanbixau eben, oin zera badau ba, jubilauena? Horra kanbixau eben. Azkenengo hortxe.
- Ta eskolara alkarregaz?
- J.M: Ez dakit ba [hau etortzen]... Hau, e...
- J: Ni gitxi eskola.
- J.M: Hau eskola gitxi. Eta ni be asko ez.
- J: Baiña honek partikular.
- J.M: Partikular gitxi ni, e!
- J: Bai, ni bape ez nitzuan sekule jun. Baiña zuek bai, mutillek. Mutillek jun zin.
- Ta eskolan neska ta mutil ebizen, edo mutillek alde batetik ta neskak bestetik?
- J.M: Neska ta mutil hamen. Neska ta mutil.
- J: Nire denporan ez.
- J.M: Nire denporan bai.
- J: Nire denporan neskak alderdi batetik, ta beste sala baten mutillek.
- A, hori bai. Baiña eskola baten barrun, e! Neska eta mutil, barrun. Alderdi baten neskak ta bestin mutillek, hori bai.
- Gela diferentietan.
- J: Bai, hoixe.
- Orduan, zu zer, andrie ixetiarren gitxi eskola?
- J: Andrie izetearren? Hondiño ez naz ein andri...
- Emakume izetiarren.
- J: Ez, biherra etxin edo... Intxaurren eta ordun ein biher izeten zan. Izen nintzen, ezta? Baiña ez asko ni, e? Honek gehixa.
- Ta zenbat urtekin hasten ziñien eskolan? Ahal zanien juten zan?
- J: Nik ez dakit noz hasi nintzen. Mertzedin be ibili nintzen pixkat... Mertzedin ez, Ospittelin. Sor Mariaz y Sor Modestaz ibili nintzen pixkaten han be.
- Oin Ospittela dauen lekuen? Han be eskoli euen orduen?
- J.M: Bai. Neu be apur bat ibilitte na. Apur bat, denpora gitxi.

- J: Neu be bai, hantxe. Sor Maria ta Sor Modesta. Sor Maria Lekeittaldien, hortxe nunun hil zan.
- J. M: Sor Modesta, okerraue...
- J: Bai, ha okerraue.
- Zelako kastiguk-eta ipintten otsuezan?
- J.M: Gogorrak.
- J: Ta gero herrixen don Jesus maisuaz. Eta egon zan beste bat be, solterie, ez zan hamengue, eta lantzin behiñin Joakin Kafeteruan alabi be bai, ta beste lantzin behin bere lehengusiñie, Oruntzeko, Mari Oruntze, ointsu hil da, ha be bai. Baiña ni gitxi ibili nintzen.
- Ta gitxi juanda, zertzuk ikesi zenduzen?
- J: Asko nik.
- Nehikoa?
- J: Bueno, nahikue, neure bizimodue erun dot aurrera ta. Ez zan oingo modun.

1.35. Maisu eta kanta errepublikazalea

- **Hizlaria(k)**: Anitua Lejardi, Jesusa ; Anitua Lejardi, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-011/006
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:07:46. **Bukatu**: 00:09:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Domeka arratsaldetan dotrinara joan beharra izaten zuten, Xemeinera. Euskaraz ikasi zuten. Eskolan, ostera, gaztelaniaz ikasi zuten. Jose Marik maisu erdaldunarekin ikasitako errepublikako abestia kantatzen du: "Si supieran los curas y frailes...".

Transkripzioa
- Orduan, kanpoan ikesiko zendun gehixau, etxien ta plazan eta holan, eskolan baiño?
- J: Eskolaik ez naben asko ikesi baiña...
- Ta dotriña kontuek? Dotriñera joango ziñien ba?
- J: A, bai! Domeka arratsaldetan be bai, jun biherra eukitten gendun.
- Jun biherra?
- J: Bai, jun ein biher zan /bizan/.
- Derrigorra zan hori?
- J: Bai. Domeka arratsaldetan juten gintzan Xemeiñera.
- Xemeiñera?
- J: Bai.
- Ta dotriñan zertzuk ikesten zenduezan?
- J: Ahaztu be ein jaku ya [ikesitteko] apurre.
- Euskeraz edo erderaz dotriñie?
- J: Ez, euskeraz pentseten dot.
- J.M: Euskeraz.
- J: Euskeraz pentseten dot.
- A bai?
- Bai.

- Eta eskolak euskeraz, edo...?
- J.M: Eskolan, nik neuk, erdeldune eukitte na maisue. Zelan esaten jakon ez dakit... `Burdiñas´ edo esaten gontsen guk. Gogun deuket, ze... kantau ein oskun /eiskun/, hori errepublikanu zan, eskuk altzaute: "Si supieran los curas y frailes, la paliza que le van a dar, irían del coro cantando: Libertad, libertad, libertad!". Harena... famau zan. Ha Markiñen famaue zan. Harek Markiñen ein zittun maisu urte pillo bat ein eban Markiñen. Bai. Kastellanu zan. Baiña errepublikanu gogorra, e?
- J: Don Jesus be bai...
- J.M: Harek, e... abadiek eta honek mojok eta... bufa! Bai, bai holantxeik.
- Harekin dotriña gitxi ordun?
- J.M: Bapez!

1.36. Hilabetero konfesioa eta gosaria

- **Hizlaria(k)**: Anitua Lejardi, Jesusa ; Anitua Lejardi, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-011/007
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:09:39. **Bukatu**: 00:12:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Dotrina don Markos abadearen eskutik jaso zuten. Don Markos konfesatzerakoan, lotsabakoa zen Jose Mariren iritziz. Hilabeteko lehenengo bariku guztietan konfesatu eta komulgatu behar izaten zuten. Ostean, armozua ematen zieten Gaitanen etxean.

Transkripzioa
- J.M: Dotriñie, don Markosek. Don Markos abadie, Okokiku zan. Ostra! Okerra. Abadi ta lotsabaldukue... Egun baten konfeseta jun ta bakizu ze preguntau osten? Ia ze jaten doun /jatoun/. Esan naben etxien, ta gehixa ez nintzen jun konfeseta harena. Benetan. Ia ze jaten doun /jatoun/ etxin. Benetan, bai. Don Markos. Itzela agurie! Jo! Okerra.
- Ta ze jaten zenduen etxien?
- J.M: Bai, ia ze jeten gendun etxin.
- Horrek ze ardure dau ba?
- J: Jakin nahi harek.
- J.M: Ze biximodu deukoun edo... jakin ein nahi. Jakin ein nahi dana. Benetan, bai, benetan. Gehixa ez [nintzen] konfeseta harena... Etxin esan osten, esan osten: "Gehixa jun bez harena". [...]. Jun bez.
- Ta noz joaten ziñen konfesetan, ba?
- J.M: Konfeseta, orduen, jun biher izeten zan sarri-sarri, e? Hillan lehenengo barixekutan, seguru danetan. Hillan lehengo barixekutan, konfesau ta komulgau. Armozu emoten oskuen /emotoskuen/ debalde. Armozu izeten zan honakoxe bollotxo bat ta kafitesnie. Ta emoten oskuen /emotoskuen/ han kanpo santuan parin, Gaytanek bazeuken ba, holan, etxetxo bat, bota eben aspaldixen be, urtietan botata da.
- Laborala dauen lekuen edo? Eskola laborala dauen...
- J.M: Honutzatxua, kanpo santuan pare-parien, azpiko partin.
- J: Ba hantxe hil zittuezan, ezta, gasaz aitte-alabak, ezta?
- J.M: Ez. Harek hil zin don Balentin bizi zan lekun. Xemeiña orduko eskumeta bizi zin. Bai. Hantxe emoten oskuen /emotoskuen/. Hori armozu

emoten eban, guri armozu emoten oskune /emotoskune/ zan Gaytan, Gaytan zaharra. Ixena ez dakit zelan zauken harek. Gaytan zaharra, harexek. Hillan lehenengo barixekutan, sin falta.
- Kuadrilli batzen ziñien...
- J.M: Bai! Konfesau ta [komulgateko] larregi ez, baiña armozugaittik...
- J: Haxe bollu jatearren be.
- Eta egi danak kontetan zenduezan?
- J.M: Konfesiñoie sagraue da, e? Esan biher. Honbre! Benetan.
- J: Guzurre esateko jungo gintzezan?
- J.M: Honbre! Ezin leike esan hori.
- J: Gaur, bien! Baiña, "en aquellos tiempos"...? Hoixe, e? Pentsau bez!

1.37. Ezkondu osteko konfesioak

- **Hizlaria(k)**: Anitua Lejardi, Jesusa ; Anitua Lejardi, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-011/008
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:12:27. **Bukatu**: 00:14:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Ezkondu ostean ere, konfesatzerakoan emaztearekin egiten zuenagatik galdetzen zion fraideak Jose Mariri; "Marcha atras"ik ezin zela egin esan zion eta medikuarekin kontsultatzeko. Jesusari sekula ez zion horrelakorik galdetu.

Transkripzioa
- Nobixiagaz eiñikoak be konteu?
- J.M: Nobixiaz niri ez jate /etxate/ zerik euki... baiña ezkondute gero problemi eukitte na ni konfesiñuen gain. Ez deuket lotsarik esateko, gaiñera. Zein praille zan be ez deuket lotsarik esateko.
- Zertzuk eitten otsuezan, ba, ezkondu ostien?
- J.M: Ba, ia zenbat, ta... bi segidu xamarrin euki genduzen guk. Eta "zelan?". Ba pixkat "marcha atrás" be bai, ta "hori ezin leikela ein". "Bi segidan ekarritte deukouz", "Ez dotse /eztotze/ ardureik. Barriro eitten badozue, ez dotsut konsagraziñorik emongo". Ez nintzen /enintzen/ gehixa jun komulgeta harena. Baiña esan osten /esauzten/ direkziño bat ona emon osten /emozten/, esan osten mediku bataz konsultetako. Efektibamente. Bai, bai, horrexek. Zuk barre eitten dozu /eittozu/, holantxeik da. Ta praillie zan Munoki. Hori baserrixoi da hamentxe Iruzubittetik gora, Trabakure orduko eskumeta. Zuk jakingo dozu /jakingozu/ gitxi gorabehera nun daon Munoki.
- Munoki bai.
- J.M: Bai, horkoxi zan. Munoki esaten otsen, txikitxu bat. [...]
- Eta andrari ta gizoneri gauza bardiñek pregutetan otsuezan?
- J.M: Andriai ez dakit. Ez dot pentsetan andriai.
- J: Ez, niri ez.
- Andrik danak esan be ez ostezan eingo biherbada niri ta...
- Zuri ez otsun preguntetan?
- J: Ez, ez, lolakoik ez. Nik hemen euki nabena zan, neure konfesiño... "padre espiritual", Aitte Jenaro.
- J.M: Makarda.

- J: Haxe izen zan beti. Nire gizona hil zanien be ensegida etorri jaten aillau nintzenin hona, eta nik ez dot sekule holako gauzaik...
- J.M: Nik konfesetako sekule ez dot euki... edozeiñena. Baiña don Markosena amaittu zen, e, ta Munokiñe be bai. Horrek ya amaittu zien. Beste edozein, ez dotse ardure zein.
- Baiña konfesau arren, hurrengoan be atzera bardin...
- Eeez, pixkat errespeto apur bat. Gero medikuana. Medikuana juteko esan osten /esasten/ ta. Konsulteta. Bai. Benetan.

1.38. Tabakorako lur emankorrak

- **Hizlaria(k)**: Anitua Lejardi, Jesusa ; Anitua Lejardi, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-011/019
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:33:00. **Bukatu**: 00:35:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amallobieta, Ana
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Garia, artoa eta arbia ereiten ziren ortuan, bertako lurrek ez dute balio beste ezertarako. Lihoa (linua) sekula ez dute erein, baina tabakoa bai. Tabakoa estatuari, aldundiari, saltzen zioten. Lursail handiak egon ziren.

Transkripzioa
-Eta, orduen, soluetan-eta zer euen?
-Jose Mari: Garixe.
-Garixe?
-JM: Artue, garixe ta nabue. Horretxek hirurek ereitten zien. Ortun gauze gitxi. Ordun ez zan dediketan hamen iñor orture, hamen barrixuen. Itxurretan gehitxuau. Itxurretan lurrek be honek baiño gozuauek die. Bai eta horretan patatie asko hartzen zan. Itxurretan. Guk geuk patataik gitxi hartzen gendun. Oin patatie lehengo aldin asko hartzen zan.
-Eta liñue-edo ereitten zenduen?
-JM: Ez. Entzun bai ein dot /eiot/, baiña ez dot sekulo ezautu etxien.
-Hemen inguruetan ez.
JM: Ez, nik dakitela ez.
-Ta tabakoa?
-JM: Tabakue bai. Etxin sekulo bez, baiña hamen Akodan lau urtien edo erain eben segidan. Joxe Akodak.
-Jesusa: Muniben be bai, ezta?
-JM: Muniben, Muniben sail haundixek. Muniben landarie bertan hartzen eben. Baiña honek landarie Gerniketik edo hortik eruten eben. Ez, Gerniketik ez. Diputaziñoiek emoten otsen, diputaziñoiek emoten otsen /emototsen/, tabakue hartzeko. Lau urtien edo erain eben; honek, Joxe Akodak ipini eban.
-J: Felisa ezautzen zendun? Haren aitte da Joxe.
-JM: Oso ona hartu be, baiña [margen] gitxi uste dot.
-Ta gero ha zeiñi saltzen otsen ba? Diputaziñoiai berai?
-JM: Diputaziñora, bai, bai. Horrek estaduko [hora eruten eben]. Muniben sail haundixe [eitten eban], sail haundixek [eitten zittuen] Muniben. Eta jentie be... hartzen zittuen tabakuen biherrako, jentie be hartzen eben.

Batzuk, lagun batzuk hartzen zittuen. Lorie be kendu ein bier izeten jako. Lorie, [hor indartzeko] lorie kendu ein biher izeten jako ta gero, batikuen, orrixek danak ari baten pasau biher, ta siketu biher dabe /bidabe/ eguzkixek ikutzen ez dotsen lekuen. Keizan siketu biher dabe /bidabe/. Egon zien hor urte batzutan Muniben, baiña laga otsen eraittiari, laga otsen /lagatsen/.
-Tabakoak dirue emango eban ba.
-JM: Larregi ez eban emongo.
-Ez?
-JM: Larregi emon izen baleu segiduko eben gehixa be, baiña ez, ez ,ez. Laga otsen, laga otsen /lagatsen/.

1.39. "Cara al Sol, al Sol que más calienta"

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-013/005
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:03:47. **Bukatu**: 00:04:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Bere ustez Gipuzkoako euskararik politena Tolosakoa da eta Bizkaikoa Markinakoa. "Cara al Sol, al Sol que más calienta" abestia kantatzen du, beste Cara al Sol abestiari burla eginez. "Cara al Sol, al Sol que más calienta" asko dagoela dio.

Transkripzioa
-Euskerie, beittu, Gipuzkuen Tolosa eta Bizkaixen Markiñe, euskeraik polittena, garbixena.
-Baiña, diñot, galazotie.
-A, bai! Galazo, galazo. Egun baten, bueno, horrek izeten die, esaten dana "Cara al sol, al sol que más calienta". Lehengunien bati hoixe kantau notsen: "Cara al sol, al sol que más calienta, me puse el gorro antes de ayer. Me hallará la muerte si me llega, sentado en un café". "Eso ya era de guasa, de lo que cantaban los estos... Hay mucho cara al sol, al sol que más calienta. Y eso no me va. O eres, o no eres. Y punto!"

1.40. Abesti bidez ikasi; esku-beharrak

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-013/013
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:15:13. **Bukatu**: 00:16:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolara sartzerakoan abestu egiten zuten, baina ez politika-kantarik. Abesti bidez ikasten zituzten eduki asko. Lezioa ikasi

ostean maistrari erakusten zieten badakitela. Arratsaldetan esku-beharrak egiten zituzten.

Transkripzioa
-Eta eskolan zertzuk ikesten zenduezan?
-Ba, sartzen giñen goxien ta kantau.
-Zer?
-Ez naz akordetan, porke "Cara al sol" era de más tarde.
-Bai, zu Primo de Riveragaz ibili ziñen eskolan...
-Bai, baiñe politika kantaik ez zan kantetan. "Los puntos cardinales así... son: oeste, suroeste y norte septentrión". Hoixe dauket goguen. Holantxeik kantetan genduzen, ba, gauzak, eta ikesi. Gero ikesten genduen leziñoie, ta gero juten giñen maistriana, ta han maistriai... berak hartzen oskun /hartzoskun/ eta tipi-tapa, tipi-tapa, esaten geuntsen eta, bueno, "buena nota". Ta arratsaldetan esku biherra, josten. Lehen eitten zan, obligaziñoie lantxeik izeten zan eskoletan, zer bat eittie, kuadro bat eittie, biherrakin, punto de cruz y todo eso.

1.41. 'Zurtasun-gogoa' eskola-liburua

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-013/015
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:17:46. **Bukatu**: 00:19:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena**: Eskolan banketxeak argitaratutako Zurtasun-gogoa liburua zuten. Liburua gozoa zela dio. Eskolako arbel txikia etxera eramaten zuten etxeko lanak egiteko.

Transkripzioa
-Eta libururik edo euki zenduen?
-Liburue geunken guk, diktadurie pasaute gero, edo izen leixen diktadura denporan, Caja de Ahorros-ek ataten eban: "Zurtasun-Gogoa o Espíritu de Economía". Ta harek obligaziñoz irakurri biher izeten genduzen eskolan.
-Zurtasun gogoa?
-Zurtasun-gogoa. Zuhurtasune... Un poquito de... zuhurre izen biher da /bide/.
-Zer zan, leidutekoa?
-Liburu gozue, Caja de Ahorros-ek atata, ta eskoletan emoten zittuezan.
-Caja de Ahorros Vizcaina?
-Bai! Ta bueno, ba...
-Eta gero ze beste material? Pizarrie edo...?
-Bai, pizarrie be bai. Hori etxera eruten genduen, pizarrie, gauzak eitteko. Han zertzen genduen: "Cuatro por dos, veinte. Cuatro por dos veinte"...
-"Ocho" barik "veinte".
-Baiña bueno... Y de veinte van tres, también solíamos decir".

1.42. Gerra aurrean mojetan euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Aretxabaleta Goikoetxea, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-015/010
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:23:11. **Bukatu**: 00:24:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Eskola nazionalean ibili ostean, mesedeetako mojen ikastetxera joan zen. Bertan hainbat gauza ikasten zituzten: pianoa, euskara... Gerra aurrean euskaraz dezente samar hasi ziren ikasten irakasle batekin. Irakasle hori alarguna zen eta oso kasu arraroa zen komentua klausurakoa baitzen. Gerra Zibila hasi zenean, herria utzi eta dena bukatu zen.

Transkripzioa
Bueno, hor Mertzedien edozenbat gauza erakusten eben /erakusteben/. Erakusten eben /erakusteben/ piano, euskeraz be hasi giñen pixkat dezente samar ikesten, ze geunken profesorie, zelan zan ha, "de Almacenes Loiola", Donostikue... Ai, hori baiño baltzaue pasau jat... Hondiño, egunotan enterau naz ha alargune zala. Eta nik esaten neban: "Baiña zelan euki dabe hain ixilik ha gure profesorie alargune zala?" Ze horretarako sekule ez zan entzun konbentuetan alargunik-eta sartzen zanik. Ba, bakar-bakarrik ha gatu zan, ta esan neban: "Honek, gitxienien -lehengo baten enterau nintzenien-, orduen, la Madre Teresa, horrek Aitte Santuan permisue biheko eban /bikoban/ horra sartzeko, gitxienien". Ze konbentue zan klausurakue. Bakar-bakarrik, kontizu, gatu zan, eta emon otsen /emotsen/ erreztasune hortxe sartzeko. Ta gaiñera gerra aurretxuen hasi giñen euskeraz, beragaz, hobeto ikesten. Gerrik urten eban /urteban/ ta eurek be bai, konbentuek itxi ta ala! "todo el mundo por ahí!".

1.43. Gehinetan abarketekin, gona beti

- **Hizlaria(k)**: Aretxabaleta Goikoetxea, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-015/017
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:34:30. **Bukatu**: 00:36:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- **Laburpena**: Perkalezko arropak erabiltzen zituzten. Domeketan dotoreagoa janzten ziren eta astegunez abarketakekin. Abarketak egiten zituztenak ere bazeuden Markinan. Beltzak edo gorriak baino ez zeuden.

Transkripzioa
- Gu gaztetan erropakin.
- Zerezko erropak?
- Ui, ba, perkalezko erropak. Erropa zera... pixkat alegriauek domeketako

bat, eta oiñetakuek eta... gaiñera, ez zan jazten honenbestien, e. Horretxek zapatilla zurixok, lonazkuek, eta "tira millas!". Domekan, oiñetakuek, zapatak eta horrek danok, kaltzetiñek eta dotore. "Ahí se acababa!" A, gerua ta hobeto, hori bai!
- Eta abarkarik edo? Abarketak?
- Abarketak, astegunien bai, abarketak be. Gaiñera Markiñen egon die abarketak eitten dittuezanak, neure lehengosiñian aittittek eitten eban, Manu Antzoteik eitten eban /eitteban/ abarketak. Beti abarketagiñen. Eta jun nintzenien krixeda, lehenengo bidez, Bittorixa, barre handixek eitten zittuen, abarketa gorrixek neukezan aldien. Ez zan eitten beste kolore batekuek. Eitten zien edo baltzak, edo gorrixek. Eta nok ez eban jazten abarketak? Oin, badakizu ze begittantzen jatan? Hanka azpixen min emoten dabela. Begittantzen jata ha sokie, dana zera eindde dauena, ez dauken lez plantillaik ezelakoik bez, nik pentseten dot /pentsetot/ harek min eitten dabela hanka azpixen.
- Eta, goniegaz beti?
- Bai, hori bai! Barrue gonie, ze bestelan hanka bittartien sartu eitten jatzu, erropie, ibillieran. Hauxe eitten jatzu, "meterse dentro".
- Baiña prakarik sekule ez dozu jantzi?
- Ez gero! Ointxe be ez dot gure jantzi nik. Hor deuket...

1.44. Garizumako Via Crucis-a

- **Hizlaria(k)**: Aretxabaleta Goikoetxea, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-015/028
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:47:26. **Bukatu**: 00:48:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- **Laburpena**: Garizuman Via Crucis egiten zen, belaunikatuta errezatu eta lurrari mun egin.

Transkripzioa
- Eta, Garizuman?
- A, Garizuman, ba, beittu, Via Crucis, belaunikotu ta errezau, ta behien mun ein lurrien ta atza zutundu ta atza belaunikotu, ta errezau ta horrek danok. Gaur bapez! Zutunik eitten die. "Los Via Crucis". Eitten die zutunik, makurtu barik, eta tolostu barik belaunek.
- Baina, noz emoten zan mun, eta noz erreza, ze orduten edo?
- Ez, hori izeten da, hiru bider edo eitten dienien, ba laugarrenien mun ein lurrai. Horrek amaittu zien, e! Ez die bape eitten. Eitten dienien eitten dituez /eitteittuez/ zutunik, suabe-suabe, eta amaitzen da.
- Baiña egunero eitten zan hori?
- Keba, hori Garizumako denporan, astien behin edo, juten zarenien. Barixekuetan esaten [zendun]: "Ba! gaur barixekue, gaur kurutzetakuek ein biher die". Ta eitten zien, elixako zerien... Elixakue eitten zan bittartien.

1.45. Etxean korta handia eta ardi-txabolak

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/005
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:06:42. **Bukatu**: 00:07:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Korta handia eduki zuten etxean eta baita ardi-txabolak ere. Behin, aitak Arratiatik 37 ahuntz eta 200 ardi ekarri zituen. Hurrengo egunean elurte itzela bota zuen eta etxean eduki behar izan zituzten denak, harik eta eroslea etorri zen arte.

Transkripzioa
- Etxe handixe zan, ta korta handixe euen, bai. Ta inguruen txabolak, ardi-txabolak be baeuezen. Batzuetan danak beteta egoten zien.
- Klaro, klaro...
- Ahuntzek be bai. Hor Arratietik ekarri zittuen ahuntzek be baten. Bai. Hogeta hamazazpi ahuntz eta berrehun ardi erositte ekarri zittuen. Hasi eban bixamonien edurre... Demasa ein eban edurre! Danak etxien!
- Danak kabidu ez!
- Gerua erreza. Gerua [etxola oiezan] jatekoik ez euken. Edurre honakoxie ein eban /eiban/ ta bueno. Gerua leko gitxia euki eben harek. Halako baten urtu zittun edurrok. Etorri zan konpradorie ta saldu ta listo, martxa! Barrixek ostabe erosi.

1.46. Pasmo belar ura infekzioentzat

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/021
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:29:20. **Bukatu**: 00:30:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- **Laburpena**: Pasmo belarra batzen du Juan Josek ahoko infekzioak osatzeko. Pasmo belar urarekin garbitzen du ahoa.

Transkripzioa
- Baiña oin be bedarrak naturalak ibili naz batzen. Koiñetik esan eusten /esausten/ lehengun ahuen infekziñoie eukela. Erremedixuekin ibiltten zile. “Bajanaz ba gurin —esan neutsen— bedarrak”. Egosi ta ahue garbitzeko, infekziñoie eukela ta. Neu be egon naz, ointxe dala hamabost bat egun edo, ahoko infekziñoiaz. Horretxek bedarrok egosi ta urakin garbittu ahue ta jun jatan. Bai, bedarrak badaoz. Ta ointxe ibili naz batzen.
- Ta ze bedar da hori ba?
- Hori? Pasmo bedarra esaten jako.

1.47. Etxeko errezoak euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/034
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:50:03. **Bukatu**: 00:50:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Dotrina erdaraz ikasi zuen, baina etxean euskaraz errezatzen irakatsi zioten. Arrosarioa, esaterako, egunero errezatzen zuten.

Transkripzioa
- Eta dotrina be erderaz ikasi zendun?
- Erderaz!
- Bai, e? Baia etxean ikasiko zenduzen errezuek euskeraz...
- Bai, etxin errezuek euskeraz etxekuak. Etxin errezau... Aparixe meheie baiña erresarixue luzie egoten zan!
- Hori egunero?
- Egunero!
- Falta barik...
- Bai, bai!
- Nok errezetan euen etxean errosarioa ba?
- Aittek, etxien euenien. Ta, bestelan, arreban batek edo. Etxien be beti ez zan egoten ha ta...

1.48. Markinako Eskola Laborala

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Martinez, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-058/014
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:23:14. **Bukatu**: 00:25:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Markinako Eskola Labrorala 1950 urte inguruan egin zuten, 1950. Lehen, bertan ikasten zutenek 'Esperanza' fabrikan-eta sartzen ziren beharrean. Orain ingeneritzak ere irakasten dituzte bertan.

Transkripzioa
- Zera be Markiñen, Eskola Laborala be ein zan.
- Noz hori?
- Ba Eskola Laborala ze urtetan, ez dakit ba nik oin ze urtetan ein zan, baiña...
- Emaztea: "El año cincuenta y..."
- "El año cincuenta o sesenta". Hor inguruen ixengo zan. Ein zan Eskola Laborala ta hor Eskola Laboralak biher asko ein dau jentiek ikesteko. Orduen hor biherrien ibili zienak ezagun ixeten dabe gero biherrako jakin eitten dabe martxie zelan. Oin ia kategorixa haundixaz, baiña ordun lehenenguen ba, ez zan horrenbestekue, baiña oin bai, oin ia Eskola

Laboralak ia kategorixa haundixe dauke. Gure loba batek be hortxe ein dau ingenieritza.
- Bai, nik ezetuten dot jentea hor ibili dana.
- Bai, ia ingenieritza eitteko ba "ya es categoría".
- Baia lehen ez zan egongo ingenieritza.
- Ez, horrenbesteik ez, baiña hor biherra eitten ebenak ezagun izeten zien, hor ikeste ebenak ezagun izeten zien gero biherrien. Ia neure kintxue, Federico Pradera, kasu baterako. Ha geure kintxu zan eta hortxe hasi zan ikesten. Ez, ha Eskola Armerian hasi zan ikesten.
- Emaztea: Eibarren.
- Eibarren, "Escuela de armería". Hau ez euen ondioik eta. Baiña "Escuela de armerían" be han ein ebenak ezagun izeten zien Eibarren. Ta Markiñen hortxe Caja Laboraleko zerien ikesi ebenak ezagun-ezagun izeten zien. Ze biherra junde jakitten dabe zer ein.
- Klaro, bertan ikesi eta...
- Espezializau.
- Bai.

1.49. Santa Ageda koplak

- **Hizlaria(k)**: Arrieta, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: MAR-062/001
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:46
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
  Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- **Laburpena**: Santa Agedako koplak abesten ditu.

Transkripzioa
Santi Agera, Agera bixer da Santi Agera
Bixer da Santi Agera
Baña gaur aren bezpera gaba.
Geu emen gera beti bezela
Bastarrak lotsadutzera,
Ondo lotsaz ta beldurrez gatoz.
Jauna bedorren atera.
Jauna bedorren atera.
Bi berso pagadutzera
Bi berso pagadutzeko
Lizentziarik badago.
Lizentziarik ezpada
Joan eingo gera atzera
Geu bialtzeko atzera
Aiñ nagusi txarra etzera.
Kanta mutillak gogotik
Bakotxa beren aldetik
Limosna parez espera deunik
Etxe ondrau onetatik.
Etxe onek ederrak dittu
atiak eta mentanak,
lendik asi eta esan gure dot
nagusi jaunan mentajak.

Nagusi jaunak zer dio
kopla luzeko adio,
kopla edarrak esanda gero
egingo diu adio.
Geu emen gera beti bezela
Bastarrak lotsadutzera,
Ondo lotsaz ta...

2. Familia eta harremanak

2.1. Emaztearekin nobiotan

- **Hizlaria(k)**: Solozabal, Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrieta, Aintzane
- **Erref**: MAR-003/021
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:43:22. **Bukatu**: 00:45:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Emaztea betidanik ezagutzen zuen neska laguna zen. Elkarrekin hasi zirenekoa azaltzen du, neska-laguntzera joaten ziren batzuk eta besteak, berriz, tabernan geratzen ziren.

Transkripzioa
- Zelan ezagutu zendun?
- Alkar? Bueno, guk alkar beti ezautzen gendun. Esan neban, Makarda... hamendik paso gitxi. Basue geunken hor goixen, ta udegunien [...] ebatera, Makarda baino alboratik pasetan ginen. Baiña, gero, hau amagaz neska txikixe zala etorten zan. Badakizu, ni baiño bost urte pasau gaztia eta... Nik [...] ta horrek hamabost eukezan, entenditzen dozu? Nik hamabost neukezanien, horrek hamar. Amagaz meza nausire Bariñara juten zan, ontxe be goguen deuket nik. Da holan. Ezaguerie, ba, lehen esan dotena, [Malaatik] etorri nintzenien, nolabaittera hauxe euki genuen eta hala hartu genuen ezaguerioi edo. Ezaguerie bageunken aurretik be. Ni honei lagun eitten eta... hemen lehen neskalaguntzie zan... hori jakingo dozu, ezta? Hemen sasi bittartietan neskalaguntzie izeten zan. Zulua, han handiko mendi ttuntturre, haretxen beheko partien dago Atxulua. Nik hara be neskalaguntzie, premiñaik handixena be haretxek eukitzen eben eta...

(...)

... hemendiko partean zan lehengo bide zaharra. Hamentxe gora etorten zan. [...] esaten jakon, hara alderdikuek juten zien ta hemen gora Iturreta alderako neska eta mutillerixe. Mutilik, ba, neskalaguntza. [...] ariña ez eben eukitxen. Taberna lehena, gu be holantxeik makiña bat bider gatzen ginen. Neskiai itxitxe, ba, tabernara...
[...]

2.2. Umetako jolasak: elizaka, poto-potoka...

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/003
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:01:33. **Bukatu**: 00:03:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: 11 senidetan hirugarrena. Lan asko egindakoa da. Eskolatik bueltan, etxean lana izaten zen. Umetako jolasak: elizaka. Auzoan, txintxirrika eta poto-potoka.

Transkripzioa
- Ta neba-arreba asko izen ziñien-edo?
- Hamaike.
- Hamaike. Biher asko eñikoa izango zara orduen?
- Klaro! Lehena badakizu, denak ein biher izeten eben biherra, lehena.
- Ta zenbagarrena zara bada?
- Hirugarrena.
- Ordun, bai toka jatzun umezain- eta ibiltzie?
- Bai. Beti txikixauek, beste mordue. Ia hamaike ta hirugarrena ni. Bai.
- Ta zuk, umetako ze gomuta-edo daukezu?
- Ba, nik umetakue, orduen ez zala oingo moduen. Diferente zan orduen. Ordun ba juten giñen eskola ta hori, te gero, etxera etorritakuen, edo behi zaina jun biher zala /bizala/, edo beti zozer eote zan.
- Ta zeaz jolasten zenduen-edo?
- Jolastu? Zeozeaz? Alkarregaz jolasten gendun. Elixaka-ta eitten gendun. Salan illunetan plantaute, elixie dala- ta sermoie eitten ta proseziñue eta kandela edo lastuek hartute. Holantxeik. Holantxeik pasatzen gendun. Ta gero auzora, beste etxi behien dauenetik, hara juten giñen olgeta. Ta txintxirrikan edo esaten dotsen harrixaz, ta holantxeik. Ta poto-potoka. Potuk jaurti ta ezkutaute topetan- ta holantxeik.
- Zelan zan poto-potoka?
- Ba bat plantete zan hamen ezta txibixeka-edo esaten da. Ta agertzen zan bat, ta potue jaurti. Ta ha potue topeten zan bittarttien, beste bat juten bazan, “txio esan”. Ta ha, libre. Ta holan. Bai.

2.3. Arropa garbitzen: xaboia, "lixibie"

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/032
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:44:45. **Bukatu**: 00:47:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Arropa nola garbitzen zuten. Xaboi eskasa, gerra sasoian. Chimbo. Izarekin "lixibie" egiten zen; tinan, sutarako hautsa, ur irakina... Ereinotzaren orriak, usaina emateko.

Transkripzioa
- Erropakaz gabizela-eta, garbittu? garbittu erropak zelan?
- Urtean errekan. Errekatik ure erunde, garbittu etxien jabonaute ta gero errekan aklarau barriz uretan ta halantxek.
- Ta jaboie zelakoa-edo...
- Jaboie gerra ostin eskas egon zan, eskasa be eskasatarikue jaboie. Bitse be gitxi ta, eskasa jabo eskasa egon zan. En jeneral "en jabón Chimbo" izeten zan. "Jabón Chimbo", ona, ointxe be ona dala esaten dabe e! Onena esaten dabe dala.
- Ta zuk ez zendun ezetu etxien eiñiko jaboie?
- Ez, nik ez. Baia guk, saltzen egoten zan jaboi eskasa, txarra jaboie. Sebuegaz-eta eitten ebela, nik ez dakitz ze esaten eben, baia eskasa jaboie.
- Lehen etxien eitten zan.
- Bai, batzuk eingo eben.
- Eta erropa zuridxentzat eta be "Chimbo"? izerantzat-eta?
- Izerak-eta orduen eitten zan lixibie. Hori izeten zan zera, erropak ipintzen zin zer baten, barrika moduko, tiñie. Ta han ipintzen zin erropak ta gero ipintzen zan zaku bat, trapu bat, eta suteko heutse. Ta suteko hautsai gainetik botaten jakon ur irakiñe, ur beru. Ta hantxe ez dakitz zemat izeten zin. Ta harek guri maestrik esaten oskun, suteko heutsek eukela lejia, ta baeuken zozer. Erropak garbitzeko be ona zan, eta eskutan be igertzen zan ha geuza legune. Bai, lejia eukela esaten oskun gure maestrik suteko hautsek.
- Ta bedarrik-edo jartzen zenduen uretan?
- Ez. Ipintzen jakon bertan zerin ereinotzan orri batzuk, usaiñe zertziarren-edo izengo zan. Ereinotzak usaiñe handidxe eukitzen deu. Baiña ostantzien beste bedarrik ez. Eta haixe izeten zan jabonaduri ta gero, bueno erropa danak ez, bakizu izerak eta hori eitten zan ba lixibie esaten jakon ta ostantzeko erropak ba jaboiaz.

2.4. Homosexualitatea, urrutiko kontua

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/036
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:49:40. **Bukatu**: 00:50:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Ez zuten homosexualik ezagutzen, entzunda bakarrik. "Ameriketako" kontua zen hori, urrutikoa. "Armairu barruan" egongo ziren lehen.

Transkripzioa
- Guk ez gendun ordun ezautzen marikitarik. Baiñe entzunda hoixe. "Ene andrak", "bai, nahi beste honek nire gizonak holan biher eittik-ta". Ene, umezaiñien ta errekaduek eitten be ez zeben nahi gizonezkuk, pentseu be ez!
- Baia holan homosexualidade konturik-eta entzun be ez.
- Ameriketan-ta, hor kanpun, edo zerin, esaten eben hor zerin, surrien dauezela asko., malfloritak euzela-eta. Hor, baiña hamen ingurun ez,ez.

- Ba egongo zien, ba?
- Egongo zin. Batzuk entzuten zin iguel, batzugaitzik entzuten zan bai, gizon batzugaitzik entzuten zan. Bai, bai, entzuten zan gizon batzugaitzik.
- Ze guk oin esaten dogu askotan, horrek plumie deko edo berbetako moduegaitzik-edo.
- Ez. Guk holan baiño sanuo bizi giñen gu.
- Ze oin ikusten da hori homosexualak-eta; lehen be egongo zien kontizu!
- Bai. oin nik pentsetan dot gehixa-edo. Oin armaridxotik urten dabe, hori esaten dabe oin, armaridxo barrun lehen.

2.5. Mutilek ordaindu egin behar, dantza egiteko

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/039
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:52:51. **Bukatu**: 00:54:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Soinu-jotzaileak: Errotabarri... Ordaindu egiten zuten mutilek, dantza egiteagatik. Dantzaldiko txakur handia. Kobratzailea. Papertxoa jartzen zieten. Poltsarik ez zuten erabiltzen lehen emakumeek; zapiren bat edo. Mutilek ordaintzen zuten, tabernara joanez gero (jai berezietan).

Transkripzioa
- Ta nor eote zan filarmonikiagaz edo soiñugaz edo?
- Ba soiñojotaillak eote zin, bat Ondarrutik be etorten zan, Errotabarri be, ta holan. Lantzin soinojotzailak, banakak euzenak, ba holantxeik.
- Eta ordaindu ein biher izeten zan /bizetezan/, jantzan eittiarren?
- Bai mutillek. Mutillek dantzan eitten eben, ta ba, piezako orduen dantzaldi bakotxeko, txakur haundi bat-edo izeten zan. Bai, dantzaldixen, kobretan ibiltten zan bat.
- Ta zelan zozer jartzen otsien edo zelan jakitten bien, nok paga dauen eta nok ez?
- Papertxo bat-edo ipintten eben lantzin- behin, zeozer señalie. Bai ipintten eben.
- Andrak, debalde?
- Andrak, debalde.
- Oin, kartera barik urten-eta.
- Karteri, karterie hutsik. Lehena ordun, poltsaik-eta be ez zan ibiltten oin lez. Pañelun-ta poltsikun-ta […]. Eta ordun, taberna juten baziñen be, ba mutillai toketen jakon pageti. Neskik pentsau bez, mutillek pagau.
- Ta tabernara joaten ziñien?
- Tabernara gitxitten baiña holan, jaixetan-edo zeoze hartzera juten bazan, jarten baziñen, ba mutillek pagau biher eban /biban/. Bai.
- Ta zer hartzen zenduen tabernan?
- Ba ez dakit nik ordun, ze hartuko gendun. Zeozer edateku-edo, gas- kasa-edo. Limoie-edo eoten zan ordun, limonadie-edo ta egarrixaz bazeuen, halakoxi. Ostontzin, ez. Jaiero ez, baiña erremedixa egunetan-ta bazabiz, dantzan-ta egarrixe-edo. Ta ba limonadie edo holako gauzie zeozer, bai.

2.6. Dantza lotua bekatu

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/040
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:54:43. **Bukatu**: 00:56:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Mutilekin dantza egitea bekatua zen, ejerzizioetan eta misioetan esaten zietenez. Garizuma. Baina beraiek ezin dantza egin gabe egon! Konfesatu egiten ziren gero. Apaizak zer esaten zien. Erromeria Beko Bentan egoten zen, filarmonikarekin. Eta Markinan zelaian gramola.

Transkripzioa
- Ordun, baltsioan-eta eitzie, ez zan pekatu?
- Hori, zan ba pekatuoi. Ejerzixuk eukitten genduzen Garizuman-edo holan. Eta gero dantzan eittie pekatu. Ta Garizuman, ha misiñoik, ejerzixuk, emoten euskuezan misiñoiek-eta hori ta, dana pekatu, te dana pekatu, te ezin ein dantzaik gero- ta. Jai bat-edo pasatzen gendun dantzan ein barik, baiña ezin aguntau, ta hurrengo akabo! Lelengo jaixe-edo holan dantzan ein barik.

- Ta gero, kontetan zenduen, konfesetan zenduen?
- Bai, konfeseta jutne giñen guztin. Dantzan eitten gendun guztin, pekatutzet geunken gero. Konfesau barik, ezin leikixen komulgau, dantzan eittioi. Ta bai abadik esaten euskuen konfesarixun: ba, segun zelan dantzan eitten dan. Baiña guk dantzan ein ezko konfesau ein bigendun.
- Ta Beko Bentan baiño ez zan egoten?
- Beko Bentan eoten zan hori baltsiu. Aurretik eoten zan Markiñen zelaixen, ba gramoli ta danbolin txistu ta horrek. Baiña gero, han eoten zan pilarmonikiaz. Han eoten zan baltsiue, bai.

2.7. Dantza eta neska-laguntza

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/042
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:56:09. **Bukatu**: 00:57:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Neska-laguntza, erromeriatik etxera. Kalabazak egoten ziren dantzan; mutilak eskatzen zion neskari, eta ezetz esan hark, batzuetan. Dantza ona zen komunikatzeko.

Transkripzioa
- Eta zelan izeten zan mutillekaz hori hartu-emona-eta?
- Lehena, hoixe izeten zan: neska laguntza jun. Neskak baserrixen ta gero, erromerixatik etxa jun biher bazien, ba mutillek begixe jota bauken-edo, gustetan bajakon, ba haretxei laguntza. Holantxeik.
- Ta kalabazak-eta be egongo zien?
- Kalabazak bai dantzan. Mutillek elejidu eitten eben eta neskak nahi ez badau harek kalabazie.
- Neskak elejidu orduen?
- Mutillek, elejidu. Neskak ibiltten zin dantzan, ezta? Eta mutille jute zan neskiai eskatzen. Ta nahi ez baeban neskik, eitten eutsen ba: “ez!”. Ta kalabazie; hoixe zan kalabazioi. Bai.
- Ta gero,neska laguntzen?
- Bai. Gero, neska launtzen. Ta bai, gerotxua-edo urten ta gero plazatik etxera doiela, bidien atrapau te holakoxik. Bai. Ta bakizu, hantxe dantzan. Dantzan komuniketeko ona zan dantzie! Ze han, alkarraz berba eitten dozu, ta dantzie ona zan.
- Ezautzeko modu bat?
- Klaro! Bestelan dantzaik eitten ez badozu, ba ez dozu eitten berbaik be, ta ezebez.

2.8. Senarra izango zena nola ezagutu zuen

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/043

- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:57:23. **Bukatu**: 00:59:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
  Lanbideak » Sastreak, jostunak
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Josten ikasten ibili zen Markinan, eta orduan ezagutu zuen senarra; soldadu zegoen hura, eta Ondarroara joaten zen esnearekin. Amalia jostuna. Emakumeek josten ikastea normala zen, gero familiaz arduratzeko.

Transkripzioa
- Zuk gixona nun ezautu zendun, ba?
- Nik? Ba, hortxe josten ibili nitzenien. Josten ibili nitzen Markiñen eta hantxe, bera soldau euen. Eta jute zan Ondarrua esniaz-ta soldautzako haxe zera euken. Saturrana-ta esni eruten eban. Eta haxe eindde euken zerakin, permiso modun lez-edo, ze esango dot? Eta hantxe, nik ezautu naban Markiñen. Hamengo Etxebarriku zan da, bai.
- Baiña zu ze eitte zendun ba, euren erropak josi?
- Ez, ni josten ikesten nabillen.
- A bale, ta non ibili ziñen josten ikasten ba?
- Markiñen.
- Nun Markiñen-edo, ze, nok erakusten eban edo?
- Bai, hil zan bera. Markiñen, Amalia eban izena, bai. Jostune, modista ona zan.
- Ta han sasoien gehixenok joango ziñien hara?
- Asko ibilli giñen, kuadrillak. Ordun lehena danak josten ikesten, en jeneralin hor sasoko zerak. Ta jostie ba ikestie, eske hori zer ona zan. Familixi eukitte zendunin be, etxako zerak eitteko, bai, rentabli. Umie badaukezu be erropa zerauekin be zeraukin eitten otsezu txikixauai-ta. Josten ikesten.
- Ta gero ibilli ziñien josten zu? Biherrien, ibili ziñen, jostun?
- Ez, ez, ez. Nik etxin, etxekuk. Etxekuk, ostontzien ez.

2.9. Aita azpeitiarra eta ama Urberuagakoa

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/002
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:01:00. **Bukatu**: 00:03:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Kale Okerran jaio zen baina lehenengo gomuta Zierkalekoa du, hiru urterekin joan baitzen hara bizitzera. Aita azkoitiarra eta ama Urberuagakoa. Aita 13 urterekin etorri zen Markinara. Hark arropak ekarritako paineloa gordetzen zuen duela gutxira arte. Zelan ezagutu zuten elkar aitak eta amak.

Transkripzioa
-Jaixo eingo nintzen, hor, kalle Okerra. Ze, Ziarkalia, hiru urtegaz-edo,

neure gomutie Zierkalian dauket. Baiña jaixo-jaixo, Okerra.
-Ta, zure ume, ume sasoie-ta, Zierkalian pasa zendun?
-Bai, Zierkalian. Neure gomutan, hantxe urte bi edo hiruaz-edo, jun giñen. Ta, hirurok -hiru neba-arreba ga-, jun giñen jaixota, “la calle Okerra”.
-Eta, nungoak euku zenduzen zuk, ama ta aitte?
-Nire aitte, giputxe, Azpeittikue, de Lasao. Eta ama, Markiñekue, de Urberuaga. Azpilza, beheratxua, “caserío” Olazar. Oin, ha etxie botata da ta barrixe einde dauke.
-Zure aitte ta ama, baserrittarrak izenda, kalera?
-Bixek baserrittarrak. Nire aittek urten eban etxetik, hamahiru urtegaz. Ama ta aitte barik geldittu zen. Eta, han geldittu zen, neba nausixe eta bera, kala. Hamahiru urtegaz, esaten eban. Ta, pañolo bat euken, ama gurik, errekuerdotzat gordeta euken. Hantxe ekarri zittule beran erropak-eta. Ia zenbat erropa izengo zien! Ta, ez dakit; haixe, pañuelue gordeta neuken baiña, nun danik. Ez tot topau, ha, nun danik.
-Azpeittiarra, ta Markiñen amaittu eban?
-Bai. Bera ebillen biherrien mendixetan, arbolak botaten. Eta, ez dakit ba, zelan, eingo zin. Bai, pentseten tot baserrixe, Antzabaleko baserrixera jun zala, apopillo edo, lo ta jan-edo. Han hori, mendixek botaten euzela. Eta, handixeik beheko baserrixen bizi zen gure ama-ta. Hangoxi zan-ta. Eta bestie, han apopillo-edo, ba handixeik edo itxurie.

2.10. "Txarrittan", eskolara joan barik

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/004
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:04:50. **Bukatu**: 00:05:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Taberna zuten etxean; eta, eskolatik itzulitakoan, alde egiten zuen, ezentzun eginez amari, horrela lanik ez egiteko. Sarri egiten zuen "txarrittan": eskolara joan beharrean, jolasera.

Transkripzioa
- Bueno, ta zu hori, kalekoa izenda, Ziarkalekoa-eta, ze gomutaten dozu umetakoa? Zelakoa zan lehen hau ingurue?
- Ha ingurue? Bueno, gu ondo ibiltten giñen. Gu, eskola jun, te eskolatik etorri te, gurin tabernie euen. Ta tabernie… biherra ein biher zan /bizen/. Ta, eskolatik etorri te, ze eitten genduen? Merixendi hartu, te kala. Ta, ama guriek: “Mari Karmen”, kala. Guk, ez-entzune. Fregau, siketu, te zozer eiñ, ein bizen; ze, orduen ez euen lababajillaik eta holakoik. Ordun, eskun ein, biher zan /bizen/. Eta, deitze eusten baiña nik, gortute, kalera. Ze, ostontzin jun ezkero etxa, “no hay salida”. Pentsau bez! Ta, ba, lagunek geunkezan ta lagunekin, kala. Eitten genduzen geure. Oin, ez ta eitten. Bueno, ez ta eitten, jun, jun barik askotan hamen be, gelditzen die. Baiña lehen, txarritten esaten gontsen, eskola jun barik.

2.11. Andrak barra atzean, baina aurrean ez

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/013
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:15:33. **Bukatu**: 00:17:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Jaten ematen zuten tabernan. Berari ez zitzaion mostradorean egotea gustatzen, ahizpari, ostera, asko. Andrak egoten ziren mostradorean taberna askotan, baina bezeroen artean gizonak ia bakarrik. Txarto ikusita zegoen andrak tabernara sartzea.

Transkripzioa
- Tabernan, ze biher eitten zendun han sasoien?
- Ba, jaten emoten eben, asike, jaten emon, mostradorien egon... Niri neuri ez jatan /etxatan/ asko gustetan mostradorin egoti. Gurien aiztiai bai, bueno! Nik nahixa neban fregaue ein han egon baiño, baina nire aiztiek ez, bueno! Harek ez! "A aquella le gustaba mucho, mucho, eh!".
- Biloba: Alabik be holantxik eitten dau oin. Mostradoran atzin.
- Baitte, baitte. Asko balixo dau harek, e!
- Jaten nortzuk joaten zien, bihergiñek, edo?
- Bihergiñek be bai, ta pasun etozenak be bai. Lehen danak hamendik etorten zien. Apopilluk be eukitten genduzen.
- Ta barran? Barran be bai?
- Geuk, dana.
- Ta andrazkoak ondo ikusten ebiezan gizonezkoak barran?
- Hamen bai. Lehen bai, behiñipein. Oin be bai. Neskak be iguel-iguel egoten die. Sakrisenien be neskak egoten die.
- Lehen andrazkoak ez ziren egoten tabernan, ta...
- Hamen bai, e! Nire denporan beti egon die. Egon zien Sakrisenien, han be alaba bi. Semie be baeuen, baiña semie fabrikan, biherrien. Alaba bi egoten zien.
- Baiña barra kanpokaldien diñot...
- A! Kanpokaldien gizona ixixe dana. Andrazkorik ez. Hori argi itxi!
- Biloba: Baina dendie be bazan zuena. Tabernie ta dendie be bai.
- Ez. Gero ipini [zen]. Tabernie kendu ta dendie ipini. Nire aiztiek ipini eban.
- Ta andrak bakarrik barra barrun egoten zien?
- Bai. Baiña kanpuen andra gitxi. Oin bai! Oin gizonak beste. Gaiñera ondo begittantzen jata. Baiña lehen txarto begittuten zan hori.

2.12. Alargunduz gero betiko hilda

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/021
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:27:21. **Bukatu**: 00:28:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen

- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena**: Elizan andreak alde batean eta gizonak beste batean jesartzen ziren. Mantila nola janzten zuten. Meza luzeak. Alargunduz gero betiko hilda. Beti beltzez jantzi behar. Jantziak tindatu egiten ziren. Amamari jantzi bakarra ezagutu zion.

Transkripzioa
- Elixan be, andrak alderdi batien ta gizonak bestien. Bizi guztixen. Oin, danak alkarraz baiña orduen, ez. Ta, orduen mantilliaz, mantilli burun dala. Ta, hiltzen zanien bateroren bat, enterrare. Hor, daukaz gordeta, nik. Mantilla txikixe, hamen da haundixe, beraua. Bai. Orduen be, bueno.
- Ta, mantillie ez eukindde edo?
- Ez, ez, ez. Ba, erositte mantillak. Bai. Neuk, ein ez.
- Zelakoak izeten zin lehengo mezak?
- Luziauek oinguek baiño.
- Baiña, asko kanbixeu da hori be.
- Asko kanbixau, bueno! Konpletamente kanbixau de. Meza nausixe oin be, pixkat luzetxuaue izeten da, e. Ni, haraxe jute naz baiña luzetxuaue izeten da, mezie.
- Ze, lehen be, esan dozu, andrak alderdi batien, gixonak bestien…?
- Bestien.
- Janzkeri be, diferentie, ezta?
- Bueno, alargundu ezkero, betiko hilde zaz. Ta, urten bez, ta jantzi baltz; ta, kendu bez. “Ya está”.

2.13. Guardia Zibilen jaia

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/037
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:55:12. **Bukatu**: 00:57:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
  Lanbideak » Polizia
- **Laburpena**: Jeneroa erosten zuten guardia zibilek herriko denda eta tabernetan, eta gero banatu egiten zuten euren jaian. Herriko jendea joaten zen antolatzen zuten erromeriara. Ez ei zegoen gorrotorik. Beti errespetutxoa ematen zieten, baina joaten ziren. Haien umeak ere besteekin batera hazten ziren.

Transkripzioa
-Ta, Guarda Zobillen jairik-edo, zuk ezeutu dozu iñoiz?
- Bai, hori bai. Bai ta tabernetan tabernetan, ta dendetan, ta jeneru eruten eben, ta gero ha errepartiddu eitten eben. Baiña, jentie jun eitten zan, e! Hamen ez euen, holako…
- Ta, ze jai-edo egote zan ba, nun-edo?
- Erromerixie, euren etxe aurrien, gabien.

- Lehena hori, bertoko jentie, soiñu joten-eta?
- Bai, bai, bai, bai. Hamen, ez euen orduen gorrotoik-eta gauzeik e!
- Ta, kuartelera erromeritten?
- Danak haraxe, dantzan eitta. Pozik gaiñera, jun be. Guri, ez doskuen asko izten baiña. Bueno, Ahalegiñe ein gendun, geuk be.
- Ba, orduen Guarda Zobillekaz-eta, tratu ona eukitzen zenduen zeuek herrikoak?
- Bai, bai, bai, bai. Baiña, beti Goarda Zobille beti errespetotxue, ezta? Baiña bai. Beti emoten dotsu. Baiña, jute giñen. Taberneruek ardaue ta bestiek, galletak eta bestiek beste gauze bat, eta, bai. Gero, meza nausixe eote zan ta gero emote ben, ba, ez dakit, ardaue edo ze emongo ben? Gu, ez giñen horreta juten baiña.
- Beittu, hori nok esango ete eban gu Pilarika ospatuten hor kuartelera joan ta erromerixe e? Bai, bai. Ta, nundik etorten zin, nungo mutillek izeten zien?
- Beti, kanpokuek.
- Pentseten dot, santanderinue zala hori, Maritxune.
- Santanderinue zan. Baiña, hori be bai, pentseten dot nik, asturianuk be, eon ziela batzuk. Ez naz akordetan hori baiña. Oin haren lagunek, Bermejo zin. Danakin, e! Nahi dot esan, haren umiek, ez euen. Danakin, hamen herrixen danakin.
- Umik bai.
- Bai, bai, bai, bai. Umiek, danak alkarrekin. Oingo kontuik, ez euen orduen.

2.14. Jesusaren izena Estefania da berez

- **Hizlaria(k)**: Anitua Lejardi, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-011/003
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:01:57. **Bukatu**: 00:03:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Jesusaren izena Estefania da, baina inork ez dio inoiz horrela deitu.

Transkripzioa
- Zure izena zelan da?
- Estefania Anitua Lejardi.
- Ta zelan deitzen dotsue?
- Jesusa!
- Ta orduen Estafania nundik nora?
- Ba, aittek preguntau notsenin hori, zegaittik ipini osten /ipinisten/, Natubittate egunin jaixota, "haxen baiño hobie izengo hintzenalakun" ipini ei osten Estefania. Ta, ba, ez dakit.
- Iñok ez dotsu deittu sekule Estefania?
- Parisen danak.
- Parisen. Ta Markiñen ez.
- Markiñen ez.
- Orduen Jesusa apunteko dot izena.
- Zeuk nahi dozune.
- Ta noz jaixonikue zara?

- Ni, "veintiseis de diciembre de mil novecientos veintiseis".
- Orduen atzekoz aurrera bardin fetxie.
- Bai! Nahi dozun modun ein.
- Ta zu be hemen jaixonikua?
- Ni Inpreñusierran.
- Jose Mari: Sumiñan.
- Nun?
- Hamentxe. Baiña barrio Inpreñusierra.

2.15. Emakume eta gizon beharrak

- **Hizlaria(k)**: Anitua Lejardi, Jesusa ; Anitua Lejardi, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-011/014
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:23:55. **Bukatu**: 00:26:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amallobieta, Ana
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Emakumeek eta gizonezkoek behar desberdinak izaten zituzten. Jesusak bost urte egin zituen neskame Altza baserrian eta Jose Marik bat bakarra Makotegin.

Transkripzioa
-Eta, Jesusa, zuk ordun Jose Mari ta kazan ebizen bittartien, zuk ze eitten zeuntsen gurasuei lagundu etxien edo?
-Jesusa:Ez, honek hortan ebizenien geu be horretxeaz, Akodako zeraz, Salkortakuaz ba hortxe ibili edo... Hemen ez euen neskaik nire... Arkotxanin euen bat, Mari, ta bera hil zan gazte-gazteik ta hemen ez dot euki beste lagunik, nire edadekoik. Haxe Salkortakue bakarrik Akodan. Ta gero kriada be guk goxa urten.
-Etxien be biherrak diferentiek eukiko zenduezan. Zuk neska moduen biher batzuk eukiko zenduzen ta Jose Marik eta beste anaixak beste batzuk. Bakotxak bere biherra.
-Jose Mari: Andrazkuik korta ta orduen, simaur konture ta, pentsau bez. Oin gitxia biherbada lehena baiño, baiña lehen bez andrazkue korta. Sumiñan nik andrazkoik kortan ganauei jaten emon ta bai, baiña...
-J:Behixek batzen bai, ezta?
-JM: Simaur konture-ta ez.
-J: Ez hori ez. Baiña behixek batu ta gurin, nik ez baiña, nire amak eta aiztiek eta, Zabalien ezkondute euenak, Domingek eta, horrek bai. Nik ez. Ez dot sekulo be ein. Bedarretan bai, ganajatekue ta danak, baiña behixek batu sekulo be ez dot ein.
-Eta basora iretan eta be?
-J: Bai, horrek danok, horrek danok.
-Horretan bai andrak.
-J: Bai. Ni baserrixen be bost urte einde na kriada. Baserrixen be, Altzan. Bost urte. Bai, horrek danok. Baiñe behixek batu ez dot ein sekulo be.
-Eta zeuk urten zendun krixeda. Mutillek morro edo urten eben?
-J: Ke ba. A bai!
-A bai? Nora?
-JM: Osabiana. Ez. Osabiaz egon nintzen baiña denpora gitxi. Makotegira. Makotegin egon nintzen. Urtebete inguru ein naben. Aspertu nintzen.

-Nun dao, berton?
-JM: Bai, Makotegi […]. Aspertu nintzen ta…
-Biher gitxiegi edo larregi ordun?
-JM: Bueno, ez zien e… nigez ondo porteten zien. Amama euken okerra. Amama. Ostia harek estu hartzen niñun. Bai, bai. Ta bestiek onak zien, bai haren seme-alabak. Onak, onak, persona onak.

2.16. 11 urtegaz dendan lanean

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-012/004
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:03:44. **Bukatu**: 00:05:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Garcia Lartitegi, Miren
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena**: Eskolara zortzi urtegaz hasi zen 11 zituela neskame lanetan hasi zen bere kaleko janari-denda batean. Egunean erreal bat eta mantenua irabazten zuen. Bi urtez lan egin ostean eskolara bueltatu zen.

Transkripzioa
- Bueno ba heltzen zan domekie. Ni zortzi urtegaz hasi nintzen eskola juten eta hamaika urtegaz krixeda nenguen, neure kalien, jateko kontuko denda baten ta ein nitxuzen urte bi, "dependienta", eta zan: egunien erriel bat irabazten neban "venticinco centimos de peseta" ta "mantenido". Goxien juten nintzen, etxien eitxen neban lo, juten nintzen zortziretan ta eurek bizi zirenez bertan etxien, ba dendie zabaltzen eben /zabaltzeben/ zortziretan ta nik eitten naban dendie garbittu, losie garbittu ta, gero armozau. Oseake, nik neukezan armozue, bazkarixe, merixendie ta aparixe: "mantenimiento y un real al día"; ta aitxai erun notsezanien hogeta hamar erriel esan osten /esosten/, gure aitxan juramentu zan: "mekauen la sarten", "hau de diru pillue ekarri ostezune umetxue". Bueno, danak eitxen eban falta. Gaur diruai ez jako /etxako/ emoten balorerik, ez jako /etxako/ larrei emon biher, ta hoixegaitxik sekulo ez daukeu txakur txiki bat e, baiña diruai be beitxu ein biher jako /bijako/ osasunai leiñtxerik ta dana. Bueno, urte bi ein nitxuzen eta hasi nintzen barriro eskola. Osea, nik dakidan eskolako kontue da lau urtekue; oin, irakurtie asko gustetan jate ta ez dot pentsetan falta handirik eukiko dotenik /eukikotenik/, ze preguntetan dakit e!

2.17. Jolasak

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-013/010
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:12:00. **Bukatu**: 00:13:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier

- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Gerrak erditik ebaki zuen emakumea dela dio, jostun ona izango litzatekeelako. Umetan ezkutaketan, diaboloarekin, aponekin, ziri-zirike... aritzen ziren. Neskak neskekin ibiltzen ziren.

Transkripzioa
-Ni naz neska bat gerriek erdi-erdittik ebagi niñuena. Ze ni izengo nintzen jostun ona eta esku biherra asko gustau jatena. Gero, ba, beste gauzaik ez geunken eta umetan ibiltten giñen ezkutuke ta. Zeuek be ibiliko ziñen ezkutuke. Gero diabolue. Zelaixen diabolue zeiñek goraua bota. Aponak, aponakin be bai. Xiri-xirike be bai, orratzakin. Ba, gauza polittek, ta dana galdu da, dana galdu da.
-Eta hor, neskakin edo mutillekin?
-Ez, neskak neskakin. Bai.

2.18. Markina aberatsen herria zen

- **Hizlaria(k)**: Aretxabaleta Goikoetxea, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-015/022
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:43:00. **Bukatu**: 00:44:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Markina aberatsen herri izan da, terrenoa asko zituzten. Urkijo kondea "kotxeretan" bizi zen.

Transkripzioa
- Markiñe izen da aberatsen herrixe. Edozenbat herri, eta han beherutz, gaur "Escuelas Públicas" dan tokixe be, Barón de Areizaga bizi zan han. Beste aberatsen batzun zera izen da, terrenue ta dana.
- Eta hemen egon die kondiek eta?
- Hamen kondie bizi izen da, kotxerapetan, "en las cocheras" ein otsen piso txiki bat berantzako. Hondiño ez da denpora asko hil zan ha.
- Ze konde zan?
- Seme-alabaik ez eben euki hor palazixue ein ebenak /eibenak/, eta lobie izen da.
- Baiña ze titulu? Conde de... dónde?
- Ba, Conde Urkijo. Hori finka danorren uzaba. Oin ez dakigu "la BBK no, pero la BBVA" pentseten dot /pentsetot/ dala "el que tiene cargo". Egoten da, e, "un guardia jurado", txakur bategaz han, "haciendo el giro, el paseo".

2.19. Hildakoak eta kalteak herrian

- **Hizlaria(k)**: Aretxabaleta Goikoetxea, Laurentzi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-049/007
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:13:23. **Bukatu**: 00:14:55

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Eibar aldean nazionalak egon ziren sasoi batean eta gorriak herrian. Sasoi hartan, hegazkinak heltzen ziren Markinara eta bonbak botatzen zituzten. Hildakoak egon ziren eta kalte handiak herrian. Amak aititaren baserrira joan behar izaten zuen laguntzera eta Laurentzi bakarrik geratzen zen kalean, goizaldera arte askotan.

Transkripzioa
- Ta esan doztezu Markiñe be bonbardeau eurien?
- Bai.
- Bai, e?
- Bonbardeau nehikue ein eben /eiben/ Markiñe. Ta gero, hor mendi baten, Eibar partera, euen nazionalak ta gorrixek hemen. Ta, ba, lantzin behin etorten zan, lantzin abioi bat, ta bota-bota bonbak ta hil be eitten zittuen bonbak, e, batzuk.
- Bai, e?
- Elixan be hil eban, [...] gixon bat elixa barrun, atik pasau metrallik ta hil eban /hilban/.
- Ta apurtu zan elizea edo...?
- Eee... elixi... bai, ta kaltiek.
- Etxeak be bai eta…
- Bai, gure etxi metrallik batetik bestea pasau eban; tellatutik urten. Ta gure ama orduntxe enredau zan. Ta gero gure ama juten zan basarrire, bere aittai han laguntzea. Han ez euen gizonezkoik, edo andrazkoik, lau gizonezko, ta han biherra sekule ez zan amaitzen. Ta gure amak ekin biherrin han ta gaba… ez zan konturetzen gaba gaiñin dauela, ta aittittei iñoz preguntau: "illetargixe bai? Illetargixe egongo da" ta illetargixaz –bederatzi kilometro daz– Markiña. Ta ni hor gatzen nitzen kalin, ba, bakarrik, goxaldera arte edo, ama etorri arte.
- Bai, e?
- Ta ni kalien [...] lo einde na ni, bai, ta plazan be bai ta... Umie nitzela, e.
- Bai, e?
- Bai, bai. Ez dakit /eztaitx/ honek gauzok zetan esaten dotezen, baiña.
- Ez, ez, ez ondo, ondo, ondo dau.
- Baiña modu bat berba eittekue, e.
- Ez, ez, ondo dau, honek gauzak gure dodaz jakin nik.
- Ba…

2.20. Haurtzaroa amamarekin eta etxeko beharretan

- **Hizlaria(k)**: Gandiaga Onaindia, Gregoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-053/002
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:03:20. **Bukatu**: 00:04:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta

hezi
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Amamarekin igaro zuen haurtzaroa eta bera baino ume txikiagoak zaintzen. Etxeko beharrak egiten ere lagundu behar izaten zuen, belarrak ekartzen esaterako.

Transkripzioa
-Orduen zure ume denpora zer? Zelan izen zan?
-Zelan ba gero, txikixe ta amomak esaten eusten, nik amomaz lo eindde beti amomaz zertzen nitzen. Ta “erain umiai lo eitxeko”. Ta neu txikixe ta umiai euki, osea umiai erain. Ta amoma gora juten zanie,n neu be gora ta “ez etorri, egon hor”. “Hamen eongo naz?” beti esaten nik urte bategaz be “Hamen?” ta “bai, hortxe, jausi eingo za eskilaretan-ta”. Ta beti amamaz.
-Zu beti amamagaz.
-Ta gero ba, astukin ta biherrien. Ekarri biher izeten zan bedarra, hainbeste ganau euen ta ni baiño zaharrauek ebaitxe ipintxen eusten astu kargaute, asto bi, ta batak hainke eitxen eban ta hari ipini biher izeten jakon mozala. Ta gaur billurtu eingo nintzateke, ordun ez. Akostunbraute halantxeik. Ta bedarrak eta erun astuai hara ta erun etxa harek kargaute ipintten eustezan mutillek edo aitxek edo, ta gero amamak edo husten eban ta gero atza astukin jun. Ta biherrin.

2.21. Aita alargundu eta bigarrenez ezkondu zen

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Martinez, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-058/002
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:01:01. **Bukatu**: 00:02:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena**: Aita Ameriketara joan zen ardizain. Handik itzuli zenean, Elgoibarko batekin ezkondu zen. Gazte alargundu zen eta bigarrenez ezkondu zen Juanen amarekin.

Transkripzioa
- Aitte Ameriketa jun zan ta Ameriketan ardizaiñen egon zan urte batzutan ta handik etorri zan ta gero ezkondu zan. Ta ezkondu ta gero... Ezkondu zan Elgoibarko andra bategaz. Ta haregaz andriaz euki eban alabatxu bat. Baiña alabatxue euki ta hillebete batzuk zilla, hil ein jakon. Ta gero gure aitte ezkondu ein zan. Markiñeku zan lez, Markiñaa etortzen zan, Elgoibartik Markiñaa ta abar. Ta gero topau eban nobixie Markiñen osta be ta ezkondu zan ta orduntxe [agertu] giñen gu, beste bost anaixa.
- Bost izan zarie? Bigarren ezkontzakoak.
- Bost eta lehengue bat, sei. Bai. Lehelengue bat eta bigarrenekuek beste bost, sei.
- Zu zenbatgarrena izen zara, ba?
- Ni ixen na laugarrena: Maria Juanita, Justo, Jesusa, lau. Laugarrena.
- Azken aurrekoa.
- Bai.
- Horixe da, bale.

3. Baserria

3.1. Baserriko lanak: itaurrean eta behizain

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/012
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:15:43. **Bukatu**: 00:17:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Baserrian beti zegoen lana. Itaurrean eta. Laiarekin nagusiak ibiltzen ziren. Soroan lanean. Behiak zituzten, txahalak hazteko, eta haiek zaintzen ibiltzen ziren. Etxerako behar zuten esne dena. Garia, artoa... Ganadua orain ondo bizi dela dio, lanik egin gabe.

Transkripzioa
- Ta eskolan ta dotriñan-ta egoten ez ziñienien, zer eitten zenduen zuek egunien ziher?
- Enee, baserrixen beti euen biherra! Baserrixen beti zozer: edo behixek zaindu behar zenduzela (bizendule) edo, udan-edo intxaurren ein biher dozule /bizule/ ganauen aurrien edo, beti zozer. Beti.
- Goldaketan- eta be ibilten zinen?
- Goldaketan. Ba gero, hori haundixaue…
- Laixetan edo ?
- Laixetan gitxi ein eban, baiña hori, ya hori umetan ezin leiken ein leixetan- ta.
- Ez?
- Ez. Hori fuertiaue da, bai. Leixak altxautie, bai nausixauek ba, persona nausixena da hori, bai.
- Ta zuk ze biher eitten zendun orduen, soluen-eta?
- Soluen ba, lehena pasaten zana, labreten zendun, ta urteten eban, lur koskorrak, zokille jo ta holako gauzak ein biher izeten /biziten/ zin, bai.
- Ta idirik-eta ez zenduen euki?
- Ez, ez, behixek bai.
- Eta ordun, ittaurren.
- Ittaurren ein biher. Zaintzie, gero larra ata biher izeten zin harek. Oin botaten dozuz solora ta libre, baiña ordun zati baten zaindu biher zenduzen /bizenduzen/. Edo mendi zerin-edo… Ta okerra jun ez deixen, ba zainddu ein biher zin /bizin/, zaindu ein biher zin /bizin/.
- Ze euki zenduezan, esne behixek?
- Ez. Lau bat behi edo eukitxen genduzen txahalak hazteko, bai.
- Ta gero, esnie saldu-eta ez zenduen eitten…
- Ez, ez ez. Guk etxin behar gendun esne asko, hamaike giñen-ta. Ez genken saltzeko. Ta gero, behixek be oin lez esneik be zer eukitzen eben ba? Larreik be, dana ein biher zan /bixan/, garixe ta artue ta hori, erein biher zan /bizan/ hori hartzeko. Eta ganauek ba ebaitxe eruen biher izeten /bizeten/ jakuen. Ba ganauek be ez zin oingo modun bizi. Oin ganauek ondo bizi di: biherrik ez, eta jan ta edan. Ure be, oin etxin deuke. Ta orduen ure edata erun ein biher. Ta egunin baten-edo, erun da listo, bai.

3.2. Gariaren prozesua; errotara astoarekin

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/013
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:17:56. **Bukatu**: 00:20:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Gari-jotzen ibiltzen ziren. Prozesua: ebaki, azaoa egin; eskuz jo harrian, garaua ateratzeko; makinan garbitu. Markinako errotara eramaten zuten, irina egiteko. Menditik joaten ziren, astoarekin. Ez zen lan ederra; astoa okertu eta larri, aldapetan.

Transkripzioa
- Ta orduen garitten-ta ibiltten ziñen zu, gari joten-ta?
- Gari joten hoixe bai, hoixe bai gari joten. Baina ez zan edarra. Berue, beru biher izeten /bizete/ zan ba garixe zertzeko. Beruaz jota urten daixen garauek, urten daixen.
- Zelan izeten zan hori prozesue, kontekozu apurtxu bat, dana, garixena, garixe batzetik dana?
- Ba garixe, ein biher izeten zan /bizetezan/ ebai. Eta gero, lotu ein biher izenten /bizete/ zan, azaue esaten zan hori. Ta gero, ipintten zan, kukurutxun edo metie edo holan einde siketzeko. Eta gero, ein biher izeten /bizete/ zan jo, ha garaue etatako.
- Eskuz?
- Eskuz. Harrixen, drin-dran jo. Eta beruaz urtete eutsen garauek. En kanbio, burue berue ez bauen, jo ta jo eindde be ez aban urteten. Bai. Ta gero ba, ein biher izeten zan /bizetezan/, makiñan garbittu. Zera arotza-edo esaten jakon gauzie eukitte eban barruen, ganien garixek. Ta ha ein behar izeten zan makiñan garbittu. Ta gero, ogixe eitteko ba, erun errota ta errotan, eitten eben urune ta etxin.
- Nungo errotara?
- Markiñen, Markiñeko errota eruten gendun. Oxilaiña. Markiñen, sarreran da, hantxe. Haraxe eruten gendun
- Zer egon zan, errota bakarra ala?
- Beno, han hurran, haxe. Gero…
- Berritxu partera-eta ezinen joaten? Berritxu parteratz eta ez?
- Ez, ez. Markiña.
- Ordun Urrusolo be martxan euen?
- Bai baiña gu, Oxilaiña. Guk urraua geunken haxe. Urlo parin da Oxilaiñ. Ta haraxe gu. Gero, mendiz juten giñen hara.
- Ta hori, nondik nora joaten ziñien etxetik errotara, edo zelan-edo?
- Ba lehenako bidie mendixen. Kamiñoik ez zaueneko bidi, mendixen ziher.
- Baiña astoz, oinez?
- Astuaz, bai. Astuai, zorru ipinitte. Bai, astuaz jun biher, bai. Ta ba aldapie be bastante eta bueno, ez gendun gogo, gusto haundik eukitten errota juteko. Ze astu juneran eta goittik beheran, beti zorrue alderdire. Ta okertutekun inderrik be ez. Ein hari gorutz de… Ez zan izeten agradabli. Gurin Luis hasi zanin, mutille, hori zazpigarrena zan mutille. Ta ha desietan, ha trankil juten zan. Asto gañin plantaute be bardin, trankil. Gu estutu

eitten giñen, estutu eitten ginen gu, baiña ha, ez. Pozik jun zan hasi zanin, bai.

3.3. Errotariarekin tratua; ogia egiteko modua

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/014
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:20:48. **Bukatu**: 00:23:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Errotariarekin tratua nola egiten zuten: irin kilo batzuk berarentzat hartzen zituen hark. Ez zuten dirurik behar, trukea egiten zuten. Irinarekin ogia egiten zuten. Irinari zahia kendu. Ogia astebeterako egiten zuten. Ogia egiteko prozesua. "Txantxaduri".

Transkripzioa
- Ta errotarixegaz tratue zelan eitten zenduen?
- Ba eruten genduen zorrue ta eitten eben pixau. Eta gero emotn eben urune. Ta eurentzako hartzen zittuen kilo batzuk, ez dakit zenbat izengo zien, han pixotik, ba urune gitxia emon: honenbeste kilo, ta ba atzera urune hartu ta etxera.
- Ta dirurik ez zenduen gastetan?
- Ez, errota zerin ez. Ez, ez, truke. Harek eurek hartzen eben garixan pixue: honenbeste pixu dauke ta ba urune gitxia emon. Bai, haxe haren irabazixe.
- Ta gero urunegaz?
- Gero, urunaz ogixe ein biher. Ogixe gero.
- Zelan eitxen zenduen?
- Ba urune zahixe eukitten eban urunek. Ta eitten biher izeten /bizeten/ zan pasau galbaien. Gatzen zan, urune pasaueran ta goixen gatzen zan ba azala, garixan azala, zahixe, esaten jakona. Ta gero ba, ha zahixe izeten zan ba txahalentzako-edo, zahixe, ona zan txahalentzako ta be. Eta ba ogixe eitten gendun, urune ogixe eitten gendun, ezta? Astebeterako jeneralin. Ta ogixe eitten zanien, hurrengo asterako zatitxu bat gatzen zan ogixana. Ha lebadurie izeten zan. Urunetan tapaute itxi ha ta handik hurrengo zortzi eguna ogixe eitteko, haxe. Urune ipiñi, ta ur berue ta gatza bota haraxe, ta lebadurie. Ha hantxe zertu dana, ta gero masie ein.
- Ta lebaduriai, beste zeozelan be esaten dotsezue ezta? Txantxadurie?
- Txantxadurie bai, txantxadurie.
- Hori lebaduri da?
- Bai.
- Ta hori aurreko egunin gordetako errezetie.
- Txantxadurie bai. Gorde ta gero ogixe ein. Masie ta zera ta gero, ogixan formie, beran denporie biher harek be altxetako ta hori gauzak eitteko. Ta gero ba sartu laban, ta ordubete baten-edo, sue, egurraz-ta eitten zan, ta labie berotzen zanien, zurittute ikusten zanin, ba ogixe sartu. Ta gero ordubete bata-eta.
- Ta zenbat denborarako ogixe?
- Zortzi bat egun; hoixe, zortzi bat eguneko.

- Gozo egoten zan zortzigarren egunien?
- Gozue, ordun dana zan gozue! Bai, baserriko ogi sikue diferenti. Ez da kaleku lez, bai.

3.4. Eguneroko otorduak: babarruna, txerrikiak

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/016
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:23:47. **Bukatu**: 00:25:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Talo asko jaten zuten, baina morokila ez. Artoa, zopak eginda eta esnetan egosita. Babarruna jaten zuten egunero, eta garbantzua jaietan. Txerrikiak, gatzituta: "gatzanoski".

Transkripzioa
- Ta gero talue ta be, jango zendun ba morokille-ta?
- Bai, morokille be bai, baiñe ez gendun guk morokill asko. Ez giñen morokille, talue bai. Talu ta artu ta esni. Artue beste bat eitten zana, masie, ogixan moduen, artuaz. Ta artuta esni, gehixa gusteten jakun morokille baiño. Bai, artuai sopatxuk eindde, mehe-mehe ta gero esniaz egositte gozue eoten zan. Ta talu ta esni be bai. Talu be arto-urune, artuaz be hoixe, garixaz lez eitten zan, ba urune. Ta gero taluek.
- Eguneko, holan jatordu normal bat-edo, zelakoa izeten zan? Ze oin, denetarik jaten da oin.
- Lehena, inddierrak jeneralin. Inddierra, lapikokue egunero inddierra. Ta domeketan ba, garbantzuk ta okeli sartu barrun ta. Hoixe, zeziñe eitten zan ordun. Zeziñe ta txarrixe, jeneralin baserrixetan.
- Ta urte osorako?
- Bai. Txarrixek igul, bi be bai. Baiña, zeziñe ta holaku ba baten. Bai.
- Baia nun gordetan zenduen zeziñe?
- Gatzaun aski, esaten jakon. Leku bat, gatza emon ta hantxe konserban. Gatza bota ta alkarren gañin ipiñi.
- Ta ondo?
- Ba, bai. Ondo konserbatzen zan. Gatza, bastante gatza. Gero ba harek moteldu daixen, beratu ein biher zendun /bizendun/ uretan.

3.5. Morroi eta neskame soldata barik

- **Hizlaria(k)**: Anitua Lejardi, Jesusa ; Anitua Lejardi, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-011/017
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:29:11. **Bukatu**: 00:31:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amallobieta, Ana

- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Jesusa neskame egon zenean, urtean soineko eta beroki bat irabazten zuen trukean, besterik ez. Dirua behar zuenean jaiotetxera bueltatzen zen eskatzera. Jose Mari ere mantenu truke ibili zen morroi.

Transkripzioa
-Ta morro ta kriada joan ziñenien, jornal truke edo?
-Jesusa: Nik bakizu zer neuken? Urtien soiñeko bat edo urtien traje bat edo urtien abrigo bat. Besteik ezebez. Erropa bat urtien. Ta urte guztixen biherra. Dirue biher nabenien Sumiña etorten nintzen, honatxe, amai eskatza.
-Ta amak eukitzen eban ala?
-J: Ba hori ezin neiketzu esan .
-Jose Mari: Zeozer, zeozer, gauze haundik ez.
-J: Baiña ez dauket gomutan ez dostenik emon. Pentsetan dot /pentsetot/ beti emon dostela /emostela/ zeozertxu amak.
-Jose Marik barre ein deu.
-JM: Bai. Zoze ba beti emoten osten, neuri be beti emoten osten /emotosten/ zeozer.
-J: Bai.
-Baiña han morro egon ziñen etxien?
-JM: Han? Han ez... Ondo hartzen niñuen harek, e! Ondo hartzen... Amumak hartzen niñuen estu. Ostien bestiek persona onak zien, onak.
-Bai?
-JM: Baiña diruik ez.
-Ta morro joan ziñenien ze, baserriko biherra ta?
-JM: Mantenitze alda. Mantenitze alda. Ta kittu.
-Ta ze eitten zenduen han? Egun guztixe ta gero gabera etorri?
-JM: Ez, ez, ez, bertan, bertan.
-Bertan geratu.
-JM: Bertan. Jan ta lo, dana.
-Horrek ze izete zien, holan, familia aberatsak edo dirudunek edo?
-J: Batanbat bihar ebenak /bihabenak/ laguntzeko. Ta ordun aukerie euen.
-JM: Ordun be, nietzako gehixa… ez dakit ba nik, zelan esango dot, ba. Baserrixek, baserri batetik bestera alde handixe da. Batzuk terrenu onak eta zabalak eta beste batzuk eskastxuauek eta erripak eta […].

3.6. Baserriko ohiko egun bat

- **Hizlaria(k)**: Anitua Lejardi, Jesusa ; Anitua Lejardi, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-011/018
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:31:06. **Bukatu**: 00:33:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amallobieta, Ana
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak
- **Laburpena**: Baserriko ohiko egun bat azaltzen du Jose Marik: itzartu, kortako lanak egin, Markinara esnea eraman, ganaduak atera eta

zaindu, goldaketan... Egun guztia behar eta behar. Behiak erabiltzen zituzten lanerako.

Transkripzioa
-Lehen baserriko biherrak zelakoak izeten zien. Ze hori oin asko kanbixe da.
-Jose Mari: Oin baiño gogorrauek.
-Jesusa: Mille bider be bai.
-JM: Oin baiño gogorraue.
-Zelan izeten zan egunien eguneko biherra?
-JM: Goixin lehenengo, ohetik jaiki ta korta jun biherra egoten zan. Batzuk behixek […] artien, aska aurrekue, zeozetan harei lagundu, ta gero esniek erun biher izeten eben Markiña. Normalmente esnie eruten ama izeten zan. Ta gero arrebie be bai. Neu be bai iñoz, baiña ni ez naz asko juten […]. Arrebie asko. Ama […] horrek izeten zien esnie erutailliek enjeneral. Gero ganauek etara, zaindu, gero araketak edo goldaketak edo, soluen labretan, lurre labretan, hor juten zan gure eguerdi artie. Bazkaldu ta aittek eta amak siestatxue eingo eben. Ta guk be [zeozen bat]... benga, arratsaldie. Latio ostabe. Ta gogorra zan e, gogorra zan. Biximodu gogorra zan. Gogorra.
-Ta soloko biherrak, lehen esan deu Jesusak, ittaurren eta?
-J: Bai. Aurrien behixekin jun ein biher zan /bizan/ bat. Beti ez, baiña general, bat.
-Ta ze tresna ibiltzen zenduezan? Behixek ibiltzen zenduezan ta ze gehixau, goldaketarako ta?
-JM: Bai, ganauek, ganauek lotu ta ganauek. Ganau buztarrixek. Idixek be bai. Idixek be urte batzutan ezautute na. Aitta zanak ekarten zittun, idixek erosi, euki apur baten ta gero saldu.

3.7. Urrea aurkitu zutenekoa

- **Hizlaria(k)**: Anitua Lejardi, Jesusa ; Anitua Lejardi, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-011/024
- **Iraupena**: 0:04:29. **Hasi**: 00:43:56. **Bukatu**: 00:48:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amallobieta, Ana
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: "Aitxitxan baule" zenari nahi barik ostikoa eman eta bota egin zuen. Urrezko txanponak zeuden bertan. Beraien aitak harekin etxea erosi zuen, besteak beste.

Transkripzioa
-Ta lehen zure alabiek komentau doste hemen urrie topenikoa zarela zu.
-Jesusa: Ez, hau ez.
-Zeu?
-J: Ni bai. Ni aberatsa naz.
-A bai?
-J: Bai.
-Aberatsa diruz?

-J: Ez. Hori interesetan jatzu hori be?
-Bueno. Istori moduen.
-J: Gu geuezan… hau pentsetan dot /pentsetot/ zala. Heu hintzan, ezta? Beheko soluen artajorran geuezan aittaz ta amaz. Batak zer bat bota, lur zati bat, eta bestiek… guk, behin o behin eitten gendun edo, aittek esan eban /esaban/: “Hi jun hadi —San Martiñek etozen orduntxe—, hi jun hadi sala ta salie altzain”. Han eitten nabena okerkerixe eitten naben ta. Etorri nintzen hona ta hamen euen esaten gendune baule aittittana. Aittittan baule, hari beti. Ta nik gaztie ta jo ostikuaz ta bota naben.
-Jose Mari: Baule, baul zahar bat.
-J: Purruuuuuuu. Dana monedak. Bueno, jun nintzen beheko sola ta ezin siñestu nire aittek eta amak. Ta danak etxera. Harek papelaz eskribidute ta biher dan /bidan/ modun euezen baiña sitzek janda dana harek papelak. Kontratuko moduko papelak edo papel lodixek edo zien. Eta…
-Eta gero ze paseu zan harek urrakin?
-J: A! Ba aittek Barendako Julin gizonai kanbixau erain otsen /eraitsen/ eta nik pentsetan dot /pentsetot/ ordun zorrak eukezela aitte gurik eta, neuk pentsau eitten dot.
-JM: Etxie pagetako.
-J; Hoixe. Eta haretxek pagau. Tia Makotegiko penaz.
-Ze, etxie pagetako?
-J: Ez. Harek prestaute euken diru, kontizu, tiok gure aittai, prezixo onin ta aittek danak entregau horrekin diruokin, eta tiak penie, ze ganantzixe euken ba. Ta hoixe ba, hortaxeik.
-Alaba: Baiña diru gehixena beste leku batzuta jun zan, zuek ez ziñen gatu, hamen ez zan gatu. Zein izen zan zuei diru kanbixau otsuena?
-J: Kanbixau ebana zan Juli Barendako, Hinpoliton da arrebaik nausixenan gizona.
-JM: Guardie, caza y pesca-ko guardie.
-Alaba: Baiña ze ein otsuen, ondo pagau otsuen harek dirue?
-J: A! Harek negozixue. Aittek ez oskunan /etxoskunan/ guri eskatu, aitte arreglau zunan haraz ta harek emoten otsen /emototsen/ komeni jakona.
-JM: Haren aldin gero hari danak esan otsen /esautsen/ hoixe etxie pagetako beste biher dabela /bidabela/. Amaitzeko. Etxie amaitzeko. Ta gero beste apur bat zerai, sobrau zana, pentsetan dot /pentsetot/ emon otsela hau e… Piedra, txatarrerue, Piedra. Honek anaixak bata Durangon ta bestie Lekeitton. Baiña Piedrak e… Piedraik ez dozu entzun? Horrek urte askuen egon zien, bata Durangon. Horrek Piedrak Markiñeko frontoien be bazaukon ba partie. Markiñeko frontoien be. Bai, bai, bai, bai.
-Alaba: Baiña oin dala zenbat urteko gauzak diez horrek?
-J: Uf, ni neska koskorra.
-JM: Neure akordukuek die horrek. Piedrak horrek bastante. Neure akordukuek.
-J: Hori nik topau nabena San Martin aurreko astie edo zan eta, gu, gu gaztiek oindiño. Gaztiek, gaztiek.
-JM: Gogun dauket Piedrai, diru gitxiaz, osea, moneda gitxiaz bastante diru gehixa…
-J: Gehixa emon. Honbre!
-JM: Piedrak.
-J: Seguramente.
-JM: Txatarreruk gehixa emon otsen.
-J: Niri bat emon osten /emosten/ aittek. Neuk topau naben lez, bat. Bankuen kanbixau ta hagiñe arreglau naben. Ta Domingai be bai. Ez dakit zenbat hari be, bat edo bi. Seguramente nik baiño gehixa hartuko junan. Eta nik…
-Alaba: Baiña ha zan biherra gehixen eitten ebana etxien.

-JM: Bai, bai.
-Alaba: Ordun gehixa tokau be eingo jakon.
-J: Neuk be ein najunan, e.
-Alaba: Zuk topau ein zendun.
-J: Bai, baiña biharrak be bai.

3.8. Gerra sasoian artoa jaten zuten

- **Hizlaria(k)**: Aretxabaleta Goikoetxea, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-015/002
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:00:44. **Bukatu**: 00:02:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena**: Gazteak neskame eta morroi lanetan zabiltzala ez ziren gaixorik egoten, sendoak ziren. Gerran, Aulestin zeudela, arto asko jan zuten: morokila, ogia, taloa... Eguzkiak irten orduko solora joaten ziren eta berotzen hasterako beste lan batzuk egiten zituzten.

Transkripzioa
- Zelan gaztiek egon garen krixedatan, esan leike sekulo ez giñela egon gaixorik. Bakixu zer dan hori? Suerte bat lez, ezta? Eztarriko miñe edo holakon bat, baiña bestela... Ba, hori da gaztie ta sendue egotie edo. Guk ein gendune Aulestin da artue jan, sendo! Artue. Artue ez dakixu zer dan? Bueno, batien artue eindde laban, bestien morokille, ta bestien taluek, ta bestien ogixe. Ogixe, siku-siku-sikue, gaztaie lantxeik. Horrek gaztai senduok, ebai fin-fin-fin ta haxe, armozue. Hamabixetan bazkaldu. Goixeko zazpiretan euzkixek hartu orduko, eruten giñuezan solora, ta euzkixek berotzen ebanien beste biher bat egitera: bedarra ebai, ta holan.
Han ez zan egon andrazkoik. Han egon giñen nire nebie ta ni, edozenbat urte.

3.9. Aita tratantea

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/003
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:04:44. **Bukatu**: 00:06:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Beti eduki izan dituzte ardiak, aita tratantea zen eta. Batzuetan asko, gainera. Aita salerosketan ibiltzen zen frantziarrekin eta horregatik Holtzartera joan izan dira inoiz ardiak eramaten.

Transkripzioa
- Esan dostezu bildotsa kendu eutsuela zuri, ezta? Ardiek euki zenduzen ordun.
- Ardixek bai. Ardixek beti. Ni ardi barik ez naz sekulo egon. Aitte tratantie

zan, nire aitte. Ta [unekada] batzutan asko. Batzutan igul hirurehun. 300 ardikin be ni junde na Naparrura, Holtzartera, aittai lagun eitta ardixek eruten. Hankaz. Trabakutik, handik, Berriztik, Mondragotik ziher, Elorrixotik, Mondragotik Holtzarteraiño jun giñen, hirurehun ardikin. Ni mutil gaztetxue, praka motxekin... Izotz bat euen... Pertsonie hiltten gatxa da lantzin behin. Ni zertzuk pasaute nauen, hotzakin, e?
- Handie?
- Beti kanpuen, ba, batin ardixek zila, bestien kaballuek zila, bestien... Tratantie zan, ta ordun dana hankaz erabilli biher zan /bizan/.
- Horrek ardiek etxerako ziren zuonak? Edo saltzeko ta holan?
- Erosi. Erosi eitten zittun aitte zanak. Saldu eitten otsiezan /eitxotsiezan/. Prantsesei-ta saldu. Gero eruen. Etxien be beti eukitten genduzen, baiña, tratantian kontuk, badakizu, batin erosi ta bestin saldu.

3.10. Oinez Frantziara ardiak saltzen

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/007
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:08:36. **Bukatu**: 00:11:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Anaia batek Frantziara ihes egin zuen soldadutzarik ez egiteko eta haren bitartez hasi ziren ardiak Frantzian saltzen. Oinez egiten zuten bidea, lau-bost egunean eta leku zehatz batzuetan geratzen ziren beti.

Transkripzioa
- Anai bat be, nire anai bat be, zaharrena, soldautzatik Frantzira ihes ein eban /eiban/. Ta gero, ba, haren bittartez ardixek Frantzire asko saltzen genduzen.
- Baiña haraiño joateko, oiñez, ezta?
- Dana oiñez!
- Baiña zenbat egun edo? Bat baiño gehiao bai...
- Hoixe bat baiño gehixa! Lau-bost bat egun biher. Ganauek be pixkat jan be ein biher eben /biben/ bidien, ta ez segixen hartu ta trotien eruen. Egunek biher...
- Egongo ziren holako txabolak, lo iteko... Non gelditu...
- Bai, puntu batzuk baeuzan. Bergaran be bai. Bergaratik Mondragora bittartien, han kruzie dauen lekuen. Gau baten, ordun hirurehun ardikin jun giñen, hantxe. Gaba aillegau zan ta nunbaitten gatu biher gendun /bigendun/. Han tabernie: "Honetxek ardixok gabin eukitteko lekue, nunbaitten zerradura bat edo" ta "Kamiñora urten ez deixen hor trabie ipiniko dotseu /ipinikotseu/ ta hementxe etxe aurrien, plazuelan. Hementxe egongo die". Ta "Bale". Kamiñora salidie zarratu gontsen. Ardixok han plazuelan! Goixaldien izotz bat euen... zuri-zuri-zuri! Pasau zien orture, ardixok. Haren orruadi ta haren zaparradi! Batzuk pasau zienien, bestiek be... gosiek! Hainbeste ardik, ba, bidin e... Bai, Kanpazarren be jataldi bat erain gontsen, baiña... gosik! Batzuk orture pasau zienien, azak eta porruk-eta jaten han, ta haren orruadi ta haren zaparradie! Urten ohetik ta harek etaa ta. Atza plazuelan ipini, pasau zien zuluoi zarratu. Itargi zuri edarra euen. Izotza be zuri-zuri...

- Ta ardiek ortue jan!
- Ortuen. Ardixek ortuen.
- Itzela.
- Pasau, ba itzelak pasetan zien. Oin be paseten die, baiña orduen be bai. Baiña dana hankaz eitten genduen, dana hankaz.

3.11. Markinako feria eta inguruko herrietakoak

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/009
- **Iraupena**: 0:00:37. **Hasi**: 00:11:35. **Bukatu**: 00:12:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Markinan feria egiten zuten hileko bigarren zapatuan. Elgoibarren, ostera, hileko azkenengo zapatuan egiten zuten eta Arrasaten eta Abadiñon hamabostean behin.

Transkripzioa
- Perie Markiñen hil danetan egoten zan. Hillan bigarren zapatuen.
- Eta gehau egon dire inguruen?
- E?
- Beste leku batzuetan be egongo zan.
- Bai, Elgoibarren be bai. Elgoibarren hillan azkenengo zapatuen. Abadiñon be bai, Abadiñon be egoten zan, hamabostien. Mondragon be hamabostien... Horrek danetara juten nintzen. Danetara! Batera ardixe erun biher dala /bidala/, bestera behorra erun biher dala, bestera idixek erun biher diela /bidille/...

3.12. Neurri-kordela ganaduen pisua kalkulatzeko

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/010
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:12:12. **Bukatu**: 00:13:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Ferietan tratuak egiten zituzten eta gero tabernara joaten ziren kuartillu bete ardo edatera. Tratua egin aurretik, neurri-kordela erabiltzen zuten ganaduen pisua kalkulatzeko.

Transkripzioa
- Tratue, ba, asko eskatu, gitxi eskeiñi... hantxe! Gero elkartu ein biher. Ahal bazan. Ta ezin bazan, ba, atza lehengo moduen.
- Ta ez zan eiten gero, tratue ein ostean, tabernara joan, zeozer hartu ta...? Ez egoan ohitura hori?
- Negozixo ona eitten bazan, saltzaillik inbitau. Ta ez bazan, erostaillik pagauko baleu lantxeik. Bai, hori izaten zan. Tratue eindakuen tabernara jun, kuartillo bat arda ata, lagunei emon ta. Ordun zan, ba ardaue. Ordun

ez zan oingo modun.
- Ordun ardaue, ezta?
- Ardaue!
- Ta zelan... Nik iñoz ikusi dot holan ferietara eroaten zan holango kordel moduko bat edo... Zelan da hori... medidea hartzeako?
- Bai, neurri kordela. Nahi badozu /nahibozu/ erakutsiko dotsut / erakutsikotzut/. Soltatzen nazenin erakutsiko dotsut. Badaukaaz nik.
- Hori zelan erabilten da?
- E?
- Zelan erabilten da hori?
- Erabili, ba, harekin neurtu ta kalkulau eitten dozu.
- Pixue?
- Pixue kalkulatzen dozu. Pixue kalkulatzeko zan ha.
- Ta nondik neurtuten da?
- Gerrixen. Ganaue gerrixen. Kaballerixie, astue edo behorra edo mandue edo, alturan. Aurreko hankatik, barrenetik, lepora.

3.13. Ganaduen adina haginei begiratuta asmatu

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/011
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:13:52. **Bukatu**: 00:16:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Ganaduaren adina jakiteko haginei begiratu behar zaie. Lau urtera arte, esterako, esne-haginak edukitzen ditu. Haginei begiratzeaz gain, zuhur ibiltzen ziren tratanteak ganaduari antza emateko.

Transkripzioa
- Eta egoten zan, holan, beste trukorik jakiteko, igual, ze edade dekon, edo… haginek edo zeozer…
- Bistie ona!
- Ba, eukiko zenduen trukoren bat, ez? Non ikusten da?
- Haginetan. Haginetan igerten jako ganauai. Bai.
- Urteak eta, ezta?
- Urteak. Lau urtera artien esne-haginek egoten die juten. Hasten die urte bikin, botaten die bi, ta gero hirukin, ta lau urtekin ya zarratzen da. Baina handik aurrera be igerten jako.
- Ta beste zeozer begituten zan, jakiteko ona zan edo?
- Horretarako, bistie! Bistetik. Bistiaz kalkulau biher. Ze tipu euken, ze pausu euken, ze mobimentu euken...
- Zuhur ibili beharko zan, ezta?
- Hoixe! Erromerixan ontxe lantxe. Erromerixan be neskak ekingo otsen han mutilek… pausu baldarra deuke… Igual! Bai. Zetara dediketen zan, hantxe ipiñi biher dozu /biozu/. Ta tratantiek, ba, hantxe ganauai igarri, antzen handixe emoten jako. Ia begittute, por ejenplo, hogeta hamar edo berrogei ardi daz errebañun, zelaixen ezta, zabal-zabal. Harei ikutuik ein barik kalkulatzen dau pastoriek zeintzuk din balixokuek.
- Bai, e?

- Hoixe! Igerri biher! Bestelan...
- Bestelan txarto norberantzat.
- Bestelan txarto. Eskasa erosten badozu, saltzen gatxa izeten da. Etxerako bada be, onak beti balio dau, ta eskasak ez dotsu /eztotsu/ balio. Bistera igerten jako ganauai, antz emoten jako... baiña horretarako hartute egon biher da /bida/, e.
-Onbre! Eskarmentue, ezta?
- Eskarmentue, hori, hori, eskarmentue.

3.14. Behi onak bost mila pezeta

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/013
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:17:17. **Bukatu**: 00:19:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Hamazazpi-hamazortzi urte zituenean, behi onak bost mila pezetan saltzen zituzten. Normaltxoagoak bi mila pezetan saltzen ziren.

Transkripzioa
- Akordetan jataz, modu askotakuek izeten die behiek be, ezta? Baina hobatxuauek ba, bi mile pezeta be zertute deuket. Apurke-apurke bost mile pezetaiño be nere gazte denporan... Nik hor hamazazpi-hamazortzi urte inguru neukezanien, bost mile pezeta! Behi ona, prezixu bost mile pezeta.
- Hori be dirue zan orduen...
- Hoixe! Orduen dirue... Baina hori ona, e, ona! Korrientiek bi mile pezeta. Geurien, baserrixen, etxin hazitte geunken behi bat ona. Prezixue euken, aittek ba kapritxue, haretxekin bost mile pezeta hartu biher zittule ta. Erostaillak, mordue eukezan behixorrek. Hamazortzi mille errialeraiño aillegau zan bat. Beste batek, asko zala. “Hamazortzi mileraiño agindutek jak, ta bost mile pezetatik behera ez najoiek emota” aitte zanak. “Hori beste behixoi zenbat ba?” Arratixetik ekarrittekue zan, gaiñera, beste behixe, behi edarra zan. “Hori bi mile pezeta”. “Ño! Berau erungo juat”. Erun dau bi mile pezetakuoi. Urten deutse behi eskasak, ta gero haren penie. “Hori bost mile pezetakuoi erun banajok, hori bai huan behixe, ha nik erun nebana... eskasa”. Itxurie ona euken behixorrek, baiña...
- Gero... ezta?
- Hori, hori, hori. Bai, onak beti dirue.

3.15. Behi eta ardi arrazak

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/014
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:19:20. **Bukatu**: 00:21:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

- **Laburpena**: Hainbat behi arraza izan dute inguruan: holandesak, txarolesak, asturianak, suizak, pertsianak... . Ardiak, bestalde, ez ziren arraza purukoak izaten, mestizoak izaten ziren.

Transkripzioa
- Zeintzuk izeten die arrazak, behien arrazak?
- Behi arrazak, holandesak, txarolesak, asturianak, suizak, pertsianak esaten jakuen hemen beste batzuk, idixek-eta eitteko pertsianak izeten die horrek kastañuok.
- Ta horrek danak eduki dozuez hemen inguruen?
- Danak egon die horrek inguruen, danak.
- Ta zeintzuk dire onak, onenak?
- Segun, ze objetotako dan.
- Zetako dan?
- Ze objetotako. Okelarako onenak die, gogorrak eta, mimosinak. Ganau kalidade gogorra. Neguen kanpuen-ta ondo egoten die. Raza biguntxuaue bada, neguek jan eitten dau. Ordun, neguen barrun ondo gobernetan ez badozu, galdu eitten dau asko. Suizak eta txarolesak eta horrek die ganau klase biguntxuaue, jateko asko biher dabenak. Horrek mimosiñok-eta die gogorrauek.
- Ardiek eta, latxak?
- Latxa. Lehena dana mestizue egoten zan. Oin hori razioi, latxa, ibiltten da, baiña orduen dana mestizue ibiltten zan, dana dalakue. Aitte gurik esan eusten /esausten/ “dana dalakue”. Ez zan ardure hainbesteik, inportantzixaik emoten, lehena oingo moduen. Oin ona biher dozu /biozu/. Oin ondo gobernau biher dozu /biozu/. Ondo gobernaute, raza eskasa bada, ez dau probetxuik emoten, kosta. Ta ez badau emoten… nulo, hak ez dau balixo.

3.16. Nafarreria eta "lanparoie" ganaduen gaixoak

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/016
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:22:00. **Bukatu**: 00:24:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Ganaduak "lanparoie" izeneko gaixoa hartzen zuenean birikiak usteltzen zitzaizkion eta hil egiten zen. Nafarreria ere ganaduek sarri hartzen zuten gaixoetako bat zen, eta oso kutsakorra gainera.

Transkripzioa
- Lanparoie zan txarra.
- Zer zan?
- Lanparoie, ba, tuberkulinie edo hori, zerbait barruko… pertsonak pleuresixe lez, sartzen dan gaixo bat. Pulmoiek usteltzen jakoz, ta behin pulmoiek usteldu ezkero apurke-apurke ganaue juten da galtzen. Lehena, hantxe, gaixoik euezenak be hantxe egoten zien ganauek etxin. Ta beste danei kontajiau ta. Oin sanidadie asko da, gehixau. Naparreixe beste bat. Zan ha be… Oin ez da entzun be eitten, baiña naparreixe.
- Zer zan hori, ze sintoma eukon?
- Horrek? Mihiñeko narrue be soltau eitten jakuen. Apatxak be harrotu

eitten jakuezan. Hori gaixuoi behin hartu ezkero, berrogei egunien kortie itxi eitten eutsuen /eittotzuen/. Ezin zeinkixen ganaurik atara, berrogei egunien, bestela kontajixue auzuei iguel. Hori gehixenbat zabaltzen zan perixetatik eta, txarrikumengandik eta. Txarrixek eta ardixek eta ganauek, ba, danak, apatx bi deukezan gauziek, danak erabiltten eban hori. Igul hori gaixuoi kontajixaute, txarrixek-eta saltzen zittuen txarri-saltzaillak, ta gero erun baserrire txarrixe ta, bixamonien edo, bixamonerako ganauek danak gaixoik naparrerixaz.
- Hil iten ziren? Azkenean hil, ganaue?
- Banaka batzuek bai. Danak ez ziren hiltten, baina banaka batzuk bai. Txiki samarrak, txahal txiki samarrak-eta, hil be eitten zien. Baiña gaixo gogorra zan ta kuidau handixe biher eban /biban/ gaixue.
- Ta erabilten zenduen karea, kortan botateko ta?
- Erabili biher, hori gaixuoi euenien-ta, erabili biher.

3.17. Belar beroa janez gero, ardiak gaixotu

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/019
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:27:08. **Bukatu**: 00:28:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Soloan belar ona egoten zen lehen: sekula-belarra, pagotxa, alpapa... Batzuetan, belar piloak berotu egiten ziren eta belar hori janez gero, puztu egiten ziren ardiak.

Transkripzioa
Oin hori gitxia eitten da, baiña lehenao egoten zan bedarra, oin baiño bedar hobie, soluen egoten zan: sekule bedarra, pagotxa, alpalpie-ta izeten zien. Harek jandakuen... bedarra etxera ekarritte pixkat pillun berotzen bada, ha emoten badotsezue, haretxek harrotutzen dittu /harrotutzeittu/. Bai. Zelaixen be iñoz ardixek be, neuri ez jataz /etxataz/ sekulo suertau baiña, ardixek be iguel hiru-lau ardi, sekule bedarra edo pagotxa dauen lekure bota ta golpera jan, haixiau ta plaut! Erementau! Bertan behien.

3.18. Errapeko mina eta erroiba

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/020
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:28:04. **Bukatu**: 00:29:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Ganaduek umea egin ondoren, errapeko mina edukitzen dute batzuetan, gaixo gogorra. Erroiba ere izaten dute zenbaitetan, hotza-edo hartzen dutenean.

Transkripzioa
- Eta gero, behiek umea eiten daurenean, txahala eiten daurenean, ez dabe hartuten batzuetan errapeko miñe...?
- Bai, erroibie, errapeko miñe da beste gaixo bat, errapeko miñe be. Kalenturie hartzen deutse /hartzeutze/. Erroibie da beste bat, hotza edo hotz-ikerie pasau ezkero errapie gogortzen jakue. Bat da erroibie ta bestie da errapeko miñe. Baiña hori errapeko miñoi da gaixo gogorra. Horrek e... behirik hiltten ez dot ikusi, baiña ardixek bai. Ardixek, hori heldutakuen...
- Zeozer eitten jakon?
- Lehen ez euen erremedixorik.
- Naturalak be ez?
- Naturalak bai, naturalak baeuezan. Jaboie ta ur beruaz igurtzi-ta eitten zien, baiña bakizu! Baserrixen ikesitteko gauzak.
- Bueno, ba, batzuten...
- Bai, bai. Hoixe!
- Oin medikamentuek egongo dire...
- Bai, oin medikamentuk daz.

3.19. Pentsua eta etxean batutakoa ganaduek jateko

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/025
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:32:16. **Bukatu**: 00:34:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Lehen ere bazeuden pentsuak, baina garestiak ziren. Etxean asko ziren eta diru gutxi zuten. Pentsu merkea erosten zuten: zahia, pulpa... Etxean batutakoarekin hasten zuten ganadua, batez ere: artaburuak, lastoa, naboa eta belarra.

Transkripzioa
- Lehen zer emoten jakon jaten ganaduari, pentsuek eta egon ziren?
- Lehenau?
- Egon ziren pentsuek be bai?
- Egon ziren pentsuek. Baiña gitxi! Karu euen-ta. Hamar seme-alaba ta aitte ta ama ta han mahaixen ta… ganauentzako gitxi sobreten zan. Taluk eta morokille biher izeten zien. Apur bat saldu be ein ein biher, diru pixkat hartzeko; abarka barrixek eta praka barrixek umiei, noizipein batzuei ekarteko. Pare batekin, zapata pare batekin igul hiru-lau zerbitzen giñen. Bata goixin mezetaa, bestie gero meza neusittaa, ta holan.
- Klaro… oseake pentsue ez zenduen erosten.
- Bai, zeozenbat bai. Zeozenbat bai. Zahixe, ta pulpa ta… zeozertxu erosten zien. Pentsu merkie. Pentsu merkie, bakizu, merkiena. Diru gitxi euenetik, merkiena. Etxien hartzen zan lehena, ahal zan dana, etxien hartzen zan. Ta egon eitten zan, ba, artue ta garixe ta….
- Ta ganadueri zer emoten jakon orduen jateko?
- Ordun, ba, pentsue pixkat. Artaburu batzuek. Egunin artaburu batzuek neguen, udan ez. Behin udabarrixen bedarra hazi ezkero ebaten, pentsuik ez jakuen /etxakuen/ emoten. Ez zeixen emon ta… Neguen nabue ta lastue. Lastue be etxin hartzen zan, nabue be etxien, ta etxekue. Etxekuakin!

3.20. Pagotxa, sekula-belarra eta alpapa

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/026
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:34:11. **Bukatu**: 00:36:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Pagotxa udaberrian edukitzen zuten, oso belar ona. Sekula-belarra eta alpapa ere jaten zuten ganaduek. Ailorbea, ostera, jateko sendoa da, baina gustua ematen dio esneari.

Transkripzioa
- Ta gero, bedarrak, ze bedar klase egoten zan? Lehen esan deustezuz batzuk…
- Pagotxa zan bedar on bat. Ona! Hori egoten zan udabarrixen bakarrik. Baiña zan ha… oingo pentsuek baiño indar gehixa euken hak. Ha hasten zanin ebaten, ganauek ensegida ule zaharra bota ta ensegida loditzen zien. Bedar ona zan. Sekule bedarra, alpapie… bedar onak!
- Ta frantsesa? Ez zan egoten bat, frantsesa zana?
- Prantses bedarra esaten jakona da pagotxa.
- A! Hori da?
- Hori da, prantses bedarra. Guk pagotxa esaten dotsegu /esatotzeu/, beste batzuk esaten dotse /esatotze/ prantses bedarra.
- Iguala da.
- Bai, hori baiño bedar hobaik nik ez dot ezautu. Horrek ardixei be esni eemoteko, ta behixei be, hori dabillenien… Lodittu halantxeik eitten zittun horrek, lodittu be.
- Baina oin ez da ikusten, ezta?

- Oin dana galdu de hori. Ez da oin. Dana galdu da.
- Ta beste bat, holan, ailorbea edo…
- Bai, aillorbie! Aillorbie, jateko sendue, ona da. Baiña esne saltzen dabizenak eta, ezin erabilli aillorbie. Esnien beran tujue… Bakizu, kaletarrei ez jakue /etxakue/ gustatzen. Zeozen tejue deukela ta, kezkie. Ezautzen dabenak, ez dauke, tejo txarra ez deuke. Baiña esnien be haxe tejue ataten dau. Behixei emon ta esnien be haretxen tejue. Ezautu ezkero, niri neuri gustau eitten jata haren tejue, gustau! Baiña ezautzen ez dabenak, kezkie. Bakizu, “ojos que no ven…”.

3.21. Ermura esnea saltzen

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/027
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:36:13. **Bukatu**: 00:37:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Esnea egunero saltzen zuten Ermura, zaldiz. Otzarak jartzen zizkioten zaldiari lepoan eta kantinetan eramaten zuten esnea. Hiru pezetan ordaintzen zen orduan litroa.

Transkripzioa
- Ta saltzen zenduen esnea, ala?
- Bai.
- A, bai? Non?
- Ermure. Bai, Ermure saltzen gendun.
- Egunero?
- Bai, egunero. Denporaldi baten, egunero. Urrin euen hortik, Ermure, Zuluatik Ermure bastante junaldi... ordu t’erdi juten ta beste ordu t’erdi etorten.
- Ta zer, astoagaz edo?
- Astue edo, normalmente kaballue eukitten gendun guk, baiña astue.
- Ta zer epinten jakon astuari edo kaballoari holan eroateko esnea?
- Zestuek, otzarak esaten jakon holakoxe zestuek ipintzen jakozan lepuen, lotu sokiaz ta hantxe.
- Ta gero zer, kantinetan?
- Kantinetan.
- Eta kalean salduten zenduen hori?
- Kalean.
- Holan, etxe batzuten ia…
- Normalmente, ba etxe batzuetaa, jentie… esne ona eruten bazenduen, ta aprobeutakuen, ba, “bixer be ekarriko dostezu; ekarriko dostezu egunero?” Normalmente, jenero ona dabillenak eukitten dau... eukitten eban orduen bezerixie, bezeruek. Behin aillegautakuen ia dana eruten eutsuen /erutetzuen/.
- Ta badakizu litroa zenbat pageten zan?
- Bai.
- Zenbat zan?
- Hiru pezeta.

3.22. Saltzeko esneari ura bota

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/029
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:39:53. **Bukatu**: 00:40:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Saltzeko zen esneari ur apur bat botatzen zieten. Esne sendoari gehiago, meheari gutxiago.

Transkripzioa
- Eitten ziren tranpak, holan, ur apur bat bota esneari?
- Hori derrigorra da.
- Derrigorra da hori?
- Hori derrigorra da. Ure garbixe bota ezkero, ez ei da pekatue, gaiñera. Pixkat derrigor bota biher. Segun zelako behixek, zelako esnie deuken. Behixek esnie ez dabe danak igul eukitten. Batzuk eukitten dabe sendue. Halakuei gehitxua botaten jakon. Beste batzuk, holandesak eta, meheiaue eukitten eben, ta hari ezin leikixo bota. Esne mehie deukenai...
- Klaro, apur bet hor...
- Hor trukue, trukue...

3.23. Neguan ardiak behera jaitsi

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/036
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:51:45. **Bukatu**: 00:52:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Neguan behera jaisten zituzten ardiak. Baina behean ez zen jatekorik egoten eta larreak ere ordaindu behar izaten zituzten.

Transkripzioa
- Guk, en kanbio, diferente eitten gendun. Neguen bajau biher izeten genduen behera, ardikin, han neguen ezin eduki, edurre eitten eban asko ta. Neguen bajau biher izeten gendun behera, ta behien be ez zan zer janik egoten ardixentzako. Larrie dirue pagau biher, ta zer janik ez. Orduko bizimodu gogorra.
- Ez zan egon, holan, larre librerik edo? Herriko terrenuek edo?
- Libreik ez euen ordun. Dana pagau ein biher zan /bizan/. Baserrittarrei, pagau. Txatal bat, nik horrenbeste biher dot, ta bestik zer janik ezebez. Bestik horrenbeste. Ta hantxe! Ardi-zaiñien, edurre goittik behera, ta hantxe. Ardixek supritzen, zaintzaillie be hantxe, supritzen. Danak iguel.

3.24. Ardiak San Juan inguruan moztu

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/038
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:53:14. **Bukatu**: 00:55:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: San Juan inguruan mozten zituzten ardiak, artaziz. Orduan artileak diru asko balio zuen eta pisura saltzen zuten. Koltxoiak egiteko erabiltzen zuten eta artile zuria mediak egiteko.

Transkripzioa
- Ya San Juanak ingurure, San Antonio, San Juanak inguruen kentzen jakozan lanie. Laniek orduen diru asko balio eban.
- Bai, e?
- Hoixe!
- Ta salduten zenduen?
- Hoixe! Enkargaute egoten zien, gaiñera. Enkargaute.
- Zelan saltzen zan, pieza bat edo pixure?
- Pixure, bai.
- Eta lana baltzak be balio euen, edo zurie?
- Bardin-bardin balio euen. Koltxoie eitteko. Ha koltxoien barruen sartu ezkero, baltza izen, zurie izen, bardin zan.
- Oseake, koltxoietarako izeten zan.
- Koltxoietarako.
- Baia zer, mediek-eta eiteko be bai, ez?
- A, bai, baiña hortako zurixek. Neuk be badaukaz. Ardi laniaz eindekuek die honek.
- A horrexek, ezta? Ordun saldu eiten zenduen lanea?
- Hoixe, lanie saldu.
- Ta ebagi zegaz? Artaziekaz?
- Artaziegaz.
- Zelan esaten dotsezue zuek horreri, eskileu…
- Moztu, moztu.
- Ardiek moztu?
- Bai, zuek eskillau… esango dozue?
- Ez, guk moztu be esaten dogu.
- Hemen moztu.
- Eskileu, igual, erderako berbea, ezta?
- Eskillau, hori askok esaten dau. “Ardiek eskillau bihar dittugu /bitxuu/” ta.
- Moztu zuek, ezta?
- Guk moztu.
- Artaziekaz.
- Artaziegaz. Oin makiñakin eitten dabe, baiña…
- Pazientzie itzela, ezta?
- Hoixe.
- Hirurehun ardi-ta eiteko… beharra polite.
- Hoixe. Baiña mozteko sasoien gehixau baleo nahixen. Lanik diru asko balio eban. Oin lanie ardixek astune eukitten dabe, pentsue jaten dabelako. Baiña orduen pentsu gitxi jaten eben, ta orduen eurek be argalak ta lanie be maxkala. Lanan pixue, alde handixe. Oin doblie baiño gehixa eukitten dabe ardixek pixue lanan.
- Baia oin ez dau balio, ezta? Oin bota eiten da…
- Bota.
- Ez dau balio ezetako.

3.25. Seme zaharrena baserrian

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Martinez, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-058/004
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:03:07. **Bukatu**: 00:04:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Aita eta osaba guztiak irten ziren baserritik, zazpi-zortzi anaia: Ameriketara, Argentinara edo Bartzelonara. Nagusiena baino ez zen baserrian geratu.

Transkripzioa
- Beste zortzi edo bederatzi anaixa zien ta danak jun zien Ameriketaa, Argentinaa, Bartzelonaa,... Danak, bat ez. Bertoko etxeko nausixe zana gatu zan baserrixen. Beste danak kanpora jun zien. Orduen be ez euen gauzie ugerixe hamen, e!
- Joan behar, ezta?
- Bai, joan biher. Ze han [...] harei danei jaten emoteko ez euen lekuik, eta ala! bakoitxa bere aldera.
- Kanpora!
- Bat gatu zan eta bera izen zan gatu zanik, danetatik bat, ta bera gatu zan txartuen. Beste danak hobeto. Batak Argentinan, bestie Buenos Airesen, bestiek ardizaiñen ta danetaa. Ta beste batzuk Bartzeonan be bai ta... Harek danak bizimodue, bueno, kostata, baiña bizimodue ataa eben behintzet hobeto.

4. Lanbideak

4.1. Barazkiak eta arraina; Ondarroako saltzaileak

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/017
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:25:23. **Bukatu**: 00:26:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Piperrak, ilarrak, lekak... barazki asko zuten etxean. Arraina: antxoa, sardina... Ondarroatik oinez joaten ziren arrain saltzaileak. Batzuetan "korreoa"-n bueltatzen ziren, autobusez. Arraina merke egoten zen; dozenaka, antxoa.

Transkripzioa
- Babak eta piperrak eta eukiko zenduzan?
- Ba, hombre! Piperrak, udegunien. Udegunien eote zin harek..
- Ortuarixe ba, berdurie ta?

- Bai, berduri be bai. Beti porru ta bañak eta iderrak eta hori.
- Ta arraiñe?
- Arraiñe? Ez hainbeste. Baserrixetan-ta bai. Arraiñe ba, behiñ o behin antxoie dala, sardiñie dala, arraindunek be etorten zin Ondarrutik. Ondarrutik Markiña oinez etorten zin! Burun hartu otzarak-eta.
- A, buruen? Burdizen, ez? Buruen?
- Burun, zestu. Zestuek ta arraine hartute. Ta gero korriue eoten zan, zera juteko, atzera bueltan. Ta sarritten, hantxe juten zin. Korreuen juten zin Ondarrua. Baina oiñez be bai. Te gero goxien, handik gerua hasi zin ba, goxien be korreuen. Autobuse ez bazan, korriue eote zan. Bai, autobusek izeten zin.
- Baiña arraiñe erosteko be dirue biherko zan?
- Klaro, baiña arraiñe merke eote zan ordun. Antxoak-eta bai. Antxoie-ta hori, merke eote zan. Ta gaiña, dozenaka antxoie, pixure barik, dozenaka. Bai.

4.2. Puntua eta gantxiloa gogoko

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/010
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:11:22. **Bukatu**: 00:12:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Puntua eta gantxiloa gustura egiten zituen, josi ez hainbeste. Sestaon egon zen josten ikasten. Markinako beste lagun bat ere bai.

Transkripzioa
- Esaozu jostie ta gustetan jatzule...
- Hori bai! Jostie ez jata /etxata/ gustetan hainbeste, baiña josten ikesi... egon nitzen urtebete Bilbon. Baiña jostie ez hainbeste, baiña puntue eta gantxillue bai. Hori asko! Sobrekamak eta... Baiña, gurien ez dau balixo sobrekamie gantxilluek... han da ganbaran!
- Biloba: Iñok ez dau nahi.
- Zuk ez dozu nahi?
- Biloba: Guk badaukeu bat. Nik etxin beti euki dot, e!
- Gantxilluaz einda... Ba, neuk be bai. Baiña nire alabiai ez jako /etxako/ gustetan, ta hala! "Pues no te gusta"... kendu eta kittu!
- Ta josten nun ikesi zendun?
- Bilbon... Sestaon!
- Ta zelan ba hara arte? Hurrau ez zan egon?
- Egongo zan, baiña, hori, lagun bat euen ude guztixetan gurea etorten zana, Klara, zuk ez zendun ezautu... Ez, asko, urtiek die hil ziela be, Klara ta Eleuterio. Harek etorten zien. Ta harek haraxe ta haraxe. Berak eingo ebala berba, Araceli zan izena, harek eingo ebala, ta haraxe jun giñen. Ziriaka be hantxe egon zan ikesten. Ziriaka... tia bat euken Sestaon. Bai, Ziriaka be hantxe egon zan. Ziriakak denbora gehixa eingo ban, nik urtebete ein neban.

4.3. Aguazil bakarra, baina errespetua sortzen zuena

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/039
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:58:05. **Bukatu**: 00:59:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena**: Aguazil bakarra zegoen kalean, baina errespetu handia sartzen zuen. Beste bat Arretxinagan. Nor zen herriko aguazila. Gaizki aparkatzen ez ei zuen sekula lagatzen.

Transkripzioa
- Gero, beste bat euen, Padarra. Gero, eon zien horrek bixok. Lelengo, bata hamen ta bestie, Arretxinan. Baiña Arretxinakuk, urten be ez eban eingo, ez dakit. Baiña gero, Markina-Jemein ein zanien, hori bai, Padarranekue be, hamen eote zan. Ta, bixek hamentxe. Bai “aquel? Aquel” bizikletak-eta, kotxiek-eta, oin dauzen moduen danien, aparkau, disko haundixe, ezin leixela aparkau-te, hantxe aparkaute. Ta, kalera, kotxik oin ipintten eittuzen modun-ta, han itxi? Ez euen holakoik. Pentsau bez! E, deskargetako, itxiko otsen, baiña gero?

4.4. Esku garbia

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-013/018
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:21:34. **Bukatu**: 00:24:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Eskola utzi zuenean, oraindik Primo de Riveraren diktadura zen. Okerra kaleko janari-denda batean hasi zen lanean. Etxean argi utzi zioten hasieratik esku garbikoa izan behar zela, dirurik ezin zela hartu.

Transkripzioa
-Hamaika urtegaz itxi zendun eskolie?
-Hamaika urtegaz eskolie itxi neban.
-Hondiño diktadurie zan. Primo de Riveran diktadurie...
-Bai. Eta hantxe, krixeda. Ta gaiñera papel ona eitten, e! Ze amak beti esaten osten /esatosten/: "Kasilde, kajan dirue egoten da. Ez pentsau gero hari diruai ikutzeik, e!" "Ama, ezetz ba". Ta juten zanien, nire uzaba-andrian gizona zan etxe bateko administradorie, [Arizaganeko] administradorie. Ta hara juten zien, ba, udan eurek, uzabak, hona etorteko, ba, juten zan andrie, neskak, andrak garbitza juten zienien. Ta esaten notsen: "Erramona, itxi kontaute. Pezetatan, itxi hogeta bost pezeta, eta kuartuek be kontau –kuartue zan calderilla– eta ia zenbat jenero saldu doten". Eta ipintzen osten /ipintzosten/ ta etorten zanien kontetan genduzen ta: "Zu, gauza asko saldu dozuz, e? Daz zazpi pezeta gehixa".

Bueno, hori ointxe esaten doten gauzie da, ezta? Eta zera, "Kuartuetan be bada gehixa". Eta umiei poza emoten otsen /emototsen/. Ta esan notsen: "Ama, nik ez dot sekule iñon diruik edo iñon gauzaik hartuko, ze Erramonak izten dau han kaja haundi baten, goittik ekarten daben dirue". Ta ama ein zan estutu. Jun zan denda, esan otsen ze: "Erramona, umiek esan doste /esaoste/ berak dakixen lekuen izten dozule dirue". "Bai, baiñe zure neskatuek hondiño ez dau ezebe ikutu. Ez ha zaintzen nauelako, baiñe bai norberak jakitten dau, ba, ene, lau pezeta itxi dittuaz /itxittuaz/, edo hogei pezeta itxi dittuaz. Ez, esku garbikue da". Oin, bost pezeta saltzen baziñuzen, gailletatxu bat obligaziñoie lantxeik izeten zan emotia. Ta hak latie zabaltzen ebanien, gailleta zati bat baeuen, ha ahora sartu barik ezin itxi. Ta ha pozik ikusten eban, ze niri jaten emoteko afana eukitten eban harek andriek eta. Ez, horretan, Jaungoikuai eskerrak, aittek esaten eban sekule iñor ez jakuela /etxakuela/ jun, ez sagar lapurretan, ez diru lapurretaik gitxia.
-Ze denda zan?
-"Comercio de comestibles". Jateko kontue.
-Izenik edo euki eban?
-Erramonanekue, bai.

4.5. Karea etxeko karobian egiten zuten

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/017
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:24:11. **Bukatu**: 00:25:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak
- **Laburpena**: Karea baserrian bertan egiten zuten. Karobia eduki zuten etxean. Goitik su ematen zitzaion, harriak eta egurra sartu eta behetik karea atera. korta desinfektatzeko eta solorako erabiltzen zuten karea.

Transkripzioa
- Karie lehena asko erabiltten zan. Karie baserrixen be eitten zan. Ixe leku danetan eitten zan. Karie geuk be eitten genduen.
- A bai? Ta zelan, ba, eitten zan?
- Karie eitteko, kalerue esaten jako, zulo bat egoten zan. Goittik emon sue, ipini ta behetik ataten zan karie. Goittik bota harrixe eta egurre, ta han egoten zan, suten. Haxe egurre bota biher beti, ta harrixe. Harrixe da, ba, klasie, karie eittekue, kaliza, leku askotan egoten da hori harrixoi. Haxe. Amatau barik euki biher zan /bizan/.
- Zenbat denporan?
- Nahi dozun beste denporan. Goittik bota egurre ta harrixe, ta behetik karie atara. Basarrixetan eitten zan etxerako lain inguru, mordo bat ein, hamabost bat egunien edo. Ein ta, ba, etxerako edo auzuentzako nahiku da, amatau. Hori kalerue euen leku batzuetan igul egongo zan sei hillebetien be amatau barik.
- Hori orduen kortarako erabilten zan?
- Bai, kortarako, desinfestetako. Solorako be ona zan.

5. Ekonomia eta industria

5.1. Neskame, Ondarroan

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/019
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:26:45. **Bukatu**: 00:28:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Pixka bat koskortutakoan neskame egon zen Ondarroan; lau urte egin zituen, kalean. Baserritik hara joatea ikastetxera joatea bezalaxe zen. Zortzi duroko soldata. Neskametzako lanak. Kontserba lantegia zuten jabeek. Gerra denboran egon zen han.

Transkripzioa
- Ta zuen etxien hamahiru ago, asko biherko /biko/ zan?
- Bai, bai. Gero, pixka bat koxkondutekun, krixada. Aizti be, aizta nausixena be, krixada. Ta gero neu be krixada eon nintzen.
- A bai?
- Bai, hamazazpi urteaz eon nintzen. Ondarrure. Lau urte ein nittuzen. Bai.
- Ta nora joan zinen ba?
- Ondarrure, kalera. Bai.
- Baserritxik kalera?
- Bai. Hombre, baserrire ez neban nik krixada juteik! Lehen neuen ni baserrixen aspertute.
- Ondo jakin zendun nora joan?
- Bai. Ta zien ba, ondo bizi diñek. Ta hori, baserrittarrantzat eta gutzeko zan, kolejixora jutie beste. Beste gauzie, erakusten otsue. Kolejixun euezan bertako alabak. Lau neska zin-eta.
- Eta jornalagaz joan ziñen?
- Bai. Jornal txikixe, baiña zortzi euro, zortzi euro.
- Zortzi euro edo pezeta?
- Hillien.
- Zortzi pezeta?
- Zortzi euro. Euruek, eoten zin bost pezetakuek, euruek. Duruek, durue, zortzi duro. Bai. Hoixe, bai. Zortzi duro.
- Ta ze biher eitten zendun han, Ondarrun?
- Ba han dana. Krixada juten danak: etxi garbittu eta errekauek eta dana. Aurek señoritak, harek, ez ebenez eitten ezer! Iñoz ohie eitten-edo lagundu-edo holan, baiñe ostentzin biher guztik.
- Ordun jente dirudune zan?
- Ordun behintzat, dirudunek zirelekun geuezan gu. Ez dot pentsetan diru esajeraurik, baiña fabrikie, ta antxoie fabriki-tz horrek eukezan. Konserba fabrikak-eta. Bai. Ni gerra denboran eon nintzen Ondarrun.
- Bai, bai, han sasoien gerri zan-ta.
- Bai, gerra denporan.
- Ta zelan joan ziñen Ondarrure ba, zer dala-edo?
- Ba, horrek, Aiztie eon zan lelengo eta gero, aiztie ezkontzako-edo etorri zan nausixena, ta ba, gero neu bertara, aizti eon zan lekure.

5.2. Esperanzan 43 urtez

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-012/005
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:05:34. **Bukatu**: 00:06:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- **Laburpena**: Esperanza lantegian 43 urte egin zituen. Gerra aurretik hasi zen lanean, baina gerran frontea hurbil zegoenez Zamudiora eraman zuten lantegia.

Transkripzioa
Nik hor fabrikan ein nittuzen berrogeta hiru urte... Bai, berrogeta hiru urte. Sartu nintzen hamabost egunako, biherra pixkat aurreratzeko. Ta "Geratuko ziñake?", "Ba, bai". "Geratuko ziñake?", ta ein nittuzen ixe bost urte. Etorri zan gerrie. Eta gerriaz Santanderrerutz jun biher izen genduen, ze hamen ezin leixen biherrik ein ta. Hau fabrikiau erun eben /eruben/ a Zamudio, ze hortxe berton geunken frente bat eta. Hortxe bat, eta Kalamuan beste bat. Markiñe euen... "dieciocho de julio" hasi zan gerrie, eta San Migel egunien hasi zan Markiñen ya.

5.3. Aitaren zapatari-tailerra

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-013/001
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- **Laburpena**: Bere aita zapataria zen, konpontzeaz gain berriak ere egiten zituen.

Transkripzioa
-Zure aittek dendie edo euki eban?
-Ez, zapaterue, konpontzaillie zan.
-Eta nun euki eban?
-Etxien behien. Oseake, tallertxu bat euken hantxe. Eitten be bai, e? Nik gure Jaunartzeko zapatak aittek ein ostezan, ta esan osten han andra batek: "Zapataik polittenak, Kasilde Zapaterukuek".
-Ordun etxe azpixen euki eban?
-Bai, etxian behien. Gu bigarrenien bizi giñen, ta behien euken zapaterixie. "Remendón, pero también hacía, eh?"

5.4. 1934an 'Esperanza' fabrika

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Martinez, Juan

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-058/011
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:17:02. **Bukatu**: 00:20:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Lea-Artibaiko lantegiak
- **Laburpena**: 1934an 'Esperanza' fabrika Markinara etorri arte, letoi-lantegi batzuk baino ez zeuden. Beraz, ordura arte gazteak letoi-lantegian hasten ziren, edo pilotan, bestela. 'Esperanza' fabrikan armak egiten ziren, morteroak. Markinan ez zegoen langile kualifikaturik, eta Gernikatik eta Elgoibartik ekarri zituzten.

Transkripzioa

- Ta orduen zu Markiñen bizi izen zara, kalean, ezta? Herrian.
- Bai, bai, bai, hamentxe. Hamentxe berton, ointxe bixi garen... bueno, hau gero ein gendun, baiña lehen honetxen aurreko...
- Ta asko kanbiau da Markine zure ume denporatik hona?
- Bai, bai, asko-asko.
- Bai? Zetan ikusten dozu kanbiau dala ba?
- Oingo biximodue ta lehengo biximodue hamen diferentie zan. Jesus...! Hamen pelotarixe ixen zan gero asko. Hamen gero pelotarixe ixen zan, ba, fabrikie, “Esperanza y compañía” fabrikie etorri arte dana hamen pelotarixek. Ze ez euen bestelako... latonerixa batzuk euezan, latonerixa batzuk, eta ez euen beste industrixaik hamen. Eta gero etorri zan "en mil novecientos trenta y cuatro", mille ta beratzirehun ta hogeta hamalauen, etorri zan “Esperanza y compañía” fabrikie. Ta ha etorri zanien, ba, fabrikie ein eben barrixe ta... barrixe ein eben. Ez euen hor... soluek euezan bakarrik eta soluek erosi ta fabrikie ein eben. Eta Markiñen ordure arte pelotarixe, biherra topetako, pelotarixe, eta latonerixa batzuk baeuezan, baiña harek be oingo aldien jente gitxi eukitten eben. Ta hoixe zan Markiñeko industrixie. Ta pelotie.
- Jendea ez zan joaten Ondarrure ta holan? Itsasora ta holan?
- Ez, ez, itsasora ez. Hemen jentiek ez dau euki itsasora juteko kostunbreik.

- Ta hori industria hori esan dostezune etorri zana, ze izen eukon?
- Esperanza y compañía.
- Ta zer eiten euen?
- Armamentuek. Morterue, generalmente, mortero. Mortero 48, mortero 52 eta... morteruek. Baiña oingo aldien mortero txikixek, baiña hori asko saltzen eben. Hamen lehenengo hasiko zien, lehelengo hasiko zien, ba, zenbat personal? Berton be ez euen, ordun ez euen Markiñen ofizialik, torneruek eta mandrinadorak eta erabiltteko, ta jentie ekarri eben Gerniketik eta Elgoibartik. Eta gernikarrak asko etorri zien Markiñaa, fabrikie handik ekarri eben ta. Ta gernikar asko. Ta horrek ofizialak zien lez, horrek ixen zien bihergin klasifikauek Markiñen. Gero bertokuek ikesi ein eben bertoko jentiek be. Baiña lehelenguen horretxek.
- Kanpoko jentea. Bueno, kanpokoa, euskaldunek.
- Bai, euskaldunek bai, Gernikekuek.
- Erdaldunik ez zan etorri?
- Ez, orduen ez zan etorri erdaldunik. Gernikarrak eta elgoibartarrak batzuk. Eta horrek Markiñen ordun inportantie zan gernikarra, ze enpresesarixue zan gernikarra.

6. Politika

6.1. Gerra garaian, Ondarroan inkomunikatuta

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/020
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:28:49. **Bukatu**: 00:30:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra hasi zenean, zazpi hilabetean inkomunikatuta egon zen etxekoekin. Urritik apirilera. Gernika hartu zuten arte. Beste ahizparekin egoten zen, hura ere Ondarroan zegoelako neskame. Pobre bizi ziren: oinutsik umeak, kalean, kalekoak baserrietara jan eske...

Transkripzioa
- Ta gero gerra denporan, suertau zan gerrie. Eta hiru hillabetien-edo, zazpi hillebete ein zittuzen eta inkomunikaute etxekukin. Hantxe, ezin pasau Ondarrutik. Ondarrutik nire etxera ezin jun. Bai. Oktubrin sartu zin eta aprilla arte. Oktubrian lauen sartu, ta aprillan hogeta seixe edo izen zan, Gernike hartu ebena. Hori, zertute eon zan, geldi.
- Orduen, zure etxekoak jakin barik, ondo bazauz-edo?
- Bai, bai, bai, ezebez. Ta beste aizta bat neuken Ondarrun, ha be Ondarrun euen krixada.
- Ta haregaz egoten ziñen?
- Bai, bai. Ondarrun bai.
- Ta ze diferentzi egon zan Azpiltzatik Ondarrure bizimoduen-edo, jentie-edo?
- Ondarrun, ordun Ondarrun be jentie eskas bizi zan, bai Ondarrun, bueno diferentzixe ein dau handik hona, bueno! Ortozik-eta ibiltzen zien, trajei pe, mariñel trajie, ez euken trajeik iñok, ta kotxeik pentsau bez! Oin ya.
- Ta ortozik ta bai jentie?
- Bai umik-eta, bai.
- Eta abargata batzuk be ez?
- Umik-ta asko ibiltten zin ortozik eta gero, baserrixeta juten zin jateko eske-ta. Ondarrun be, eskas bizi zin ordun.

6.2. Ondarroan, nazionalak sartu aurreko giroa

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/023
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:31:16. **Bukatu**: 00:33:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Nazionalak urriaren 4an sartu ziren Ondarroara, Debatik. Gerrako giroa: soldadu tolosarrak kantuan, bertako neskek nobioak ere

topatu zituzten... Frontea non zegoen, Astarrikan. Bi anaia elkarren kontra, alde banatan borrokan.

Transkripzioa
- Sartu zin oktubrian lauen.
- Eta nundik sartu zien edo zelan izen zan-edo?
- Ba, Debatik ziher. Debatik sartu zin. Debatik Ondarrure, ba urran Mutriku-ta ba. Deba etorri, Mutriku te Ondarru.
- Ta Ondarru. Ta handik?
- Bai.
- Ta hori, Ondarrun igertzen zan kalien giroa edo gerriena edo?
- Egon zan azkenin, normalin lez. Hainbeste denporan eon zan bertan, geldi, ba, eon zan, bera gerri ez baleo lez. Ba soldauek eta kantetan ta bueno dana hori. Ta ordun negu be ein eban ona. Eta hor, Tolosaku, tolosarrak-eta euezen. Ba han ibiltten zin “Compañia de Tolosa” ta benga kantaute kalin ziher. Ta bueno! Ta gero neskak be, nobixuk-eta topau ein zittuen-ta bueno! Hainbeste denboran bertan, zazpi hillebetin ein zin bertako. Bai.
- Eta han Ondarru partin ez zan egon frenterik edo holan, burrukarik-edo?
- Frentie euen, Ondarrun eta Astarrikan, bestie. Astarrikan euen. Eta gabetan-ta esaten eben, han, tiroteu-ta eoten zala. Eitten ebela. Baia, anaiek elkarren kontra ebizen. Bai, bat mendigoizale bat be, Patxi izena ebana, mendigoizale eozan, baiña gero atrapau eben horrek, nazionalak, ta eon zan Astarrikan. Eta beste anaie euken han, Ondarrun eon zan ta beste anaie Asterrikan. Pentseizu. Donostikuk-edo zin.
- Alkarren kontra?
- Bai. Alkarren kontra, bai, bai.

6.3. Diru-aldaketa: Euzkadiko dirua

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/028
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:39:19. **Bukatu**: 00:40:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- **Laburpena**: "Euzkadiko dirua". Txanpon-aldaketa. Lehengo diruari balioa eman zioten gero. Dendetan zorra kartoian idatzita ematen zieten.

Transkripzioa
- Ta dirue zuk ezetu zendun Euskadiko dirue-eta.
- Bai.
- Hori kanbixua, zelan igerri zenduen-edo?
- Etara eben, dirue diferentie. Diru paperezkue ta baitte monedak be, bai. Baiña diferentiek.
- Ta lehengo diruagaz zer ein zenduen edo ze?
- Lelengo diruai, gero balixue emon dotsen /emotsen/, gero. Bai, bai. Emon otsen /emotsen/ gero balixue.
- Gero kanbixau ein zenduen-edo?
- Bai. Kanbixau eukenak. Bakizu, ordun askok kanbixateko be, ez eban euki

be eingo, baiña. Gero, kanbixateko zera etorri zan, bai.
- Klaro jentik dirue euki arren, ez eban balixo ta.
- Ez. Ha baitte dendetan be emote zittuen. Ba, zu juten zaz erosta, ezta? Eta diruik ez daukezu iguel, ta karto baten honenbeste balixo emoten otsuen. ta gero, hurrengun berta jun biher zeñen /bizeñen/ haraz zeraz, kartotxuaz. Ta holantxeik.

6.4. Munitibarrera gerra denboran

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/028
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:39:16. **Bukatu**: 00:42:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Bonbak jausten ziren Markinan eta, beldurtuta, Munitibarreko baserri batera aldatu zen familia. Jende asko bildu zen etxean. Munitibarko bonbardaketa. Aita seme ezinduaren bila motorrean joan zenekoa.

Transkripzioa
-Ba, haraxe jun giñelako. Zenbat denpora egongo giñen gu ba, famelixa bi? Ze, bonbak botaten hamen, ei zittuen. Kalamuatik botaten zittuen bonbak. Ta, bat, gu giñen, txintxurrien. Txintxurrie, esaten geuntsen, harrixe ipiñi, ta kuadruk ein, te txintxurrien Karmengo aurrien, elixa azpixen. Eta, haraxe bota eben bonba bat. Ta ni, sustau ein nitzen total, itxurie. Ze, don Manuelek esan eotzen gizonai, osea aittai, ba, hamendik Markiñetik atara ein biher nabela; ze, ostontzien txarto nauela. Eta, ordun ze eiban aitte guriek? Jun, Munittibarra. Ha, ba, baserri morukue-edo, bakizu. Oin baiño basarri gehixa behinik pein. Ta, hamen baiño. Ta, jun giñen, e. Hantxe, hartu eban etxe bat, eta jun giñen, geu famelixie. Ta, aittitte, nere aittitte, inbalidue zan, erreumakin inbalidaute. Eta ha eta tia bat hil zana Ameriketan, Estefana, gero hona ekarri eben, baiña hantxe hil zen. Eta han jun giñen. Eta gero, euken nire aittek lagun bat, Trosky esaten otsena, Jose Mari. Iguada Muñoz, da Lucía Muñoz, ta aitte. Ta, harek be, harek be, geure etxa. Bera, ama da Jose Mari, Lorenzo… bost, harek izengo zien, bost ume. Jose Mari, Lorenzo… “no, esos dos”. Ta gero, Lucía, Iguada… Horretxek izengo zien. Lau, izengo zien. Harek be, haraxe. Ta, hantxe topau, jun giñen. Ta, zemat denpora eingo gendun? Asko ez. Harek, bonbardeau eiben, ze soldauek allegau zien, hainbeste ta bonbardeau. Bonbardeau ebenien, ama gurie etorri zan hara, ze ostontzien, tiagaz euezan gu, han. Ta, etorri zen, ama hara. Ta, bonbardeue hasi zanien, hartu Mari Tere, nire aiztie ta ni, ta jun giñen kamiñuen aurra. Mutille etxin geldittu zen. Aittitte ta tia Estefana. Ta gero, itxurie, aitte gurie hamendik, han, bonbardeetan, ta Gernike bonbordeetan euela, “el día del bombardeo de Gernika”, eta zer ein eban? Hartu motorra –gure aittek euken, “una Harley”, sindekarraz-. Ta, hartu eban, ta jun zen itxuri, hara. Hartu lepuen aittitte “porque aquel no podía andar”, sartu Harley-nen, ta jun giñen, osea, Gernike partera, Mendata partera jun giñen gu.

6.5. Munitibarretik Mendatara

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/029
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:42:22. **Bukatu**: 00:44:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gero Mendatara joan ziren. Kanpandorrean ezkutatuta bonbardaketa denboran. Gernikako bonbardaketa egunean, hamaika markinar arbolape batean. Lo-lekua topatzeko komeriak. Semeen bila aita.

Transkripzioa
- Eta han, Mendata partien, klaro, bonbardeue be, gure etxie, geu bizi giñen lekue total erre zan bonbardeuen. Ta, gu jun giñen lelengo errefujixora. Bueno, “como refugio”. Han, ez euen ezer baiña elixa, kanpantorra. Han, egon giñen. Gero, handik oiñez, bueno, hartu giñuzen anbulantzixa batek. “No me acuerdo”, ez jata /etxata/ ahazten. Ta, esaten dabe gerrie, ez dakixe zer dan gerrie! Jun giñen hara, ta jun giñen, bonbardeue: “bro-bro-bro”, abioiek etorten zien. Batzuk, etorri te beste batzuk, jun, “el bombardeo de Gernika”, orduntxe egunien. Batzuk, eta gu geuezan arbola baten azpixen, hamaike junteu giñen Markiñekuk. Zelan juntau leikez hamaike, han? Arbola baten azpixen, kamiño onduen? Zelan agertu leikez hameike? Ta, bakizu zein zien? Bestiek, Goiagananeko famelixie: Gómez, “los de Gómez”. Bueno.
- Ta, Mendatan hori?
- Mendatan. Ta gero ba, lo ein biher gabien nun o nun, ta han be, ba, jun baserri batera, aitte gurie itxurie ta, ba ez ekixen harek zein gazen gu, te ez otsen emon. Beste bata jun, te bapez! Gero, Matea, zuk ez dozu ezautzen. Baiña oin, Barakaldon bizi da Matea. Aittek baietz, oherik ez eukela, baiña koltxo batzuk edo zeozer topauko dabela, ta zeozer eingo dabela; lastue edo zeoze botako dabela ta, ba, behiñik peiñ, barruen. Ta, halantxeik haretxek hartu, bonbardeuen. Baiña orduen, ha, zan estutasune! Geu danok etxien ta mutillek falta. Muñozenak be bai, te guriek; guri, bat falta. Aitte gurie ostabe, Munittibarra, harek topetera. Baiña motorran zaparradie entzun banien gurien mutillek, nire nebiek, derrepente urten ein eban kamiñora: “hamen gagoz, aitte, hamen gagoz aitte!” Ta, buelta ein, hartu ha, Lorenzo ta bestiek be alkarragaz ein auezan, , hartu, te danakin etxa. Gero handik ba, Markiña.

6.6. Batzokia

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/032
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:48:24. **Bukatu**: 00:50:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen

- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
  Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- **Laburpena**: Osaba bat Santanderren egon zen kartzelan. 'Trosky' ezizenekoa kartzelan hil zen. Bazen batzokia Markinan. Euren etxean bi boto ei zeuden, nazionalistena eta karlista; tabernariak zirenez, ondo egon behar denekin.

Transkripzioa
- Eta, hemen Markiñen egon zan, herriko jentin artien enfrentamentoa? Batzuk, eurek francotarrak zielako edo karlistak edo republikanuek eta?
- Bueno, nik ez dakit hori zelan izengo zan, edo ez dot. Baiña, gurien be, tio bat, nirie, egon zan kartzelan. Santanderren egon zan. Ta, hori gure aittan lagune be, hori be ez dakit nun, nun kartzelan. Hantxe, hil zen. Hori, Guada ta, hantxe. Bai. Hantxe hil zen.
- Trosky, esaten otsien…
- Trosky. Bai, hantxe hil zen haxe be. Baiña, egongo zan baiña ni, gaztie nitzen ta nik.
- Eta, holan batzokixek-eta? Batzokirik-eta, egon zan hemen edo?
- Batzokixe, bai e. Batzokixe, beuen. Foteroko lelengo pixuen eon zan batzokixe. Hori akordeten naz.
- Eta, ezer paseu jakon batzokixeri, nazionalak sartu zienien?
- Ez, ez, ez, ez. Ez, hori oin be, oin ez, oin botata barrixe ein dabe baiña, ostontzin behie, igul-iguela euen.
- Ta, karlistan zentrorik-edo errepublikanuena-edo? Ez?
- Ez takit nik. Nik bakarrik dakit, gurien boto bi izeten zien. Hori, akordeten naz. Ze, ama gurik esaten eban: etorri da Gaitanenekue botuan eske. Hari, batek eitten otsen. Ta, bestie, bestiei.
- Zuen negozixu euen da?
- Bai. Gurien danei ein biher. Hoixe beroi.

6.7. Ilea ebaki eta euskal izena aldatu zigor gisa

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/033
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:50:12. **Bukatu**: 00:52:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Zigor gisa ilea moztu zieten bi emakumeren izenak. Euskarazko izena zutenei aldatu egin zieten, Josebe zena Josefina izango zen handik aurrera. Maistrek kargu jartzen zuten.

Transkripzioa
- Eta, holan zuk entzunde euki zendun igual, umie ziñenin, baiña ez zara akordako. Ba, gerra sasoien jentieri eiñiko umillaziñoak-eta. Ba, askotan ba, honeri edo ulie ebaitzie...
- A, bai. Hilde daz harek. Ulie, ebai. Bai. Klementiñanekue, neska zaharra zan. Nik ez dakit hari, zegaittik ebai leitxon ulie. Baiña, bai. Erun, esaten

eben, oin badeuke ba, [...] batek, han ofizina, Urlo?
- Urlo.
- Haraxe kantera erun, kanterie zan ha, ta haraxe kantera erun, te ulie ebai, te bixabonin behinik peiñ ulie ebaitte. Hori, te beste bat, zelan euen izena, harek? “De Cazaliz, la mujer de Cazaliz, beste bat”. Baiña, ez naz akordetan izena.
- Ta, holako kastiguek-eta, egote zien asko?
- Nik, ostontzin kastiguik-eta, haxe, ulie ebai. Ni neu, ostontzien ez naz neu, enaz akordetan.

6.8. Sabino Aranaren ogerlekoa

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-012/006
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:06:37. **Bukatu**: 00:08:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena**: Bere etxean Sabino Aranak bere aitari emandako ogerlekoa zuten. Hauteskunde batzuetako aktak jasotzeko bere aita aukeratu zuen eta orduan eman zion.

Transkripzioa
Nire aitte zan kristiñau ona ta abertzale ona. Gure etxien ezautu dot nik bost pezetako ogerlekue esaten jakona, honakotxe diru ziderrezkue, Sabino Aranak, haretxek emonda.

Botaziño batzuk egon zien ta haxe aktie eruteko aitte elejidu eban, beste batzuen artien, aitte. Hogeta lau urte eukezan orduen nire aittek. Eta bueltan etorri zanien, haxe ogerlekue emon otsen /emotsen/. Ha ogerlekue gorde zan gure etxien, bueno, erlikixie lakotxie, neuk be ezautu neban ta.

Egun baten, gerrie pixkat amaittu edo ein zanien, esan eusten /esausten/ gizon batek eze: "Miren Kasilde, zuenien bazan ba ogerleko ziderrezko bat Sabino Aranak aittai emondakue?" ta "Bai", "Harek gaur balixo handixe dauke". Baiña nire aittai zorrak, "la deuda", billurre emoten otsen /emototsen/ eta, noz edo noz, gastau ein biher izen eban.

6.9. Zekiena esan zezan biluztu zuten aita

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-012/007
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:08:02. **Bukatu**: 00:09:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

- **Laburpena**: Gerra hasieran, bere aitak epaitegira joan behar izan zuen, batzokiko presidentea zein zen jakin nahi zutelako. Ez zuenez ezer esaten, biluztu egin zuten. Ondorioz, ondorio psikologiko larriak jasan zituen eta handik gutxira hil zen 64 urte zituela.

Transkripzioa
Gerrie hasi zan ba Markiñen, eta egun baten etorri ei zan gizon bat zapaterixako bentanaa, ta esan ei zotsen /eixotzen/ eze: "Jose Andres, zeretik najatok, juzgautik najatok, eta esan jostek heuk buelta bat eitteko". "Ene" esan ei zotsen gure amak, buruko pañelodune zan, baiña argixe, e! "Zer esan biher dau /bidau/ ba, edo zer pasau...", "Ez, Batzokiko presidentie nor dan jakin nahi dabe". "Ta zeuk zer esan dozu /esazu/ ba?", "Nik neure eretzixe emon dot /emot/". Amak esan ei zotsen: "Aitte, ez dozu gero berbaik atako!", ta "Ez!".

Jun zan, ta klaro, aittek, ba, "Ez" ta "Ez" ta "Ez". Berrizko gizon batek esan ei zotsen guardia zibillei: "A estos que se obstinan en decir no, ya saben la manera de hacerles cantar". Ta billuztu ein eben /eiben/. "Un hombre de comunión diaria, verse delante de tanto... desnudo. Fue perdiendo la cabeza". Eta handixek hillabete batzueta, hirurogeta lau urtegaz, hil jaten aitte.

6.10. Atxilotu eta kartzelarainoko bidea

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-012/008
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:09:21. **Bukatu**: 00:11:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Bere aita hil eta handik hilabete eta erdira, atxilotu egin zuten Zamudion, Esperanza lantegia bertan egon baitzen sasoi hartan. Atxiloketa momentutik Orueko txaleteko kartzelara eraman zutenekoa kontatzen du pasarte honetan.

Transkripzioa
Aitte hil eta hillebete t'erdire detenidu niñuen Zamudixon, ta erun niñuen, guardia zibil biren erdixen, erun niñuen. Ni jente askok ikusi niñuen, trenin pasau zienak, ezaunek eta. Ni trankil niñoien. Baiñe, Sondikerutz hartu gendunien, billurre sartu jaten, ze Sondiken berotu eitten eben /eitteben/ eta. Bueno, han itxi genduzen lehenengoko guardia zibil parejie ta beste pareja batek ta soldau bat. Urten gendunien kuarteletik esan osten /esaosten/ soldau, bueno, guardia zibil gazte batek: "Yo a ti no te llevaría ahora a Bilbao. Te pegaría un tiro y te dejaría aquí en la cuneta". Esan notsen: "Oiga, ¿qué le he hecho yo a usted para que me hable así?" Ta harek soldauek begitzen osten /begitzosten/ esaten: "Cállate, que éste es malo...". "Pues por vosotros estoy yo sin mi mujer". "Ahora, por ejemplo no, pero estuvo dos meses de recién casados sin la mujer". "¿Pero yo qué culpa tengo si fueron ustedes los que sacaron la guerra?" Bueno. Eta neukezan Bilbon sei guardia de asalto, kamioneta baten, ta erun niñuen "al chalet de Orue".

6.11. "Emakume, nacionalista, propagandista, abanderada, peligrosa e indeseable"

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-012/009
- **Iraupena**: 0:04:56. **Hasi**: 00:11:04. **Bukatu**: 00:16:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Bilboko Orue txaletean, kartzela jarri zuten eta Kasilde bertan espetxeratu zuten. "Emakume, nacionalista, propagandista, abanderada, peligrosa e indeseable" izateagatik epaitu zuen epaimahai militar batek. Urtebete eta hilabete bateko zigorra ezarri zioten; azkenean, kartzelan bertan ezagutu zuen senitarteko bati esker, 6 hilabete eta egun batekoa bete zuen. Kartzelan inori kalterik egin barik bizitzen ahalegindu zen.

Transkripzioa
-Txalet bat zan, hango uzabak urten ein biher izen eben /izeben/ eta ipiñi eben "Prisión de Mujeres". Bueno. Ataa giñuezan hiru edo lau andrazko ofiziña batzuk garbitzeko. Urten osten /urteosten/ juizixuek. Juzgau niñuen "Tribunal Militar, en María Muñoz", hantxe behe aldien, Bilbon behe aldien. Jarri nintzen lau mutillegaz. Ta harek mutillek euken: Bilbo bonbardeau eben eneruan lauen, eta handixek denpora gitxire ein eben /eiben/ "asalto a la cárcel de Larrinaga, Cabo Quilates, Ángeles Custodios", enfin, eta ein eben hilketa handi bat, ez da deretxoik. Bien! Harek hoixe akusaziñuoi euken. Ta eurek esan eben /esaben/ "que ellos, a esa hora, estaban jugando al futbol en la campa de Basarrate, que la campa Basarrate está en Santutxu". Deitzen dotse /deitsotze/ baitte be, "La Campa del Muerto".

"Casilda Aguinaga! Emakume... Nacionalista, Emakume, Propagandista, Abanderada, Peligrosa, Indeseable!" Bueno. Sartu zien delibereta, ta urten eben, ta harek lau mutillek libre, ta ni "un año y un día".

- Kartzelara.
- Bai. Baiñe sartu nintzenien ipini niñuen salaik onenetaikuen, ezta? garbitxua giñoiezelako edo. Ni luto huts-hutsaz, baltz-baltz, rubixa-rubixie, hogeta bi urte... ta etorri jaten andra bat, ta esan osten eze (bueno, erderaz ein gendun baiñe): "Nungue zara?" esan osten. "Ni, Markiñekue". "Ene, neu be Markiñeko jatorrizkue naz. Nik lehengosiñak neukezan Markiñen. Bati Martina jakon izena... edo jako". "Ene, neure ama be Martina da". "Ni naz Arakistain". "Ene, neure amak be bigarrena Arakistain dauke". Ta zien lehengosiña karnalak, ha andrie ta nire ama lehengosiña karnalak, neba-arreben umiek. Ta, bueno, ba, egon giñen berbetan, ta esan osten, eze: "Beittu..." Gero urten osten /urtesten/ juizixuek, ezta, ta esan osten eze: "Neure lobiai deittuko dotset. Nigaittik ezin izen eben ein ezer, ez ekixelako nun nenguen, baiñe deittuko dotset /deittukotset/ neure lobiai, abogaue zan ta, ta haretxegaz berba eingo dozu". Ta halantxeik arratsalde baten etorri ein jaten. Ta egon zan... baiñe sinpatikuau ezin, e! Ta esan osten: "Mira por donde, sin saber tengo familia en Markina". Ta haretxek biherra eindde, beste txapelgorri karlista bat eta falangista batek be ein eben berba, konportamentu ona euki nebala ofiziñak garbitzen, eta

sei hillabete eta egun batera bajau osten kondenie. Ta, bueno, bete neban neure kondenioi, ta etxaa! Aitte hil zan hirorogeta lau urtegaz. Etxera sartu zanien amai esan ei otsen /eixotzen/: "Ama, billuztu ein nabe". Haretxek, billuztu biherrak... Eske, zu, zeu ointxe billuztuko ziñake hamen, iñon aurrien? Ez! Erun ziñeke eskote bat nahi dozun lekuraiño, baiña billuztu ez, ta gaiñera jo be ein eben /eiben/, e. Galdu gendun aitte, ta nik neukezan hogeta bi urte.

Oruen, kartzelie izen arren, nik kondukta ona euki neban. Ze, ahal dala, ondo ein biher dozu /biozu/. Ez daukezu zetan egon beti, esaten dana Markiñen, esaten dana, ipurdi garbitzen egon, baiñe, ahal badozu, kalteik ein barik bizi biher da /bide/.

6.12. "El palomar"en 11 egun zigortuta

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-012/013
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:29:20. **Bukatu**: 00:31:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Kartzelan 11 egun zigortuta egin zituen "el palomar" deitzen zioten tokian. Bera eta beste bi zigortu zituzten.

Transkripzioa
Jagi goxien... bueno, guk ein genduzen hamaika egun, kastigaute, "en el Palomar". Beittu, hondiño bizi zan nire ama, ni kartzelan nenguela, eta egun baten abixau osten, ba, bisitteta etorri biher ebala /bibala/. Bilbon bizi zan nire aizta bat, ezkondute, eta haretxegaz etorriko zala. Euezen gernikarrak, lehengosiña bi euezan, Fidela Izagirre... ta bestie ez dakit zelan zan. Ta urten genduen, ba, jakitta ya zer esaten oskun /esatoskun/ edo. Baiñe Larrinagatik etorten zien Oruera, han barriketaldixek eitta, "un funcionario"... eurek jakingo eben ze konbersaziño eitten eben /eitteben/, ze presa bi be hantxe egoten zien ta. Juakina Goitia, arratixarra, demoniñue baiño txarra zan ta... Hantxe hirurok, ta esan eban /esaban/ gernikarrak: "Nik dauket tiñu ona. Ointxe bota txistue, ta hor zerak dauken bolitxie apareauko neuke". Bota eban txistue, ta efectivamente! Barre! Ta horretan entzuten dot /entzutot/ atzeko atie, krixeden atiek euken txirriii eitten ebana /eittebana/. Begittu dot atza, ta Juakina Goitia! Etorri zan, kolpe osten, esan osten eze: "¿Quiénes han sido las otras?". "A mí ya me ha cogido. Yo no tengo por qué decir quiénes han sido las otras". Bestik sartu zien koltxoien, ta nik ikusten neban gernikarran abarketa zurixan musturre. "¿Qué hacías aquí?". "Pues nada". "Pues me tienes que decir quiénes han sido". "No, yo no". Ta ikusi eben lez hain gogor geratu nintzela, bixek urten eben /urteben/. Bestie zan Deustukue. "Hemos sido nosotras". Esan otsen Gernikakuai: "Fidela, con el buen comportamiento que tuvieron la vez anterior, y hoy escuchando". "No, no estábamos escuchando. Queríamos saber si venía mañana la madre de Kasilde. Y punto!".

6.13. Kartzelatik kartak hankartean atera

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-012/014
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:31:45. **Bukatu**: 00:33:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Kartzelatik irten zenean, hainbat karta atera zituen hankartean ezkutatuta. Horrelako lekuetan asko ikasten dela dio.

Transkripzioa
Baiñe hantxe be konportamentu ona. Ta urten nebanien, batak eta bestiek: "Zu, hauxe kartiau..." ta "Zu, hauxe kartiau..." ta... Bai. Azkenien, zeraz, hillekuekin banengo lantxek, ipini hortxe ta hortxe ata nittuzen nik hainbeste karta. Zerak esan osten /esausten/, kartzeleriek esan osten eze (fea...): "Kasilda, espero que no saques nada de la cárcel". "No, ni me han ofrecido". "Si supieras bien que hasta en los sobacos llevaba...". "Bien, confío en tí". Ata, eta danak entregau ahal izen nittuzen, karta danak. Handixeik denpora zatire, egon zien, Urberuaga da hamen, balnearixue izendako bat, hortxe egon zien presuek: extranjeros, bertokuek... danetaikuek. Eta autobusien nun ikusten dot doña Mariana. Ta jun nintzen saludeta. Esan osten eze: "Uy, cuánto te agradezco. Ven a Urberuaga". Jun nintzen Urberuagara, ta hantxe bixok merixendau genduen. Baiñe nik haren borondate onaz aprobetxau neban neure koñeta baten lehengosuai ta beste mutil bati zeozertxu emotie. "Osea que, confió en mi. No sabía el cargamento que saqué". Ze holako lekuetan ikesi eiiten dozu /eitxozu/ gauzak eitten, ezta? Norberak be nahiko eban, ta ba beste batzuk be bai.

6.14. Kartzelako baldintza eskasak

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-012/019
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:41:21. **Bukatu**: 00:44:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- **Laburpena**: Kartzelan, lurrean zeuden koltxoietan egiten zuten lo. Zigortu zituztenean, 3 zigortuek elkarri helduta egiten zuten lo. Jatekoa eskasa zen, ur zikinagaz egondakoa. Han ez zegoen higienerik, ez baitzuten ia urik. Markinako batzokiko emakumeen taldean egon zen.

Transkripzioa
-Lehen Oruekoa kontau dozunien, han zelan eitten zenduen lo, edo ze jateko edo?
-Han koltxoietan, lurrien. Ta kastigau giñuezanien, hor, esan dotsut, gernikarrak eta kastigau giñuezan hirugarren habitaziñora. Hantxe, San Frantziskoko ta inguruko pertsona koittauek, nahikue desgrazixe da euren

gorputzek emon biher izetie, ezta? Hantxe kastigau giñuezan. Eta nik neuken koltxoi zabala. Ta ein genduen eskillara-buruen ipini, ta alkarri holantxeik kolpeta eitten genduen lo. Ta jan... platertxuaz juten giñen, burduntzalikada bat... de agua sucia. El caldo, agua sucia! Bufa! Baiñe bueno.
-Ze higiene klase edo?
-Urik ez geunken. Oseake, ekarten eben balde bat, ontzi bat, eta poto bategaz eitten zan lababuetara bota, han garbittu, ta gero ha beste poto bata, haregaz behiek garbitzeko. "El fregau con agua sucia". Andratxu bat euen, ume bategaz. Hantxe eskatu otsen bati: "Oye, me darías algo y te limpio yo la habitación?". Pentsau: "Le voy a hacer un favor a esta pobre mujer". Ta esan notsen ze: "Oye, mira, yo te puedo dar también una peseta si me friegas la..." "Encantada!" Umie euken ta hari jaten emon biher jakon. Halantxeik, urik ez geunken. Asike, "la limpieza brillaba por su ausencia".
-Zikinkerixe, zorrixek, ardixek eta?
-Guk ez gendun euki zorriik. Ardixek be pentseten dot billurtu eitten genduzela! Eta bueno, ha be probau genduen ta beste gauza batzuk be ikusi doguz.
-Zu emakumien taldien ibili ziñen?
-Emakumien taldien... Batzokixen? Bai! Ta biherra ein, bueno...!

6.15. Gudariei arropak atontzen batzokian

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-012/021
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:44:33. **Bukatu**: 00:47:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

  Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena**: Bere gurasoak domekero joaten ziren batzokira; edozer behar zenean, han egoten ziren. Frontean egon ziren gizonei arropak garbitzen eta atontzen aritu ziren. Orduan ezagutu zuen bere mutil-laguna; baina, ezkondu aurretik, hil egin zen gerrako zaurien ondorioz.

Transkripzioa
-Gu domeketan, nire aittek eta amak... Aitte domeka guztixetan, lehen beste kafe batera juten zan, domeka guztixetan, baiña zeozer bazan, Batzokire. Hamen frentie euki gendunien, negue izen zan euritsue. Eta etorri ziren mutillek, hondatute, hortixik, Kalamutik. Ta ensegida deittu eben: "Kasilde –bixkorra izen naz, e! gaur ez, baiña bixkorra izen naz–, Kasilde, beittu, gudarixek etorri die, danak hondatute urez. Ta ia. Esan amai". Ta nire ama ta beste batzuk Batzokire. Eta ni etxeik etxe erropie batzen. Batzuk esaten osten: "Ene, pasadetako daukeu", "Ene, plantxetako daukeu". Ez, baiña Batzokixen egingo dogu /eingogu/. Eta holantxeik kendu geuntsezan erropa bustixek ta ipini genduzen erropa sikuekin. Holantxeik ein gendun biherra. Ta orduntxe topau neban hortxe dauen nobixue, gudarixe. Urte bixen ikusi giñen, gitxi, klaro, frentien euezan ta. Eta ezkontzeko berba eindde be gengozan, baiña lau hillabete aurretik hil ein

jaten. Biherbada Jangoikuek esango eban: "Horri ganorabakuoi hoba nik mutille kentzen badotset".
-Gerran hil zan?
-Ez, gerra ondoren. Bixotzan onduen ei auken /ixauken/ metrailla zatitxu bat. Baiñe, bueno. Mutil ona, ona... Nitzako ez da egon besteik. Agertu die halako edo honako, agertu die, baiña ez, nitzako haxe!
-Nungoa zan bera?
-De Cruces.
-Ez zendun gure izen beste nobixorik?
-Ez! Nitzako haxe. Y punto! Lantzin behin esaten dotset: "Vaya faena me hiciste. Pero bueno, soy féliz!"

6.16. Primo de Riveraren diktaduran mezuak barruko arropetan ezkutatuta

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-012/023
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:55:22. **Bukatu**: 00:57:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra aurrea » 1923-1931: Primo de Rivera
- **Laburpena**: Primo de Riveraren diktaduran (1923-1931), batzokiko isileko kontuak prestatzen zituzten eta bere lehengusinak (Euzkadi egunkarian idazten zuen Etek) barruko arropetan ezkutatzen zizkion mezu horiek Garbiñe izeneko bati emateko. Primo de Riveraren diktadura (1923-1931) hasi zenean, bere gurasoak negarrez ikusi zituen hainbat gauza erre behar izan zituztelako. Diktadura gogorra zetorrela eta dena erretzeko agindua jaso zuten Euskadi buru batzarretik.

Transkripzioa
Beittu, nire umetako denporie esango dotsut. Eta oin noie, osta be, Batzokiko konture... Nik ikusi nittuzen... Primo de Riveran diktadurie etorri zan hogeta hiruen, ta amaittu zan hogeta hamaikan. Ta ni, txatxala handi bat... Eta nire lehengosiña bat, Ete, Euzkadixen idazten eban, neska balixokue, txeposie, belaunien tumorrak urten eta hankie ebagi ein biher izen otsen /izotsen/. Zan neska argixe.

Hak, mezetatik etxerutzien, gure aittai esaten ei otsen: "Bieldu gero umie, biher bat ein biher doste /bioste/ ta". Harek prestetan aben ixileko kontuek, Batzokiko ixileko kontuek. Esaten osten /esatosten/ eze: "Ia amak zelako barruko erropie ipini dotsun". "Bai, baiña ez da jai egunetakue, e, astegunekue da". "Bai, baiña astegunetan be zuri amak gauza politte". Neu konturetu barik, atzien edo dana dalakuen, papeltxue.

"Oin jun Garbiñena –Garbiñe zan beran lagun bat– eta erakutsi amak zelako erropie ipini dotsun". Zazpi urtegaz, bueno...! Sugelingerak baiño bixkorra pasetan nintzen. Han kentzen osten papela. "Yo era el enlace. Yo era Miguel Strogoff, el correo del Zar".

6.17. Urraca Pastor Markinako karlisten 'Círculo Tradicionalista'n

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-013/006
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:04:54. **Bukatu**: 00:07:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- **Laburpena**: Primo de Riveraren diktaduran karlistak Círculo Tradicionalistan batzen ziren. Behin Urraca Pastor buruzagi karlista etorri zen bertara eta Kasilde eta beste batzuk ere joan ziren hura entzutera. Handik irten eta "Emakumes de Markina todas unidas formaremos un grupo bueno que podamos gritar: Gora Euzkadi askatuta!" oihukatu zuten.

Transkripzioa
-Hemen zer egon zien, han sasoien, Primo de Riveran sasoien, karlista asko?
-Bueno, bai, karlistak be baeuken euren zentrue, baeuken. "Círculo Carlista". Tradicionalista! "Círculo Tradicionalista". Han be etorri zan Urraca Pastor, "a hablar a los suyos". Ta gu, lau-bost neska, tipi-tapa, "a escucharle a Urraca Pastor". Haren amaixe izen zan: "Margaritas del campo, margaritas de la calle, todas enlazadas formaremos una guirnalda para coronar a nuestros antepasados". Ta urten genduen handik. Nik neuken erropa berde bat, ta petxerie, beran kuellue zeuken zurixe, eta eukezan zerak... "cerezas".
-Kerixak.
-Haretxek zertute. "Y era, pues, rojo, blanco y verde". Eta hareaz ikusi niñunien batek orratza sartu osten, baiña nik kasoik be ez. Urten gendunien, zelaire heldu giñenien, ia akordetan banaz: "Emakumes de Markina, todas unidas formaremos un grupo bueno que podamos gritar: Gora Euskadi Askatuta!". Hori zelaixen esan genduen. Ta han batenbatek: "Oye, no hables así alto". Esan notsen: "Bueno, Batzokikue zara ala billurtixe zara? Ba, etxa!" Billurrik ez da euki biher. Arpeire esan biher dabe /bidabe/ gauzak. Arpeire esateko billurrik ez da euki biher.

6.18. Ezer barik etxe eske

- **Hizlaria(k)**: Aretxabaleta Goikoetxea, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-015/004
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:02:17. **Bukatu**: 00:05:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Bere amaren lehengusina bat errota batera ezkondu zen eta bere ahizpa han egon zen gerran. Bere ama bi ume gazteenekaz Markinara bueltatu eta ezer barik utzi zutenez, udaletxean etxe bat eskatu zuen. Elisabet eta bere neba Aulestin geratu ziren.

Transkripzioa
-... Errotakue? Mekasuen! Mille mesede eitten oskun /eittoskun/ harek. Ha senidie gendun. Errotako mutil gazte bategaz eguen ezkondute, lehengosiñie gure amana. Gure aman lehengosiñie ezkondu zan errota batera, seme bakarra euena. Etxekuek! Nire aiztie egon zan han, mutillek, mutil kozkorrak eukezan bi, ta harexek zaintzen. Asi ke, gu Aulestin egon giñen errepartidute: bata etxe batien, bestie bestien, danak egon biherrien leko baten.
Eta gure amak ein eban, Gerniketik etorri zanien gure izekue, ba, -beti burrukie ta pixkat organizetan ekixena zan, eta- alde, gazte bixekin Markiña etorri. Ta jun aiuntamenture ta esan harei: "Zuek topau biher dostezue /biostezue/ nun lo ein. Itxi nozue gizon barik eta oin topau biher dostezue /biostezue/ etxie!" Ta topau ein otsen. Emon otsen /emotsen/ pixu bat, ta esan otsen /esatzen/: "Etorten bada uzaba, uzabandrie edo nahi dana dalakue, ez itxi hori etxiori". Ez eban pagetan ezebez. Eske, baeuken, ala, pagetako? Eta gero gure amai tokau jakon harek gazte bixek, berak urten biher ebala /bibala/ biherra, harei jaten emoteko. Ta guk ze ein gendun? Amari hoba zala segidu ez, danok gosiek hil ez gaitzezan, eta Aulestin geratu nire nebie eta ni. Baiñe ez geunkezan hamabost urte, ta ha zan ni baiño gaztiaue. Ama etorri zan gazte bixekaz. Gero batanbatek erosi ein biher izen eban /izeban/ ha etxie, ta kalien topetan ebanien, esaten ei otsen /esatotzen/: "Zuek etxie itxi biher dostezue /biostezue/". Ta gure ama juten zan aiuntamenture, ta esaten otsen: "Ointxe itxi ein biherko dot /bierkot/ etxie, ze harek, erosi dabenak etxie, ni kalien gure nau itxi". "Ez itxi gero, Juana" esaten otsien. Baiñe eurek be ez otsen emoten ezer hari andriari. Pentsaizu, zelako lapurrek! Eurek be esan biher otsen /biotzen/: "Aiba, hau diruau". Ba ez! Harei ez otsen emoten, debalde eukitteko baiño, errenterue, ta euren permisuaz. Jente modue, e! Holakotxe jente modue euki dogu /eukigu/.

6.19. Neskame zegoela, gosea pasa zuen

- **Hizlaria(k)**: Aretxabaleta Goikoetxea, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-015/005
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:05:10. **Bukatu**: 00:07:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Gerra Zibila Aulestin pasa ostean, Gasteizera joan zen neskame. Ez zuen Markinara bueltatu nahi izan, higuina hartu baitzion bere jaioterriari. Urtebetez baino ez zen egon bertan, goseak hil baino arinago, hanka egin baitzuen. 26 pezeta irabazten zituen hilabetean, eta etxekoek amantala baino ez zioten eman.

Transkripzioa
- Aulestittik esan dozu juan ziñela kriada...
- Nik Aulestittik alde neban, krixeda, ikusi nebanien, ba han, klaro, hamasei-hamazazpi urte. Alde ein biher! Esan notsen: "Bueno, ni krixeda noie, eta krixeda noie, ba... eta, gaiñera, ez noie Markiñen geratzen", ze nik hartu notsen higuin bat Markiñai... baiña siñisteko baiño handixaue.

Egon gure ez! Hartu ta Bittorixa, Bittorixa arte. Ta gero beti bizi izen naz ni kapitalien, ni herri batera bapez.
- Ta zenbat denpora ein zendun Bittorin?
- Bittorixan lehenengo ein neban urtebete, bakar-bakarrik. Ta, gosiek hil orduko, hanka eitteko kontue. Ez zan saso ikusgarrixe! Baiña ogixe artekuek... jan ein gure zeozer, ta han ezebez. Baten sagar bat jan neban, ta bastante txarto! Ez jakuen /etxakuen/ edertuegi begittandu. Eta, bueno...
- Baiña ez ziñen egon monjakaz? Monjakaz egon ziñen Bittorin, edo nun egon ziñen?
- Ez, ez, ez! Etxe partikularra. Ha zera zan, "Registrador de... esto... ¿cómo se dice? Registrador era. ¡Casi nadie!". Alaba bixek institutura juten zien, ta harek karrera polittekin urtengo eben harek neska bixek. Valladolideko jente modue zan.
- Jateko gitxi orduen?
- Jateko gitxi? Jateko ezebez! Dana negurtute.
- Eta jornalik?
- Jornalik... Lotsatu eitten naz, baiña sasoiek ez dau... sasoie sasoie zan. Hogeta sei pezeta hillien. Hogeta sei! Ta ez otsuen emoten ezebez, amantala baiño. Pentsaizu, zelako jentie, e? Ta jente dotorie, fiñe, "formales" ta horrek danok.

6.20. Soldaduek bildotsa kendu

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/002
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:02:45. **Bukatu**: 00:04:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena**: Ardizain zegoela bildotsa harrapatu zioten soldaduek. Frontea ere etxe ondoan zuten, Kalamuan. Beldur izaten ziren hango tiro-hotsa entzuten zutenean. Behin, errotara zihoala, zaldia kendu zioten arrebari.

Transkripzioa
- Hoixe ondo ezautu naben, gerrie... onduegi! Ardi-zaiñen nengula, bildotsa be harrapau osten /harrapausten/ soldauek. Laster jun nitzen etxera! "Bildotsa erun dabe" ta "zeuri ez dotsue ezer ein?" esan osten /esausten/ amak. "Ez". Ba bildotsagaittik konforme. Baiña ni negar baten jun nitzen etxera. Hoixe, gerrie ondo ezautu naben nik! Frentie hementxe egon zan, Kalamuan, ta ni hortiko partekue naz, bista-bistan. Horko tiro-hotsa ta bilddurre, bai, e? Bilddurre... Han soldauek-eta ikusitte bilddur handixaz, ze [hiltzaillak] zila-ta esaten oskuen /esatoskuen/ ta umiei holakuk esan ezkero, badakizu, bilddurtu. Bilddurre akabo! Guk gaztetan pasetan gendun. Tiroteue edo, lantzin-lantzin, gabetan iguel. Handik dana entzuten zan, zaparradie, horkue. Bilddurre akabo! Bilddurre pasetan genduen...
- Ez zenduen urten etxetik?
- Ez, ez, ez! Ez gendun urten etxetik. Ha aparte euen ba.
- Eta ganaduek eta? Etxean egon ziren?
- Ganauek be danak etxien egon zien, bai.

- Ez zien pasetan batzuetan milizianuek ganaduek kentzean jenteari?
- Bilddurre bai, kenduko oskuezela-ta esan be bai. Pixkat ezkutuen-ta eukitten enpeñetan giñen. Baiña ez! Ez oskuen /eztoskuen/ holakoik ein. Holakoik eitta orduko aldetie suertau zan milizianuok, eta ez jakun /etxakun/ ezer suertau. Erun oskuena /eruskuena/ zan biherrako kaballo bat. Arrebie jun zan Bariñara, errotara, ta soldauek harrapau otsen /harrapautsen/ han kaballue, biherreko kaballue. Haxe erun oskuen /eruskuen/.

6.21. Aita sabaian ezkutatuta soldaduek ez eramateko

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/031
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:41:57. **Bukatu**: 00:43:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Aita etxean geratu zen gerra sasoian, baina sabaian ezkutatzen zen, lasto artean, soldaduek eraman ez zezaten. Bestaldeko gizona, ostera, boluntario joan zen militarrentzat beharrean, beldurraren beldurrez.

Transkripzioa
- Aite hemen egon zan, gerra sasoien, etxean?
- Bai, etxin egon zan. Bilddurretan, baiña etxin egon zan. Bai! Bilddurre pasau, asko egin eban /eiban/. Geure etxetik ziher, hamen egon zien soldauek, geure etxe ondotik ziher, Gernika aldera pasau zien. Egun guztixen, pasau ta pasau. Gero egon zan sabaixen, lasto artien ezkutaute. Sasokue zan ta, ha soldauek-eta ikusi balebe edo, soldauek baiño handixauek, kabon batek edo ikusi baleu, ha erungo eben. Ta sabaixen ezkutaute egon zan. Ez zan ezer pasau. Ta beste batzuk, gure beste aldeko gizona, bilddurraz, militarrantzako biherra eitteko, Eibarren aurretik apuntau zan. Hak soldataik ez eban irabazten, baina ein zittun… urtebete inguru, militarrantzako biherra eitten, ei n eban /eiban/ debalde.
- Ta zer eiten euen, ze behar eiten euen ba?
- Biherra, ba, militarrantzeko armamentue arreglau ta, militarrantzako. “Militarrizau” esaten jakon, ta militarrantzako [esaten eban] biherra eitten. Horretxeaz bilddurraz, erungo ete eben bilddurraz. Ta aitte gurie zana ez zan apuntau, baiña ha be bilddurretan. Ta ez jakon /etxakon/ ezer pasau.

6.22. Juan profesional Vigon

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Martinez, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-058/017
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:30:41. **Bukatu**: 00:32:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Aisia » Kirola » Pilota

- **Laburpena**: Denboraldi bi egin zituen Juanek Vigon. 'Frontón Vigués' enpresarekin eduki zuen kontratua eta hotela jartzen zioten bertan egoteko. Urte gogorrak izan ziren orduan, gose urteak, eta bi urte pasatu ondoren etxera bueltatu zen.

Transkripzioa
- Eta Vigon zenbet denpora egon ziñen, ba?
- Ni denpora gitxi, tenporada bi bakarrik.
- Tenporada bi?
- Bai.
- Emaztea: Tenporada bi.
- Gero frontoiek segidu eban ondioik martxan, e, baiña nik urten naben handik ta nik gero gehixa ez dot /eztot/ ein.
- Ta non eiten zindun lo ta...?
- Vigon? Hotela ipintten oskuen. Bai, bai, hotela ipintten oskuen / ipintxoskuen/. Enpresiek emoten oskuen honenbeste bat eta gero jan ta hotela, bai.
- Eta ze enpresa zan, ba?
- “Frontón Vigués”. Ordun “Frontón Vigués” zan ha. Eta enpresiek ipintten zittun, ba, kontratue eitten eben pelotarixeki, ta enpresiek emoten oskun, ba, hotela “en tal sitio, hotel tal, hotel tal” eta "todo pagau".
- Eta pagau eiten otsuen?
- Bai, bai, bai, hotela pagaute.
- Ez, baiña gero diñot aparte, zueri pagau.
- Bai, guri zeozer, baiña diru gitxi emoten oskuen guri. Bueno, baiña hamasei urtegaz be ezin geinkien gauza handirik eskatu. Jun zien beste batzuk nausixauek be bai, e! Eta harek, ba, guk baiño gehitxua irabaziko eben ta, baiña...
- O sea ke zuk urte bi ta itxi ein zendun? Hona etorri ziñen gero?
-Bai, bai, etxera. Etxien baneuken nik biximodue ta. Dendie ta geunkezan lez, ba, hantxe. Ordun urte txarrak, urte gatxak ixen zien orduen. "Era cuando la mayor" e..... Españan goseik haundixena...
- Zer izen zan, gerraostea?
- Bai, cuarenta, cuarenta y uno, cuarenta y dos... hortxe ibili zan. Ta ordun gosie euen hemen.

6.23. Gerraostean ogi beltza eta errazionamendua

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Martinez, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-058/018
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:32:19. **Bukatu**: 00:34:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Urte askoan egon zen gosea gerraostean. 1945. urtera arte egon ziren ogi beltza jaten Markinan. Urte horretan, Burgosera joan zen soldadu Juan eta bertan ogi zuria jaten zutela ikusi zuen. Gerraosteko urte gogor horietan, Juanen dendan bertan ematen zuten errazionamendua.

Transkripzioa
- Bai, gose handie?

- Bai, gosie asko egon zan ordun. Ogixe be baltz-baltza jaten zan hamen “porque no había pan blanco”. Ondio guk e.... ni cuarenta y cinkuen... mil novecientos cuarenta y cinco jun nitzen soldau, eta Markiñen ogixe baltza jaten zan ondiok. “Pan integral” izeten zan, baiña oin “integral” erosten da, gozue dala-ta, baiña hori ixeten zan... oin eitten dabe “pan integral” naturala, baiña hamen saltzen zan ogixe orduen, ez euen lez garixe “suficiente”, garixe ta zentenue ta hau ta bestie nahastaute ta ahal dan modukue. Ta gu, akordetan na ni, Burgosa jun giñen soldau ta Burgosen ogixe zuri-zurixe. Ogi zurixe, ogixe... bueno, oingotxe modukue. Ta joe, gure poza han, ogixe! Hamen usaute, ogixe jan biher bagendun /bibagendun/, baserrixetan-ta erosi biher, kontrabandoko ogixe erosi biher. Ta hara jun ta ogixe.
- Zuek emongo zenduen dendan arrazionamendue, ezta?
- Bai, razionamentue, bai. Rigurosue zan razionamentue orduen, jesuus!
- Ta nondik hartuten zinuen?
- Kartillak geunkezan danok hamen. Ordun danak euken kartilla bat. Liburutxu bat “con sus etiquetas y tal”. Eta haretxegaz jun biher ixeten zan erostaa, razionamentue emoten ebenien.
- Baia zueri dendara etorriko jatsuezan, ezta?
- Bai, geuri bialtzen oskuen. Ba, gure bezeruentzako ia izenak hartute euezan ta harentzako geuri bialtzen oskuen, denda danei bialtzen otsen, ba, beran bezeruei.

7. Aisia

7.1. San Juan, Amallon; San Juan eguneko kantua

- **Hizlaria(k)**: Zelaia Balenziaga, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-007/050
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 01:06:34. **Bukatu**: 01:09:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
  Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: Urberuaga parteko jaiak. San Juan, Amallon. Meza. Markina eta Xemein berezita zeuden, bi herri ziren, eta bietako udaletakoak joaten ziren. Loreak. Katalin erroskilak eta gozokiak saltzen egoten zen. Aurreskua eta dantza. Gonbidautza, senideak gonbidatzeko eguna. Arratsaldean erromeria, eta iluntzean ere bai, baina behean, Aspiltzan. San Juan sua, eta kantua.

Transkripzioa
- Ta zuek han Urberuaga partien-eta jaidxek-eta eukitten zenduezan?
- Han Amallon, San Juan. Untxu-untxu pasau de.
- Bai. Ta ze egoten zan Amallon?
- Ai Amallo, guretzako zan, bueno! Egoten zan mezie ta mezetan juten zin Markiñetik, Markina-Jemein, ordun Jemein ez zan Markiñe, hor saso baten. Ni ezkondu ta gero ein zan Markina-Jemein, baiña ha orduen Jemein zan bakarra, aiuntamientu-ta eukitten eban, herridxe. Eta juten zin ba

aiuntamientu ta juten zin meza nagusittako. Eta tanbolin, txistu ta joten eben meza orduko han zelaitxun ta bolanderak eta bueno, kanpaiok eta joten zittuen ta elizi be dana egoten zan horrek milloidxik edo horrek lora, zera botata behien gañin, usain bat goxuaue. Harek anis moduko usaiñe harek daukena, usain gozu. Ta gero jente guzti sobrakin lorak, ta haren loran usaiñe ta egoten zan. Ta gero urteten gendunin, Katalin esaten eutsen, andratxu bet erroskakin egoten zan saltzen: erroskak eta karameluk-eta han. Ta gero aurreskue eitten zan, gizonezkuk aurresku eitten eben ta neskak ataten zittuen ta zelaidxen, ta ikusgarri. Bai, ta gero ba etxera jun ta konbidautzie izeten zan, konbidau egune. Ta senidiek-eta batzen giñen ta gero atsaldien egoten zan erromeridxe, soiñue. Eta han ez euenetik ez aterperik ez argirik orduen, ba illundutekuen beherutz bajatu Aspiltza. Ta Aspiltzan egoten zan han, han kanpuen eitten zan erromeridxi.
- A bai?
- Bai.
- Ta nor egoten zan soiñue joten?
- Ba orduko denporako bat: ondarrutarra edo bat euen markiñarra, Markiñara juten zana-edo. Soinu-jotailliak ordun ez zin oin beste egoten, ta ba. Ta ba jente asko, erromeridxe edarra egoten zan. Han Aspiltzan leku edarra euen, argidxek eta danak, Amallon ez euen, ba haraxe. Illundutekun behera.
- Ta San Juanak di Amallon, ta San Juan suek-eta be eingo zenduezan.
- A bezperan, on be bai, on be eitten dittu San Juan suek, beti.
- Eta ze eitten zenduen? sue eta...
- Sue ein eta kantau suen bueltan. San Juan, San Juan...
- Zelan da hori kantie?
- "San Juan, San Juan bagillian,
ondo da denpora edarrian,
edozein bedarrek usaiñe gozo
San Juan goizian".

Ta benga, alegre ibiltzen giñen gu, pozik.

7.2. Giputxaneko Taberna

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/012
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:13:20. **Bukatu**: 00:15:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Lan asko egindakoa da tabernan. Santa Eufemia egunean erromeria-lekuan jartzen zuten taberna. Beti eguraldiari begira. Gero arratsaldean frontoiko tabernara lanera, hura ere eurek erabiltzen baitzuten. Giputxaneko Taberna zen eurena. Orain ere hala deitzen da.

Transkripzioa
-Ni, ikesten egon nintzen Bilbon. Ta, ostontzien ba, etxien. Gurien, tabernie, frontoien. Aitte gurik hartzen eban. Ta, Santa Eugeni egunien, Santa Eugenien. Eta, bezperatik ze eguraldi dan begire. Ordun, ez eun kotxeik hara gora eruteko. Eta, erute zien, zelan esango dotsut /esangotsut/?

Behixekin ez, idixekin eruten zien geuzak. Ta, eurixe bazan, ba alperrik zan jutie. Ta, gora begire. A, jun ein biherko dou /bikou/ ba! Ta, danien eitten gendun biherra. Tabernie etxien. Gero, Santa Eugenia. Ein han, eguardixe pasau artien. Markiñan jan zeozer, frontora. Gu, biherrik barik ez gara gu.
-Ta, frontora zer, frontora…?
-Tabernie euen frontoien; ta ha, be. Han, hartute euken gure aittek. Ha, be. Geuk bakarrik ez gendun eitten, e! Ekarten zittuen neskak holako egunetako bai.
-Tabernik, ixenik-edo baeuken?
-Giputxanekue. “Del Guipuzcuano, taberna del Guipuzcuano”.
-Del Gipuzkuano deitzen zan?
-Bai.
-Ta, Giputxanekoa esango otson jentiek, ta oin, be bai.
-Oin, be bai. Neuk be, nire gizona taxisti izen zan, baia nik sekulo bez Mari Karmen “la del Guipuzcuano”, danak haxe esaten doste. Ta, haxe zan da!
-Bai. Josuk be esaten dau, berak umetan galdotzen eutsienin, ia bera nungue zan, berak Giputxanekue, esaten ebala.
-Giputxanekue, Giputxanekuek. Ta, ointxe be bai.
-Baiña zeure aittegaittik?
-Bai. Eurek ipiñi eben, “taberna del Guipuzcuano. Así que” gero, Giputxanekuek. Pentsau bez, besteik. Ta, ointxe be bai. Gehixa entenditzen dabe Giputxanekue, besteik baiño.
-Zuen, ezizena be, hori izengo da? Zuri be, jentiek holan…?
-Giputxanekue. Neuk be bai, e! Telefonotik-eta: “¿quién eres?”, “Mari Karmen la del Guipuzcuano”. Haxe da, gure desizena.

7.3. Markinako tabernak

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/016
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:20:48. **Bukatu**: 00:23:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Sacris, Sebastian, Teodoro, Itxuarte... tabernak, eta Beranekua eta Toldope kafetegiak. Beranekoa dotorea zen, eurak ez ziren sartzen. Pilotariak-eta hara joaten ziren.

Transkripzioa
- Ta, ze beste taberna egon zan, holan?
- Hamen egon zien: Sakris, Sebastian eta geu.
- Sebastian, ordun be bazeuen?
- Bai. Sebastian, han oin dauen lekuen, ez. Han, ezkerreta. Elorzanekuk bizi die, ba? Hantxe euen Sebastian. Bai.
- Gaur egun be esistitzen da, ataa kontuek.
- Han, ez ta, oin e, aurrien da, han.
- Ta, zer gehixau, Sebastianekoa, Sakristau?
- E, denporan…
- Sakris, bai, baiña horregaittik da, Sakristauan, edo?
- Sakris, Sakris.

- Sakristauen zozer? Bai, zeoze bai.
- Ez dakit.
- Ta, zein gehixa?
- Ta, Teodoro be bai: Onaindia. Marielin te, aitte ta ama. Ta, zein besteik? Ez naz. Hori, kale Okerrien. Ta, Sakris...
- Guenkalin, ezta?
- Ez dakit nik zelan deitzen daben. Ha, kallejora, kallejoien. Sakris, ta Juanita, ta oin bizi die, ba, goixen.Juanita nire lagune, haren azpixen euen, eta, lelengo pixuen.
- Maritxuk, hori euki eban lekun ordun?
- Bai, konfitterixie edo egon zan. Bai, gozotegixie. Ta, bestie bai, Ittuarte be bai. Ittuartenekuek, oin botata da etxie baiña oin dendie dauen lekun, aurrien euen etxe bat, eskaillera batzuk euezan, eta han euen, Ittuarteneko tabernie. Ez naz akordetan gehixa.
- Ta, kafeterixek?
- E?
- Kafeterixek?
- Kafeterixe, Veganekue ta Toldope. Ademas kafeterixaik ostontzien, nik ez dot pentsetan. Baiña Veganekue ta horrek, elegantiek zien. Gutzeko, “allí no había entrada”. Bueno, egon bai baiña geu, jun ez. Ze, han, pelotarixek-eta eoten zien-ta. Pelotarixek, haundixek zien. Ene, gure Mari Karmenek, urten ein dau ostabe. Han, doie-ta. Ha, ha, harek bueno, bueno, pelotarixek etorten zien udan-ta, “aquellos eran elegantes”. Ta, praka zurixekin-ta jarritte, zurixek edo, kremak edo, elegantik. Ta, ba, gutzeko lekuik ez euen han. Egon, esan otsutena, bai, baia geu ez giñen atrebitzen.

7.4. Anis kopak eta gaseosa

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/018
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:24:21. **Bukatu**: 00:25:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- **Laburpena**: Anis kopak ere ematen zituzten gozotegian. Gaseosa erosten zuten egiten zuten lekuan. Karamelo txikiak beste leku batean.

Transkripzioa
- Ta, horretan orduen, ze egoten zan, kafie da zer gehixau emoten ben?
- Anise, “copitas de anís”. Ta, ba, ez takit. Egunez, refreskue, limonadie zan asko. “Unas limonadas”, kristelezko boteillan. Ta, kanikie, “dra!” Gora juten zan; sakatu holan, ta Legarranien. Ta, Legarrana jun ezkero, merkia. Ta, ba, Legarrana. Han ein eitten eben Legarranien... Ta, gu haraxe juten giñen. Han, egoten zan, ha. Hantxe hartu merkia zalako ze, zine bat euen hor, gure etxian onduen, en Ziarkalia, ta haraxe juten giñen. Pezeta bat edo, emoten eutsuen ta, “caramelos pequeños” emoten euskuen, Euleterionien, hainbeste. Txikixek, horrek ebaki haundixe, ta gero, kortien gelditzen zien harek, txiki-txikixek emoten zittuen.

7.5. Txikiteo giroa

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/020
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:26:28. **Bukatu**: 00:27:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa
- **Laburpena**: Jende askok txikiteatzen zuen orduan iluntzetan eta domeketan. Taldetan. Eguerdian ez hainbeste.

Transkripzioa
- Ta, lehen tabernara buelteta, lehen holan, txikiteruen giroa ta hori, zelan izeten zan, txikiteo kontue? Zu, tabernan egoten ziñenien?
- Ona. Orduen, jente askok txikiteete eban; oin ez. Baiña orduen bai, e. Ordun asko, buenooo!
- Holan kuadrillak...?
- Goxien, kuadrillak. Goxien e, igual hainbeste. Domeketan, bai, e. Baiña ordun zapatuen be, biherra eitten zan; oin, ez. Baiña ordun zapatun be, biherra. Ta… Gabien o illuntzien, asko. Oin ez da, lau katu, katu bakarrik.
- Ta, ze, beti taberna bardiñek ta beti kuadrilla bardiñek?
- Bai, jeneralin bai, e! Bai, geu lagunek izeten giñen moduen hiru-lau, ba harek be, euren kuadrillan, beti.
- Baia andrak andrakaz ta gizonak gizonaz?
- Bai, bai.

7.6. Santa Eufemia eguneko erromeria

- **Hizlaria(k)**: Aretxabaleta Goikoetxea, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-015/021
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:42:18. **Bukatu**: 00:43:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Santa Eufemia egunean erromeria handia ospatzen zen Markinan.

Transkripzioa
- Santa Eufemi egunien eitten zan hamen erromerixa haundixe. Aulestiko ermittie da ha, baiña erromerixaik haundixena hamentxe eitten zan. Hamen, Markiñen eitten zan hori.
- Nun?
- Ba, beittu, batzuetan hantxe, geure etxie... horixe konfitterixian aurrien dauen hutsunie? Ba, kotxe gitxi ibiltten zan lez, ta nahi badozu badao bidie zeretik juteko, besteko leko batetik, eta hortxe. Ta oin aiuntamentuan aurrien ein leike ederto. Ha be aberatsen etxie izendakue da, e! Mugartegi. Ikusten dozu /ikustozu/?

7.7. Kandelerio eta San Blas

- **Hizlaria(k)**: Aretxabaleta Goikoetxea, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-015/029
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:48:49. **Bukatu**: 00:50:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » San Blas
  Aisia » Jai-giroa » Kandelario Eguna
- **Laburpena**: San Blas egunez kordoia eta jatekoa bedeinkatzen zen, baita elkarrizketa garaian ere oraindik. Kandelerio Egunez kandelak bedeinkatzen ziren trumoi egunetarako.

Transkripzioa
- Eta, elixan kanderalixo eta eitten zan hemen, Kandelarixo egune?
- Bai! San Blas eta, hondiño be hori eitten da. San Blas egunien jun eta erun kordoi zati bat eta bedinketu, eta erun bedinketzeko gauza batzuk, jateko. Horrek danok hondiño be eitten die. Eitten die hamentxe, moja mertzedarixen elixan, ze hor egunero hondiño mezie dago, e? Mezie esaten da.
- Bai, baiña zure gazte denboran, Kandelarixo ta eitten zan?
- Dana, dana. Klaro, nire saso denporan elixan gauza asko eitten zien. Asko!
- Ta Kandelarixo egunien zer eitten zan?
- Ba, kandelak erun bedinketzeko, ta gero urte guztixen, iguel, ba, zera euenien... "tormenta y así", ba ixotu, euki kandela bat bedinketutakue, orduntxe egunetan.
- Trumoiek eta...
- Bai, ixotu. Eta bakotxak "lo que se le ocurra". Baiña euki etxien kandela bat bedinketuikue.
- Ze zan, protejiduteko?
- Bai. Holakotxe gauzak eitten die.

7.8. Aitak denda eta taberna eduki zituen

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Martinez, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-058/010
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:14:34. **Bukatu**: 00:17:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Aitak taberna jarri zuen Ameriketatik bueltan eta gero lursaila erosi zuen etxea altxatzeko. Juan jaio zenean, taberna itxi eta denda zabaldu zuen aitak. Bertan ganaduentzako pentsuak, ongarriak eta etxeak eraikitzeko oholak ere saltzen zituzten. "Arrietaneko dendie" esaten zioten.

Transkripzioa
- Ta gero aitek ipini eban tabernea, ezta?
- Bai, tabernatxo bat ipini eban Markiñen.
- Hemen herrien?
- Bai. Eta ipini eban tabernie ta ni ezkondu... edo ni jaixo baiño lehen erosi eben hamen terrenotxu bat etxie eitteko. Ta diskusiñoie edo pentsamentue euren artien eukitten eben: “etxie amaittu edo semie jaixo, zer eingo da ariña?” Ta hoixe ixen zan gorabeherie, ta neu jaixo eta etxie amaittu batera ein eben, kontizu. Ta harek tabernie itxi eben orduen eta biximodu barrire.
- Eta zer ein eben taberna itxi ta ostean?
- Gero taberna itxi ebenin, gero hamen etxe barrixe ein eban lekuen ipini eban dendatxu bat.
- Egie da, pentsuek-eta esan deustezuz.
- Bai, denda bat eta pentsuek. Ta gero horretxegaz bixi ixen giñen ia nausixek ein arte.
- Ta tabernak badakizu ze izen euki euen?
- Bai, tabernie... itxain e... Elorzan tabernie. Ez, ez, gero izen zan Elorzan tabernie. Elorzak hartu eban ta gero ixen zan haren Elorzana. Baiña haren tabernian izena...
- Bueno, trankil, akordetan jatsunean esango dostezu.
- Bai, akordetan bana, esango dotsut.
- Bai, trankil, ez emon buelta larregi. Ta gero pentsuek, ezta? Ta horretan ia urte asko.
- Bai, urte asko, bai. Gero horretxegaz ba, jesus, ba hori e, noz arte? 2000 ingurure arte.
- Bai, e? Bai bada denporea, e?
- Bai.
- Ta zer, bakarrik pentsuek? Edo zeozer gehiau?
- Bai, pentsuek eta janarixe be bai, dendie. Dendie be bai ta pentsuek be bai. Gero abonuek be bai. Eta lehenengo-lehenengo saltzen eben baitte ohola be saltzen eben, etxiek eitteko-ta ohola ta. Baiña gero hori itxi eben berez. Eta pentsue eta abonuek asko.
-A beitu, osea ke baserritarrak joaten ziren horra, ezta?
- Bai baserrixentzako, bai.
- Izena euki eban horrek dendak?
- Bai, Arrietaneko dendie. Bai, haxe izen zan beti.

7.9. Frontoira eskolara orduko

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Martinez, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-058/015
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:25:10. **Bukatu**: 00:28:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Markinan zesta-puntako pilotari ugari egon izan da. Ume guztiak hasten ziren frontoian, sei-zortzi urte zituztela. Eskolara orduko, frontoira joaten ziren. Markinan pilotari on asko irten dira, Ameriketatik diru asko ekarri dutenak.

Transkripzioa
- Hamen pelotarixe ixen da...

- Hamen pelota, ezta?
- Bai, pelotie, pelotie. Zesta-puntako pelotarixek. Eta onak urten dabe ta...
- Bai, ta zer, umeak-eta ibilten ziren?
- Pelotan?
- Bai, diñot, umetan hasiko ziren, ezta?
- Bai, bai, beti.
- Zu be ibili zara?
- Baitte! Behin sei-zortzi urtera ezkero, frontora!
- Danak.
- Bai, danak frontora. Egunero. Egunero juten giñen gu, berrogei bat lagun goixeko zazpiretako juten giñen frontora. Ta hantxe zortzirek arte, e. Zortziretan etxera. Ta gero eskola jun biher! Baiña Markiñen ez euen hara juten ez zanik iñor be. Gure denporan direkto.
- Bai, e?
- Markiñen pelotari onak urten dabe.
- Bai, beti euki dau fama, ezta?
- Eta diru asko ekarri dabe, ganera, Ameriketatik. Pelotarixek Markiñaa diru asko ekarri dabe.
- Egon da hemen enpresarik, holan pelotarien...
- Ez enpresaik... bueno, bat... ez, baiña ein eben, Bartzelonan ipini eben frontoie. Beste huelga bat eta istorixak egon zien ta ordun ein eben enpresa bat formau eben Bartzelonan jokatzeko ta. Markiñen be bai. Markiñen jokatzeko be bai, baiña hori ixen zan “coyuntural” esaten dan moduen. Ba, en fin, huelgie-ta egon zien lez, ba, hantxe bixen bittartien jokatzeko ta segitzeko. Baiña ez zan, enpresa modure ez zan segidu pelotarixekin.
- Osea ke umetako afiziñoa hori zan, ezta? Pelotea.
- Bai, pelotie. Hemen gure denporan pelotie. Ez euen besteik ganera ta.
- Frontoie eukiko zenduen ta hantxe.
- Bai, frontoi ona ta haraxe.
- Emaztea: Eta zeu nun egon ziñan?
- Eta frontoien, juten giñen goixien eta zabaltzen eben goixeko seiretako zabaltzen eben frontoie. Ta juten giñenak han egoten giñen, ba, jokatzen. Eta ha frontoie zabaltzen ebanak gu zortziretan eskolaa jun biher giñen /bigiñen/ lez, etorten zan, joten eban, esaten eban: “nahiku da!” Ta juten giñen danak, emoten oskuen bakotxai eskoba bat ta berak zerriñe botaten eban frontoien ziher, zerrautse, tea gu danok hasi alde batien frontoien ta illeran paraute danok raa... ta egunero hori, e! Frontoie garbittute izten gendun. Eta orduen handik urtetan gendunien, emoten oskun “zarzaparrilla” ur apur bataz “zarzaparrilla” tragotxu bat ta ala! Etxera! Ha ixeten zan gure lehenengo biherlekue.
- Ta gero eskolara?
- Egunero, bai, gero eskolara, bai.

7.10. Markinan pilotari profesional ugari

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Martinez, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-058/016
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:28:07. **Bukatu**: 00:30:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota

- **Laburpena**: Hamasei urte zituela hasi zen profesional pilotan, baina arin utzi zuen Juanek. Vigon ibili zen profesional, beste markinar askorekin batera. Espainian bertan ere zestako frontoi asko egon zen eta baita Bruselasen ere. Orduko pilotari onak Txuso Larrañaga, Kareaga, Laka, Mutrikuko Txurruka, Garmendia, Egurbide eta 'Pistón' izan ziren, besteak beste. Asko Ameriketara joan ziren eta dirua egin zuten bertan dolarrarekin.

Transkripzioa

- Zebat urtekin jun ziñen Vigora?
- Gero ni bai, pelotan neu be jun nitzen, pelotari profesional.
- Ibili ziñen profesional?
- Bai. Hamasei urtegaz jun nitzen, baiña nik laster itxi neban e!
- Bilbora joan zinen?
- E?
- Bilbora?
- Ez, Vigo, Galicia.
- A, Vigora! A bai, e? Hamasei urtegaz, e?
-Bai. Asko jun giñen ordun hamendik, e! Markiñetik asko jun giñen, bai.
-Bai, e? Han eiten pelotan?
-Bai, han frontoie zabaldu eben. Bueno, frontoie eindde euen lehendik be. Lehen eindde euen frontoie ta gero orduntxe zabaldu eben ostera be, ta gero urte askotan segidu eban han. Baiña ordun frontoiek pelotakuek asko euezan, e! Euen: La Coruña, Vigo, Lérida, Madrid, Barcelona, Sevilla... Bruselasen be bai euezan pelotarixek. Ordun pelotari asko juten zan Markiñetik.
- Baiña zuek zestakoak, ez?
- Bai, zestakuek danok, danok zestakuek.
- Hemen zestakoak, ez?
- Bai, bai. Eskukuek ez euken merkaurik hamendik kanpora. Eskuz berton bakarrik, Euskal Herrixen bakarrik.
- Eta zesta kanpoan be bai, ez?
- Bai, bai.
- Ta nortzuk ziren orduko zestako, holan, onak? Zure sasoikoak.
- Onak ordun urten eben: Txutxo –Txutxo Larrañagak hortxe kuadrillatik urten eban–, Kareaga, Laka... horrek zien e... Mutrikuko Txurruka be bai. Hori be ona zan. Garmendia ta Egurbide ta...
- Emaztea: `Pistón´.
- O, `Pistón´ hori mutrikuarra, `Pistón´.
- Horrek onak, ez?
- Bai, onak.
-Eta asko Ameriketara joaten ziren, ezta?
-Asko, asko. Bai, hamen baiño... Hamen Barzelona ta Madrid kendu ezkero, hamen ez zan... ez euen... Zaragozan be bai, inportantie zan ordun Zaragoza be, frontoie. Baiña Ameriketa zan junde dirue ekarten ebena Ameriketa. Ordun dolarra euen altu ta pezetie baju. Eta Ameriketa juten zienien, handik diru asko ekarten eben.
-Ta kanbioa ona.
-Ta kanbixue ona. Kanbixue pezeta asko. Eta pelotarixek be fiñek urten eben Markiñen, e! Pelotarixek be juten zien danak dirue eittera, dirue batzera. Oin eitten dabena rumanuek-eta hamen: ba, hartu ta han hartzen eben dirue Markiñaa ekarri.

7.11. Kazetari-lanak: egunkariak, irratia...

- **Hizlaria(k)**: Ibarzabal Salegi, Nerea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: MAR-119/058
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 01:16:39. **Bukatu**: 01:17:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena**: Nereak kazetaritza ikasi zuen eta horren inguruan egin dituen lanez hitz egiten du. Irratian ere aritzen da, nahiz eta idaztea da gehien gustatzen zaiona.

Transkripzioa
Bai, ba, hitzari lotuta pixkat danetik, eta dana, forma danak gustatzen jatez, e. Iritzi-zutabik idazten hasi nintzen Bizkaiko Hitzan eta... akordetan naz "Ai ama...", baiña fondo-fondun esaten neban, "Bua, beti nahi izen dot /izeot/", ordun, kriston pozik hartu neban. Eta hor ego nintzen urte batzuk, gero "Gaur zortzi"n be bai, bueno, danetik... oin Argia, oin Berrian eitten dou "Txakur gorria"tik dala artikulua baiña ilustrazio handi eta polit batekin. Eta irratian be bai oso gustora, Xabier Amuriza eta Karlos Cidekin; eee... oso ondo pasetan dogu /pasetagu/. Uste dot /ustot gustetan jatela berbie eta berbian bidez heltzen gazen lekuek eta... eta igual gehixen idaztie esango neuke. Beittu, hau dana bertsolaritziai buruzko ordubeteko txapa bat eta gero, esango dotsut /esangotzut/ idaztie gustetan jatela. Baiña, bueno, hor be, ba, banabil bidetxu bat eitten eta pozik.

8. Herria, azpiegitura

8.1. Bizikleta alkilerrak

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/024
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:33:50. **Bukatu**: 00:34:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- **Laburpena**: Ondarroara joaten ziren. Berak bizikleta zuen, baina jende gehienak alokatu egiten zuen. Askok Urberuagan, merkeagoa zelako. Haraino oinez joan, alokatu eta Ondarroara.

Transkripzioa
-Ta gero, junerie, izeten zan Ondarrua, isten oskuenien bizikletan. Nik, bizikletie barrixe erosi osten, ta bizikletan. Ostontzin euen alkilau eitte zien hor: oin da, pelukerixie Miren Lore? Haren pelukerixan euen, alkiler bizikletak. Ta, konpondu-ta eitten zittuen Pedro Balenziagan aittek eta amak. Eta, beste bat euen Urberuan. Ta, Urberuan merketxuaua izeten zan ta oiñez juten zien Urberua. Alkilau han, ta Ondarrua. Ta, bueltan han itxi, te etorri oiñez. Hamen ez da.
-Ta hori, bixikletan alkilerra, normala zan, ezta?
-Bai. Zeiñek euken noberana? Gitxik. Hoixe bai, gitxik.

8.2. Markinako kartzela

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/035
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:53:06. **Bukatu**: 00:54:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Arretxinagan zegoen kartzela. Baina preso politikorik ez du ezagutu. Emakume bati jatekoa eroatera joan ohi ziren.

Transkripzioa
- Ta kartzelarik hemen, Markiñen?
- Kartzelie bada, baiña.
- Nun euen?
- Kartzelie? Arretxiñan. Hor Arretxiñara zoiezan bittartin harrizko etxe bat da eta hantxe egoten zan kartzelie.
- Baia gizonana? andrana?
- Danena. Kuartue, goidxen kuartuek daz. Nik ezautute deuket hori ta jatekue erutera joaten giñen. Baiña sekulo politikiegaitzik ez dot... Akordetan naz baten han juten nintzena, baia harek familidxie euki eban ta ez dakitz ba nik jaidxo zanien hil edo zer, kuestiñoie da kartzelara ekarri eben, eta haretxeri jateku eruta. Kartzeleruk egoten zin ta haretxeri emoten gontsen, baiña juten giñen.
- Tabernatik?
- Bai. Juten giñen.

8.3. Corpus Christi prozesioa

- **Hizlaria(k)**: Aretxabaleta Goikoetxea, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-015/027
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:46:25. **Bukatu**: 00:47:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena**: Markinan Corpus Christi prozesioa egiten zen. Fraideetatik ere irtetean ziren prozesioak, komentua eta nobiziotza zen-eta.

Transkripzioa
Bueno, el Corpus Christi eitten zan, bastante prozesiño ederra gure sasoien. Holan, bedar usain fuertie deukena bota pasetan zan lekutik prozesiñoie ta. Oin horrek danok ez die eitten, ez dau /eztau/ prozesiñoik oin. Jentie juten danien juten da elixara, edo ez da juten. Hortxe amaitzen da oingo prozesiñoiek eta oingo gauzak. Lehen bai, saillien, saillien prozesiñora. Hamentxe Karmengo praillietan be bai, urten ta bueltan han, bertan plazan ein buelta bat eta, konbentue zalako. Gaiñera, hori be "ha sido noviciado", e! Ta hor edozenbat gaztek eitten eban euren, zera, egon biherra, edo praille sartu edo ez, "noviciaos".

9. Iritziak

9.1. Jaunei eta abadeei txapela kendu paretik pasatzean

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/026
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:35:02. **Bukatu**: 00:37:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Euskara » Tratamenduak
- **Laburpena**: Aitaren denboran txapela kentzen zen jauntxoen eta abadeen parean pasatzean. "De usted" tratamenduaz. Aitari ez zitzaion gustatzen.

Transkripzioa
- Ta, orduko denporetan hamen Murganeko familixie, “vamos a decir”, horrek euken aitte, don José María. Ta, Gaitanenekuek. Eta, gizona, txapela kentzen otsen parin zanien. Oseake, harek. Abadiai, be bai. Oin abadik be, geure modukuk die. Oin ez ta holakoik.
- Oin, txikiteun ibiltzen da-ta.
- Ba, bueno! Ta, bazkarik edo aparik bada be bai.
- Ta lehen, berba be, diferente, ezta?
- Bai, “de usted”-edo, lehen. Bueno, hori usarixue da. Ze, nire gizonak, beran aitte ta amai “de usted” trataten otsen /tratatotsen/.
- Berori?
- Bai.
- Bai, baiña erderaz?
- Erdera, amak euskeraz eitten eban baiña aittek gitxia. Ta, erderaz, “de usted”. Ta, gurin hemen be, Jesusek nire aittai, “de usted”. Gure aittek: “Bueno!”, plantete zan. “Baiña aitte, usarixue daukela, horrek, “de usted” tratetako!” Baiña, ez jakon /etxakon/ gustetan; hori, ez dala konfixantzixe eukittie ta bueno. Ez jakon /etxakon/ gustetan.
- Eta, zuek Markiñen hori, abadieri, ta medikueri, ta?
- “De usted” danei, e. Han “lo único de tú”, Juan Carlos be, plantau zanien. Ostantzien, don Manuel ta don Domingo zien. Nebak zien, Motrikotik etorritte, hona. Ta, horrexek bixok ezautu genduzen lelengo. Gero don Domingo hil zen ta nik pentseten dot, gero etorriko zala, un tal Zalazar. Bai, Karlosenekue zan horren famelixie. Veganeko aurrien bizi zien, han […] Ezkiñi eitten dau ba, etxiek? Hantxe. Oin, bankue dago azpixen; hantxe, bigarren pixuen bizi zien.

9.2. Mendatatik Markinara

- **Hizlaria(k)**: Azkune Arrate, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-009/030
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:44:53. **Bukatu**: 00:46:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena**: Etxea hustuta aurkitu zuten etxeratu zirenean, herriko jendeak lapurretan eginda. Nola edo hala lortu zituzten bizitzeko behar ziren gauzak. Gerra berriz pasatzea baino nahiago luke hiltzea.

Transkripzioa
- Markiña etorri giñen, Markiñen ez euen ezer. Gure etxie, etxe zaharra, dana hustute. Dana hustute. Ta, etorri jakon bat, eskelie ete da? Etorri jakon bat, ta esan oskun: “eiba, Ama Birjiñie neuk eroan naban ze, hauxe be ostontzin erun eingo otsuen-ta”. Hor dauken aparador gaiñien. Ta, holan nozkue da hori, kutxauoi apurtute-ta? Ta, ekarri eban ta Fulanok erun dau hauxe, Benganok hau, kontuek konteta. Herriko jentie, dana eroan ebena ta gu, ezebe barik. Ta, etorri giñen, Txorixana. Hamen baserrix, Txorixanekue? Hor, horkue zan nire aittitte. Horkotxie zan. Ta, haraxe etorri giñen. Ta, gero ba, ez genduken zeaz mudau be. Han, dana erre, hamen dana kendu, ezebe barik. Ta, emon oskun honek, lekue emon oskuen lo

eitteko-eta ba, egun batzuk. Hori be, zeozer ein artien. Gero, etxie garbittu edo zeozer ein artien. Ta, emon oskuzen izerak, emon, sldu, izerak Barkiñenekuek. Barkiñenekuekin, haretxekin zeozer ein, ta halantxeik ein genduen geure denporie. Baiña gerrie ta atzera. Nik, ha, pasau baiño nahixa dot, bueno, bueno, bueno. Ez dot nahi hil baiña derrepente hiltzie nahixa dot. “Yo aquello no quiero pasar”. Hoixe ez. Ha harek estutasunek. Arbola azpixen-ta, “ta-ta-ta-ta-ta”. Kotxe danak markau zittuen, ta guri, ezebe ikutu ez. Bateri bez.
- Suertie?
- Bai. Bateri bez.

10. Euskara

10.1. Inpernusierra eta urkamendia

- **Hizlaria(k)**: Anitua Lejardi, Jesusa ; Anitua Lejardi, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-011/022
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:39:35. **Bukatu**: 00:42:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amallobieta, Ana
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Beraien etxe inguruan Inpernusierra deitzen zaio. Urkamendia zegoen bertan eta horko istorioa kontatzen dute. Dorretxeetan bizi zirenek abadeek baino kategoria gehiago zuten. Xemeinen ere beste urkamendi bat egon ei zen eta bertako pasadizo bat kontatzen du Jose Marik.

Transkripzioa
-Alaba: Aitte, esaitzezue honei zegaittik Inpernusierrak Inpernusierra dauken izena.
-Jose Mari: Ez dakit ba nik zegaittik dauken.
-Alaba: Ez dakizule?
-JM: Inpernusierrie?
-Alaba: Zegaittik da Inpernusierrie?
-JM: Ez dakit baiña.
-Alaba: Zelako ezetz?
-Jesusa: Neuk be ez jakixenat /etxakixenat/.
-Alaba: Bueno, nun euen Urkemendixe ta?
-JM: A! Urkemendixe?
-J: A, bai, hori bai.
- Hemen euen Urkemendixe?
-JM: Bai. Urkemendixe euen hamentxe palazixuan gaiñeko parteko tontorrien. Eta enterreten zittuen, beheko zulun enterreten zittuen. Ta nik ez naben /enaben/ ezautu baiña nik hamen entzuten nabenez borrerue-edo Akoda.
-J: Hori leidute na ni liburu baten. Garaian edo nunun.
-Akodakue zala?
-J: Akodakue zala.
-Eta zeintzuk hiltten zittuen? Edo lapurretan ebizenak edo herixotzan bat, hilketan bat ein ebenak edo?
-J: Ez dakit.
-JM: Keba, keba. Ordun, saso haretan —gaur be ez da asko biher baiña—,

ordun saso haretan herrixen agintzen ebenak, zerak zien, abadiek. Abadiek eta alkatiek “fulano ez dabil ondo”; “ez dabil ondo” ez, borreruai: “Hi, ha ezkutau ein biher dozu /bihozu/”. Holan ei zan, bai. Nik holan dauket entzunde. Honek, abadien gaiñetik auezan beste bat, ez naz akordetan oin izena zelan esaten otsen be. Horrek… etxik horrek honek teillatu kaudrauek, gaur be badaz ba, Ansotegin bat, Karian bi, Ugarte hiru, lau etxe ezautzen dittuaz /ezautzeitxuaz/.
-Bai, torre etxietan bizi ziñek.
-JM: Bai. Horrek abadiek baiño beste zer bat haundixaue. Zelan esaten eutsen /esateutsen/ ba horrei….
-J: Nik ez dakit.
-Leku diferentitakuek.
-JM: Ez, diñot… diñot euren izena, konparaziño, praillie, abadie. Abadie ta horrek baiño zer gehixa euken. Bikarixuk eta baiño, horrek baiño, goittik euezan. Ta horretxek eta alkatiek eruten eben… Bai, bai.
-J: Mandue.
-Ordun zuk ez dozu ezautu Urkamendirik?
-JM: Ez.

10.2. Dotrina ikastea eskola baino garrantzitsuagoa

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-052/033
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:47:36. **Bukatu**: 00:50:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena**: Gutxi joan zen eskolara, orduan garrantzitsuagoa zen etxeko beharrak egitea eta. Dotrina ikastea, ostera, oso garrantzitsua zen. Erdaraz ikasi behar izan zuen Juan Josek eta eskolan zigorra jasotzen zuten euskaraz egiten zuenean.

Transkripzioa
- Ta eskolan, zelan? Zu gerraostean egongo zinen eskolan…
- Bai, nik lau urte neukezan ordun. Ni bederatzi urtekin sartu nintzen eskolaa. Baiña ordungo, eskolie…
- Gitxi?
- Maestrie be zela-halakue ta inportantzixa handiik ez jakon /etxakon/ emoten ta.
- Eskoleari ez, ezta? Baina dotrina ikistea bai, inportantea izango zan.
- Dotriñie bai! Dotriñia, erderaz gaiñera, ikesi biher. Erderie, hori, zer zan bez guk, baiñe hantxe.
- Ez zendun jakingo zuk erderarik…
- Ze jakin? Eskola jun ta ixilik egon biher. Euskaraz berba eitten bada, kastigue eskolan. Ta erderaz jakin ez… Ixilik!
- Eskerrak gitxi joan zinela, ezta?
- Gitxi, bai. Itturretan, ba, hamasei-hamazortzi bat lagun edo ibiltten giñen eskolan.
- Ta neskak ta mutilek, danak batera?
- Danak batera, bai.

- Eta zenbat urte? Sartu bederatzigaz, ezta? Ta urten?
- Urten, hamaika urtekin.
- Urte bi eskolan…
- Baiña eskolaa jun, noz? Urte bi diarixo ibili ezkero, zeozer. Baiña ni juten nitzen astien baten, edo hamabostien baten. Ardixekin hara jun biher da, edo ardixek zainddu biher dabe /bidabe/, edo besti ein biher da /bida/… atxekixie beti etxien. Nik neuk eskolan…
- Ta ikesi zendun, zer ikasi zendun? Leiduten…
- Pixkat.
- Eskribidu be zeozer…
- Hoixe. Horrek ikesi nittun, leitzen ta eskribitzen ta horrek.
- Ta sumak edo?
- Horrek bai.
- Baite.
- Etxien be ba…
- Etxean be bai?
- Etxien be, beti, apur bat… asti handiik ez zan egoten. Beti egoten zan biherra, baiña arrebak eta…
- Erakutsi eutsuen?
- Jakiñe!

11. Diaspora

11.1. Parisera neskame

- **Hizlaria(k)**: Anitua Lejardi, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-011/026
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:49:58. **Bukatu**: 00:52:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Neskametza diasporan
  Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Hizkuntzak diasporan
- **Laburpena**: Bost urtez egon zen neskame lanetan. Gero, Parisera joan zen lagun batzuen bitartez. Franko bategatik 12.5 pezeta ematen zizkieten. Hizkuntza-arazoak tarteko, hainbat anekdota kontatzen ditu. Domeketan eta eguenetan batzen ziren lagunak. Oso gustura egon zen bertan.

Transkripzioa
- Ta zenbat denpora egon ziñen krixeda?
- Bost urte. Oin, kriada denpora guztixek e! Kalien e! Bilbon, Frantzin hogeta zortzi urte ta erdi. Bueno, han biherra. Kriada, han sueldu itxitzen urte bi- hirure ta.
- Ta Frantzire zer dala ta joan ziñen ba? Parisera esan dozu?
- Bai Parisa. Ba lagunek neukezan. Udan juten nitzen Eibarkukin uzabakin zera, Zarauza ta han juntetan gintzezan. Eta hara etorten zin frantsesak, nahi ebenak hemengo neskak. Eta esaten gendun, sekulo ez jate ahaztu; lehenengo frankuek emoten oskun /emotoskun/ franko batgaittik “doce cero cinco centimos de pesetas”. Hamabi pezeta eta bost zentimo emoten oskun /emotoskun/ zeragaittik.
- Francoagatzik.
- Franco batgaittik. Jo, hori be danak jun nahi ta batzuk jun zin ni baiño aurretik ta gero ba guri urten oskun /urteuskun/ han lagunek

eta topau eben ta hortaixeik jun gintzezan. -Parisera? -Parisera. -Han sasoien Paris urrun egongo zan ba?
- Bueno, untxe beste bide.
- Bai, baiña oin errez mobiuten da.
- Hori ezta ezebe eta gero zera, han frantses eitten da eta hemen gitxi. Eta ipini osten /ipinisten/ miñe eruteko, hemengo modun ez. Eta gero han mahaire ata biher zan /bizan/ inbitauei. Ta zelan ata biher da /bide/, hemen albardau eitten da, baiña han ez. Ba bakizu zer ein biherra euki naben? Jun mahaire, “madame”, miñe ebai esan. “oui, oui, oui”. Jun ezkatza, ebai eta mahaire erun. Horrek danak ein biher. Sostenan gomie estropeaute, “Élastique, allez-vous y chercher un élastique” momentun bai baiña niri “elastic” ahaztu jaten gero. Eta gero etorten da zeure turnue, “qu'est-ce que vous voulez?”. Hartu ta “klik”,”klik” sostenan golpiek. “Ya esta”. Hortaixeik. Ta gero geuk esan eta geuk barre domekan, kuadrillan neskak. -Gero zer eitxen zenduen, domekan alkartu, hemengo jentie? -Bai. Domekan eta eguena eukitten gendun, arratsaldie. Baiña zenbat barre geuk esaniko kontukin. Beti “feliz”.
- Ondo pasau zendun ordun?
- Han bai, ondo pasau gendun.

11.2. Aita Boisen ardizain

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Martinez, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-058/006
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:05:21. **Bukatu**: 00:07:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
  Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara bidaia
- **Laburpena**: Aita Boisen egon zen ardizain. Hiru hilabete inguru behar izan zituzten itsasontzian bertara heltzeko. Erdara gutxi zekitenez, txartel bat josten zieten alkandoran. Heldu zirenean, bertan bizi ziren euskaldunak topatu zituzten eta haiek lagundu zieten. Laster aurkitzen ei zuten lana euskaldunek, estimatuak ziren ardizaintzan eta.

Transkripzioa
- Non egon zan aitte, Ameriketan?
- Ameriketan egon zan Boisen. Boisen egon zan. Denpora gehixen hantxe. Ardizaiñen, e! Hamendik jun zien. Ohi dan moduen orduen harek ez ekixen, erderaz be ez ekixen, gitxi. Eta juen zien barkuen. Hiru hillebete-edo ein zittuen barkuen. Ta ipini otsen hamen txartel bat izenaz ta haretxegaz jun zien. Barkuen jun ta gero Boisera juteko zenbat kilometro ein zittuezen harek ta zelan ein ete zittuen. Sekulo ez gendun jakin zelan ein eben /eiben/. Ze han ez da /ezta/ oingo moduen hartu autobuse eta juteik. Ordun hara zelan jun ete zien? Ta gero Ameriketa jun zienien, ba, han bertan, Boisen, hara ailegau zienien, ba, han ia topau zittuezan euskaldunek, bertan bizi zien euskaldunek. Batzuk, ganera, enkargetan zien edo kargu hartzen eben hamendik juten zien jentie, ez ekixenak hango bizimodue, eta harek laguntzen otsen /laguntzotsen/ asko. Ta esaten otsen: “Bueno, zuek etorri hamen, hamen deukezue etxie ta biherra topau arte berton

egongo zarie. Geuk emongo dotsueu jaten eta hamentxe egongo zarie ta biherra topau arte”. Baiña... ordun estimaue zan euskaldune han ardixek-eta zaintzen-eta, topetan eben biherra, laster topetan eben /topetaben/.

11.3. Artzain bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Martinez, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-058/007
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:07:02. **Bukatu**: 00:09:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena**: Behar bakartia zen artzaintza. Hilean behin joaten zitzaizkien "kanperuek" jana eramatera. Eskopeta ere aldean edukitzen zuen beti aitak, azeri asko zegoen inguruetan eta. Artalde handiak edukitzen zituzten.

Transkripzioa
- Ta hantxe egoten zien. Eta gero, ba, topau eben biherra ta... Baiña biherra junde, mendire junde ardixek zainddu bai, baiña zenbat denpora eitten eben mendixen iñor ikusi barik? Asko.
- Bakarrik.
- Bakar-bakar-bakarrik. Ta gero eurek eitten eben, ba, beti herrire bajatzen zienien, juntetan zien orduntxe euskaldunek, han inguruen euezenak, ta hortxe ibiltten zien. Baiña berak esaten eban "ha bizimodue tristie, tristie, hainbeste ardigez han, mendiz mendi". Ta juten jakon hillien behin-edo juten jakuen /juteakuen/ eurei janarixek-eta eruten otsezena, “kanperue” esaten otsena eurek, kanperue juten zan hara ta emoten otsen dana dalakue, ba, hillebeterako-edo, janarixe. Ordun be ia, ez euen ordun kamaraik eta holakoik eta ia han zelan konserbauko eben harek gauzak. Baiña mendixen euezan lez, ba, mendixe sanue ixeten da ta bera ta txakurre ta zaldixe. Ta eskopetie. Eskopetie, riflie.
- Badaezpadan.
- Bai, badaezapdan. Ta, ganera, han azerixe egoten zan asko, ta azerixek ganaue edo ardixek erun ez deixezan. Ta hantxe. Ta gure aittek horretan afiziñoie euken, kazari modure edo horretara, ta hantxe. Azerixek agertzen zienien, txakurre ta bera jun azerixen bille, azerixen kontra, ta hantxe ibiltten zien. Gustora, horretan ibiltten zanien.
- Errebañu handie euki zauen? Eukiko zauen, ezta?
- Buf! Haundixk. Nik ez dakit /eztait/ hori ixen leiken be, baiña hiru mille ardi-ta esaten eben ta. Ez dakit /eztaitx/ egixe danik be e, baiña halan esaten eben eurek.
- Zenbet urte egon zan han?
- Ba ez dakigu geuk be. Ez dakigu /eztakigu/ geuk be, baiña zenbat eingo zittun ba, zortzi bat urte edo gitxi gorabehera ixengo zan han eitten ebena. Bai, holakon bat.

11.4. Aitari tiroa jaurti ziotenekoa

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Martinez, Juan

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: MAR-058/008
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:09:11. **Bukatu**: 00:12:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan
- **Laburpena**: Behin, aita ardizain zegoela, norbaitek tiroa jaurti eta zauritu egin zuten. Beste euskaldun bat joan zitzaion laguntzera, gero Juanen aitaginarreba izango zena, hain zuzen ere.

Transkripzioa

- Ta ordun pasau jakun gauza bat kuriosue. Gure aitte hortaixe euela ardixekin, batenbatek tirue bota otsen ta heridu ein eban /eiban/, heridu. Eta beste euskaldun bat euen beste aldien mendixen, ta tirue entzun ebanien, txokau: “joño, hau tirue hemen egoteko ze... ta hor `Bizkai´ dabil ba hor inguruen”. `Bizkai´ esaten otsen gure aittai. Ta “hortxe dabil ba”. Ta “hortxe dabil ba”. Ta esan eban: “bueno, zaldixe hartu ta buelta bat ein biher dot ia topetan doten edo zer ixen dan edo jakitteko”. Ta jun zan ta gure aitte topau eban heridute. Eta topau ebanien heridute, ba, berak ein otsen kurie edo dana dalakue, ta hartu eban ta harek erun eban nonora erun eban zaintzeko. Ta gero suertau zan ha ixen zala honen aitte.
- Ene! Bai?
- Ta eurek ezautu eitten zien, baiña bata hamen Iñuspen bizi zan ta bestie Belaustein. [Hegittik], bata [...] ezkerreta ta bestie eskumera. Baiña ezautu eitten zien. Eta, ba, harek zainddu eban ta hau ta bestie ta gero ondo parau zan aitte. Eta hori izen zan, kontizu, tirue bota otsena, beste... han obejeruek zien, ardixek zaintzen zittuen, eta cowboyek zien kontrarixuek horrenak. Bai, han ganaue egoten zan lez, pentsetan eben ganaue eta ardixe ezin leikela ixen. Eta kontrarixo haundixek zien. Ta bueno, gero pelikuletan be sarritten ikusi dittugu /ikusitxu/ euren burrukak zelan egoten zien. Baiña hamendik juten zien euskaldunek eta hamendik juten zien baserrittarrak harek ez zien gerreruek ez zien harek. Harek, haren pentsamentuik harek revolverrik-eta ez eben, cowboyek erabiltten daben moduen. Baiña haretxen kontra. Ta gure aittei be horretaixeik. Gero jakin eben eurek zein ixen zan, baiña harei ez dotse ezer eitten. Ta horretaixeik ixen zan hori.
- Ta heridu non ba?
- Ba ez dakit ba /eztaipa/ neuk be ze partetan. Hankan be bai ta. Ez dakit, ez dakit /eztait/ nun, e. Ze partetan ez dakit. Baiña bai, herido grabe be ez e, baiña heridu behintzet bai. Horretaixeik suertau zan. Ta gero suertau zan horren aizta bat be ezkondu zan neure anaixa bataz.
-A bai, e?
-Ta gero ni ezkondu nitzen honegaz. Honegaz. Eta,ba, hoixe, suertie ixetie. Bata amerikanue han mendi baten ta bestie bestien ta gero harek hori suertau ezkero, ba, gero eitten eben eurek bizimodue, hau ta beste, baiña harek ez ekixen holako pentsamentuik...

12. Bestelako kontuak

12.1. 1932.eko Aberri Eguna

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Barinagarrementeria, Kasilde
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: MAR-012/024
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:57:10. **Bukatu**: 00:58:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Larrañaga Gisasola, Xabier
- **Gaia(k)**:
  Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
  Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: 1932. urtean, Bilbon ospatu zen lehen Aberri Eguneko argazkia erakusten du. Sekula ez ei da horrelako Aberri Egunetik egin.

Transkripzioa
-Eta nik, diktadurie zertu zanien, aitte ta ama negarrez ikusi nittuzen, Sabino Aranan gauza batzuk erretan. Ze Euskadi Buru Batzarrekuek abixau eben Batzokixeta ahal zan guztixe erretako, ze gogorra etorrela-ta. Baiñe mantendu ein zan, haretan zazpi urtietan mantendu ein zan. Ta ez da sekule eingo Aberri Egun ederrarik Bilbon ein zana baiño. Hortxe na argazkixen aittaz eta amaz.
-Erakutsi neike erretratue?
-Bai! Zelan ez? Pozik gaiñera! Aitte eta ama ta ni baserrittar jantzitte.
-Zer da, Primo de Riveran sasoien edo gero? Ze urtetakoa da hau?
-Hori mille bederatzirehun ta hogeta hamabikue, Aberri Egun egunekue da hori argazkixoi. Gero hamentxe ortu baten atataikue. Sekule ez da eingo, ez da ein, Bilbon lako Aberri Egunik. Haxe zan ba, gauzie... Etorri zan gero gerrie. Klaro, honek eskumetarrok ezin eben ikusi abertzaletasune gerua gora joienik, eta ata eben gerrie. Ta bueno, gerran zer ein eben? Hil, hil ta hil.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Peru eta Marixaren inguruko ipuina (MAR-003/012)

Peru eta Marixaren inguruko ipuina.

2. Erbitan gertatutako pasadizoak (MAR-003/013)

Auzoko batzuekin erbitan gertatutako pasadizoak.

3. Pernando Amezketarraren pasadizoak (MAR-003/015)

Pernando Amezketarraren pasadizoak.

4. Erbitako pasadizoa (MAR-003/017)

Erbitan zebiltzala ezagun batzuei gertatutakoa.

5. Erromeriara dantzara (MAR-003/020)

Erromerietara joaten ziren baina gerora galtzen joan zen ohitura hori. Gipuzkoa aldetik Barinaga aldera jende asko hurreratzen zen dantzara. Lotuan eta helduan bietan egiten zuten dantzan.

6. Pasadizoak (MAR-003/023)

Goizeko seietarako Markinara joaten ziren mezara, eta behin gertatutako pasadizoa kontatzen du. Erbitan zebiltzan bateko pasadizoa.

7. Erbitako pasadizoak (MAR-003/024)

Erbi-ehizan ibiltzen zireneko pasadizoak.

8. Bederatzi urtegaz umezain; "urtezortzidxe" (MAR-006/003)

Bederatzi urtegaz Aulestira joan zen neskame. Goizeko zazpietan altxatzen zen lanerako. Hamar urtegaz abarka-galtzak egiten ikasi zuen bertan. Umezain aritzean gain galtzagin ere ibili zen. Urtebete egin zuen bertan, baina orduan urtebeteko lana egiterakoan, zortzi eguneko lana oparitzen zen, "urtezortzidxe" esaten zitzaion horri. Ez daki zerbait kobratzen ote zuen. Umezain joan zenean, bera baino sei ume txikiago utzi zituen etxean.

9. Hamaika urtegaz kafetegia garbitzen etaharenatzen (MAR-006/004)

Bederatzi urtegaz urtebetez Aulestiko baserri batean umezain egon ostean, etxera bueltatu eta Markinako 'Amistad' kafetegian hasi zen lanean. Horko lana oso latza zen, hango lurra astelehenero belauniko hareaz igurtzi behar izaten zuen, beheko egurra garbitzeko. Behin kafe-makina ez zegoelako ondo garbituta eta ondorioz esnea alferrik galdu zelako, ugazabak kargu hartu zion eta Mariak lana utzi zuen.

10. Umezain zegoen etxeko neskamearen erruagatik lanetik bota (MAR-006/006)

Umea zela, umezain eta kafetegian lanean ibili eta gero, eskolara apur bat joan eta berriro joan zen neskame. Umezain egon zen etxe berean zegoen neskameagaz ez zen oso ondo konpontzen eta haren kulpaz handik bota zuten.

11. Neskame zegoela 13 kilo galdu (MAR-006/007)

Inguruko etxe batzuetan umezain ibili ostean, Bilbora joan zen. Bere amaren neba bat fraidea zen eta hark ezagutzen zuen andre batengana joan zen. Andreak eta haren semeak ondo jaten zuten, baina jatekoa giltzapean izaten zuten eta Mariak urtebetean 13 kilo galdu zituen gosearen gosez. Han zegoela, aitaren aldeko osaba pilotari bat atzerritik bisitan joan eta haren egoera kaskarraz jabetuta Maria etxera eraman zuen bueltan.

12. Bere senargaia fusilatu egin zuten (MAR-006/009)

Gerra Zibilean, bere senargaia fusilatu zuten. Laster ezkontzeko asmoa zuten. Gizon ona zen. Zazpi hilabetez bi fronteren erdian egon ziren eta abertzalea izan arren, erreketeak ere defendatu zituen.

13. Markina obusekin erasotu zuten (MAR-006/011)

Gerra garaian, Markina abertzalea zen eta bi fronteren erdian egon zen. Herrira obusak botatzen zituzten. Horietako batek neska bat zelan hil zuen azaltzen du, etxe barruan zegoela hil zuen eta haren amak aurkitu zuen hilda. Beste gizon bati arbolan sagarrak batzen zegoela hanka harrapatu zioten. Eibartar emakume bat ihesi zihoala hil zuten.

14. Munibera fronteko hildako eta zaurituak (MAR-006/012)

Frontean zauritutakoak eta hildakoak ekartzen zituzten Munibera. Maria ere ibili zen bertan lanean zigortuta, baina ez zuen gaixoekin hartu-emanik. Hori Markinaldeko frontearen ostean izan zen, beste toki batzuetatik ekartzen zituzten bertara.

15. Gerra garaiko gosea (MAR-006/014)

Nazionalak sartu aurretik giro ona izan arren, gose izaten ziren. Behin zaratarik ez ateratzeko txerria zelan hil behar izaten zuten azaltzen du. Gernikaraino ere joan izan zen errotara gerraostean. Astean behin Bekobentan okel apur bat hartu ahal izaten zuten.

16. Aita lau urtez preso zinegotzia zelako (MAR-006/015)

Gerra hasi zenean, bere aita zinegotzia zen eta lau urteko kartzelaldia ezarri zioten. Markinan, Larrinagan, Karmelon, Deustun, Cadizen eta Sevillan egon zen preso. Gerran ez zuten etxetik alde egin.

17. Gerran etxea miatu eta gauzak konfiskatu (MAR-006/016)

Gerran ez zuten etxetik alde egin. Behin, ea etxean neska askoko etxea zen galdetuz etxea miatu behar zietela esanez sartu zitzaien etxera. Etxean soldaduek bidera botatako hainbat gauza eta errazionamenduan jasotako ardoa topatu zien. Arratsalde berean kamioi batekin etorri ziren goizean topatutako horiek hartzeko. Karmengo Amaren koroa ere beraien etxean izaten zuten gordeta eta hori ikusterakoan eta haren jabea non zegoen galdetu zien. Abadea kartzelan zegoela esaterakoan, errekara jaurtitzeko esan zien. Baina horren jabetza ez zen abadearena komentuarena baizik.

18. Aita etxean bertan atxilotu zuten (MAR-006/017)

Bere aita gerra hasi zenean, herriko zinegotzia zen. Markinako errekete bat eta falangista bat etorri ziren beraien aitaren bila etxera preso eramateko. Biharamun goizean ikusi zuten aita kamioneta batean zeramatela. Beste hainbat ere atxilotu zituzten. Lehenengo gaua Markinako kartzelan igaro zuen. Bilbon kartzelatik hurre bizi zen ezagun batek asko lagundu zion aitari han izan zuten bitartean.

19. Kartzelara eramango zutelakoan, fusilatu zuten bere senargaia (MAR-006/018)

Bere senargaia zena Derion fusilatu zuten. Kartzelara eramango zutelakoan entregatu zuen bere burua Markinan, baina hasieratik ezarri zioten heriotza zigorra. Haren aurkako salaketan jartzen duen guztia gezurra zen.

20. Ilea moztu eta lan egitera derrigortutako emakumeak (MAR-006/019)

Hainbat emakumeri ilea moztu zien, espainiar bandera zuen txapela jantziaraziz. Mariari ez zioten ilea moztu, lan egitera behartu zuten.

21. Aita eta senargaia kartzelara bisitatzera (MAR-006/020)

Aita eta senargaia biak batera izan zituen preso Larrinagako kartzelan. Astean bitan joaten zen bisitan, 10 minituko bisitak ziren.

22. Senarra zelan ezagutu zuen (MAR-006/022)

Senarra Kontzezio egun batez ezagutu zuen. Markinan jaiegun handia zen eta frontoian erromeria handia egoten zen. 47 urtez egon ziren ezkonduta. Bere senarra beti inoren menpean lan egitera ohituta egon zen.

23. Euskaraz berba egiteko beldur (MAR-006/024)

Euskaraz berba egitearren izaten zituzten traba eta arazoei buruz dihardu pasarte honetan.

24. Markinako eta Etxebarriko abade bana hil zituzten (MAR-006/025)

Elgoibarren Markinako eta Etxebarriko abade bana hil zituzten egun berean. Etxebarriko abade hura egunero etortzen zen Markinara eta ume bat erdaraz ikusiz gero agiraka egiten zion. Markinarra zen abade hura don Zelestino zen eta urte askoan izan zen Elgoibarko abade.

25. Abadeak mutilekin dantzan egitea debekatu zienekoa (MAR-006/026)

Elgoibarren fusilatu zuten abade markinarrak beste bi anaia abade zituen. Horietako batekin haserretu egin ziren ez zietelako utzi mutilekin dantzan egiten. Ejerzizioetan paper bat eman zien, ez zutela sekula gehiago mutilekin dantza egingo sina zezaten. Baina Mariak eta beste hainbatek ez zuten sinatu nahiz eta dantzarik ere ez egin. Hura sinatu zutenek beraiek baino lehenago hasi ziren dantzan; eta, ondorioz, eurak ere hasi ziren berriro ere dantzan.

26. Xemeindarra, ez Markinarra (MAR-006/027)

Maria Xemeinen jaio zen eta orduan ez zuten zerikusirik Markinarekin. Baina bi herrietako lagun kuadrillak batera ibiltzen ziren. Bera nahiz eta ez joan askorik eskolara, xemeindarrek Arretxinagan zuten herriko eskola.

27. Kantuan ikasi zuten dotrina (MAR-006/029)

Lehen jaunartzea egiteko dotrina ikasi zuenekoa. Irakasten zienak ez zekien erdaraz eta kantuan irakatsi zien dotrina

28. Sei-zazpi urtegaz bazkaria eraman behar lanera aitari (MAR-006/030)

Arretxinagako eskolara gutxi joan zen Maria. Aulestitik Markinara doan errepidea egiten aritu ziren bere aita eta osaba bat eta Mariak bazkaria eramaten behar izaten zien sasi eta baso artetik. Sei-zazpi urte inguru zituen orduan.

29. Bizimodu latza eta gogorra; ama inude (MAR-006/031)

Bizimodu latza eta gogorra izan duela dio. Etxean ume txikiagoak zituen eta bederatzi urte zituenerako neskame joan behar izan zen. Ama gainera inudea zen, hiltzear zegoen auzoko baten umea ere berak hartu zuen. Auzoko horiek zelan bizi ziren ere azaltzen du.

30. Behi-esnea garagardoarekin umeentzat (MAR-006/032)

Garai hartan ere bazeuden biberoiak. Umeei behi-esnea urarekin nahastuta ematen zitzaien. Ezagun batek, zortzi ume izan zituen emakume batek, garagardoarekin nahasten omen zuten esnea. Mariaren amak bere umeak eta beste bi ere hazi zituen, inudea baitzen.

31. Markina-Xemeinek jai asko ospatzen zituzten (MAR-006/035)

Markinako jairik garrantzitsuenak Karmenak, Kontzesioak, San Bartolome eta Santa Eufemia ziren. Xemeinen Arretxinagako San Migel zen garrantzitsuena. Gaueko erromeria ez zen sekula falta, erromeria edarra izaten zen.

32. Mutil batek etxera ez laguntzeko elizan ezkutatu zenekoa (MAR-006/036)

Jaietan gaueko erromeria ez zen sekula falta, erromeria edarra izaten zen. Goiz etxeratu behar izan zuten, baserritarrak are gehiago. Behin Markinako mutil batekin pasatutakoa kontatzen du: mutil hura ez zitzaion gustatzen eta etxera lagundu nahi ziola eta Karmengo elizan ezkutatu zenekoa.

33. Markina-Xemein eta inguruko euskarari buruz (MAR-006/038)

Markinatik Xemein eta Berriatua aldera euskarak ez dauka aldaera nabarmenik, Ondarroara edo Lekeitio aldera gehiago aldatzen da.

34. Orduko janzkera; abarkak; prakak (MAR-007/030)

Ahal zen moduan janzten ziren. Baserrian, gomazko abarkak; etxean egindakoak larruzkoak ziren, eskasak. Zapatak, domeketan elizara joateko. Markinan erosten zituzten oinetakoak. Kaletarrak baserritarrei burla egiteko beti prest. Emakumeek prakarik ez! Onartzen du erosoak izan behar dutela, baina berak sekula ez ditu jantzi.

35. Amuarrainetan eta ehizan (MAR-011/010)

Jose Mariren zaletasun handiena arrantza eta ehiza izan da. Muniben amuarrain asko egoten zen; kanaberan kokoarra jarrita hartzen zituzten. Eskopetarekin zein tiragomarekin aritzen ziren. Kurloiak, txantxangorriak... hartzen zituzten.

36. Espezien ugaritzea eta desagerpena (MAR-011/011)

Antzina erbiak ugariak ziren; basurdeak, orkatzak, beleak eta mikak, ostera, ugaritu egin dira. Usotan ere aritzen zen Jose Mari.

37. Txoriak jan (MAR-011/012)

Ehizatutako txori bat ere ez zen alperrik galtzen. Gatz eta berakatz artean jarrita mantentzen zen. Mozoloak beste txori asko erakartzen ditu, horregatik bera harrapatuta beste asko hurbiltzen dira.

38. Arranoak, "saizerrak" eta beleak (MAR-011/013)

Arranoak orain dela gutxi hasi dira inguru honetara hurbiltzen. "Saizerra" edo abenduarrea (mirua). Kalte asko beleak egin izan du.

39. Soldata amarentzat (MAR-011/015)

Jose Mari handik latoneriara joan zen lanera. 2.50, 10 erreal, irabazten zituen egunean. Soldata amari eman behar izaten zitzaion eta hark ematen zion domeketarako "paga".

40. Munibeko kondea, kuartela eta behitegia (MAR-011/021)

Munibeko kondearen kontuak kontatzen ditu. Juan Carlos Espainiako printzea eta Primo de Rivera ere bertan egondakoak dira. Jose Marik ez zuen ezagutu Munibeko kuartela, soldadutza-kuartela zen-eta. Gerora behitegia jarri zuen kondeak.

41. Xemeingo urkamendia (MAR-011/023)

Xemeinen urkamendi bat egon ei zen eta bertako pasadizo bat kontatzen du Jose Marik.

42. Etxeko lanetan zein neskame lanetan (MAR-011/025)

Jose Marik bere arrebak baino lan gutxiago egiten zuen etxean, baina lantegian zebilenez dirua ekartzen zuen, egunean 10 erreal. Jesusak, ostera, jantzi truke egin zuen lan neskame moduan. Berak utzi ostean beste bat joan zen bere ordez.

43. Parisen neskame (MAR-011/027)

Parisen militar baten etxean eta emakume dibortziatu baten etxean egon zen neskame. Ezkondu ostean, ordu gutxi batzuk baino ez zituen egiten. Azkenean, 14 urte egin zituen bertako gizarte-segurantzan. Senarra bilbotarra izan zuen, han ezagutu zuten elkar. Erretiratu arte egon zen bertan.

44. Parisko Euskal Etxea; soldata ona (MAR-011/029)

Parisen euskaldunekin elkartzen zen Euskal Etxean; senarra ere bertan ezagutu zuen Jesusak. Hango soldata oso ona zen, franko bakarrarekin pezeta asko jasotzen ziren eta. 28 urte eta erdi egin zituen bertan.

45. Jesusaren gizona iher eginda joan zen Parisera (MAR-011/030)

Jesusak Parisen ezagutu zuen bere senarra, bilbotarra. Soldadutzatik ihes egin eta bertara alde egindakoa zen.

46. Gerrako beldurren ondorio (MAR-011/031)

Gerra Zibila oso gogorra izan zen. Behin erreketeei seinaleak egiten zizkietelakoan, argiak amatatzeko esan zieten, baina karburua eta farola baino

ez zuten erabiltzen. Bere arrebak, beldurraren beldurrez, ihes egin zuen. Ez zuten ezer jakin eta oso arduratuta egon zen. Hurrengo egunean bueltatu zen etxera.

47. Eskasia bai, baina goserik ez (MAR-011/032)

Goserik ez zuten ezagutu nahiz eta ogi gutxi izan. Kafea ehotzeko makinan ehotzen zuten irina bertan.

48. Frontea etxetik hurbil; kanoikadak (MAR-011/033)

Frontea etxetik hur izan zuten. Kanoiak nondik nora aldatu zituzten kontatzen du. Etxea ere jo zieten. Obusek hots handia ateratzen zuten.

49. "El abuelo" hegazkina (MAR-011/034)

Gerrako "El abuelo" hegazkina francotarrena zela dio, eta zarata asko egiten zuela. Bonbak bota zituen hainbat tokitan. Abertzaleek ehiza-hegazkinak ere bazituzten.

50. Ezkutalekuak; hegazkinen erasoak (MAR-011/035)

Etxe ondoko estratan ezkutatzen ziren gerran. Soldaduak heldu baino pare bat egun lehenago, hegazkinen mugimendu handia egon zen.

51. Gerran hildakoak (MAR-011/036)

Gerran hil zituztenak aipatzen dituzte.

52. Milizianoak etxean eta herrian (MAR-011/037)

Beraien etxean milizianoak egon ziren, Txorierri aldekoak. Normalean domeketan joaten ziren jatera. Euretako batek esan zien behin mairuak heltzear zeudela, eta horixe gertatu zen. Miliziano eta errekete asko heldu ziren herrira. Erreketei beldurra zieten.

53. Soldaduak kalean zein etxean (MAR-011/038)

Soldaduak Markinako kaleetan barrena pausuak markatzen ikusi zituen lehenengo aldian, "¡Viva Franco, arriba España!" esan zuen sarjentua markinarra zen. Soldadu asko ibili zen kaleetan zein baserrietan.

54. Errotara lehengusinarekin (MAR-011/040)

Jesusa bere lehengusinarekin Gizaburuagaraino joaten zen errotara. Astoarekin joaten ziren. Beste errota batzuk hurbilago zeuden, baina ez zebiltzan martxan.

55. Estraperloko tranpak (MAR-011/042)

Estraperlo garaian, dendara saltzen zuten esnea. Beraiek olioa hartzen zuten, baina dendariak nahiago zuen kantina eramatea botila baino.

56. Hizkuntza traterak: berorika, hika (MAR-011/043)

Abadeari berba egiteko txapela kendu eta "jaune" eta "berori" esan behar izaten zitzaion. Beraiek, neba-arrebek, " ez dok eta bai dok" (hitanoa) erabiltzen dute; elkarrizketatzaileekin, ostera, zukan. Jesusak uste du denekin egiten duela hikaz. Nagusiei sekula ez die egin.

57. Zugarramurdiko sorgin kontuak (MAR-011/046)

Sorgin kontuak beti entzun izan dira. Berak soldadutzan zegoela entzun zuen Zugarramurdin kontrabandoa eta sorginkeria zegoela.

58. Sorgina zen katua (MAR-011/047)

Beraien aitari behin entzun zioten sorgina zen katuaren istorioa. Eibarko arma-lantegien horien desagertzea eragin zutela diote. Jose Marik berak bizitako beste bizipen beldurgarri bat kontatzen du.

59. Marrubiak ostu, jolastu... (MAR-014/002)

Gaztetan inguruko landetako marrubiak jaten aritzen ziren. kalean jolasten ziren: kanikaka, intxaurrekin... Dirurik ez zutenez, edozerekin jolasten ziren.

60. Gozo-denda eta malbabiskoak (MAR-014/003)

Karameluak jateko ere ez zuten dirurik izaten, baina bere osabak gozo-denda izan zuen; gaur egun beste belaunaldi batek darama gozo-denda bera. Malbabiskoak egiten zituzten. Bilboko Santiagitoak modukoak ziren. Bere etxe azpian zegoen denda. Neba-arreba asko zirenez, soberan zeuden zatiak ematen zizkien.

61. Gerra Zibila Aulestin (MAR-014/005)

Ama Aulestikoa zuen eta gerra han pasatu zuten. Bost neba-arreba eta ama egon ziren bertan. Beste ahizpa eta gerran hildako neba Markinan gelditu ziren aitarekin. Aitaren zapata-tailerrera larrua eskas heltzen zen. 1938. urtera arte egon ziren Aulestin. Gerra Zibilean Aulestin egon zen eta handik neskame joan zen. Mertzedeko mojek aurkitu zioten lana Gasteizko etxe batean. Bere senitarteko batzuk Gernikatik ihesi etorri ziren Aulestira.

62. Zergatik ez zuten erre Markinako herria? (MAR-014/006)

Bere ustez, Markina ez zuten bonbardatu, gerrako materiala egiten zuen lantegia, Esperantza, bertan zegoelako eta izen handiko jendea bizi zelako herrian.

63. Gerran familiako kideak banatuta (MAR-014/008)

Adesuako gozo-denda gainean bizi izan ziren gerrara arte. Aulestin egon ostean, bere ama Markinara bueltatu zen seme-alaba batzuekin. Ordurako, beraien aita kartzelan zegoen, Iruñeko San Kristobalgo fortean egon baitzen 7 urtez. Aulestin zeudela, etxe ugaritan egon ziren banatuta.

64. Aita kartzelan eta osaba fusilatu (MAR-014/011)

Bere aita abertzale gogorra izatearren atxilotu zuten. Bere aitaren anaia nagusia hil egin zuten, eta aita ozta-ozta salbatu zen. Osaba, 1937. urtean, Larrinagako kartzelatik Deriora eraman zuten fusilatzera. Aita Iruñeko San Kristobalgo gotorlekura eraman zuten, zazpi urtean behin ikusi zuen aita. Beste hiru markinar ere hil zituzten. Batzokian komediak egiten zituzten. Kasilde Aginagak antzezten zituen, artista ona ei zen.

65. Batzokiko komediak (MAR-014/013)

Batzokian komedia politak egiten ziren. Barre asko egiten zutenez, lehengusinarekin batera kalera botatzen zuten ez zelako entzuten.

66. Hainbat batailoi herrian (MAR-014/016)

Bere osaba izan zen gerra denborako alkatea; baina erbestera joan behar izan zuen, eta 15 urtez egon zen kanpoan. Bere aita gasolindegiko arduraduna izan zen. Komentuak-eta batailoiz bete ziren, asko boluntarioak izan ziren; horietako batzuk aipatzen ditu.

67. Markinar asko gudariekin ezkondu (MAR-014/018)

Markinar asko gudariekin ezkondu ziren. Bere ahizpa ere "Otxandiano" batailoiko kide batekin ezkondu zen. Gerran askori gaztetasuna joan egin zitzaien eta berandu ezkondu ziren.

68. Kartzelara lau joan eta bi bueltatu (MAR-014/021)

Bere aitaren indultua osabaren heriotzaren ostean heldu zen. Lau joan ziren aitarekin batera Iruñeko fortera, baina bi bakarrik bueltatu ziren.

69. Aitaren tailerra konfiskatuta (MAR-014/023)

Bere aita kartzelatik etorri zenean, ezin izan zuen zapata-tailerrera bueltatu, konfiskatu egin baitzioten. Ganbaran hasi zen lanean. Beste behargin bat ere izaten zuen aitak.

70. Gerrak apurtutako bizitzak (MAR-014/025)

Gerrak denei apurtu zien bizitza, zituzten plan edo asmo guztiak bertan behera gelditu ziren.

71. Gerran, baserriko lanetan (MAR-014/028)

Gerra garaian, Aulestin zelan bizi izan ziren kontatzen du. Baserriko beharrak egiten zituzten batik bat. Aulestiko bizimodua asko gustatzen zitzaion. Askotan egunkariak banatzen zituenarekin joaten zen Aulestira eta denboraldi luzeak pasatzen zituen bertan.

72. Zauria belarragaz tapatu (MAR-014/029)

Soloan atzamarra igitaiarekin ebakiz gero, belarra jartzen zuten zaurian sendatzeko.

73. Aitona lagunik minena (MAR-020/003)

Etxeko aitona bere lagun handia zen. Ez zekien idazten, baina hala ere, asko zekien. Soldadu joan arte aitonarekin ibiltzen zen beti.

74. "Ingeniero de estratas y burdibides" eta Ameriketan (MAR-020/005)

Mutikotan buru ona zuen, maistrak edozer galdetuta laster zekien erantzuna. Maistrak etxean esan arren zer edo zer ikasi zezakeela, "Ingeniero de estratas y burdibides" karrera egin zuela dio. Soldadutzara joan zenean 62 kilo zituen eta han bi urte eta Ameriketan beste bost egin eta gero 125 kilorekin bueltatu zen etxera.

75. Berriatuko maistrarekin gutxi ikasi (MAR-020/007)

Mutikotan Larruskaingo eskolara joan zen. Neska-mutilak elkarrekin egoten ziren. Berriatuko maistrak ere ez ei zekien oso ondo erdaraz, baina derrigortuta zegoen erdaraz egitera. Maistra hori askotan berandu heltzen zen eskolara, bizikletan etortzen zen, eta neska nagusi bati esaten zion eskola zabaltzeko. Bitartean 'Cara al Sol' abestu, bandera atera eta lanen bat egiten zuten maistra heldu bitartean. Gutxi ikasi arren, hark ere asko balio zuela dio. Gehien bizimoduak berak erakusten du.

76. Berriatuatik Mañukortara oinez (MAR-020/009)

Jaiotetxean beti izan dute ganadua, baita elkarrizketa garaian ere. Beraien etxetik Larruskainera hiru bat kilometro daude. Behin Berriatuan beharrean zegoela, elurra egin behar zuela eta Aspiltzako tabernatik pasatu ostean etxera oinez joan zen, guztira 10 bat kilometro.

77. Lehengo Larruskain (MAR-020/010)

Larruskain auzoa asko aldatu da. Elkarrizketa garaian baserri asko hutsik zeuden eta beste batzuk jausita. Baserriak jada ez du bizitzeko beste ematen. Bi taberna zeuden Larruskainen; bata zapoa, bildotsa eta arrain-zopa ematen Euskal Herriko onena.

78. Amama inguruko herrietako plazara (MAR-020/011)

Mañukorta baserritik Mendaro alderako joera izan dute. Amama Mutrikura, Elgoibarrera, Ondarroara... joaten zen astoz baserriko jeneroa saltzen. Hainbat andre joaten ziren batera, giro osasuntsua izaten zutela dio. Haientzat sekula ez zegoen eguraldi txarrik.

79. Ofizio onena: dagoena jaten jakitea (MAR-020/012)

Gaur egungo gazteek baino bizipoz handiagoa zuten lehengoek. Indaba edo porru-patata janda konformatzen ziren, ez zegoen txarrik, dena zen ona. Ofizio onena hori ei da: dagoena jaten jakitea. Arrain gutxi jaten zuten. Amama Ondarroara joaten zenean, handik ekartzen zuen arraina.

80. Umetatik Santa eskean (MAR-020/014)

Gazterik hasi zen Santa Agedako koplak abesten, baina orduan oraindik ez zuen afiziorik. Beste bat arduratzen zen koplak kantatzeaz.

81. Bertso txapelketa irabaztearren dirutza (MAR-020/016)

Euskal Herriko bertso txapelketa bateko finala irabaztearren jasotako saria Markinan etxe batek balio zuen erdia zen. Puntuazioaren arabera, lehen hiruren artean bana zitekeen saria. Xalbadorrek eta Basarrik beraien artean banatu zuten behin saria, eta Lasarte izan zen hirugarrena.

82. Gaur egun ez dago lehengo bertso-mailarik (MAR-020/017)

Gaur egun ez da lehengo moduko bertso onik botatzen. Bertso ona asko ditu gogoan. Bere lagun eta maisu onenak Mugartegi eta Lazkao txiki izan dira.

83. Ameriketatik bueltan bertsotan eta lanean (MAR-020/018)

Ameriketatik bueltan Mugartegirekin hasi zen bertsotan. Ameriketan ere aritzen zen bertsotan, Lopategiren anaia han zegoen eta hura ere aritzen zen. Ameriketatik etorri zenean, hara bueltatzekoa zen, baina hemen ere dirua irabazten zuela-eta ez zen joan. Hala ere, Euskal Herriko egoera ere ez zen oso ona.

84. Bertsolari gazteen bertsokeraz (MAR-020/021)

Gaur egungo bertsolari gazteek doinu asko erabiltzen dituzte eta denbora asko pasatzen dute pentsatzen eta kantatzen. Berak ez du balio horretarako, nahiago du zortziko txikian hiru bertso kantatu gauza bera esanez.

85. Bertsotarako konpromisoa (MAR-020/023)

Gaztetan bertsotan egin eta biharamunean ere beste nonbaitera joan beharra izaten zuten eta ez ziren bertsotan ari ziren tokian parrandan geratzen. Bertsotara ahal den eta lo gehien eginda joaten ahalegindu izan da beti.

86. Soldadu zegoela, bertsotarako baimena (MAR-020/027)

Ameriketatik etorri ostean eta Mugartegirekin batera bertsozaletu zen; plaza asko egiten hasi zen orduan. Ameriketara joan aurretik Alfonso Irigoienek antolatzen zuen Bizkaiko txapelketa; apuntatzea erabaki eta Lea-Artibaiko txapelketa irabazi zuen. Soldadu zegoen eta baimen bat tarteko Lekeition jokatu zen Bizkaiko finalaurrekoan parte hartzeko baimena lortu zuen.

87. Ameriketara dirua irabaztera (MAR-020/028)

Soldadutza egin ostean, Ameriketara joan zen. Hemen ez zen irabazten mantentzeko besterik. Hiru urtean etxebizitza batek balio zuena baino gehiago irabaz zitekeen bertan.

88. Bilbon batu ziren Ameriketara joan aurretik (MAR-020/029)

Soldadutza egin ostean Ameriketara joan zen lanera. Nola joan zen azaltzen du: Bilbon batu zituzten Elkora (Nevada, AEB) joan behar zirenak. Euskaldun asko zeuden hara joateko prest.

89. Elkon ezagutu zuen ikurrina (MAR-020/030)

Soldadutza egin ostean joan zen Ameriketara. Elkora (Nevada, AEB) heldu zenean, elurra zegoen mendian eta astebete pasatu behar izan zuen Star hotelean. Ezagunak, baita Larruskainekoak ere, topatu zituen bertan. Ikurrina ere bertan ezagutu zuen. Bigarren Euskal Herria dela hura dio, giroa guztiz euskalduna zen.

90. 2.000 metroko mendietan (MAR-020/031)

Elkora (Nevada, AEB) joan zen artzain lanetara. Mendi handiak ditu Nevadak, 2000 metrokoak. San Migeletan menditik jaitsi behar izaten ziren segurtasuna tarteko. Gidabaimena atera gura zuela eta Idahora joan zen. Paraje hura oso ederra zela dio.

91. Eskolara ahal zenean (MAR-023/002)

Baserritik Markinara joan behar zuen eskolara. Baserrian askotan zuten lana eta ez ziren beti joaten eskolara. Soldadutzara joan aurretik eskola partikularrera joan zen. Zer edo zer ikasi zutela dio.

92. Amalloko eskola zaharra (MAR-023/008)

Amallo auzoko eskolan Pedroren ama ibili zen, baina bera ez. Bere amak bertan ikasi ei zuen sinatzeko beste; aitak, ostera, ez zekien ezta sinatzen ere. Ramonek dio lehen 50 urtekoak zahartzat zituztela, eta orain 80 urterekin bere burua ondo ikusten duela.

93. Aspiltzako eskolan erdaraz, Markinakoan euskaraz (MAR-023/010)

Aspiltzako eskolan Pedrok euskaraz zein erdaraz egiten zuten. Ramonen emazteari behin euskaraz egiteagatik buruan ebakia egin zion maistrak. Ramonek Markinako eskolan, ostera, dena egiten zuen euskaraz. Pedrok Ondarroako maisu euskalduna eta Markinatik joaten zen maisu erdalduna izan zituen. Pedrok euskaraz egiteagatik ezartzen zioten zigorra azaltzen du. Hala ere, Ramonek dio erdara jakitea ere beharrezkoa dela.

94. 'Cara al Sol' abestu behar (MAR-023/012)

Eskolan 'Cara al Sol' abestu behar izaten zuten bandera eta besoa altxatuz. Pedrok Aspiltzako eskolan egunero abesten zuen; Ramonek, Markinakoan, eguenetan (ostegunetan) bakarrik.

95. Dotrina eta euskara (MAR-023/013)

Dotrina ere eskolan bertan ikasi zuten. Aspiltzako eskolan maisuagaz erdaraz eta Markinatik joaten zen abadeagaz euskaraz. Erdaraz ikasitakoa ez zuten ulertzen, etxean dena egiten baitzuten euskaraz. Markinan euskarak baserriko jendeari esker eutsi diola uste du Pedrok.

96. Kubike olgetan (MAR-023/017)

Kubike olgetan zuten umetan. Jolasa azaltzen du Pedrok

97. Potxi-potxika eta "askega" jolasten (MAR-023/018)

Potxi-potxika jolasten zuten intxaurrekin. "Askega" ere jolasten zuten. Jolasen azalpenak ematen ditu Pedrok. Gaur egungo umeek ez dakite horrela jolasten, beraiek ez zuten dirurik ezertarako ere.

98. Auzokoen arteko elkartasuna eta laguntza (MAR-023/019)

Gabon inguruan txerria hil eta auzokoen artean banatzen zituzten odoloste edo txorizoak. Trukean pezetaren bat edo beste ematen zien eta diru hori ondo-ondo gordetzen zuten. Lehen auzokoen arteko hartu-emana desberdina zen, baserriko lanetan ere elkarri laguntzen aritzen ziren, baita auzolanean ere.

99. Abemariatako kanpai jotzea eta hil kanpaia (MAR-023/020)

"Aramaitteko" (abemariatako) kanpai jotzea. Hori entzuterakoan askok errezatu egiten zuten edo etxera joan. Jai bezperatan, zapatuetan, bederatzi kanpai jo eta etxera joan behar izaten zuten. Baten bat hiltzerakoan ere, Amallon hil kanpaiak jotzen zituzten: gizonezkoei hiru hiruko eta andrazkoei hiru biko. Ramonek dio Markinan ez zela desberdintasunik egiten. Amallo auzoan elkarrizketa garaian ere jotzen ziren oraindik ere kanpaiak. Urtean behin bati tokatzen zitzaion kanpaiak jotzea. Umea hilez gero, ez zen kanpairik jotzen. Etxeren bat erretzen zenean, lehen kanpaik jotzen ziren, baina beraiek ez dute hori ezagutu.

100. Goizeko seietako meza (MAR-023/022)

Lehen derrigorra zen jaiero elizara joatea. Goizeko seietako meza egoten zen Karmengo elizan. Ramonek dio etxera bueltatu, oinetakoak beste norbaiti eman eta besteren bat joaten zela hamabietako mezara. Ordu erdiko mezak izaten ziren, euskaraz zein latinez. Andrazkoak eta emakumezkoak bananduta jesartzen ziren.

101. Elizako jesarlekuak pertsona garrantzitsuentzat gordeta (MAR-023/024)

Gaitán de Ayala elizako aurrerengo jesarlekuan esertzen zen, berarentzat bakarrik zen jesarlekua zuen. Herriko beste dirudun bat, Murga, atzeko partean esertzen zen erreserbatuta zuen tokian. Alkateak eta zinegotziek ere beraien tokia zuten. Danbolina jotzen joaten ziren elizara.

102. Markina eta Xemein arteko pikeak (MAR-023/025)

Markina eta Xemein arteko pikeak. Biak batu zirenean, Xemeingo basoak bota zituztela dio Pedrok, baina Ramon ez dago ados. Ramonek dio xemeindarrak ez zirela ganoraz janzten, janzkeran igartzen zitzaiela nongoak ziren. Elizara joateko dotoreago jantzi behar zen. Ramonek dio galtzontziloak ere orduan janzten zituztela.

103. Txapela (MAR-023/027)

Ramonek baserrirako txapel bat eta kalerako beste bat erabili izan du. Pedro berandu hasi zen txapela erabiltzen, ilea jausterakoan eta burua hozten hasi zitzaionean. Ramonek dio baserritarra txapela janztekoa dela. Pedroren ustez udan txapelak asko berotzen du, baina Ramonek dio ezetz, txapela jantzi egin behar dela.

104. Emakumezkoen mantenila (MAR-023/028)

Andrazkoak mezara joateko mantenila beltza janzten zuten, fin-fina.

105. Markinak inoiz ez du izan hilerririk (MAR-023/030)

Norbait hildakoan, gaubeila egiten zen hildakoaren etxean, arrosarioa errezatzen zen gauez. Etxetik zuzenean eramaten zuten gorpua hilerrira, elizara sartu barik. Markinak sekula ez du izan hilerririk; bi udalerri zirenean ere bi herrietakoak Xemeingo hilerrian lurperatzen zituzten. Ramonek dio Xemeingo hilerria bi udalerriak batu zirenean txukundu zutela.

106. Hildakoa kanposantura eramaterakoan (MAR-023/031)

Hildakoa lepoan hartuta eraman behar izaten zuten kanposantura lauzpabost gizonen artean. Aurretik abadea joatean zen eta gurutzean zegoen tokian pater nosterra eman eta gorpua eramaten zutenak aldatzen ziren. Hildakoa astuna bazen, jende gehiago behar izaten zen gorpua eramateko. Bideak ere ez ziren onak eta ordu bat edo ordu eta erdi tarda zezaketen.

107. Txerriak eta behiak Markinako Zelaian (MAR-028/002)

Markinako Zelaia hariztia zen lehen, eta umetan goizeko seietan jaiki eta txerriak ateratzen zituzten bertara. Ostean txerriak errekan garbitu eta kortara sartzen zituzten. Mesedetarako bidean, Zelaiaren ondoko bospasei etxetan behiak zeuden eta horiek ere kanpora ateratzen zituzten. Beraien korta Vega hotelaren kontra zegoen.

108. Esperantza lantegia Deriora (MAR-028/003)

14 urtegaz Esperantza lantegira sartu zen ofizioa ikastera. Baina gero gerrak irten zuen eta Deriora joan ziren. Lo eta jan ere bertan egiten zuten. Bost pezetako jornala zuten eta apopilo zeuden tokian hiru edo lau pezeta ordaindu behar izaten zuten. Amari bidaltzeko ogerleko batzuk aurreratzen zituzten.

109. Derio-Markina-Derio bidea bonbardaketa artetik (MAR-028/004)

Esperanza lantegia gerra garaian Deriora eroan zuten. Bertan lanean zebiltzala, tropek Markina hartu zutenean trena hartzea erabaki zuten herrirantz hurbiltzeko. Gernikara heltzen zihoazela, Muxika eta Gernika artean trena gelditu zen bonbardaketa hasi baitzen. Gernika sutan zegoela ez daki nondik pasatu ziren Ajangizera. handik zehar gauez Markinara heldu ziren. Etxaniz kapitain markinarra topatu zuten bidean eta hark san zien tropak sartu zirela herrira eta buelta erdi hartzeko. Berriro ere Gernika pasatu eta Mungiarantz joan ziren. Ez daki zein herritako baserritan pasatu zuten gaua. Mungiara oinez heldu eta trena hartu zuten Artebakarrera eta handik lantegira bueltatu ziren Deriora.

110. Tropek bilbo hartu aurretik Bilbora bidean (MAR-028/005)

Esperantza lantegia gerra garaian Deriora eraman zuten. Han zeudela, nazionalek Markina ere hartua zutela dagoeneko, tropak pasatu ziren eta San Antonio egunez Bilbora joan ziren. Santo Domingo igotzen zeudela behi-uztarria topatu zuten hilda, gurdia etxeko trastez beteta zutela. Gaua Santo Domingoko taberna pasatu zuten Bilbora joan aurretik.

111. tropek Bilbo hartu zutenean bertan egon zen (MAR-028/006)

Eguna zabaltzerakoan Bilbora joan ziren, Bilbon egun batzuk pasatu zituzten eta ondo gogoan du nondik nora ibili ziren bertan. Bilboko zubiak lehertu zituzteneko leherketak ere entzun zituen, besteak beste. Hainbat markinar ere topatu zituen bertan frankistekin borrokan zebiltzanak. Gero soldadu joan behar izan zuen, hiru urte egin zituen soldadutzan etxera bueltatu aurretik.

112. Esperantza 1939an bueltatu zen Markinara (MAR-028/007)

Gerra garaian Esperantza lantegia Deriora eraman zuten. Lantegia 1939ko ekainean bueltatu zen. Lantegia handitu egin zuten eta bitartean makinak frontoian izan zituzten. Frontoiaren lurzorua makinen pisuaren ondorioz pixka bat jaitsi zen.

113. Urte bukaerako izatearren gerrara joatetik libratu (MAR-028/009)

Soldadutzara joateko hiruhilekoak hartzen ziren kontuan, eta azaroan jaioa denez ez zen gerra joan Jose. Bere kinto asko gerrara joan eta bertan hil ziren.

114. Umetako jolasak (MAR-028/012)

Umetako hainbat jolas azaltzen ditu, "mano, muñeca, brazo" izenekoa, besteak beste. Neskak aparte ibiltzen ziren "txuntxurrien".

115. Lantegitik korrika frontoira (MAR-028/013)

Markinan ez dago zesta punta probatu ez duenik. Eguerdian lantegitik irteterakoan pilotan entrenatzera joaten ziren. Etxera bazkaltzera korrika joan eta lantegira bueltatzen ziren. Askok pilotan ondo egiten zutenean, lantegia utzi eta pilotari ibilbidea hasten zuten. Orduan aukera hori kendu zien eta lantegiaren edo pilotaren artean aukeratu beharra izan zuten. Goizeko seietatik zortzietara frontoian aritzea debalde zen, gainerako orduetan ordaindu egin behar izaten zen. Zesta puntako pilotak gaur egungo modukoak ziren, apur bat motelagoak. Pilotan aritzeko arropak lantegiko berberak ziren.

116. Esperantza lantegiko emakumeak (MAR-028/014)

Esperantza lantegian izerdi patsetan egoten ziren, lan desberdinak egin behar izaten zituzten-eta. Bere hasi zen garaian, hiru emakumezko zeuden Esperantzarenean. Gerratean 30 bat andrazko ere egon ziren.

117. Esperantza lantegiko materiala mundu zabalera (MAR-028/015)

Esperantza lantegiko materiala Espainiako armadarako, Alemania, Egipto edo Qatarrerako izaten zen. Beraiek ez zuten jakiten oso ondo norako zen, zekiten bakarra Bilboko portuan ontziratzea zegoela zen.

118. Alemaniarrak Markinan (MAR-028/017)

Alemaniarrek Mussolini bahituta izan zuten eta Otto izeneko italiar batek askatu zuen. Otto hori Markinan egoten zen sarri. Ciaco kondea, Mussoliniren suhia zen eta Mussolinik berak fusilatu zuen. Eskola dauden lurzorua alemaniarrak erosi zuten eta "El Retiro" izena jarri zioten. Ottoren emaztea bertan hil zen ezbehar bat tarteko eta Markinan lurperatu zuten; horregatik, alemaniar asko egoten zen Markinan. Rubio jenerala ere bertan egoten zen sarri. Beste jeneral batek Burgosen frontoia jarri zuen, asko maite baitzituen Markina eta pilotariak. Otto askotan egoten zen Esperantza lantegian, baina beraiek ez zuten ikusten beti aurrera begira lanean fin-fin aritu behar izaten zuten-eta.

119. Esperantza lantegiko probalekua (MAR-028/018)

Esperantza lantegian egunean 10 orduko lanaldia izaten zuten. Bertako material Zaragozan probatzen zuten. Gerra aurretik lantegian bertan egon zen probalekua. Erdiko kaleko Guardia Zibilaren kuartela kentzerakoan, Uhagonen egoten ziren lantegia zaintzen.

120. Santa Barbara egunez soldadutzan jai (MAR-028/019)

Santa Barbara egunez, abenduaren 4an, soldadutzan jaieguna zen; Esperantza lantegian, ostera, ez. Boxeolarien ikuskizuna izaten zuten.

121. ELA sindikatuko paperak erre (MAR-028/024)

Tropan Esperantza lantegira sartzekotan zeudela ELA sindikatuko paperak eta denen kartzelak erre zituen Josek, ez zekiten zer pasa zitekeen eta badaezpada ere erre zituen.

122. Gorpuzti Eguna (MAR-028/028)

Errepublika garaian egin zuen lehen jaunartzea. Orduan ez zen inolako ospakizunik egiten. Gorpuzti Egunean jaunartzeko arropak janzten ziren berriro. Gorpuzti Egunean ihia, erreka izkinetan irteten zen belar mota bat, botatzen zen kaleetan. Markinako kalezuloak ohegainekoekin tapatzen zituzten egun horretan.

123. Aste Santutako prozesioa (MAR-028/029)

Aste Santutako prozesioak zein ibilbide egiten zuen kontatzen du. Ez zen derrigorra joatean, baina joaten ez zen markatu egiten zuten.

124. Garizumako buldak (MAR-028/030)

Garizumako bijilia sakratua zela dio. Baina beraien amak buldak erosten zituen jatekoa libre izateko. Tailerrera joan behar izaten zuenez, berak ez zuen barau egunik egin sekula.

125. Gaueko txanda egin ostean mezara (MAR-028/032)

Esperantza lantegian gauez lan egin ostean, goizeko seietan lanetik irten eta domeka goizez mezara joaten ziren etxera joan aurretik.

126. Bizarra kentzeko intxaurra ahoan (MAR-028/034)

Baserritarrak goizean goiz etortzen ziren mezara. Lehenago bizarra kentzen joaten ziren bizarginarenera. Matraila markatzeko intxaur bat-edo sartzen zieten ahoan eta behin baten irentsi egin zuen. hurrengo astean intxaur bera ekarri zion bueltan. Bizargina Juanito Mugartegi "Prakaman" zen eta udaletxea dagoen etxea beraiena zen.

127. Baserritarra ondo ibiliz gero, kaletarra ere bai (MAR-028/037)

Esperantza lantegian baserritarrak ere aritu ziren lanean. baserritarrek normalean jornal guztia gordetzen zuten, baina kaletarrek jatekoan gastatu behar izaten zuen. Gernikako lankide bati beti esaten zion Josek baserritarra ondo ibiliz gero, kaletarra ere ondo ibiliko dela, haiengandik jasotzen baitzituzten hainbat eta hainbat lehengai.

128. Baserritarrekin hartu-eman ona (MAR-028/038)

Taberna zutenez baserritarrekin hartu-eman asko zuten eta ordudanik beti izan dute harreman asko eta ona. 1934. urtean itxi zuten taberna, ama gaixorik egon zen ospitalean eta bera eta arreba izeko-osabenean egon ziren. Handik gutxira hasi zen Esperantzarenean lanean. Hala

129. Tabernatik mozkortu barik irteten jakin ez (MAR-028/040)

Elorza taberna zuten. Askok ez ei zekiten tabernatik mozkortu barik irteten. Ardoa eta limonada edaten zen batez ere. Ardoa sifoiagaz zerbitzatzen zen. Garagardoa karmenetarako ekartzen zen, baina kaxa bat ere ez zuten saltzen. Ardodunak Durangotik etortzen ziren. Zahagia bete eta handik kargatzen zuten.

130. 95-110 litroko zahagiak eta azunbre erdiko pitxerrak (MAR-028/042)

95-110 litroko ardo-zahagiak izaten zituzten tabernan. Azunbre erdiko (litro bat) pitxerra ("txarrie") erabiltzen zuten zerbitzatzeko, txikitoka barik azunbre erdiko zerbitzatzen zen.

131. Mozkorrak askara sartzen zituzten pilotariek (MAR-028/044)

Tabernan pare bat neskame zituzten. Sei edo zortzi apopilo ere izaten zituzten eta eguneko lau bat pezeta ordaintzen zituzten. Markinan bazeuden pare bat pertsona beti mozkortzen zirenak eta pilotariak mozkorra askara sartzen aritzen ziren.

132. Tabernatan kantari (MAR-028/047)

Lehen asko kantatzen zen tabernan kuadrillan batzerakoan.

133. Miliazianoekin karta-jokoan (MAR-030/002)

Bere jaiotetxetik, Barinaga auzotik, oso gutxitan etortzen zen Markinara; izan ere, bost kilometroko distantzia dago. Bere lehen akordua soldaduak ikustearena da, milizianoak ziren eta karta-jokoan aritzen ziren eurekin. Frontea hurre zuten, beste aldean, Kalamua mendiaren beste aldean, egon ziren Francorenak.

134. Amagaz Eibarko plazara (MAR-030/003)

Gurasoak Markinakoak ziren eta Barinagara ezkondu ziren. Hamaika neba-arreba izan ziren. Baserria txiki-txikia zen eta pobreak izan arren ez zuten goserik ezagutu. Ama Eibarrera joaten zen astoz bertako plazara, eta fruta sasoian asto bigaz joaten ziren ama eta biak. Beraiek ere askotan joaten ziren Eibarrera, joera handiagoa zuten Markinarako baino. Eibarko plaza bete-beteta egoten zen eta jende asko joaten zen; hala ere, gutxi batzuei etxera ere eramaten zien.

135. Fruta asko zuten etxean (MAR-030/004)

Fruta asko zuten etxean eta saldu egiten zuten. Sasoian sasoikoa zuten eta gaur egun bezala. Sagarra lasto artean izaten zuten ondo kontserbatzeko. Sagar mota asko zeuden: bost kantoia, urdin sagarra...

136. Eskolan euskara galarazita (MAR-030/007)

Sei urterekin hasten ziren eskolara, baina gerra zela-eta bera beranduago joan zen, gerraostean. Amparo Goiogana markinarra izan zuen maistra. Gero maistra erdaldunak izan zituzten eta euskaraz egiteagatik zigortu egiten zituzten. Ez zekiten erdararik, gerora ikasi zuten, eskolan ere ez zuten ikasi-eta; izan ere, erdaraz irakurri arren ez zuten ezer ulertzen. Dotrina izaten zen euskarazko bakarra, abadeak ematen zien-eta.

137. Amparo Goiogana maistraren makila (MAR-030/008)

Amparo Goiogana maistra markinarragaz ere ezin zuten euskararik egin, oso gogorra zen. Behin mutil bati eskolara makila on bat eroateko esan zion eta atzazkolak odoletan utzi zizkion maila hura erabilita. Eskolan makila izatea ohikoa zen. Etxean kontatuz gero, haserre egiten zien horretarako arrazoiren bat izango zuelakoan maistrak. Gurasoak ez ziren sekula joaten eskolara.

138. Amak erdaraz eta idazten ez jakin arren ondo konpontzen zen (MAR-030/009)

Bere aitak bazekien erdaraz, baina amak ez; hala ere, ondo ulertzen zen Eibarko plazara joaten zirenekin. Ez zekien idazten ere, baina kalkuluak buruz egiten abila zen.

139. Oihal faltan zakuak tindatu (MAR-030/010)

Eskolan liburu eta pizarra bakarra zuten. Guardasolik ere ez zuten izaten eta zakua buruan sartuta joaten ziren. Aitak larruarekin jositako abarkak segituan busti eta laban egiten zuten. Lehen jaunartzea gerraostean egin zuen eta ez zegoenez telarik, bakarra joan zen soineko zuriz. Zakuak tindatuta egin zituzten soinekoa askok. Berak bere ahizparen soineko urdina jantzi zuen. Etxean ez zuten ez argirik ez urik: etxe ondoan putzua eta etxe ostean iturria.

140. Elizara sartzea eta buru gainerako teila (MAR-030/013)

Umea jaio eta segidan bataiatzen zuten. Ama etxean izaten zen eta errekuperatzekoan elizara sartzekoa egin behar izaten zuen. Lehenago amak etxetik irtenez gero, elizara sartu aurretik, eskuan teila bat eramaten ei zuen buru gainean jartzeko.

141. ""Parterak" eta erditzeetako arazoak (MAR-030/015)

Barinagan ondoko andrea aritzen zen erditzeetan laguntzen. Markinan ere ezagutu zituen etxerik etxe "partera" lanetan aritzen ziren bi andre. Bikiak jaio eta lasterrera hil zitzaizkion. Usparitxa mediku ospetsuarekin izan zituen berak umeak eta jakin zuen aurretik bi zirela.

142. Sehaskak (MAR-030/016)

Umeen sehaskak zelakoak ziren azaltzen du.

143. Gaubeilak, hiletak eta lutoa (MAR-030/018)

Auzokoren bat hiltzen zenean, gaubeilara joan behar izaten zuten. Gaubeilan bazegoen zer jan eta zer edan eta asko mozkortu ere egiten ziren. Eliza hamar minutura zuten eta gorpua lepoan eroan behar izaten zuten. Hilkutxa zerrategikoek egiten zuten eta oihal beltza jartzen zioten. Behin eskeko bat hil zen Barinagako korta batean, poltsikoan 15 zentimo zituela; orduan 15

zentimo dirutza zen. Esaten zutenez, eskeko hura izan zen Barinagan lurperatutako aberatsena. Gurasoak edo aitita-amamak hilez gero, urtebeteko lutoa mantendu behar izaten zuten. Gizona hildakoan ere lutoa jantzi zuen urtebetez.

144. Hil-kanpaiak (MAR-030/020)

Barinagan hil-kanpaiak jotzen ziren norbait hiltzerakoan. Andrazkoa, gizonezkoa edo umea izan desberdintzen jotzen zuten. Ume asko hiltzen ziren.

145. Bizio-belarrak (MAR-030/021)

Enplasto belarrak erabiltzen zituzten askotan. Belarriko minerako teilatuetan irteten zen belarrak erabiltzen ziren. Tripako bizioentzako bizio-belarrak egoten ei ziren etxe guztietan; hauek hartuta hiruzpalau egunetan beherazkotan egoten ei ziren umeak. Lehen ohikoa zen bizioak izatea.

146. Zaldarra eta txotorra (MAR-030/022)

Zaldarrak kentzeko tipulazko enplastoak egiten ziren. Begian txotorra izatea ere normala zen.

147. Gabonak denak batzeko egunak ziren (MAR-030/025)

Gabonak bereziak izaten ziren, turroia erosi eta konpota eta intxaur-saltsa egiten zuten. Neba-arreba denak batzen ziren, asko kanpotik zebiltzan-eta.

148. Talo eta arto nahikoa jandakoa (MAR-030/026)

Ogia labako suan egiten zuten. Talo eta arto asko jandakoa da, asetu arte. Okokira joaten ziren astoz irin bila.

149. Ezkontza-soinekoen jostuna (MAR-030/029)

Jostuna da Eufemi eta oihal bila Iparraldera joaten zela dio. Hango materiala oso ona zen eta merkeagoa. Ezkongaiari neurriak behin hartu eta bizpahiru aldiz probatzen zuen. Moda desberdinak egon dira, baina eskoterik ez zuen inork erabiltzen.

150. 1945. urteko josteko makina elaktrikoa (MAR-030/033)

Josteko makina ezberdinak ezagutu ditu. 1945. urtetik du berak Alfa markako makina elektrikoa. Aurretik pedaldun makina zuen, baina antzeran funtzionatzen zuen. Lehen arropa asko tindatu egiten zen.

151. Depilazioa eta ile-apaindegi kontuak (MAR-030/037)

'Taki' izeneko likidoa ematen zuten hankak depilatzeko. Ile-apaindegira noizean behin joaten ziren: Markinara edo Eibarrera joan behar izan zuten. Barinagan ez zegoen ile-apaindegirik, baina bai bizargina. Permanentea egitea moda kontua zen. Ilea oso noizean behin garbitzen zuten.

152. Barinagako erromeria (MAR-030/039)

Barinagako erromeria erromeria handia zen. Gelatxo soinujole elgoibartarra eta haren anaia Pedro aritzen ziren soinua jotzen. Mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantza egiteko eta eurak joaten ziren neskengana dantzan egiteko eskatzera. Hiru taberna zeuden auzoan eta beraiek izan ziren tabernara sartzen lehen emakumezkoak. Bere senarra markinarra zen, baina Barinagan bertan ezagutu zuen. Markinatik jende asko joaten ziren, baita

neskak ere, pilotari asko joaten ziren-eta. Neskak pilotarien atzetik ibiltzen ziren. Hala ere, pilotariak ez ziren batere harrotzen. Barinagako erromerian ez zen askorik igartzen zein zen kaletarra eta zein baserritarra. Denak ezagutzen zuten elkar eta kalabazak ere ematen zizkien mutilei. Eibarko Uzartza aldera ere joan izan ziren inoiz.

153. Arrosariora eta konfesioak (MAR-030/043)

Gaztetan mezara eta arratsaldetako arrosariora joaten derrigorra zen, haiek egin barik erromeriara joaten pentsaezina baitzen. Astero konfesatu behar izaten ziren: gizonezkoak aurretik konfesatzen ziren eta emakumezkoak albotik.

154. Kandelak eta petrolioa (MAR-030/048)

Kandela eta petrolioa erabiltzen zuten jaiotetxean argia izateko.

155. Lixiba egiten (MAR-030/049)

Xaboia amak etxean egiten zuen zeboa erabiliz, baina ez du gogoan zelan egiten zuen. Arropa zuria errekan arropak garbitzeko zegoen harrian jo ostean, sutako hautsa eta ur beroa zuen galdara handi batean sartzen zituen. Ereinotz orria botatzen zitzaion sutako hautsari usain ona emateko.

156. Lisaburdinak (MAR-030/050)

Ikatzezko lisaburdina zegoen lehen. Beranduago sukaldeko txapa gainean berotzen zirenak etorri ziren. Inoiz entzun zuen lapiko bat berotu eta prakak harekin lisatzen zituela bateren batek.

157. Etxeko garbitasuna (MAR-030/051)

Etxeko garbitasuna erratza erabiliz egiten zuten. Eibartik ekarritako erratzak zituzten. Kortarako erratzak, "giñerrie", etxean egiten zuten. Ez zegoen lanbasik eta dena belauniko garbitu behar izaten zuen. Ezkondu ostean, kalean, ezagutu zuen berak lanbasa.

158. Ogi-zopak meriendarako (MAR-033/002)

Umetan ez zuten aukera zabala edukitzen meriendarako, ogi-zopak hartzen zituzten beti.

159. Udan ezin eskolara joan (MAR-033/003)

Eskolara Azpeletara (?) joaten ziren, bertan inguruko auzoetako ume asko batzen ziren. Neskak eta mutilak banatu egiten zituzten orduko eskoletan. Udan sarri etxean geratu behar izaten zen Feli baserriko beharrak egiten, eta horregatik izan zen beti azkena eskolan.

160. Eskolan zigorrak euskaraz egitearren (MAR-033/004)

Maistra ondarroarra eduki zuten eskolan. Euskaraz eginez gero, gogor zigortzen zuen hark. Gaiztakeria asko egiten zuten eskolan; elkarri kopiatu, esaterako. Hamahiru urtera arte egon ziren eskolan. Gero, baserrian behar egiteko irten behar izan zuten.

161. Eskolan gaitzizena zuten umeek (MAR-033/006)

Eskolan denek edukitzen zuten gaitzizena. Juanitari, esaterako, "Gorrizimela" esaten zioten.

162. Neskame Arratera, izekoren baserrira (MAR-033/008)

Juanita neskame joan zen izekorenagana hamazortzi urte zituela, Arrate ingurura. Oso mizkina izan zen jateko eta neskame joanda jaten ikasiko zuelakoan bidali zuten. Bertan, esnetan joan behar izaten zuen Eibarrera astoarekin. Juanitak dirua eskatu zion izekori behar egitearen truke, baina hark ez zuen ordaindu nahi izan eta etxera itzuli behar izan zuen.

163. Gerra sasoian San Andres batailoikoak etxean (MAR-033/010)

Gerra sasoian, frontea etxe ondoan eduki zuten Juanitaren familiakoek. San Andres batailoikoek euren etxean egiten zuten lo eta haiek babesten zituzten CNTkoak txahalen eske etortzen zirenenean.

164. Tiroketa gogorra San Esteban Egunean (MAR-033/011)

San Esteban eguna egun berezia zen lehen, eta, horregatik, garbantzu lapikoa jaten zuten. Gerra sasoian, San Esteban egunean tiroketa gogorra egon ei zen.

165. Tratu ona soldaduekin (MAR-033/012)

Feliren etxean milizianoak eduki zituzten ganbaran. Jateko asko edukitzen zuten haiek eta Feli sarritan joaten zitzaien jatekoa eskatzen. Etxean eduki zituzten soldaduak euskaldunak ziren, on-onak.

166. Mandazainei eskatzen zizkieten zigarroak neska-mutilek (MAR-033/013)

Mandazainek ('burreroek') astoa kendu zioten Juanitaren familiari frontera eramateko. Hala ere, tratu ona zeukaten eurekin. Neska-mutilek zigarroak eskatzen zizkieten eta horrela ikasi zuten eurek erretzen.

167. Leihoetan koltxoiak jartzen zituzten baletatik babesteko (MAR-033/014)

Gerra sasoian ezin zuten solora ere irten, frontea hor bertan zuten eta. Zazpi hilabetean, koltxoi barik egiten zuten lo; koltxoiak leihoan jarri zituzten, balek ez dutelako artilea zeharkatzen. Abioiak ere asko sartzen ziren.

168. Milizianoen jatekoa (MAR-033/015)

Milizianoek ondo jaten zuten: bildotsak labean erreta, arroza, garbantzuak eta dilistak. Dirua ematen zieten etxekoei jatekoen truke.

169. Errazionamendua eta estraperloa (MAR-033/016)

Errazionamenduan ogi-kuskur bat ematen zieten. Olioa ere ematen zieten hilabete guztirako, baina oso gutxi izaten zen. Horregatik, ezkutuan ekarri behar izaten zituzten beste jenero batzuk, estraperloan.

170. Lehengoek ez zuten biziorik (MAR-033/017)

Etxean zegoena jaten zuten, ez zegoen gehiago eta. Hala ere, ez zeukaten biziorik, dena zegoen gozo. Gurasoek zeukaten apurra umeei ematen zieten, asko pasatutakoak izan dira euren gurasoak.

171. Gerra sasoian ezkutuan errotara (MAR-033/018)

Omara (Kortezubira) ere joan izan dira irinetan gerra sasoian, karburoa eskuan. Bidean guardia zibilek harrapatuz gero, dena kentzen zieten edo isuna jarri. Bestela, herrian bertan eduki dituzte errotak.

172. Alde handia kaletarren eta baserritarren artean (MAR-033/019)

Lehen aldea nabaritzen zen kaletarren eta baserritarren artean. Baserritarrak atzetik ibiltzen ziren beti, pobreagoak zirelakoan. Janzkeran bertan ikusten zen aldea eta baita hizkuntzan ere; kaletarrek erdaraz eta baserritarrek euskaraz.

173. Ezkodun eta gero maistrarekin erdaraz ikasi (MAR-033/020)

Ezkondu eta gero, maistra bat hartu zuen etxean Juanitak eta harekin ikasi zuen berak erdaraz hitz egiten.

174. Eleizako kontuek garrantzi handia zeukaten (MAR-033/021)

Eskolari ez zitzaion garrantzirik ematen lehen, baina dotrinari asko. Hijas de Maríara ere falta barik joaten ziren. Lehenengo jaunartzea egiteko, esaterako, kartilla txikia eta handia ikasi behar izaten zuten.

175. Errespetu handia gurasoei, eliz-gizonei (MAR-033/022)

Lehen errespetu handia zieten gurasoei eta baita abadeei ere. Abadeak edo fraideak bidetik pasatuz gero, herritarrak jaiki eta txapela altxatzen zuten.

176. Berorika eta hiketa (MAR-033/023)

Berori esaten zieten eliz-gizonei eta baita medikuari edo albaitariari ere. Lagunen artean, ostera, hiketan egiten zuten.

177. Errespetu handia etxeko nagusiei (MAR-033/024)

Lehen plater batetik jaten zuten denek. Inoiz aitaren alderdira pasatuz gero, honek eskuan jotzen zituen. Orduan begirakune batekin ere dena ulertzen zuten. Aita-amamak lehenengoak izaten ziren beheko suaren ondoan jartzen.

178. Lotsa etxekoei ezkonduko zirela esateko (MAR-033/026)

Juanita sei urtean ibili zen mutilarekin. Hala ere, etxekoei ezkondu behar zirela esan behar zietenean lotsatu egiten ziren.

179. Bikoteak domeketan elkartu (MAR-033/027)

Lehengo bikoteak domeketan elkartzen ziren dantzan egiteko. Elkarri musuak ematen zizkieten, baina ezkutuan.

180. Neskak ez ziren tabernara joaten (MAR-033/028)

Oso txarto ikusten zuten neskak tabernetara sartzea. Ondarroar batekin taberna batera sartu zirenekoa kontatzen dute pasarte honetan.

181. Domeka erromeria eta nobioa ikusteko eguna (MAR-033/029)

Domeketan abarketak atera eta erromeriara joaten ziren. Pozarren joaten ziren egun horretan, nobioa ikusiko zutela eta.

182. Maiorazkoarekin ezkondu nahi zuten (MAR-033/030)

Askotan etxera ezkontzen ziren bikoteak. Maiorazkoa zaharrena izaten zen eta harekin ezkondu nahi izaten zuten.

183. Tabernara joaten zen andreak fama txarra (MAR-033/031)

Tabernara joaten zen andreak fama txarra hartzen zuen. Normalean, neskatilak kuadrillan ibiltzen ziren hortik zehar.

184. Erromerietan dantza egin ostean etxera lagundu (MAR-033/032)

Erromerietara urrun ere joan izan dira, Lekeitiora eta Oletara esaterako. Oinez joaten ziren beti. Erromerian dantzan egin ostean, mutilek etxera laguntzerik nahi zuten galdetzen zieten neskei. Baina neskak ez ziren baietz esatera ausartzen.

185. Dantza soltea eta lotua (MAR-033/033)

Mutil gutxi ibiltzen zen soltean dantzan, batez ere lotuta egiten zuten. Baserrian bertan ere askotan egiten zuten dantzan, batek panderoa eta besteak musugitarra ateratzen zuen eta. Horrela ikasi zuen Juanitak soltean dantzan egiten.

186. Mutilak dantza eskatzen hurbildu (MAR-033/034)

Neskak kuadrillan egoten ziren dantzan eta mutilak bazterretik hurbiltzen zitzaizkien dantza eskatzera. Gustatu ezean, ezetz esaten zieten. Gurasoak ziren alabak maiorazkoarekin ezkontzea nahi izaten zutenak, ez alabak eurak.

187. Baserritarrak kaletarrak baino gutxiago (MAR-033/035)

Pilotariek ez zuten neska baserritarrekin egon nahi izaten, kaletarrekin ibiltzen ziren. Gauza guztietan nabaritzen zen nor zen baserritarra eta nor kaletarra.

188. Santa Eufemiara eta San Kristobalen inguruko herrietakoekin dantzan (MAR-033/036)

Santa Eufemiara eta San Kristobalera urtero joaten ziren, inguruko herrietatik ere jendetza hurbiltzen ziren bertara. Asko gustatzen zitzaien inguruko herrietakoekin dantzan egitea, nobedadea.

189. Santa Eufemian jai handia (MAR-033/037)

Jende asko batzen zen Santa Eufemiako jaietan eta dantza-korro itzelak egiten zituzten. Zapata kaxa batean eramaten zuten bazkaria.

190. Basoko erromerietarako abarketak edo abarkak (MAR-033/038)

Abarketak janzten zituzten basoko erromerietarako, eta euria egonez gero gomazko abarkak. Markinara joateko, ostera, zapatak janzten zituzten.

191. Arretxinagako eta Aspiltzako eskolak eta maistrak (MAR-035/004)

Arretxinagako eta Aspiltzako eskolei buruz dihardute. Ondarroako eta Elgoibarko maistrak zeuden bertan eta neskak eta mutilak banatuta egoten ziren. Beste maistra bat ere aipatzen dituzte. Eskolak erdaraz izaten ziren nahiz eta maistrak euskaldunak izan.

192. Euskaraz egitearren jasotako zigorrak (MAR-035/005)

Euskaraz egitearren eskolan ezartzen zizkien zigorrak aipatzen dituzte.

193. Dotrina eta musika don Donatorekin (MAR-035/006)

Eskolan zer ikasten zuten. Arratsaldetan josten ikasten zuten neskek. Julik gogoan du don Donato abadeagaz dotrina eta musika ikasten zituztela eskolan. Gelako neska batek abadeari abesten dion abesti bat kantatzen du Julik.

194. Eskolako leihotik salto (MAR-035/007)

Isabelek bere aitaren garaian eskolako mutil batek leihotik eskapatu zuela dio. Juanitak Asterrikako eskolan ere ezagutu zuen horrelakorik.

195. Urberuagako udatiarrak (MAR-035/010)

Josefa bost urtez egon zen neskame Urberuagako hotel batean. Udatiar asko egoten ziren bertako hotelean eta bainuetxean. 1983ko uholdeetan apurtu zen guztia.

196. Urberuagako bainuetxea eta hotela (MAR-035/012)

Jende asko egoten zen Urberuagako bainuetxean. 1983ko uholdeetan apurtu zen guztia. Baserritar asko joaten zen bertara. Autobus asko heltzen ziren. Juli ere bertara joaten zen pleuresiari aurre egiteko. Ur epela zen bertakoa eta lurrun asko sortzen zen. Bertako ura ere asko saltzen zen botilan. Bertako nagusiak zeintzuk ziren. Neska askok egiten zuen behar.

197. Umetako panpinak (MAR-035/014)

Umetan zelako panpinak zituzten azaltzen dute. Edonork ez zuen izaten panpina: Isabel alaba bakarra zen eta Juli ama hil ostean senitarteko batzuekin hazi zen. Bi-Hiru urte zituela hil zitzaion ama eta aita Durangoko bonbardaketan.

198. Errepublika garaiko aldaketak eta gerra hasiera (MAR-035/017)

Errepublika garaian eskolan gurutzeak kendu eta Errepublikako bandera jarri zuten. Juanita Asterrikan bizi zen eta Gerra Zibilean gertu izan zuen frontea.

199. Gerra Zibileko fronteak (MAR-035/019)

Juanita Asterrikan bizi zen eta Gerra Zibilean gertu izan zuten frontea. Balak alde batetik bestera ikus zitezkeen. Zazpi hilabeteko iraupena izan zuen fronteak.

200. Urberuagan zeuden batailoi eta milizianoak (MAR-035/020)

Gerra Zibilean soldadu asko ikus zitezkeen inguruan. Urberuagan Rosa Luxemburgo batailoia egon zen. Bainuetxea milizianoz beteta egon zen. Bertako zubian bonba bat bota zuten eta hainbat miliziano hil zituzten.

201. Gerrako ezkutalekuak eta bala galduak (MAR-035/021)

Julik gogoan du hondarrez betetako zakuekin babesten zirela gerra garaian. 'El abuelo' hegazkina azaltzen zenean, ezkutatu egiten ziren. Zarata asko egiten zuelako eta zahar itxura zuelako deitzen zioten 'El abuelo'. Bala galduek jendea harrapatzen zuen.

202. Errazionamendua eta estreperloa (MAR-035/024)

Juli izekoren etxean hazi zen eta taberna zutenez bertan banatzen zuten errazionamendua. Baserritarrak etxean zutenarekin konpontzen ziren; hala ere, estraperloa ere izaten zen.

203. Baserriko jeneroa estregatu beharra (MAR-035/025)

Gerraostean baserriko jeneroa entregatu behar izaten zuten: indaba, artoa zein garia. Juanitak patata ere entregatzen zutela du gogoan. Baserri handiek gehiago entregatu behar izaten zuten.

204. Morokila (MAR-035/028)

Ondo egindako morokila gozoa da. Juanitari asko gustatzen zitzaion. Aspertu barik eragin eta eragin aritzea da ondo egindako morokilaren sekretua.

205. Taloa (MAR-035/029)

Talo ona zelan egin behar den azaltzen dute. Talorako arto-irina erabiltzen da. Gari-irina ogia egiteko erabiltzen zuten.

206. Guardia Zibila eta kuartelak (MAR-035/032)

Juanitak gogoan du beraien etxe inguruan Guardia Zibila ibiltzen zela. Ondarroan zuten kuartela. Markinan eta Urberuagan soldaduen kuartelak egon ziren.

207. Nazionalak sartzerakoan ogia zuria banatu zuten (MAR-035/033)

Gerra Zibilean Nazionalek herrira sartu zirenean, ogi beltzaz gain ogi zuria ere banatu zutela gogoratzen du Josefak.

208. Eskolara joan barik errotara (MAR-037/004)

Umetan askotan eskolara joan barik errotara joaten ziren. Bere arreba Juanitak erakutsi zion errotarako bidea, hura eskolara joan zedin. Errotara bakarrik joan zen lehenengo aldian, estualdia pasatu zuen. Eguraldi txarra zegoen eta astoa lurrera jausi zen eta ezin zuen jaso. Ondoko baserri batera joan zen laguntza eske. Errota non zegoen azaltzen du.

209. Urberuaga bainuetxean monagilo (MAR-037/005)

Gerra etorri aurretik Aspiltzako eskolara joaten zen. Urberuagan kapilla zegoen eta uda partean jende asko joaten zen bertako bainuetxera. Monagilo lanetan aritzen zen bertan Luisito.

210. Fronteko mezan monagilo (MAR-037/006)

Gerra hasi zenean beraien etxe ondoan zuten frontea. Bertako baserri batean domeketan meza ematen zuten eta Luisito bertan ere aritu zen monagilo. Agirre Lehendakaria ere egon ei zen behin bertan. Txapela pasatzen zuten bertaratutako soldaduen artean eta pozik bueltatzen zen etxera poltsikoak diruz beteta. Soldaduek soldata ona ei zuten.

211. Gerra garaian artzain (MAR-037/007)

Gerra hasi zenean, bi urtez eskola barik egon ziren. Orduan artzain lanetan hasi zen. Beste baserri batekoek beraienera joatea eskatu zien eta orduan beraien etxean zituzten ardiak, gutxi zituzten, beste baserri hartakoekin batu zituzten denak batera zaintzeko. 12 urte zituen orduan.

212. Zazpi hilabeteko frontea (MAR-037/008)

Gerra hasi zenean, eskolak itxi eta artzain lanetan hasi zen. Erasoak aurrez aurre bizi zituzten. Aireplanoak beraien etxea erasotu ere saiatu ziren. Zazpi hilabeteko iraupena izan zuen bertan gerrateak, fronteak alde egin arte.

213. Fronteko gudariak (MAR-037/009)

Askurrina ondoan zazpi hilabetez izan zuten frontea. Euzko Gudariak ziren bertan borrokan aritu zirenak. Itxasalde batailoikoak eta beste batzuetakoak ere bazeuden.

214. Gerran Askurrinan taberna jarri zuten (MAR-037/010)

Beraien etxea, Askurrina, fronteko soldaduentzako taberna moduen jarri zuten. Jaten ematen zuten eta milizianoak eta "kamilleroak" etortzen ziren; hainbatek bertan egiten zuten lo.

215. Gerratean beti beldurrez (MAR-037/011)

Gerratean beti beldurrez egoten zirela dio, baina sekula ez zen beraien etxeko inor zauritu. Etxe ostean babeslekua zuten eta bertan sartzen ziren arriskua sumatzerakoan. Berak beldur gehien urriaren 4an pasatu zuen; gurasoak ere oso arduratuta ikusi zituen eta horrek umeengan eragina zuen.

216. Gerra etxean bizi izan zuten (MAR-037/012)

Gerra Zibilean ez ziren etxetik irten, nahiz eta hori egiteko gomendatu. Markina hartu zutenean, ez irtetea erabaki zuten. Orduan bizitakoak dakartza gogora.

217. Gerra garaian etxekoen berririk gabe (MAR-037/013)

Bere hiru arreba gerra garaian kanpoan egon ziren: bi neskame zeuden Ondarroan eta beste bat Frantziara joan zen. Zazpi hilabetez beraien berririk izan gabe egon ziren. Beraien auzoko bat bonba batek hil zutela justu-justu jakin zuten. Etxeko denak, baina batez ere gurasoak oso arduratuta egon ziren.

218. Gerrako isunak eta hildakoak (MAR-037/015)

Nazionalak sartu zirenean, hainbat herritar atxilotu zituzten. Hauteskundeetako propaganda dela-eta, hainbati isun gogorrak ezarri zizkieten. Inguruko hainbat lagun ere hil ziren gerra garaian eta horiek aipatzen ditu.

219. Plazakolako zubia lehertu zuten (MAR-037/016)

Gerran Plazakolako zubia apurtu zuten. Urberuagan gauza bera egiteko asmoa zuten eta dinamita jarrita izan arren ez ei zuten astirik izan.

220. Ilea ebaki zioten emakumeak (MAR-037/017)

Aizmendiko Ramonari eta Urloko Mariari atxilotu eta ilea ebaki zioten gerra garaian.

221. Francok herri bat hartzerakoak, kanpaiak jotzen zituzten (MAR-037/018)

Faxistek herriren bat hartzen zutenean Amalloko San Juan elizako kanpaiak jotzen zituzten behin eta berriro. Mailuarekin joaten ziren kanpaia jotzera eta behin kanpaia apurtu egin zuten.

222. Irratia, txakurra eta ondasunak errekisatzea ohikoa zen (MAR-037/019)

Gerra garaian ez zuten ez irrati ez egunkaririk. beraien osaba batek bazuen irratia, baina gerora Markinako alkatea izan zenak errekisatu zion. Erbi txakurra ere bazuen eta hura ere errekisatu zion. Etxe, denda eta ondasun asko konfiskatzea ohikoa zen. Bere ama besoetakoak batzokia zuen Markinan eta hura ere kendu zioten; gero zinema-aretoa jarri zuten.

223. Etxe osteko babeslekuak zelan egin zituzten (MAR-037/021)

Babeslekuak etxe ostean zituzten, bi guztira. Babeslekuok zelan egin zituzten azaltzen du. Abioia sumatzerakoan zuzenean sartzen ziren bertara.

224. Babeslekuen beharra (MAR-037/023)

Baserri guztiek ez zituzten babeslekuak. Baina Askurrina frontearen erdian zegoenez, beharrezkoa zen. Urberuagako bainuetxean ere babeslekua zegoen; harea kamioietan ekarri zuten.

225. Soldaduak Urberuagako bainuetxean (MAR-037/024)

Gerra hasi zenean, Urberuagako bainuetxea martxan zegoen, baina gerora ez. Soldadu asko egoten zen bertan: lehenengo euskaldunak eta gero nazionalak zein alemaniarrak.

226. Ogi gosea (MAR-037/025)

Urberuagako bainuetxean jatekoa banatzen zuten gerran. Beraiek txerrientzako jatekoaren bila joaten ziren. Hasieran ez zuten jateko beharrizanik, baina gerora Francok errotak itxi zituenean txarto pasatu zuten, ogi gosea zuten. Estraperloan aritu behar izan zuten. Kaletarrek errazionamendua izaten zuten, baina beraiek ez.

227. Monagilo lanak egin eta gero eskolara (MAR-037/026)

Gerra bukatu eta lasterrera zabaldu zuten berriro ere Urberuagako bainuetxea. Luisito monagilo lanetan ibiltzen zen bertan. Monagilo lanak egin, ondo gosaldu eta horren ostean joaten zen eskolara, baina ez ei zuen askorik ikasi.

228. Gerraosteko eskola (MAR-037/028)

Gerraostean, eskolatik Markinara joaten ziren bandera eskuetan zuela. Eskolara sartu aurretik bandera altxatu eta eskua altxatuta 'Cara al Sol' abestu behar izaten zuten. Gernika euskaldunek erre zutela eta horrelakoak esan behar izaten zituzten, bestela zigorra izaten zuten.

229. Gernikako bonbardaketako pilotuak Urberuagan (MAR-037/029)

Gernikako bonbardaketako abioiak bertatik ikusi zituzten eta bonba-hotsak ere entzuten zituzten. Gasteizera bonben bila zelan joaten ziren ikus zezaketen. Gernikako pilotuak bertan egon ziren gero, Urberuagan eta baita beraien etxean ere.

230. Soldaduek nahi beste jateko zuten, gosea gero etorri zen (MAR-037/030)

Gerra garaian, Etxebarriko gudari bat eskean joan zen beraien etxean eta bere amak oilarra eman zion. Gudariek ez ei zutela goserik izan dio. Milizianoek ere nahi beste jateko omen zuten. Ganaduari ere haien jatekoa ematen zieten. Gosea gero etorri zen.

231. Indaba, garia eta artoa udaletxera entregatu behar (MAR-037/031)

Gerraostean errotak itxi zituzten eta ogi gosea zuten. Hala ere, baserrietan bazuten zer jan. Indaba, artoa eta garia ere entregatu egin behar izaten zuten udaletxera. Kantitate asko entregatu behar izaten zuten, gurdikadak.

232. Txerria etxe barruan eta gauez hil behar (MAR-037/032)

Gerratean txerria gauez hil behar izaten zuten inork ez sumatzeko; mazo batekin ematen zioten kolpea zaratarik ez sortzeko. Etxe barruan erre behar izaten zuten eta kontuz aritu beharra zen. Txerria hil eta ogirik ez izatea oso tristea zen Luisitorentzat.

233. Errotara ezkutuan joan behar (MAR-037/033)

Txerria hil eta ogirik ez izatea oso tristea zen Luisitorentzat. Behin aitak auzoko baten bitartez lortu zuen irina, hark esan baitzion gauez zein errotak zabaltzen zuen. Luisito bera joan zen harengana anega erdi lepoan hartuta.

234. "Villaviciosa de Markina" (MAR-039/005)

Arretxinagako eskolara joan zen, beraien herria Xemein baita ez Markina. Xemein Markina baino garrantzitsuagoa zela dio. Bera umea zela, Markinak fama txarra zuen, "Villaviciosa de Markina" deitzen zioten. Aberats asko bizi ziren bertan eta askok gerran alde egin behar izan zuten eta beraien etxeekin zer pasatu zen kontatzen du. Gerra garaian alemaniarrak jesuiten dirua hartu zuten eta ez zuten batere lagundu.

235. Gerrako hainbat kontu (MAR-039/008)

Bere jaiotetxea aitak 1917an erosi zuen, Primo de Riveraren diktadura garaian. 1936ko Espainiako Gerra Zibila hasi zenean, inork ez zekien zer zen gerra. Orduko hainbat kontu kontatzen ditu: soldaduak, salbokonduktoa...

236. Artzain soldatarekin baserria erosi (MAR-039/010)

Bere aitak Ameriketan artzain zebilela, urtean 1.000 pezeta irabazten zituen. 18 urtez egon zen han eta 1917. urtean erosi zuen beraien jaiotetxea. Urkijo kondearena zen etxea eta 5.000 ogerleko (25.000 pezeta) ordaindu zituen. Errepublika garaian, langabezia handia egon zen.

237. Gerra hasiera; baserriko jeneroa konfiskatzea (MAR-039/011)

Gerra Espainia hegoaldean hasi zen eta handik heldu zen gurera. Irailean, San Migel inguruan, heldu zen Markina-Xemein aldera. Gogoan du hiru txerri hil eta ezin izan zituztela etxean erre, ezkutuan egin behar zen. Urdaia ere harrapatuz gero, konfiskatu egiten zizuten.

238. Gerrako erasoak (MAR-039/013)

Gerra garaian bizitakoak aipatzen ditu pasarte honetan. Nazionalek Markina hartu zutenean herrian izandako eraso batzuen berri ematen digu.

239. Gerrak suntsitutakoak (MAR-039/014)

Bizkaiko hainbat herri apurtu zituzten gerran. Bilbo babesteko eraiki zuten burdinazko gerrikoa zen gutxien erasotu zutena. Bilbon ere bazeuden markinarrak. Etxaniz kapitainari Larruskaingo baserria erre zioten, aginpide asko zuen Etxanizek. Etxe bi erre zituzten.

240. Errepublikan langabeziak gora (MAR-039/017)

Errepublikak langabezia areagotu zuela dio Pedrok. Aurretik kontratu bidezko lana zuten askok.

241. Umetan Bilbora erdara ikastera eta lanera (MAR-039/018)

Erdara ikasi behar zuela-eta, umetan izeko batengana joan zen Bilbora, haren dendara lanera.

242. Jaio eta segidan bataiatu zuten (MAR-041/002)

Goizez jaio eta arratsaldean bataiatu zuten laster hilko zela esan ei zuelako medikuak. Bataiatu gabeko umeak kanposantu kanpoan lurperatzen zituzten.

243. Bizkondearen sasoiko abade-etxea (MAR-041/003)

Bere jaiotetxea, Plazakolako Torretxu, abade-etxea izan ei zen 1200-1500 urte bitartean. Beraien etxea Xemeingoa da eta historian zehar herri desberdinen lurretan egon da. Auzoan bizkondea bizi zen eta abade-etxea zen bere etxea.

244. Burdina Debara eroateko bidea (MAR-041/004)

Beraien auzoan bizkondea bizi zen. Bizkondea izatez Debakoa zen eta bertatik Debarainoko bidea zuten eginda mendirik mendi. Bere aita 1886an jaiotakoa zen eta amona 1850 inguruan eta sasoi hartan bide hori egiten ei zebiltzan; urte askoan aritu ziren horrexetan. Burdindegia zuten Plazakolan eta handik eroaten ei zituzten lingoteak Debako itsasontzietara. Santurtzi aldetik ekartzen ei zuten burdina.

245. Bizkondearen garaiko etxeak (MAR-041/005)

Bizkondea Plazakolara heldu zenean, Plazatorren bizi ei zen. Alargundu eta bigarren emazteagaz ezkontzerakoan, egin ei zituen beste etxeak.

246. Burdinagaz lan asko egiten zen (MAR-041/006)

Plazakolako fundizioko lingoteak Debara eroaten zituzten. Errementariei saltzen zizkieten. Errementari asko zeuden orduan. Otxandio aldean ere, Bilboko itsasontzietako kateak egiten zituzten.

247. 1918a gripe urtea (MAR-041/008)

Bere gurasoak 1911. urtean ezkondu ziren eta 1918an ama hil egin zen. Jende asko hil zuen gripe-izurritea egon zen 1918an.

248. 1920ko krisia (MAR-041/011)

1920 urte inguruan krisi ekonomikoa egon zen. Orduan ere ez ei zegoen zer erosi eta zer saldu eta urte asko iraun zuen.

249. Primo de Riveraren diktadura (MAR-041/013)

1924. urtean Primo de Riveraren diktadura egon zen. 1928. urtean bi pezetako jornala zegoen eta gose handia. Ostean etorri ziren Errepublika eta frankismoa.

250. Bi soldadutza aldi: Errepublikan eta frankismoan (MAR-041/014)

Primo de Riveraren diktaduraren ostean Errepublika etorri zen. Sasoi hartan, 1932. urtean, joan zen soldadutzara. 1936an berriro joan behar izan zen Francoren aginduz.

251. Itxasalde batailoian gudari preso hartu arte (MAR-041/016)

Itxasalde batailoiko gudaria izan zen, 1937ko ekainaren 18an preso hartu eta langile-batailoietara eroan zuten arte. Asturiasen alemaniarrentzako abiazio-zelaiak atontzen ibili zen, besteak beste. 1939. urteko ekainaren 13an eman zioten etxera etortzeko baimena eta askatasuna.

252. Itxasalde batailoiko Boga Boga konpainia (MAR-041/018)

Itxasalde batailoiko Boga Boga konpainiako kidea izan zen. Markinan sortu zen eta handik Lekeitiora joan ziren. Lekeition osatu zuten Itxasalde lau konpainia ezberdinek. Bertako kideak ingurukoak ziren: markinarrak, berriatuarrak, ondarroarrak, txorierritarrak...

253. 40 lagun batailoitik aldendu ziren (MAR-041/019)

Lau konpainiak osatu zuten Itxasalde batailoia. Baina 40 lagun batailoitik apartatu ziren. Izan zituzten gorabeherak azaltzen ditu.

254. Bilbon beraien buruz entregatu zuten (MAR-041/020)

Gerra garaian, 40 bat lagun aldendu ziren Itxasalde batailoitik hainbat gorabehera tarteko. Bilboko San Antonen eta San Frantziskon egon ostean, hainbat zubi apurtu zituzten eta Carlton hotelean entregatu zuten beraien burua.

255. PNVkoen Zabalburuko txaleta (MAR-041/021)

Gerran, Bilboko Carlton hotelean entregatu zuten beraien burua. PNVkoak Zabalburuko txalet batean batzen ziren. Beraien batailoiko 10 bat kide bertara eroan zituzten eta 10 egunetara aske utzi zien. Beraien batailoikoengana bueltatu ziren Begoñara.

256. Itxasalde batailoiaren ibilbidea (MAR-041/023)

Itxasalde batailoikoak nondik nora ibili ziren azaltzen du zehaztasunez.

257. Mexikoko eta Alemaniako munizioa (MAR-041/024)

Mexikoko eta Alemaniako munizioa erabiltzen zuten frontean.

258. Ezkonduta egon arren, gerrako gutunak aitari (MAR-041/027)

Gerran zegoenez, 1936tik 1939ra arte etxera etorri barik egon zen. Ordurako ezkonduta eta ume baten aita izan arren, aitak zuenez bere abizen bera aitari zuzendutako gutunak idazten zituen.

259. Bilbotik Logroñora preso (MAR-041/029)

Bilboko Carlton hotelean entregatu zuten beraien burua. Batetik bestera ibili eta gero, Logroñoko (Errioxa) zezen-plazara eroan zituzten; 1000 preso inguru-edo bazirela uste du Jose Andresek. Hara heldu eta lehenengo gauza ilea ebakitzea zen. Bost abade zeuden han eta San Inazio egunez sermoi itzela bota zietela du gogoan.

260. Miranda de Ebroko, Bilboko eta Llaneseko langile-batailoian (MAR-041/031)

Bilbotik Logroñoko zezen-plazara eroan zituzten preso. Han, poliziek inspekzioak zituzten. Logroñotik Miranda de Ebrora (Burgos) eroan zituzten; langile batailoietako 14 eta 15 zenbakiak biak zeuden bertan. Handik, Bilbora ekarri zituzten atzera ere. Karrantzan trenbideak konpontzen egon ostean Llanesera (Asturias) eroan zituzten zubiak egitera.

261. 500 preso langile batailoiean (MAR-041/032)

Langile batailoi bakoitzean 500 preso inguru ziren, denetariko eta jatorri ezberdinetakoak.

262. Aitita karlistadetan Bilbo defendatzen (MAR-047/002)

Aitita Somorrostroko meategietan ibili zen ingelesekin eta baita karlistadan ere. Gero, Gerra Zibila ere bizi izan zuen. Karlistadetan Bilbo inguruan ibili zen, hiriburua isabeldarren erasotik babesten. Gerra Bergarako bakearekin amaitu zen.

263. Karlisten aldekoak eta liberalen aldekoak (MAR-047/003)

1890 inguruan sortu zen abertzale sentimendua hemen. Orduko bozetan, karlistei edo liberalei botoa emateko aukera zegoen. Liberalen eta karlisten arteko borroka estatu mailakoa zen: Isabel edo Karlos erregetzan jartzearen auzia. Karlista asko gero abertzale izatera pasatu ziren. Markinan, esaterako, abertzaleak zeuden eta batzokia ere bazeukaten. Abertzaleak bertan batzen ziren eta elkarrekin joaten ziren Markinako feriara, autobusez.

264. Errepublika hasi zenean eskolako bandera aldatu (MAR-047/004)

Errepublika ezarri zutenean, Isidrok zazpi urte zituen. Orduan eskolan egon zen eta gogoan dauka maistrak bandera aldatu behar zutela esan ziela. Errepublika sasoian Asturiaseko meategietako langileak altxatu egin ziren eta Eibarren ere grebak antolatu zituzten langileek. Harik eta Gerra Zibila hasi arte iraun zuen errepublikak.

265. Gerra aurreko hauteskundeak (MAR-047/006)

Etxebarrian ere errepublikanoak egon ziren. 1933ko haustekundeetan, gainera, bertako errepublikano batek irabazi zituen gehiengo osoarekin. Markinan, ostera, "centro derecha" izeneko alderdiak boto asko lortu zituen, burua Gaitan de Ayala baitzen, baserri askoren jabea.

266. Errepublika sasoiko liskarrak (MAR-047/007)

1934an Asturiaseko meategietako langileak altxatu egin ziren estatuaren kontra. Armada eraman behar izan zuten Asturiasera. Eibarren ere tiroketak egon ziren. Errepublika sasoian, Polizia Nazionala egon barik Guardia de Asalto delakoa egon zen. Markinan Guardia Zibila baino ez zen egon.

267. Milizianoak baserrietara jeneroa erostera (MAR-047/009)

Gerra sasoian diru zuria erabiltzen zuten, baina milizianoek diru zaharra ere erabiltzen zuten. Milizianoak baserrietara jaisten ziren arrautzak-eta erostera. Barinagan egon zen armadaren burua eta bertan ez zuten sekula bonbarik bota. Eibarko industria gunea ere ez zuten bonbardatu eta bertan beharrean zeudenak ez zituzten gerrara eraman.

268. Eskola gerra aurrean eta ostean (MAR-047/011)

Iturretako eskola handia zen eta Bizkaiko zaharrenetarikoa. Janlekua ere bazuen bertan. Mutilak eta neskak batera egoten ziren eskolan, maistra batekin denak. Gerra aurretik maistra mallabitar bat eduki zuten, gogorra.

Eskolan euskaraz eta erdaraz egiten zien. Gerraostean maistra nafar bat etorri zitzaien eta hark erdaraz egitera derrigortzen zituen, nahiz eta berak ere euskaraz jakin.

269. Diru gutxi irabazten zen (MAR-047/013)

Anaia batek ikasteko aukera eduki zuen; Isidrok ez ostera, ez zegoen dirurik eta. Oso diru gutxi irabazten zen lehen. Baserrietan, esaterako, mutikoak morroi hartzen zituzten urte baterako. Urtean bi mila pezeta inguru ordaintzen zizkieten. Kanpoan lan egiten zutenek 8 bat ogerleko irabazten zuten egunean.

270. Botoak erosi (MAR-047/014)

Gerra aurrean botoak erosi egiten zituzten zenbaitek. Isidrok gogoan dauka Eibarko sozialistak etortzen zirela baserrietara hamar ogerlekoren truke botoa erostera. Orduan ez zegoen NAN-ik gaurko moduan. Kartila moduko bat erabiltzen zuten, 'Celula personal', eta oso erraza zen beste baten kartila erabiltzea botoa emateko.

271. Frontea inguruan zegoenekoa (MAR-047/018)

Milizianoek euren baserria inguratu egin zuten. Etxean eibartarrak hartu behar izan zituzten. Apirilaren 25 inguruan bonbardaketa itzelak entzuten zituzten euren etxetik. Intxortako frontea apurtu nahian zebiltzan orduan eta milizianoek alde egin behar izan zuten munizio guztia bertan utzita. Gero, hainbat mutikok istripuak eduki zituzten milizianoek utzitako munizioarekin.

272. Astoak eta zaldiak Kalamuako frontera (MAR-047/019)

Baserriko astoak eta zaldiak Barinagara eraman behar izaten zituzten. Haiekin, milizianoek kargak igotzen zituzten Kalamuako frontera. Bertakoak ziren Kalamuako fronteak zeudenak eta baita asturiarrak ere.

273. Soldaduak etxera bazkaltzera eta baserriko jeneroak erostera (MAR-047/020)

Sarritan fronteko asturiarrak joaten zitzaizkien etxera bazkaltzera. Arratsaldeetan, ostera, soldadu euskaldunak agertzen zitzaizkien etxean arrautzak-eta erosteko. Hauek diru zuria eta zaharra edukitzen zuten, baina zaharra nahi izaten zuen amak. Hala ere, gero ezin izaten zuten ezer erosi diru horrekin, ez zegoen ezer eta.

274. Arma-fabrika Deriora (MAR-047/022)

Gerra sasoian, Deriora eraman zuten Markinako arma-fabrika. Bilbo okupatu zutenean, Deriotik atera zituzten beharginak eta frontera eraman zituzten. Ez zuten Bilbo bonbardatu, han industria zegoela eta Francok ez zituen apurtu nahi izan.

275. Gernikaren bonbardaketa (MAR-047/023)

Gernika bonbardatu zutenean Munitibarren ere bota zituzten bonbak. Egun hartan, zazpi kaza ikusi zituzten Gasteiz aldetik sartzen. Zentzura handia zegoen orduan, baina eurak Barinagako milizianoei hartzen zizkieten egunkariak: "Euskadi Roja".

276. Erdara ikastera Deustura (MAR-047/025)

Aitaren anaia bi Deustun egon ziren erdara ikasten.

277. Gerraren berria irratian (MAR-047/028)

Aitita Barinagako meza nagusira joaten zen domeketan. Horietako domeka batean, tabernako irratian gerra hasi zela entzun zuen. Gero, San Migel egun inguruan agertu ziren milizianoak Kalamuatik. Zazpi hilabetean egon ziren bertan.

278. Jateko ugari frontea egon zen artean (MAR-047/029)

Jateko nahikoa eduki zuten etxean frontea egon zen artean, Etxebarriko almazenean jateko ugari zegoen eta. Frontetik urrun zeuden herrietan, ostera, gose handia zegoen. Barku amerikarrek bakarrik zeukaten Bilboko portuan janaria sartzeko eskubidea.

279. Ganadua hiltegira eraman behar komunisten aginduz (MAR-047/030)

Garia entregatu egin behar izaten zuten gerra sasoian. Eurak, hala ere, almazeneko jabearen lagunak ziren eta gari zakukadak ematen zizkien etxerako. Sasoi batean, ganaduak ikuskatzera pasatzen ziren komunistak eta eurek agintzen zutenean hiltegira eraman behar izaten zituzten. Eurak txahal bi ezkutatu zituzten komunistak korta ikuskatzera etorri zirenean.

280. Barinagako asko hil zen frontean (MAR-047/031)

Hamazortzi urteko mutilak gerrara eramaten zituzten. Auzoan ere gerrara joandako mutil mordoa hil zen frontean. Ebroko batailan eta Teruelgo frontean hil ziren asko.

281. Milizianoek ganaduak erosi (MAR-047/032)

Aitak idiekin joan behar izaten zuen Kalamuako frontera. Frontea pasatu zenean idi bikotea eta txahal bat kendu zizkieten. Diru zuria eman zieten trukean, baina hura ezin zuten inon erabili. Askok etxetik irten behar izan zuten. Itzuli zirenean behar itzela eduki zuten etxea garbitzen.

282. Gerrako munizioa (MAR-047/034)

Gerran fusilak, esku-bonbak, metrailadoreak, granadak eta bonbak erabiltzen zituzten. Markinako 'Esperanza' fabrikak egiten zuen munizio hori, Derion.

283. Udaletxeko karguak kartzelara (MAR-047/036)

Etxebarriko udaletxeko kargu guztiak kartzelara sartu zituzten gerraostean. Abade askok ere ihes egin behar izan zuen.

284. Emakumeei ilea moztu (MAR-047/037)

Gerraostean, Markinako eta Barinagako zenbait emakumeri ilea moztu zioten.

285. Frontoia itzi gerra sasoian (MAR-047/043)

Zestan jolasteari utzi behar izan zion Isidrok gerra hasi zenean, Markinako frontoia itxi egin zuten eta.

286. Zigor gogorrak familiakoentzat gerran (MAR-049/002)

Gerrako urteetan gogor zigortu zuten Laurentziren familia. Osaba Markinako alkatea izan zen eta ihes egin behar izan zuen. Beste osaba bat fusilatu egin zuten eta aita kartzelan egon zen, San Kristobalgo fuertean. Bertan, gazte gehienak gosez eta hotzez hil ziren, baina aita bizirik irten zen.

287. Ama eta arreba Gernikan bonbardaketa egunean (MAR-049/003)

Ama eta arreba Gernikan egon ziren bonbardaketa egunean, ozta-ozta salbatu ziren. Egun bi geroago agertu ziren etxean. Aulestin egon ziren orduan eta handik ere ikusten zuten Gernikako suak ematen zuen argitasuna. Amari asko eragin zion gertakari hark. Euren etxea, Markinakoa, bonba batek apurtu zuen ama barruan zela.

288. Eskean eta lapurretan ibili beharra (MAR-049/004)

Eskean eta lapurretan ibili behar izan zuen Laurentzik umea zela. Kalean lotsatu egiten zen eta baserrietara joaten zen eskean. Baserrietan ere gosea zegoen, baina ogia ematen zioten. Osabak ihes egin zuen, baina izeko harrapatu egin zuten, ilea moztu eta kartzelaratu egin zuten. Amama geratu zen euren seme-alabekin. Laurentziren arreba zaharrak neskame joan ziren eta anaia ardizain.

289. Aitaren itzulera kartzelatik (MAR-049/005)

Aita zapataria zen. Kartzelatik etorri zenean ez zioten lokala zabaltzen utzi. Ganbaran ekin zion beharrari eta Laurentzi hasi zitzaion laguntzen. Hilero eskutitza idatzi behar izaten zion kartzelako zuzendariari, zer egiten zuen, zer diru irabazten zuen eta zertan gastatzen zuen azaltzeko.

290. Gernikako bonbardaketan izekoren etxea suntsitu (MAR-049/009)

Gernika bonbardatu zutenean ama eta arreba izekorenean zeuden, Gernikan. Etxe azpira sartu ziren eta irten zirenean etxea desagertu egin zela ikusi zuten.

291. Gerran hildakoak (MAR-049/010)

Laurentziren anaia zaharra frontean hil zen, Katalunian. Osaba Derioko kanposantuan fusilatu zuten. Markinako abadeak ere hil zituzten, bat gainera herrian bertan. Abade gaztea zen hura eta, bertako batzuek salatuta, espiatzat hartu zuten eta fusilatu egin zuten.

292. Presoei ez zien inork lagundu (MAR-049/011)

Aitak, kartzelan zegoela, gauero ikusten zuen presoak Derioko kanposantura eramaten zituztela bertan fusilatzeko. Beraz, Larrinagako kartzelan zeudenek eskutitz bat idatzi zuten Markinara laguntza eske. Mugartegi abokatuak erantzun zuen: errejimenarentzat arriskutsuak zirela. Horregatik, Laurentzi alkate zela Mugartegi izena zuen kalea kendu egin zuen.

293. Gorriek ez zuten inor hil Markinan (MAR-049/012)

Markina zazpi hilabetean egon zen gorrien esku. Gorriek komitea izendatu zuten, artean Laurentziren aita eta osaba, herria zaintzeko eta soldaduek kalterik ez eragiteko. Zazpi hilabete horietan ez zuten inor hil herrian.

Gertaera hauek jasotzen dituzten dokumentuak aurkitu zituen Laurentzik udaletxean.

294. Herriko lau gizon sartu zituzten preso (MAR-049/013)

San kristobalgo kartzelara Markinako lau gizon eraman zituzten, denak seme-alaba mordoa zituztela. "Revelión militar" zen egozten zieten kargua. Aita gorrien komitekoa izan zelako hartu zuten atxilo.

295. Aita ikustera joan eta sartzen utzi ez (MAR-049/014)

Laurentzi umea zen eta ez zen sekula joan aita ikustera kartzelara; bere arrebak bai, ostera. Inoiz arrebak bertaraino joan ziren eta ez zieten sartzen utzi. Nagusitan egon da San Kristobalgo kartzela ikusten.

296. Gorrien aldeko gazteak boluntario gerrara (MAR-049/015)

Aitak berrogeita bost urte zituen gerra sartu zenean, ez zuten adin horretako jendea frontera eramaten. Gazte gehienak boluntario irteten ziren gerrara joateko. Nazionalek, ostera, hogei urtetik gorako mutiko guztiak eramaten zituzten gerrara.

297. Nazionalak herrira sartu zirenekoa (MAR-049/017)

Frontoiaren ondoan egin zituzten babeslekuak, baina eurak kanpandorrera joaten ziren. Artilleriak tiro asko jaurti zituen Kalamua menditik Markinara. Nazionalak sartu zirenean, alkateak eta komandanteak diskurtsoa egin zuten zelaian: "Hemos conquistado otro pueblo para Dios" esan zuten besoa altxatuta.

298. Alkate hogeita bi urtean (MAR-049/018)

Laurentzi udaletxean sartu zenean, oraindik Franco bizirik zegoen. Notarioarekin sartu behar izan zuen, ez zioten sartzen uzten eta. Herriko gurasoen ordezkaritzat sartu zen, "representante del tercio familiar". Hamar urte eman zituen zinegotzi Laurentzik, frankismoaren azkenengo urteetan. 1977an egin zen alkate eta hogeita bi urtean jardun zuen alkatetzan.

299. Franco ostean herria konpondu (MAR-049/020)

Herria guztiz apurtuta egon zen Laurentzik alkatetza hartu zuenean, gerra aurretik konponketarik egin barik. Obra handiak egin behar izan zituzten. Markina Bizkaiko bigarren herria izan zen saneamendu sistema ezartzen.

300. Partidu abertzaleak klandestinitatean (MAR-049/021)

Francoren garaian, klandestinitatean egon zen EAJ. Sasoi horretan, Laurentziren beharlekura eramaten zuten partiduko propaganda; ez bakarrik EAJkoa, baita HBkoa ere.

301. Markinako ikastolaren hasierak (MAR-049/023)

Markinan eskola nazionala zegoen eta baita mojena ere. Hala ere, eurek ikastola jarri zuten martxan, ganbara batean. Hirurogei ume zituzten ikastolan, baina gorriak ikusten zituzten soldatak ordaintzeko. Azkenean tratua egin zuten mojen eskolarekin, eskolak euskaraz irakasteko.

302. Etxea arakatu zioten (MAR-049/026)

Alderdi abertzaleak klandestinitatean zeudenean, propaganda orriak banatzen zituzten. Harrapatuz gero, kartzelaldia izaten zen zigorra eta etxeak arakatu ere egiten zituzten. Behin, Laurentziren etxera sartu ziren.

303. ETAkoak etxean gorde (MAR-049/028)

Behin, Laurentzik ETAko mutilak eduki zituen etxean gordeta. Hasieran, Markinara heldu zirenean komentuan egon ziren eta gero Laurentzirengana bialdu zituzten. Hamabost egunean eduki zituen etxean.

304. Propaganda edukitzearren atxilotu (MAR-049/029)

Behin, herriko parrokoa eta Laurentzi atxilotu zituzten eta gaua kartzelan eman behar izan zuten. Propaganda eduki zutelako atxilotu zituzten.

305. Ofizioa aitarekin ikasi (MAR-049/033)

Lehenengo, aitarekin ikasi zuen zapatak konpontzen. II. Mundu Gerra amaitu zenean, handik ekarritako kamioi handiak ikusten hasi ziren. Aitak gurpil txikiak konpontzen zituen gerra aurrean, baina orduan gurpil handiak konpontzen hasi zen. Horrela ikasi zuen Laurentzik ofizioa.

306. Andrazkoek gorua eta gizonezkoek txabila (MAR-052/039)

Artilearekin haria egiten zuten: garbitu, izpitu eta kardak pasatu. Gero, andrazkoek goruaz egiten zuten haria eta gizonezkoek txabilaz.

307. Larruzko abarkak etxean egiten zituzten (MAR-052/041)

Etxeko larruarekin abarkak egiten zituzten. Ganadua etxean hiltzen zuten eta larrua ganbaran zintzilikatzen zuten sikatzeko. Abarka horiekin laban egiten zuten sarri.

308. Zaharrak ortozik belarretara (MAR-052/042)

Lehengo zaharrak ortozik joaten ziren belarretara goizeko ihintza zegoenean. Oinetakoak apurtzeko beldur ziren.

309. Txondorra egiten (MAR-052/046)

Ikazkin ere ibili izan da. Txondorra egiteko egurra zehetzen zuten, piloa egin eta gero orbelarekin eta lurrarekin estali. Goitik beherako zulo bat egiten zuten, su eman eta hantxe egosten zen egurra. Pagoa, artea eta gurbitza dira onenak ikatza egiteko.

310. Ikatza Eibarko fabriketara saltzen zuten (MAR-052/047)

Ikazkin zegoenean, txondorraren ondoan zegoen txabola moduko batean egin behar izaten zuen lo. Jatera etxera joaten zen. Ikatza Eibarrera saltzen zuten, fabriketara.

311. Mutilak eskolara eta neskak neskame (MAR-053/003)

Zortzi urte zituela, oraindik eskolara hasi barik zegoen Gregoria. Etxean geratu behar izaten zuen baserriko lanetan laguntzera. Mutilak, ostera,

eskolara joaten ziren, soldadu joaten zirenerako idazten ikasi behar zutela uste zuten etxekoek eta. Neskek, ostera, josten ikasi behar zuten. Horrela bada, bederatzi urte zituela neskame joan behar izan zuen Gregoriak.

312. Neskame bizimodu gogorra (MAR-053/004)

18 ogerleko inguru ordaintzen zieten urtean neskame egotearren. Gregoriak urtebete egin zuen Markinako baserri batean. Txarto egon zen, jateko urria zeukan eta behar handia. Goizeko seietan, esaterako, jaiki eta Markinara joan behar izaten zuen astoarekin esnea partitzera. Ogirik ere ez zioten ematen jateko.

313. Gonbidatu egunetan etxera (MAR-053/006)

Neskame egon zenean, ez zioten xaboirik ematen bere arropak garbitzeko. Neskame egon zen urtebete horretan, gonbidatu egunetan ikusten zituen etxekoak eta amama lantzean behin Markinan. Denetariko beharrak egiten zituen neskame zegoela: belarra moztu, behiak zaindu... Urtea egin zuen bertan.

314. Ardiak saldu kamionetarekin beharrean hasteko (MAR-053/007)

Erdotzako palazioan egon zen neskame. Han ondo egon zen. Bertan zegoela mutil-laguna aurkitu zuen eta gero berarekin ezkondu zen. Gizona artzain ibili zen gaztetan, baina ezkondu zirenean artaldea saldu eta kamioneta batekin hasi zen beharrean. Nafarroara eraman zituen ardiok, oinez. Txakurra ere saldu zuen, baina egun batzuetara etxean agertu zitzaien berriro.

315. Gizona txofer (MAR-053/008)

Gregoria ezkondu zenean, ez zen kotxerik ikusten Markinan eta biderik ere ez zegoen baserrietara. Orduan hasi zen gizona kamionetarekin inguruko emakumeak Ondarroara eramaten. Hauek fruta, esnea eta, oro har, baserriko produktuak saltzen zituzten Ondarroan. Hogeita zortzi urte eman zituen txofer eta gero lantegian hasi zen, gizarte segurantza eta guzti.

316. Orain dena da bidea, taberna eta denda (MAR-053/011)

Lehen ere taberna asko zegoen Markinan, baina orain askoz gehiago. Amamak esaten ei zuen: munduaren azkena datorrenean dena izango da bidea, atean atean taberna eta denda. Gregoriak nahiago ditu betiko dendak, denda txikiak.

317. Kafea txikoriarekin eta ilintiarekin (MAR-053/013)

Lehengo dendak ezberdinak ziren; olioa, esaterako, mangera moduko batekin ateratzen zuten. Kafea ere ez zen paketeetan saltzen, ontzaka saltzen zuten. Kafezaleak ziren euren etxean, baina txikoria ere botatzen zioten. Kafeak gora egiteko ilintia sartzen zioten.

318. Ardoa aitarentzat (MAR-053/015)

Azukrea erostera joaten zirenean, libra edo kiloa eskatzen zuten. Ardoa Gabonetarako eta gonbidatu egunetarako baino ez zuten erosten. Bestela, aitak baino ez zuen edaten, txikitoa. Bost kuartilluko botila erosten zuten etxean edukitzeko.

319. Etxeko jatekoak: ortuaria, txerrikiak eta behi-okela (MAR-053/016)

Berakatz asko jaten zen baserrian, berakatz-salda eta berakatz-zopa. Sasoiko ortuariak ere ohikoak ziren: ilarrak, patatak... Lehen garbiak ziren ortuariak, botika bakoak. Txerrikiak eta behi-okela ere jaten zituzten, etxean hazitakoa. Indaba asko hartzen zuten eta saldu ere egiten zuten.

320. Artorako eta indabarako lurrak (MAR-053/017)

Lur arinak dira euren ingurukoak, indaba-lekua ("inddar-lekuek"). Beste batzuk, ostera, artorako lur hobeak dira. Horrez gain, lurra ondo zaindu beharra zegoen, karearekin eta simaurrarekin. Berakatz eta tipula ederrak hartzen zituzten eta baita sagarrak ere. Azken hauek Durangon saltzen zituzten.

321. Berakatza zazpi gaixoren kontrakoa (MAR-053/019)

Zaharrek berakatza zazpi gaixoren kontrakoa dela esaten zuten. Berakatza eta tipula asko erabili izan dituzten sukaldatzeko.

322. Indabak eta sagarrak saldu (MAR-053/020)

Ortuan letxuga, porrua, aza eta azalorea hartzen zuten. Etxerako izaten ziren, ez zituzten saltzen. Indabak eta hainbat sagar klase izaten ziren saltzen zirenak, erregaterei. Garia ere etxerako izaten zen eta sobratzen zena ganaduentzat.

323. Sagar klaseak (MAR-053/021)

Hainbat sagar klase batzen zituzten: gazak, urtebetea, bost-kantoiak, gorri-garratzak... Sagarrondoak ondo zaintzen zituen aitak, simaurrarekin eta karearekin. Indabak eta sagarrak baino ez zituzten saltzen.

324. Etxean beheko sua (MAR-053/023)

Beheko sua zeukaten etxean eta laratzuan esekitzen zituzten lapikoak. Etxean txapa jarri zutenean Gregoriak hogei bat urte eduki zituen. Lehen, beheko suarekin konpontzen ziren: trebera, parrilla, parea... Eguerdian lapikokoa jaten zuten zezinarekin, indabak eta babak batez ere.

325. Afaria eta gosaria (MAR-053/024)

Bidea konpontzera joaten zirenean ardoa eta ogia ematen zieten jateko. Afaltzeko ilarrak patatekin, porru-patata, aza edo berakatz-zopa prestatzen zuten. Goizean berakatz-salda eta taloa edo morokila hartzen zuten. Arrainduna etxera etortzen zitzaien buruan otzara zuela. Txerria urte guztirako edukitzen zuten.

326. Neskame Lekeition gerra sartu zenean (MAR-053/025)

Gerra sartu zenean, Lekeition egon zen neskame. Kapitain baten etxean egon zen eta bere ardura mahaia zerbitzatzea eta erosketak egitea zen. Aitak etxera etortzeko agindu zion gerra sartu zenean. Neba bi joan ziren gerrara, bat hil egin zen eta bestea zauritu. Gerra amaitu zenean, Erdotza jauregira joan zen Gregoria neskame.

327. Irratiak eta arropa zuriak entregatu beharra (MAR-053/026)

Behin, gerra hasi berritan, bonbak botatzen ikusi zituen Gregoriak Lekeition. Beste behin, esku bonba bat hartu zuen etxekoei erakusteko. Neskame zegoen etxekoak abertzaleak ziren eta bitxiak ezkutatu behar izan zituzten. Gerra sasoian, irratia eta arropa zuriak entregatzeko agindua zabaldu zuten.

328. Baliozko gauzak kendu eta ilea moztu (MAR-053/029)

Frontea sartu zenean, milizianoak sartu zitzaizkien etxera. Markinan ez zuten ezer apurtu, baina Gernikan dena apurtu zuten. Markinako batzuei ilea moztu zieten, zaharrei-eta. Baliozko gauzak ere kentzen zituzten, arropa zuriak eta, eta batzuei lursailak ere bai.

329. Aitaginarreba preso (MAR-053/030)

Gerra amaitu zenean uralita eta alanbra-hesiak eramaten zituen jendeak Akarregiko frontetik. Aitaginarrebak ere uralita hartu eta tejabanan gorde zuen. Karlistek denuntzia jarri zioten eta preso eraman zuten. Arropa zuriak eta izarak entregatzeko agindua eman zuten francotarrek.

330. Errotara gauez (MAR-053/033)

Gerraostean errotak itxita egon ziren eta gauez joan behar izaten zuten, basorik baso, Muxotik zehar. Eguna zabaldu orduko heltzen ziren etxera. Gregoriaren amama gaztea zenean, lapurrak sartu ziren Muxon.

331. Errazionamendu gogorragoa batzuentzat (MAR-053/035)

Errozaionamenduan libra bat orio eta libra bat azukre ematen zuten. Gero, esne kondentsatua ematen hasi ziren. Irratia edukitzearren ere ordaindu behar izaten zuten. Hala ere, ezberdin tratatzen zituzten herritar batzuk eta besteak.

332. Labasua eta errotara joatea gauez (MAR-053/037)

Batzuek baserriko ogia saltzen zuten gerraostean. Kaleko jendeak estraperloan erosten zuen. Orduan gauez egiten zuten labako sua eta baita errotara joatea ere. Eurak ia Gizaburuagaraino joaten ziren errotara eta Aulestiko dendan geratzen ziren txokolatea erostera.

333. Argia bai, baina urik ez etxean (MAR-053/039)

Etxean ez zeukaten urik eta patin bat egin behar izan zuten etxearen kontran. Edateko iturriko ura ekartzen zuten. Argia, ostera, beti eduki izan dute; nahiz eta intentsitate gutxikoa izan. Arropak garbitzeko, lixiba egiten zuten etxean, tina batean eta surtako hautsa botata.

334. Udan errekara lixiba egitera (MAR-053/040)

Udan, aitak ganaduekin ekartzen zuen barrika bete ur. Etxeko ura arin amaitzen zen eta horregatik errekara joaten ziren lixiba egitera. Orduko plantxak baporezkoak izaten ziren. Domeketako arropa baino ez zuten plantxatzen.

335. Eskolan zigorrak euskaraz egitearren (MAR-053/042)

Neguan, beharrik ez zegoenean, joaten zen Gregoria eskolara, oso gutxitan. Gerra aurrean joan zen eskolara eta erdaraz egiten zuten bertan. Euskaraz egiten zutenean komunera bialtzen zituzten umeak edo artagarauen gainean belauniko ipintzera behartzen zituzten.

336. Neskek erabakitzen zuten norekin dantzan egin (MAR-053/045)

Neskak hasten ziren dantzan erromerian eta mutilak hurbiltzen zitzaizkien. Gustuko ez zutenari ezetz esaten zioten neskek. Hamazortzi bat urte zituztela hasten ziren erromerietara joaten. Hala ere, aitari ez zitzaion gustatzen eta goiz itzuli behar izaten zuten etxera. Erromeria aurretik, gainera, elizakora joan behar izaten zuten.

337. Aita inguruko ferratzaile bakarra gerra sasoian (MAR-056/002)

Familia handia eduki du Julianek, hamabi neba-arreba. Bera jaio zenerako, batzuk neskame joanda zeuden. Aita ferratzailea eta erementaria zen. Gerra sasoian, inguruan geratu zen ferratzaile bakarra izan zen eta inguruko herrietara joan behar izaten zuen.

338. Gerran Frantziara ihes egin beharra (MAR-056/003)

Hogeita hamaseian Markinatik Deriora eraman zuten "Esperanza" fabrika, harik eta Franco pasatu arte. Julianen arrebak eta anaia Deriora joan ziren beharrean. Handik Santanderrera joan behar izan zuten eta gero Frantziara. Urte betera itzuli ziren. Itzuli ziren asko kartzelara sartu zituzten eta beste batzuei ilea moztu zieten.

339. Ganaduei ferrak josten (MAR-056/004)

Aitak Markinan bertan eduki zuen tailerra. Ferrak jartzeko, eskuz altxatzen zuten ganadua poleekin. Altxatu ostean, apatxak leundu egiten zizkieten eta iltzeekin ferrak josi. Mutrikutik ekartzen zituzten behien ferrak, baina astoarenak aitak berak egiten zituen.

340. Apatxa eta ferrak jostea (MAR-056/005)

Idiek eta behiek apatx bi edukitzen dituzte hanka bakoitzean. Atzeko lau apatxetan jartzen zitzaizkien ferrak. Aurrean, ostera, kanpoko apatx bietan baino ez zitzaizkien jartzen; probatakoei izan ezik, horiei lauretan jartzen zitzaizkien eta. Astoak apatx bakarra du hanka bakoitzean eta denetan jartzen zaio ferra.

341. Eskola apurra fabrikan jaso zuen (MAR-056/006)

Hamasei urte zituela hasi zen Julian fabrikan, 1940an. 2,25 pezeta irabazten zituen egunean. Iluntzean fabrikan bertan edukitzen zuten eskola, marrazketa lineala ikasteko. Julian gerra aurrean baino ez zen joan eskolara eta gutxi: bista arazoak zirela eta etxean egon behar izaten zuen. Gainera, gerra sartu zenean aitari laguntzen ibili behar izaten zuen.

342. Anaia bi frontean, bakoitza alderdi batekoekin (MAR-056/007)

Anaia bat Euskadiko gobernuarekin joan zen gerrara eta zauritu egin zuten. Beste anaia, ostera, hamazortzi urte zituela eraman zuten soldaduskara francotarrek.

343. Erremintak kopondu eta aizkora berriak egin (MAR-056/008)

Aitak erremintak konpondu eta aizkora berriak egiten zituen altzairuarekin. Sutegian berotzen zuen altzairua eta gero forma eman eta zorroztu egiten zituen. "Desterie" erabiltzen zuten erremintak zorrozteko. Aizkorak egiteko prozesua azaltzen du.

344. Sutegia eta bertako beharra (MAR-056/009)

Sutegia hauspoak bizitzen zuen. Hauspoa norberak mugitzen zuen, kate baten laguntzaz. Egur-ikatza erabiltzen zuten sutegirako, baserritarrei erositakoa. Beharrerako, larruzko amantala erabiltzen zuen aitak. Anaia zaharrena geratu zen aitari laguntzen eta bera geratu zen gero negozioarekin. Azkenean tailerra itxi behar izan zuen eta fabrikan hasi, ez zen ganadurik ferratzen eta.

345. Ez zeukaten gizarte segurantzarik (MAR-056/011)

Aitak ez zuen ezer kotizatzen, ez zeukan gizarte segurantzarik eta ezta erretiroa kobratzeko aukerarik ere. Horregatik, medikua ordaindu egin behar izaten zuten. Gerra sasoian, neba-arrebek hazteria hartu zuten, "sarna", eta amak dirualdia gastatu zuen botikatik krema moduko bat ekartzen.

346. Gerra sasoiko jatekoak: taloa, esnea eta gaztaina egosiak (MAR-056/013)

Gerra sasoian ez zegoen ogirik eta osaba-izekoren errotara joaten ziren arto-irin bila taloak egiteko. Gauean taloa jaten zuten esnearekin eta baita gaztaina egosiak ere.

347. Astean birritan Ondarroara (MAR-056/014)

Gerra sasoian, astean birritan Ondarroara joan behar izaten zuten ganadua ferratzera, bertako komandanteak aginduta. Iruzubietako esnedunarekin joaten ziren goizean Ondarroara eta iluntzean motor-gidari batekin bueltatzen ziren. Orduan Markinan taxi bi baino ez zegoen. Geroago jarri zituzten autobusak eta trena.

348. Txoriak harrapatzeko tranpak (MAR-056/015)

Neguan, txoriak harrapatzeko tranpak jartzen zituzten mutikoek. Orduan, kotxeak baino behiak ibiltzen ziren bideetatik. Behien bekorotzetan jartzen zituzten txorien tranpak. Harrapatzen zituzten txoriak jan egiten zituzten, kurloiak esaterako. Elurra botatzen zuenean zozoak harrapatzen zituzten.

349. Jolasak: ezkutetan, "txintxurrien", txapekin eta intxaurrekin (MAR-056/016)

Auzoan jolasten zuten orduan, kalera jaietan baino ez ziren joaten. "Ezkutetan" eta "txintxurrien" jolasten zuten neskekin. Mutikoek txapekin eta intxaurrekin ere jolasten zuten.

350. San Migeletan heldu zen frontea Kalamuara (MAR-056/018)

San Migeletan hurbildu zen frontea Markinara, Kalamuara. Artileriak tiroak botatzen zituen egunero. Julianen familia Meabe baserrira joaten zen eguna pasatzera, bonbetatik babesteko. Aita baino ez zen geratzen etxean, lanean.

351. Etxeko jaiotzak (MAR-056/020)

Ume guztiak etxean eduki zituen amak. Gainera, auzoko beste ume bi ere hazi zituen bularrarekin, euren amek ez ei zeukaten bularrik eta. Markinako andre bat ibiltzen zen orduan emagin, baina medikua ere joaten zen erditzeetara. Anai-arrebek ez zuten jakiten etxean ume berri bat jaio behar zenik.

352. Jai egunetako jatekoak (MAR-056/023)

Etxeko ospakizunetan oilaskoa eta garbantzuak jaten zituzten. Posterako, arroz-esnea, sagar-saltsa eta intxaur-saltsa prestatzen zituzten. Behin, baserri batera gonbidatuta joan ziren eta entsalada azukrearekin atera zieten jateko.

353. Ardo zahagia eta limonada (MAR-056/024)

Julianen etxean ardo zahagia edukitzen zuten. Makinako baserri bateko alondegitik ekartzen zuten. Aitak egunero edaten zuen ardoa. Sagardo gutxi edaten zuten eurenean. Limonada, ostera, sarri hartzen zuten.

354. Udan igerian errekan edo itsasoan (MAR-056/026)

Errekan bertan ikasten zuten igerian mutikoek, uda errekan ematen zuten eta. Etxebarrirako bidean zegoen presara ere sarritan joaten ziren. Andra Marietan Ondarroara joaten ziren eta bertan itsasoan egiten zuten igeri. Praka motzak erabiltzen zituzten uretan ibiltzeko.

355. Txikiteoa (MAR-056/027)

Txikiteoan ardo zuriarekin hasi ziren, hamalau bat urte zituztela, eta garratza egiten zitzaien. Horregatik, ardo gozoarekin nahastuta eskatzen zuten. Taberna asko zegoen Markinan eta oraindik badaude zabalik orduko taberna zenbait ere. Orduan, emakumeak ez ziren tabernetara sartzen.

356. Zapatuetan ere lan egin behar (MAR-056/028)

Zapatuetan ere egiten zuten lan. Gero, "sabado inglés" delakoa jarri zuten eta zapatu arrastiak libre edukitzen zituzten. Domeketan, erromeriara joaten ziren. Asko gustatu izan zaio Juliani dantzan egitea.

357. Markinako erromeriak eta inguruko herrietakoak (MAR-056/029)

Markinara Elgoibarko soinu-jotzailea etortzen zen gehienetan eta geroago baita Durangoko batzuk ere. Mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantza egitearren. Beste leku batzuetako erromerietara ere joaten ziren jaietan: Barinagara San Pedroetan, Ondarroara Andra Marietan... oinez joaten ziren.

358. Santa Eufemia Eguna (MAR-056/031)

Santa Eufemiako eguna, egun handia izaten zen eta etxetik bazkaria hartuta joaten ziren. Gipuzkoatik ere jende asko joaten zen. Txosnak jartzen zituzten han, bolatokia eta erromeria. Egunez erromeria handia egiten zen Santa

Eufemian, eta gauean, Markinan eta Aulestin egiten zuten. Markinan pilota partiduak ere antolatzen zituzten iluntzean.

359. Idi-probak azaroako ferian (MAR-056/033)

Azaroako ferian egiten zituzten idi-probak Markinan. Orain urtean behin baino ez da feria egiten, baina lehen hileko bigarren zapatuetan egiten zen. Lehen, frontoian zeukaten probalekua. Idi-probetan zaletuak zirenek apustuak ere egiten zituzten.

360. Gerra hasi zen egunean Markinako jaiak ziren (MAR-056/035)

Gerra hasi zen egunean Markinako jaiak ziren. Egun horretan txirrindulari lasterketa egitekoak ziren. Markinatik Elgoibarrera joan behar zuten txirrindulariek eta Eibarren tiroka ari zirela jakin zuten. Horrela ba, ezin izan zuten Eibartik pasatu.

361. Aita Ameriketara (MAR-057/002)

Aita Ameriketan ibili zen eta itzuli zenean Larriñe baserria erosi zuen, Juanen jaiotetxea. Lehenengo, Frantziara joan zen aita soldadutzarik ez egiteko, eta handik Ameriketara.

362. Eskola erdaraz eta dotrina euskaraz (MAR-057/003)

Auzoan bertan zeukaten eskola, baina ez ziren sarri joaten. Batez ere, dotrina ikasten zuten. Etxe gehienetan mutilek alde egin behar izaten zuten beste baserri batera morroi. Erdara gutxi zekiten orduan umeek, baina eskolan erdaraz egin behar izaten zuten. Dotrina, ostera, euskaraz irakasten zieten fraideek.

363. Lehenengo jaunartzea (MAR-057/005)

Lehenengo Jaunartzea zortzi bat urte zituela egin zuen Juanek, Xemeinen. Traje urdin batekin egin zuen, anaia zaharrarena edo auzokoren baterena. Orduan ez zen gaurko moduko ospakizunik egiten eta ezta oparirik ere.

364. Herrira baserriko produktuak saltzera (MAR-057/006)

Gurasoek baserrian egiten zuten behar. Baserriko jeneroak saltzen ateratzen zuen amak diru apurra: txahalen bat, oiloren bat, arrautzak... Herrian saldutakoarekin ateratzen zuen diruaz etxerako gauzak erosten zituen, laranjak esaterako. Azoka eguenero egiten zuten eta feria hilean behin.

365. Parrandak musean jokatzen (MAR-057/007)

Auzoko gizonak beti jaisten ziren Markinako feriara. Batzuk zapatuan jaitsi eta astelehenean agertzen ziren etxean parranda egin ostean. Musean ibiltzen ziren orduan. Euren tabernan ere egun bi eta hiru pasatu izan dituzte zenbaitek musean jokatzen. Markinako hotelera ere jaisten ziren batzuk musean aritzera.

366. Auzoko tabernan gizonak baino ez (MAR-057/008)

Euren etxean taberna egon zen eta bertan batzen ziren auzokoak domeketan. Orduan, ardoa, gaseosa, anisa, koñaka, kasa eta gailetak edukitzen zituzten. Jateko, txorizoa eta arrautzak ateratzen zituzten, bateren batek eskatuz gero. Orduan ez zen emakumerik sartzen tabernetan.

367. Auzoko ermitan domeketako mezak (MAR-057/012)

Domeketako meza auzoko ermitan edukitzen zuten. Fraideren bat joaten zen meza esatera auzora Markinatik. Latinez izaten ziren orduko mezak eta euskaraz sermoiak.

368. Hildakoari gaubela (MAR-057/013)

Jendea etxean hiltzen zen eta lepoan eraman behar izaten zuten gorpua elizara. Anderu esaten zieten gorpua eramaten zutenei. Hala ere, gorpua eraman aurretik gaubela egiten zuten etxean.

369. Soroak bedeinkatzea (MAR-057/015)

Urtean behin, abadea baserrietara joaten zen soroak bedeinkatzera. Askotan, baserri guztietara joan barik, behin baino ez zuen ematen bedeinkazioa baserri guztietarako. San Juan egunean lizar gurutzeak jartzen zituzten ateetan.

370. Argindarra eta petrolio-argia (MAR-057/018)

Beti ezagutu izan du argindarra etxean, baina intentsitate gutxikoa. Hala ere, petrolio-argia erabiltzen zuten. Karburoa gero etorri zen. Arriskutsuak izaten ziren karburoa eta petrolioa, etxeak erretzeko arriskua zegoen eta.

371. Etxean urik ez (MAR-057/020)

Auzoko etxe gehienetan ez zegoen urik Juan gaztea zenean. Hala ere, hurran zeukaten iturria eta labaderoa. Egunero joan behar izaten zuten iturrira kantinak urez betetzera. Norberaren gorputza garbitzea ere baldeekin egin behar izaten zuten.

372. Arropa garbitzea emakumeen lana (MAR-057/021)

Euren etxe kontran zeukaten labaderoa eta etxean bertan arropa sikatzeko alanbreak jartzen zituzten. Lan hau emakumeen lana izaten zen.

373. Ganadua etxeko diru iturri (MAR-057/023)

Ganaduak kanpora atera behar izaten zituzten egunero, asketara ura edatera. Ganadua ondo zaindu behar izaten zuten, txahalak saltzen ateratzen zuten dirua eta. Tratanteei saltzen zizkieten txahalak.

374. Markinako frontoia eta probalekua (MAR-057/025)

Pilotan zaletasun handia eduki zuen Juanek gaztetan. Markinako frontoia estalita ezagutu izan du beti, baina lehen irekia ei zen. Probalekua ere bertan egon zen. Markinan idi-proba handiak egiten ziren azaroan.

375. Bizkaitarren eta gipuzkoarren arteko apustua (MAR-057/026)

Behin, idi-probarako desafioa egin zuten Markinako batzuek giputz batzuen kontra. Gutxigatik, bizkaitarrek galdu zuten. Jokoa galdu eta Eibarren astoa utzita itzuli ei ziren.

376. Idiak probetarako prestatzen (MAR-057/027)

Soroko beharrak eginez prestatzen zituzten idiak probetarako. Jaten ere ondo ematen zieten, baina proba aurretik kontuz ibili behar izaten zuten, pisatu

egiten zituzten eta. Behin, auzoko batek beste auzo batekoei bota ei zien probarako desafioa.

377. Pilotari profesional ibili zen (MAR-057/030)

Juan umetan hasi zen pilotan, baina gero profesional ere ibili zen. Hamazortzi urte zituela, Burgosera joan zen jokatzera. Gero, han egin behar izan zuen soldadutza ere. Etxera itzuli zenean ofizioa ikasten hasi zen: zesteru. Orduan ere, lantzean behin partiduak jokatzen zituen. Partiduko laurehun pezeta kobratzen zituen.

378. Debuta Durangon (MAR-057/033)

Mutiko guztiak jaisten ziren Markinako frontoira pilotan jokatzera. Eurek euretara jokatzen zuten. Juanen debuta Durangon izan zen, hogeita bi bat urte zituela.

379. Zestoak egiten (MAR-057/035)

Zesteru ikasi zuen Juanek. Gaztaina da zestoak egiteko erabiltzen den materiala eta zumitza josteko. Amaieran eskularrua josten zaio gainetik zestoari. Onena zesto bigunak egitea ei da, pilotak hobeto gelditzeko.

380. Bilbora edo Gernikara dendarako jeneroen bila (MAR-058/019)

Bilbotik ekartzen zuten eurek dendarako jeneroa, baina baita Gernikako azokatik ere. Astelehenero edukitzen zuten autobusa Gernikara joateko. Bilbora joateko, ostera, egunean behin edukitzen zuten autobusa, Ondarroatik irteten ziren 'La Esperanza' autobusak. Solairu bikoak izaten ziren orduko autobusak.

381. Oinarrizko jatekoak: indaba, aza eta txerrikiak (MAR-058/021)

Egunero-egunero indaba lapikokada prestatzen zuten bazkaltzeko eta baita aza ere. Urte osorako txerria hiltzen zen orduan baserrietan eta horregatik txerrikiak ere sarritan jaten zituzten. Eurek ez zuten txerririk hiltzen, baina harategietan erosten zituzten. Hainbat harategi egon zen Markinan. Arraina Ondarroatik etortzen zirenei erosten zieten.

382. Eguenetan azoka eta hileko bigarren zapatuan feria (MAR-058/024)

Eguenetan azoka egiten zen Markinan eta hil guztietako bigarren zapatuetan feria. Behi onak ekartzen zituzten ferian saltzeko. Esnea jetzi gabe edukitzen zituzten behiak, errapeak handiak izan zitezen. Gero, bertan jetzi eta esnea umeei ematen zieten.

383. Eskola utzi eta familiako negozietan sartu (MAR-058/025)

Eskolan hamalau urtera arte egon zen eta gero eskola partikularrean ibili zen, Maritxu Azpirirekin. Gero, Vigon egon zen urte biz eta etxera bueltatu zen dendako beharretan laguntzera. Urteak pasatu zirenean, kamioiekin ere egiten zuten lan, arraina-eta garraiatzen: Bartzelonara eta Madrilera garraiatzen zituzten Ondarroako arrainak.

384. Praktikante ibili zen soldadutzan (MAR-058/026)

1945ean soldadu joan zen. Urte bi eta erdi eman zituen bertan: urtebete Burgosen, urtebete Donostian eta sei hilabete mugan. Hiru hilabeteko instrukzioa egin ostean, praktikante jarri zituen mediku batekin.

385. Anaia Iruñan gerra hasi zenean (MAR-058/029)

Gerra sasoian denda itxi egin behar izan zuten, ez zegoen jenerorik saltzeko eta. Urritik apirilera frontea eduki zuten Markinan bertan. Anaia zaharra Iruñean egon zen gerra hasi zenean eta han geratu behar izan zuen Markinara itzuli ezinik. Ez zegoen modurik berarekin komunikatzeko.

386. Egunero bonbardaketa Markinan (MAR-058/030)

Dendan geratu zitzaien apurrarekin eta errazionamenduarekin egin zuten aurrera gerrako urte gogorretan. Bonbardaketak egunero egoten ziren Markinan eta koba batera joan behar izaten zuten babes bila. Francoren soldaduek Markina hartu zutenean, jende askok alde egin behar izan zuen.

387. Francoren soldaduek Markina hartu zutenekoa (MAR-058/031)

Francoren soldaduak Etxebarritik sartu ziren Markinara eta eurekin batera mairuak ere sartu ziren. Frontoia armez bete zuten eta Karmengo komentua ere kuarteltzat hartu zuten. Egun batean, hirurogei kanoikada baino gehiago bota zituzten Markinan eta etxe bat erre egin zen. Urberuagako bainuetxean, ostera, komunistak zeuden.

388. Urberuagako bainuetxea (MAR-058/032)

Jende asko etortzen zen kanpotik Urberuagako bainuetxera, ur haiek osatu egiten zutela eta. Gerraostean ere entzutetsua izan zen.

389. Londresko BBC entzuten zuten gerra sasoian (MAR-058/033)

Gerrako urteetan umeek ez zuten eskolarik eduki. Sasoi horretan, irratitik jasotzen zituzten gerrako berriak. Hala ere, debekatuta egon zen Londresko BBC, esaterako, entzutea. Markinar batek ematen zituen berriak bertatik.

390. Egunkariak eta Euskadiko dirua (MAR-058/035)

Gerra sasoian Euzkadi aldizkaria, El Hierro eta La Gaceta del Norte moduko aldizkariak irakurtzen zituzten. Hala ere, gero, Euzkadi aldizkaria debekatu egin zuen Francok. Juanek Euskadiko dirua ere ezagutu zuen sasoi hartan.

391. Aitaren jaiotetxea estraperlo etxea (MAR-059/002)

Bere aitaren jaiotetxea Elgoibarko baserri bat da, baina baserrian bertan dago Mendaro, Markina eta Elgoibar banatzen dituen mugarria. Hori dela-eta, garai batean estraperlo asko izaten zen, kalean eros ezin zitezkeen hainbat gauza saltzen zituzten bertan.

392. Mojekin euskara debekatuta (MAR-059/004)

Markinako Mesedetako mojen ikastetxean dena zen erdaraz. Askotan egiten zien agiraka. Mojekin euskara asko galdu zutela dio.

393. Erdaraz egiten zuten Ondarroako arraindunak (MAR-059/007)

Ondarroatik arraina saltzera etortzen ziren hiru arraindun. Buru gainean ekartzen zuten arraina eta haiek dena egiten zuten erdaraz, baina arraina saltzerakoan dena egiten zuten euskaraz.

394. Pilotari asko markinan (MAR-059/011)

Markina pilotaria herria da, mutiko asko aritzen zen pilotan. Bere bi neba pilotariak izan ziren.

395. Jose Andres harategia (MAR-059/013)

Bere gurasoak harategia jarri zuten. Ama aritzen bertan lanean eta aita baserrietara joaten zen ganadu bila. Hiltegia Euskadiko kutxa dagoen tokian zegoen, beraiek bizi ziren etxearen alboan. Gero, aitak lan hori utzi eta neba bat hasi zen amagaz lanean.

396. Aurrerakunztarik gabeko harategia (MAR-059/015)

Bere gurasoen harategian okela pisatzeko izan zuen pisua balantzaduna zen, gerora etorri zen orratzduna. Hozkailurik ez zuten eta okela zelan kontserbatzen zuten: erreka ondoko adar batzuk batzen zituzten euliak ez hurreratzeko okeletara. Okela derrepentean saltzen zen, hil eta segidan. Aitak zatitzen zuen ganadua.

397. Jose Andres harategiko txorizoak (MAR-059/016)

Txorizoak amak egiten zituen beraien harategian. Zelan egiten zituen azaltzen du. Ez zituzten oliotan sartzen, sikatu eta segidan saltzen zituzten. Jose Andres harategiko txorizoak amari eskutik kentzen zizkietela dio. Bruselara eta Chicagora ere bidaltzen zituzten.

398. Odolosteak (MAR-059/017)

Odolosteak edozeinek egiten zituen Markinan. Txerriaren okela ondo txikitu ostean zein den odolosteak egiteko prozesua azaltzen du.

399. Okela edo txerrikia adar eta orriz bildu (MAR-059/020)

Pernil eder asko izaten zituzten gurasoek harategian. Erreka ondoko arbola bateko adarren eta orrien artean kontserbatzen zuten ondo. Horrela eskegitzen zuten behikia zein txerrikia euliak ez hurretatzeko.

400. Untxia eta oilaskoa (MAR-059/024)

Untxiak etxean zituzten, baina ez zituzten saltzen. Untxiak oso erraz hiltzen dira. Oilaskoa kortan harrapatu, lumatu eta ondo prestatu behar zen. Oilaskoa kategoriko jakia zen, edozeinek ez zuen jaten.

401. Herriko harakinen arteko pikea (MAR-059/025)

Herrian bazeuden beste pare bat harategi. Zeinek txahal hobeagoa erosi izaten zuten pikea.

402. Arropak eta oinetakoak (MAR-059/028)

Beraien alboan bizi zen andre batek josten zizkieten arropak. Prakak janztea pentsaezina zen. Oinetakoak abarketak izaten ziren, onenak domeketarako

gordetzen zituzten. Zapatak euria egiten zuenean-edo, janzten zituzten; baina orduan ere, zapatak hondatzeko beldurrez, etxean geratzea hobea zen. Guardasolak beraien kalean zegoen tela-denda batean erosten zituzten.

403. Ijitoak Iderran (MAR-059/030)

Iderra baserrian Bilbo aldetik etorritako jendea egoten zen. Bere izekoren etxera joateko handik pasatu behar izan zen eta beldurra izaten zuen, ijitoek zer edo zer egingo ziotelakoan. Behin gizonezko bi ikusi zituen leihotik solora salto egiten eta eskapatzen, lapurretan zebiltzan.

404. Arretxinagako San Migelen abestia (MAR-059/035)

Arretxinagako San Migelen abestia berak asmatutakoa da. Hasiera kantatzen du.

405. "Pozik nik abestuko det" abestia (MAR-059/037)

Berak asmatutako "Pozik nik abestuko det, poliki-poliki..." abestia kantatzen du.

406. "Egin lo" abestia (MAR-059/039)

"Egin lo" abestia kantatzen du.

407. "San Juanetako portaletaña" abestia (MAR-059/043)

"San Juanetako portaletaña" abestia kantzatzen du.

408. Umetan etxeko lanetan lagundu behar (MAR-060/003)

Umetan egiten zituzten beharrak. Gurasoak etortzen zirenerako sua prest eta esnea egosteko galdara garbituta.

409. Tuberkulosiarekin Gorlizko ospitalean (MAR-060/004)

Eusebiak tuberkulosia izan zuen hezurretan hamar urterekin. Gorlizko ospitalean bost urte egin zituen sendatzen. Gorputz osoa igeltsuarekin izan zuen urteetan. Umeentzako ospitalea zen Gorlizkoa. 14 urte egin zituenean, artean ez zegoen etxera itzultzeko moduan, eta Plentziako ospitalera pasa zuten. Han hogei ogerleko ordaindu behar izaten ziren hilean. Urtebete inguru egin zuen bertan. Han bizitakoak.

410. Gurasoak Gorlizko ospitalera bisitan (MAR-060/005)

Eusebia Gorlizko ospitalean egon zenean gurasoak joaten zitzaizkion bisitan. Ama gutxiagotan joaten zen, ume asko zituen etxean zaintzeko eta. Plentziaraino trenez eta handik autobusean Gorlizera.

411. Gorlizko ospitalean mojek tratu desberdina umeei (MAR-060/006)

Ospitalean ondo egon zen bera, baina mojek tratu desberdina ematen ei zieten ume batzuei eta besteei.

412. Gorlizko ospitalean egon zen urteetan eskolarik ez (MAR-060/007)

Gorlizko ospitalean ez zuten eskolarik ikasten. Abadeak dotrina erakusten zien ostiraletan. Han egin zituen urteetan ez zen etxera behin ere etorri. Gaixoaldiaren ondorenak geratu zitzaizkion.

413. Gorlizko ospitaleko jatekoa (MAR-060/008)

Gorlizeko ospitalera joan zenean ez zuen goserik. Behin babarrunak ekarri zizkioten bazkaltzeko eta ez zituen jan. Gauean afaltzeko eguerdiko babarrunak ekarri zizkioten. Hurrengorako ikasi zuen. Hango jatekoa. Leku ederrean dago ospitalea, hondartza aurrean duela.

414. Okela domeketan eta arraina noizean behin (MAR-060/009)

Garai hartan ez zen arrozik jaten normalean; arroz-esnea gonbidatuak zetozenean. Okela ere domeketan bakarrik, garbantzuekin. Zezina, txerrikia, ardikia. Arraina noizean behin jaten zuten, ama Lekeitiora edo Ondarroara plazara joaten zenean.

415. Jaikitakoan kafea eta ganadu-jirak egin ostean gosaldu (MAR-060/010)

Goizean jaiki eta lehenbizi kafea edo kafesnea. Ganaduen jirak egin ostean, gosaltzeko, urdaia, arrautza edo berakatz-zopa. Artoa eta esnea, taloa eta esnea edo morokila ere bai. Gizonezkoek koñak tragoxka bat ere hartzen zuten batzuetan goizetan.

416. Egunero "indiarra" bazkaltzeko (MAR-060/011)

Eguerdietan "indiarra" (indaba edo babarruna) jaten zuten gehienean. Gainean zezina, baldin bazegoen, piperrak edo tomatea. Arrautzak saldu egiten ziren eta patata-tortilla antzekoa egiten zuten patata mordoxkari arrautza bakarra nahastuta.

417. Ia egunero plazara saltzera (MAR-060/012)

Plazara ia egunero joaten ziren etxeko gaiak saltzera, Eibarrera, Elgoibarrera edo Ondarroara. Hasieran astoarekin oinez; bi ordu eta erdi behar zituzten Eibarrera. Ondarroara garraiolari batekin joaten ziren eta Elgoibarrera autobusean.

418. Sasoiko elikagaiak edo ikatza saltzera (MAR-060/013)

Sasoiko elikagaiak eramaten zituzten plazara saltzeko. Eusebiaren etxekoek ikatza egiten zuten eta Ondarroan saltzen zen gero, barkuetarako. Trukean arraina ematen zieten. Elikagaiak otzaretan eramaten ziren plazara. Plazako postua ordaindu egin behar izaten zen.

419. Ikatza Ondarroan saltzen zuten, barkuetarako (MAR-060/014)

Eusebiaren aitak ikatza egiten zuen udaberrian eta udazkenean, ikatzagatik ondo ordaintzen ei zuten eta. Ondarroara saltzen zen, barkuetarako. Bezeroak zituzten.

420. Ikatz hondarrak etxerako, sua bizitzeko edo plantxarentzat (MAR-060/015)

Ikatza saldu egiten zuten normalean, baina etxerako ere hondarrak erabiltzen zituzten, sua mantentzeko edo indartzeko. Hasierako plantxak ere ikatzezkoak ziren; ikatza botatzen zitzaien barrura.

421. Emakumeak gonarekin eta gizonak mahoizko prakekin (MAR-060/016)

Emakumezkoak gonarekin ibiltzen ziren beti. Buruko zapia ere erabiltzen zuten edadeko emakumeek, zuria, tanto beltzekin. Gizonezkoak mahoizko prakak eta gomazko abarkekin.

422. Artilea kardatu eta irun, haria egiteko (MAR-060/018)

Galtzerdiak etxean egiten zituzten eta baita abarka-sokak ere. Eusebiarenean baziren ardiak eta haien artilea erabiltzen zen. Artilea lehenbizi kardatu eta gero irun egin behar izaten zen txabilarekin, haria egiteko. Abarka-sokak.

423. Gizonezkoen janzkera, egunaren arabera (MAR-060/019)

Gizonezkoek gerrikoa eta alkandora marraduna erabiltzen zuten. Domeketan elizara joateko alkandora zuria eta zapatak. Feriarako panazko prakak, brusa eta bortzegiak, azpian iltzeak zituzten oinetakoak. Uda partean abarketak.

424. Emakumeak mantilarekin elizara (MAR-060/020)

Emakumezkoek igandetan elizara joateko gona eta zapatilak. Sasoi batean mantila eramaten zuten buruan. Aurreko emakumeek mantila handiagoak eramaten zituzten, ondo tapatzeko. Lehen dena zen bekatu.

425. Abadeen mehatxuak; hilero konfesatzera (MAR-060/021)

Lehen abadeek infernuarekin eta galdara gorriarekin mehatxatzen zituzten. Dena sinisten zuten. Umeak ekarri ezean, bekatu. Hilean behin konfesatu egin behar. Dantza lotuan egitea ere bekatua zela esaten zieten abadeek. Abade batzuk oso gogorrak ziren.

426. Moja batek barre, gaztelaniaz ez zekielako (MAR-060/023)

Eusebiak gaztelania gutxi zekien neskatilatan. Moja batek barre egiten ei zion. Txarto pasatu zuela dio.

427. Eurak ez ziren izan "Mariaren Alabak" (MAR-060/025)

Etxebarrian "Hijas de Maria" kongregazioa zegoen, baina eurak ez ziren joaten. Mutilak "luistarrak" izaten ziren.

428. Abadeari berorika; aiztekin eta auzoko lagunekin hika (MAR-060/027)

Abadeei berorika hitz egiten zieten eta eskuan muin ematen zitzaien. Medikuari eta jende inportanteari ere "berori". Etxekoei ez. Hika hitz egin izan dute. Eusebiak dio aiztekin edo auzoko lagunekin bakarrik egin izan duela hika.

429. Barinagako eskola eta Azpiltzakoa (MAR-060/029)

Zortzi urte ingururekin hasi zen eskolan Eusebia eta hamar ingururekin utzi. Ez zekien tutik gaztelaniaz eta eskolan dena gaztelaniaz izaten zuten, moja batzuek euskaraz bazekiten arren. Azpiltzako eskolan ibili zen Eusebia. Sabina, berriz, Barinagako eskolan. Han neska eta mutil batera ibiltzen ziren.

430. Biderako linternak edo kandeladun farolak (MAR-060/032)

Etxean beti ezagutu dute argia. Bestela, biderako, linternak edo kandeladun farolak erabiltzen zituzten.

431. Eskolan irakasleen beldurrez (MAR-060/033)

Eskolan liburu bakarretik ikasten zuten dena. Zer ikasten zuten. Gaztelaniaz izaten zen eskola, baina beraiek tutik ez zekiten. Irakasleen zigorrak. Behin Eusebia eta lagun bat zigortuta utzi zituen irakasleak; bazkaltzera joan zenean, hanka egin zuten.

432. Eskolan, Espainiako bandera atera eta eskua jasota kantatu (MAR-060/034)

Euskaraz hitz egitearren ez zituzten zigortzen. Baina Espainiako bandera ateratzen zutenean, besoa goian zutela abestu behar izaten zuten. `Cara al Sol´, `Salve bandera´eta beste kanta batzuk. Ez zuten ondo ulertzen zer kantatzen zuten. Inguruetako umeak batzen ziren eskolan.

433. Neskak "txintxurrien", "aponketan" edo soka-saltoan (MAR-060/035)

Umetako jolasak. Neskak "txintxurrian", lurrean marrak eginda egiten zen jolasa. Mutilak ezkutatzen edo pilotan. Aponekin "aponketan" edo kaniketan ere bai. Nola jolasten zen. Soka-saltoan. Soka ez zen beti egoten; nondik ateratzen zuten.

434. Gorlizko ospitalean panpinak opari (MAR-060/036)

Mutilen garai bateko entretenimenduak; tiragomak eta eurak egindako "tikili-takalak". Gorlizko ospitalean panpinak oparitzen zizkieten erregenetan. Batzuetan neskak eta mutilak batera ere ibiltzen ziren.

435. Lehen errekan ezkailuak, izokinak eta karramarroak (MAR-060/038)

Errekan ere ibiltzen ziren denbora-pasa gaztetan. Ezkailuak, izokinak... egoten ziren errekan. Eusebiak dio behin izokin bat harrapatu zuela errekan eta putzu batean eduki zuela denbora luzez. Lehen karramarroak ere baziren, baina desagertu egin ziren.

436. Garai bateko bainua: ura baldean eta "txinbo" (MAR-060/039)

Etxean, balde handi batean ura jarrita, "txinbo" xaboiarekin garbitzen ziren. Astean behin. Ilea motz erabili izan ei dute biek. Ile luzea zutenek nolako orrazkerak egiten zituzten.

437. Barinagan erromeria domekero (MAR-060/041)

Barinagan erromeria egoten zen domeka guztietan. Elgoibarko Gelatxo soinujolea joan izan zen urte askoan. Beste soinujole batzuk. Pandero jotzaile gabe ibiltzen ziren; saxofoiarekin gehiago orduan. Dantzarako zaletasun handia zuten. 17-18 urterekin hasten ziren erromeriara. 10ak edo 11ak alderako joan behar izaten zuten etxera, baina batzuetan beranduago ere joaten ziren, gustura zebiltzanean.

438. Bittor filosofo eta poeta (MAR-063/002)

Bittor ez zuen ezagutu. Lehenengo aipamena lagun baten (Jeronimo Zarrabe) ahotik entzun zuen: Euskal Herrian badagoela filosofo eta poeta bat Bittor Kapanaga izenekoa. Gero, Internen Bittorren "Euskaldunen ikuskera" aurkitu zuen, eta begiak asko ireki zizkion. Geroago, Erro eta Gara irakurri zuen. Bittorren ideiak zabaltzeak merezi du eta horregatik sartu da lantaldean. Euskal sena sentitu egiten da bere obra irakurrita. Bestalde, harrigarria da hainbeste pertsona diferente Bittori buruz berba egitera biltzea. Bere aurkikuntzak ez dira oraindik kontutan hartu.

439. 'Fotero' ezizenaren jatorria (MAR-066/002)

'Fotero' ezizenaren jatorria azaltzen du. Bere amamagandik jaso du familiak.

440. Zestogile Mallorcan, Miamin eta Markinan (MAR-066/004)

Umetan ez zuenez ikasi nahi, beharrean hasi zen. Zesta puntako zestoak egiten zituen zestogile batekin hasi zen lanbidea ikasten eta 17 urtegaz Mallorcara joan zen pilotari zein zesto-konpontzaile bezala. Aita gaixotu zenean, etxera bueltatu zen etxeko okindegian ere lagundu ahal izateko. Gerora, Miamira (AEB) joateko aukera izan zuen eta hiru urte egin zituen bertan.

441. Zestoaren saihetsak (MAR-066/007)

Jose Inazio Ugartetxea 'Fotero'k zesta puntarako zestoak zelan egiten diren erakutsi zigun grabazio honetan. Zestoaren saihetsak zelan lantzen eta jartzen diren azaltzen digu pasarte honetan. Gaztainondoa da erabilitako materiala, Donostialdetik ekartzen dute, Astigarragatik eta Usurbil aldetik batik bat. 13 saihets ditu zestoak. Zesto bat egiteko 20 ordu behar ditu.

442. Zestoaren saihetsei forma ematen (MAR-066/008)

Jose Inazio Ugartetxea 'Fotero'k zesta puntarako zestoak zelan egtein diren erakutsi zigun grabazio honetan. Aurreko pasartean saihetsak zelan jartzen diren azaldu zigun eta honetan forma zelan ematen zaion kontatzen digu.

443. Zestoa egiteko gaztaina eta zumitza (MAR-066/010)

Jose Inazio Ugartetxea 'Fotero'k zesta puntarako zestoak zelan egiten diren erakutsi zigun grabazio honetan. Zestoa josteko zumitza Caceres aldetik ekartzen dute. Saihetsak egiteko gaztainondoaren egurra erabiltzen dute, hiru bat hilabetez izaten dituzte uretan landu aurretik.

444. Zestoaren saihetsak zelan egin (MAR-066/011)

Jose Inazio Ugartetxea 'Fotero'k zesta puntarako zestoak zelan egiten diren erakutsi zigun grabazio honetan. Zestoaren saihetsak egiteko

gaztainondoaren egurra erabiltzen da. Saihetsak zelan egiten ziren azaltzen du eta horiek eskuz zelan gastatzen zituzten erakusten ditu antzinako eran. Gerora "zepilladora" erabiltzen zuten horretarako.

445. Zesoaren egitura (MAR-066/013)

Jose Inazio Ugartetxea 'Fotero'k zesta puntarako zestoak zelan egiten diren erakutsi zigun grabazio honetan. Oker dagoen zesto baten egitura, lehen atala, zelan landu eta gastatu behar den erakusten digu. Zestogileak gizonezkoak izan dira batez ere; emakumeak zumitzarekin josten baino ez dira aritu.

446. Zestoaren neurriak (MAR-066/015)

Jose Inazio Ugartetxea 'Fotero'k zesta puntarako zestoak zelan egiten diren erakutsi zigun grabazio honetan. Zestoaren neurriak garrantzia du eta kontuan hartu beharreko kontua da. Pilotarien izenak eta haien neurriak apuntatzen dituen taula bat erabiltzen du. Lehen zestalariek hilabetero aldatzen zuten zestoa; elkarrizketa garaian, ostera, hiru hilabeterik behin-edo.

447. Zestogileak (MAR-066/016)

Hamalau bat zestogile zeuden lehen eta 70. hamarkadan beste 10 bat hasi ziren lanbide horretan. Baina zestalarien greba zela eta pilotari asko Euskal herrian geratu ziren eta lana jaitsi zitzaien. "Zestogileen batzarra" egiten zuten lehen.

448. Zesta puntarako plastikozko zestoak (MAR-066/017)

Elkarrizketa garaian Filipinetan plastikozko zestoa egiten hasiak ziren. Baina gaztainondoa beharrezkoa du zestoak azkartasuna izan dezan.

449. Zestorako eskularrua (MAR-066/019)

Zesta puntako zestoan eskua sartzeko eskularrua zelako den erakusten digu pasarte honetan.

450. Apurtutako zestoa konpontzeko (MAR-066/021)

Zesta puntako zestoak puntan hari beltza daroa, azpian duena tapatzeko. Eskularruak barrutik oihal berezi bat darama. Tailerrean konpontzeko duen zesto bat erakusten digu, nondik eta zelan apurtzen diren ikusteko.

451. Asteko hiru zesta egin eta kobratzeko arazorik ez (MAR-066/022)

Jose Inazio Ugartetxea 'Fotero'k hilabetean zesta-puntako 40 zesta inguru egiten zituen bere tailerrean. Pertsonako astean hiru zesta inguru larunbatetan ere lan eginez. Pilotariak diru asko irabazten zuen eta ez zuen izaten ordaintzeko arazorik. Lau hilabete eta erdian Markinan pisu bat erosteko beste irabazten zuten Ameriketan.

452. Atzelariek zesto gehiago apurtzen dituzte orokorrean (MAR-066/023)

Orokorrean zesta puntako atzelariek aurrelariek baino gehiago apurtzen dituzte zestoak, baina hori zestalariaren arabera dela dio.

453. Txistera eta zestoaren arteko ezberdintasuna (MAR-066/025)

Sekula ez du txisterarik egin, nahiz eta enkarguak bai jaso. 'Joko Garbia' izeneko jokorako txistera zesto txiki bat da; pilota arinagoa erabiltzen duten eta jokoa arinagoa da. Erremontekoa ere desberdina da; elkarrizketa garaian plastikozkoa erabiltzen hasiak ziren erremontean.

454. Ameriketako 17 frontoietatik zesto eskaera asko (MAR-066/034)

Ameriketan frontoi berriak zabaldu ahala, zesta-egileen lana ere ugaritu egin zen. 17 frontoi egon ziren guztira. Euskal Herritik ere zesta asko eramaten zituzten hara. Pilotari bakoitzak hilabetero aldatzen zuen zesta; elkarrizketa garaian, ostera, hiru hilerik behin-edo. Enpresek ordaintzen zizkieten pilotariei zestak.

455. Ameriketako beroa kaltegarria zestoentzat (MAR-066/037)

Ameriketan zesta puntako zestoak gehiago apurtzen dira Euskal Herrian baino. Izan ere, han bero handia dago eta horrek kalte egiten dio; Euskal Herriko hezetasuna ona da. Busti egin behar izaten dute gogortzeko. Zaharra dagoenean piko-pasak bezala biguntzen direla dio.

456. Aurkezpena (MAR-068/001)

Mirari Azkune etxabarritarra da eta hogeita bost urte ditu. Txikitan "pelu" deitzen zuten bere ama ileapaintzailea zelako. Xabat Urresti hogeita sei urteko markina-xemeindarra da eta "Xabato" deitzen dute lagunek. Ezizenak jartzearen inguruan dihardute. Ohitura handia omen dago Markina, Etxabarri eta inguruetako herrietan.

457. Ikasketak (MAR-068/002)

Biek "Telekomunikazioak eta informatika" sistemak ikasi dute, baina gero bakoitza bere aldetik joan zen. Xabatek gero, "Control y sistemas automáticos de regulación" ikasi zuen eta orain mantentze lanetan dihardu. Mirarik berriz, Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi zuen eta orain lanean dabil.

458. Laguntasuna eta zaletasunak (MAR-068/003)

Badira urte batzuk elkar ezagutu zutela. Xabat rally zale porrokatua da. Mirari, berriz, musikaria da eta trikiti talde batean ere aritu zen bi urtez. Xabat rally zalea izateaz gain, begiralea da aisialdi talde batean.

459. Euskararen egoera Lea Artibain (MAR-068/004)

Markinan euskararen egoera ona dela diote. Lea-Artibain bizi nahi duenak euskaraz ikasteko beharra sentitzen du. Euskaldun zaharrak dira. Sarri euren euskalkian ulertzen ez dituzten arren, euskaraz hitz egitearen garrantzia azpimarratzen dute.

460. Aisialdia eta euskara (MAR-068/005)

Euren aisaldia euskaraz burutzen dutela diote. Nahiz eta Xabatek rally kopiloto gisa diharduenean ezkerra eta eskuina beharrean "izquierda-derecha" erabiltzen duen. Izan ere, gidariari aginduak emateko errazagoa da gazteleraz esatea euskaraz oso antzekoak baitira ezkerra eta eskuina hitza.

461. Kopiloto rally-etan (MAR-068/006)

Xabatek kopiloto lanaren inguruan hitz egiten du, zer egin behar duen eta nola egin behar duen. Garrantzitsua deritzo rallyetan duen papera. Kopiloto denak gidariarekiko konfiantza osoa izan behar du eta lasterketetan adi egon honi laguntzeko.

462. Rally-en arriskuak (MAR-068/008)

Rallyetako segurtasun neurriak asko dira istripuak ekiditeko. Istripu asko gertzen diren arren, ez Xabat ez Mirarik zoriogaiztoko gertakaririk ez dute ikusi.

463. Kopiloto ibilbidea I (MAR-068/009)

Rally munduan nola sartu zen kontatzen du Xabatek. Gidari ezberdinen kopiloto izan da eta goi-mailako pilotuekin aritzen denez, garrantzitsutzat jotzen du bere burua. Orain Gorka Antxustegirekin dabil eta lasterketetan erabiltzen duten hizkuntzaz dihardu. "Ras" bezalako hitzak erabiltzen dituzte.

464. Kopiloto ibilbidea II (MAR-068/010)

Kopilotoen ospea emaitzen araberakoa da. Xabat oraingoz, gustora dago bere gidariarekin. Bere lehenengo lasterketa dakar gogora eta orain lehiaketetan parte hartzen duenean, urduriago jartzen da. Gorka bere gidariarekin Euskal Herri mailako lasterketetan ibiltzen da.

465. Rallyen ezaugarriak: autoak eta lasterketak I (MAR-068/011)

Rallyetan kategoria ezberdinak daude. Autoaren prestakuntzaren araberakoak dira hauek. Auto mota askok hartu dezakete parte lasterketetan, lizentzia da beharrezko den gauza bakarra. Rallyspring, igoera eta rallyaren dia ezagunenak diren modalitateak.

466. Rallyen ezaugarriak: autoak eta lasterketak II (MAR-068/012)

Rally lasterketen iraupena askotarikoa izan daiteke, egun bat baino gehiagoko txapelketa bat izan daiteke. Euskal Herriko txapelketei dagokionez Xabetek bere eskualdekoa du gogokoen.

467. Lea-Artibaiko lasterketaren antolaketa I (MAR-068/013)

Lea-Artibaiko txapelketaren antolaketaz dihardute. Honek duen lan kargaren eta zailtasunen inguruan.

468. Lea-Artibaiko lasterketaren antolaketa II (MAR-068/014)

Lea-Artibai antolatzen duten rally-an komisario lana nolakoa den kontatzen du Mirarik. Ikusleen inguruan ere hitz egiten dute, hauek batzutan oso toki arriskutsuetan jartzen direla aipatzen dute.

469. Lasterketa batean funtsezkoak diren hiru rol (MAR-068/015)

Lasterketa baten atolaketan dauden pertsona funtseskoenak, segurtasun arduraduna eta komisarioak izaten dira. Hauen lanak zertan datzan kontatzen du Xabatek.

470. Rallyetako giroa I (MAR-068/017)

Gidari askok gauez probatzen dituzte autoak, baina entrenamentuak egunez egiten dituztela dio Xabatek. Rallya hasi aurreko giroaren inguruan dihardute.

471. Rallyetako giroa II (MAR-068/018)

Rallyak ikustera joaten den jendea anitza da, batzuk zaleak dira eta beste batzuk denbora pasa joaten dira. Lea-Artibain rally zale asko dago, baita Azpeiti inguruan ere.

472. Rallyetako giroa III (MAR-068/019)

Euskal Herriko rally zaleak asko dira.

473. Emakumeak rally munduan (MAR-068/020)

Rally munduan gizonezkoak nagusitzen diren arren, gero eta emakume gehiagok hartzen dute parte. Emakume euskaldunak ere badaude txapelketetan gidari zein kopiloto gisa.

474. Ze rally txapelketa dira ezagunak? (MAR-068/021)

Rally zaleak Espainiar estatuan non ibiltzen diren azaltzen dute. Madrileko txapelketan jende asko egoten dela esaten dute, baita Kataluniako munduko txapelketetan ere.

475. Zale izatearen alde onak eta txarrak (MAR-068/022)

Zaleek ondo prestatu joan behar dute rallyak ikustera, Mirari eta Xabatek zale gisa izan dituzten anekdotak kontatzen dituzte.

476. Rally-en prezioa (MAR-068/023)

Euskal Herrian Rally springnetarako eta igoeretako sarrerak kobratu egiten dira, baina rallyetakoak ez. Xabatek laguntza faltarekin lotzen du kobratu behar hori. Mirarik uste du, gustuko duenak ez duela arazorik sarrera hori ordaintzeko.

477. Autoen prestaketa eta finantziazioa (MAR-068/024)

Rallyetako autoen prestaketa kostu handiko lana dela dio Xabatek. Bere kasuan, gidaria mekanikoa da eta ondorioz, prozesua askoz errazagoa da. Finantzaketa lortzea ere ez da lan erraza.

478. Lasterketa autoaren zaintza (MAR-068/026)

Xabatek bere gidariak autoa oso ondo zaintzen duela dio, mekanikoa da eta gustoko du hura zaintzea. Euren autoa zaharra den arren, ondo zainduta dago eta lasterketetarako balio du.

479. Zaleek lasterketetan bilatzen dutena (MAR-068/027)

Mirariren ustez lasterketetan nork bere gustuaren arabera gozatzen du. Alegia, batzuk erlojuari begira egoten dira, besteek ikuskizun gisa hartzen du. Partehartzaileei dagokionez, txapelketa irabazi nahi dutenak azkar joaten dira eta euren helburua ez da ikuskizun bat eskeintzea.

480. Auto klasikoen rallyak (MAR-068/028)

Auto klasikoen modalitatea ere badago eta arauak korapilatsu samarrak dira kategoria honetan.

481. Autoarekin duten harremana (MAR-068/029)

Euren auotari dagokionez, Mirarik zaintzen duela onartzen du eta bizkor ibiltzea gustuko duela. Xabatek lasterketetan azkar ibiltzen denean abiadura nahiko hartzen duela uste du eta, horregatik, hortik kanpo lasai ibiltzen da.

482. Lasterketetatik kanpo gidari jarrera (MAR-068/030)

Lasterketetatik kanpo lehiarik ez dago orain. Mirariren ustez, garai batean mutilen artean pikea zegoela onartzen du.

483. Parranda eredua (MAR-068/031)

Parrandari dagokionez, Markinan giro ona dago. Xabat eta bere lagunak, kanpora ere joaten dira parranda egitera Gipuzkoa aldera gehienbat.

484. Hitanoaren egoera Markinako gazteen artean (MAR-068/033)

Bizkaieraz hitz egiten dute. Hitanoari dagokionez ezjakintasun handia dagoela uste dute eta ondorioz, lagunen artean ez dute erabiltzen. Mirarik beste leku batzuetan oso ondo egiten dela dio eta gustuko duela. Zirikatzen dutenean gazteleraz egiten dutela diote, nahiz eta beste dena euskaraz egiten duten. Markinan euskaraz bizi daitekela azpimarratzen dute.

485. Lea-Artibaiko herrien arteko harremanak (MAR-068/034)

Ondarrutarrekiko gertutasun handia dute batxilergoan bertako herritar askorekin elkartzen baitziren. Euskarari dagokionez ez dute elkar ulertzeko zailtasunik.

486. "Aire, aire" berbena taldearen ibilbidea (MAR-068/035)

Mirarik bere berbena taldearen inguruan dihardu. "Aire, aire" zuen izena eta asko ikasi zuen taldean. Bi urteren ondoren desegin egin zen eta Mirarik jarraitu nahiko lukeen arren, bizitako esperientziarekin geratzen da. Talde batean jotzea lan handia den arren, bere bizitzako esperientziarik onena izan dela esaten du.

487. "Aire, aire" berbena taldearen ibilbidea (MAR-068/036)

Mirarirentza plazarik onena Etxabarrikoa izan zen, euriak jendea uxatu zuen arren. Markinan ere esperientzia oso onak bizi izan ditu. Herri erdaldunetan edo herri euskaldunetan jotzearen artean alde handia dagoela dio.

488. Herrien arteko desberdintasuna parranda ereduan (MAR-068/037)

Parranda herrri batean egin edo bestean egin desberdintasun bat egotekotan, adin ezberdinetako jendea batera ikustea da. Hau da, Berritxu edo Etxabarri adin ezberdinetako jendea batera ibiltzen da, baina hori hiri edo herri handiago batean ikustea zailagoa dela uste dute.

489. Igozko andrearena, kontakizuna (MAR-107/002)

Igozko andreari gertatutakoa kontatzen du.

490. Bedartzandiko gau argia, kontakizuna (MAR-107/003)

Bere aitak-eta, minerala ateratzen ari zirela, iluntzetan argia ikusten zuten eta piztia zela pentsatu zuten. Zer zen ikustera ausartu ziren gauez. "Gaua gauekoentzat", dio. Ordukoa kontatzen du.

491. Marixe kobako, Anbotoko señorie (MAR-107/004)

Bere aititak, medikuarekin batera, Marixe kobakoa (Anbotoko señorie) ikusi zuenekoa kontatzen du.

492. Sorginen urrezko kopa, kontakizuna (MAR-107/006)

"Mokomata" edo pistola atera zutenean, sorginak desagertu zirenik ez dela egia dio. Sorginen urrezko kopari buruzko kontakizuna kontatzen du.

493. Umeek Marixe kobakoa ikusi zuteneko kontakizuna (MAR-107/007)

Ardi bila joandako umeek Marixe kobakoa ikusi zuteneko kontakizuna egiten du.

494. Meatzeetako katu zuriaren kontakizuna (MAR-107/008)

Anbotoko meatzeetatik zetorrela, hango langileburuak katu zuria ikusi eta jo zuenekoa kontatzen du.

495. Ehiztariak eta katu zuria, kontakizuna (MAR-107/009)

Bere aita zenari gertatutakoa kontatzen du; ehiztariak ziren eta txakurrei erakusten ari zela, katu zuri-zuria ikusi zuten. Tirokatzen saiatu ziren baina ezkutatu egin zitzaien. Haize handi batek bueltaka erabili zituela dio.

496. Errekako argitasuna, kontakizuna (MAR-107/010)

Errekan argitasuna ikusi zutenekoa kontatzen du.

497. Kukubiltxu ipuina (MAR-107/011)

Kukubiltxuren ipuina kontatzen du.

498. Andrearen gonapean ezkutatuta (MAR-107/014)

Karlistadetako kontuak, bere aitita zenari gertatutakoak. Hiru urte egin zituen gerran, behartuta. Liberalak atzetik zituen batean, artajorran ari zen andrearen gonapean ezkutatu zen.

499. Itsasertzean lamia (MAR-107/016)

Karlistadetan zebilela, aititak iluntze batean itsasertzean lamia ikusi zuenekoa kontatzen du.

500. Prakamanen bertsoak gerra karlistari buruz (MAR-107/022)

"Prakaman" zenak, markinarrak, bertsoak atera zituen karlistadei buruz. Bi kantatzen ditu. "Hogeita lau karlistak". Sarasola markinarrari ere bertsoak atera zizkion baina ez dakizki.

501. Bolak eta txirloak egiteko egurra (MAR-118/002)

Bolak, txirloak eta batzuetan sariak egiten ditu artearekin. Enborra erabiltzen duen arren, sustraiak hobeagoak dira. Egur zatiak; "besangie" (adarra).

502. Ilbeheran mozten du egurra (MAR-118/003)

Ilbeheran mozten du egurra Antoniok.

503. Artearen egurra delikatua da (MAR-118/005)

Garai batean, egurra tratatu egiten zuen erabili aurretik. Gaur egun, egurra moztu eta kortan gordetzen ditu, eguzkitik babestuta. Artea delikatua da eta eguzkiak zartadurak eragiten dizkio. Landu aurretik, egurra kortan izaten du urtebetez edo bi urtez.

504. Hiru txirloko bolaren eskuzko prozesua I (MAR-118/007)

Hiru txirloko bola egiteko prozesua: aizkorarekin egurra borobildu, berak egindako tornu batean bolari marka batzuk egin eta gero eskuz lixatzen du, bola guztiz biribila gelditzeko.

505. Hiru txirloko bolaren eskuzko prozesua II (MAR-118/008)

Lixarekin bola biribilduta dagoenean, berriz ere markak egiten dizkio eta beste tresna batekin bola leuntzen du.

506. Hiru txirloko bolaren eskuzko prozesua III (MAR-118/009)

Bolari zuloak nola egiten dizkion azaltzen du. Erremintak berak sortutako dira.

507. Bolentzat txantiloiak (MAR-118/010)

Bola ezberdinentzat txantiloiak eginda ditu. Garai batean bolak guztiz biribilak ziren, baina gaur egun ez. Bolen zuloentzat txantiloiak ditu ere. Bola txikiegia egiten badu, baztertu edo umeentzako bolak egiten ditu.

508. Bolen zuloen funtzioa (MAR-118/011)

Bolak dituen zuloak zertarako diren azaltzen du.

509. Hiru txirloko bolaren eskuzko prozesua IV: erramintak (MAR-118/012)

Bola egiteko erabiltzen dituen tresnak: motozerra, aizkora, eskuila, arraspia eta lixa. Higatuta bolak erretiratu egiten dira.

510. Argindarrik gabe bolak eta txirloak egiten (MAR-118/013)

Bola bat egiteko egun bat edo bi behar ditu. Bere denbora librean egiten ditu eta beti eguneko argia erabiliz. Ez du argindarrik erabiltzen.

511. Hiru txirloko txapelketetako trofeoak egiten ditu (MAR-118/016)

Txapelketako trofeoak ere egiten ditu. Bola eta txirlo txikiak izaten dira.

512. Txirloak euskaliptoaren egurrarekin egiten ditu (MAR-118/018)

Txirloak zer diren. Garai batean perretxiko formakoak ziren. Txirlo gehienak eukaliptoaren egurrarekin egiten ditu.

513. Umetatik bolen munduan (MAR-118/023)

Egiten dituen bolak eta txirloak saldu egiten ditu. Umetan, helduek jolasten zutenean txirloak bere lekuan jartzen eta bolak partaideei pasatzen ibiltzen zen. Aita eta anaia boletan ibili dira. Gaur egun emakumeak ere ibiltzen dira.

514. Bola ondo botatzeko punteria behar da (MAR-118/024)

Boloetan ibiltzeko punteria ona eta zuzen botatzea da garrantzitsuena.

515. Hiru txirlo jokoa (MAR-118/026)

Bolak nola bota behar duen erakusten du. Hiru txirlon nola jokatzen den. Hiru botaldirekin 9 puntu lortzea zaila da.

516. HIru txirloan "famau" (MAR-118/027)

Hiru txirloko jokoan ezaguna da Antonio. Txapelketetan jende dezente biltzen da.

517. Bolatoki bakoitzak bere ezaugarriak ditu (MAR-118/029)

Hiru txirloko txapelketak bolatoki ezberdinetan egiten dira. Bolatoki bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu eta horrek jokoa asko baldintzatzen du. Txapelketetako sariak: trofeoak, txapelak, dirua... Herriko edo auzoko jaietan ere jokatzen da.

518. Hirurogei urterekin hasi zen bolak egiten (MAR-118/032)

Joserra Tolosak egiten zituen bolak bere aurretik. 60 bat urte zituenean hasi zen bolak eta txirloak egiten. Saldu egiten ditu. Garai batean arotzak egiten zituzten bolak, baina gaur egun bera da bakarrenetarikoa.

519. Bola on baten ezaugarriak (MAR-118/033)

Bola on baten ezaugarriak: artearen egurra izatea, astunegia eta handiegia ezin da izan...

520. Inork gehiagok egiten ez duen ofizioa (MAR-118/035)

Inork nahi ez duen ofizioa edo zaletasuna bada ere, Antoniok gustura egiten duen lana da. Bera da bolak egiten dituen artisau bakarra.

521. Bolak "A" hizkiaz sinatuta (MAR-118/036)

Bolak "A" hizkiaz sinatzen ditu. Hamaika bola daude federazioan eta denak Antoniok egindakoak dira.

522. Zumarragatik Markina-Xemeinera (MAR-119/002)

Etxebarriko Errotazarreta baserrian bizi izan zen familia Zumarragatik Markinara aldatu zenean. Familia handik beste baserri batera aldatu zen. Markinan ikasi zuen Bilbora joan zen arte kazetaritza egitera.

523. Bertsozaletasuna nola piztu zitzaon (MAR-119/004)

Amaren familiatik datorkio Nereari bertsozaletasuna. Bertsolaritza aukeratu zuen ikastolaz kanpoko ekintza bezala. Juanjo Respaldiza izan zen bere irakaslea. Amarekin autoan puntuka ibiltzen zen.

524. Bertso-eskolan Markina Xemeinen (MAR-119/005)

LH eta DBH-ko urteetan ibili zen Nerea ikastolan bertsolaritzako ekintzetan beste lagun batekin batera. Juanjo Respaldiza irakasleak txapelketara apuntatzen zien eta nahiz eta beraiek ez zuten joan nahi, beti irabazten zuten zerbait eta Markina-Xemeingo bertso-eskolan hasi ziren. Lea-Artibaiko bertsolari gazte asko biltzen ziren bertan.

525. Bertsozaletasunetik bertsolari izatera (MAR-119/007)

Hasieran bertsolaritza joko bezala bazuen ere, laster bihurtu zen lehia batean. Bertsolaritzarekiko pertzepzioa. nola aldatu zitzaion kontatzen du Nereak.

526. Lehiakortasuna bertsolaritzan (MAR-119/009)

Bertso-txapelketa ezberdinei buruz hitz egiten du Nereak: Osinalde, Abra, Xenpelar sariketa, Plazatik Gaztetxera... Bertsolaritzan beti lehia handia dago nahiz eta gero lagun handiak izan beraien artean

527. Bertsolaritza eta gizonaren irudiaren papera (MAR-119/011)

Bertsolaritzan, bertsolari-hegemoniko bezala gizona irudikatzen da eta horrek bakoitzak bertsotan egiteko moduak asko baldintzatzen duela kontatzen du Nereak.

528. Bizkaiko txapelketan beti gustura (MAR-119/013)

Bizkaiko txapelketan Nerea ez da inoiz arrotz sentitu, neska eta emakume asko dagoelako saioetan. Hala ere, askotan emakume bertsolarientzat leku arrotz bat bezala irudikatu daitezke txapelketak.

529. Bertsolaritzako emakume erreferenteak (MAR-119/014)

Hamabi urterekin bertsotan hasi zenean, Miren Amuriza, Jone Uria eta Arrate Illaro ziren Nerearen erreferente nagusiak. Miren Amurizarengan segurtasun handia ikusten zuen telebistan eta asko miresten du. Emakume bertsolariak oholtzan egoteak, bertsotan aritzeko beste modu bat planteatu zuen.

530. Emakumearen epaiketa bertsolaritzan (MAR-119/016)

Emakumeei gehiago zigortzen zaizkie hanka-sartzeak orokorrean eta bertsolaritzan ere berdina gertatzen da. Emakumeak txikitatik diskretuagoak izateko heziak izan dira. Bertso saio guztietan, gaizki egin izanaren duda eta errua sentitu izan du baina emakumeek ere epairik jaso gabe hanka-sartzeko eskubidea aldarrikatzen du.

531. Bertsolaritza eta emakumea: Autoexigentzia (MAR-119/018)

Autoexigentzia gehiago egoten da bertsolaritzan emakumeen artean gizonezkoen artean baino. Autoexigentzia minimo bat beharrezkoa da bertsolaritzan baina larregi izateak asko murrizten ditu bakoitzaren aukerak. Bere kasu pertsonala kontatzen du.

532. Bertsolaritza eta emakumea: Autozentsura (MAR-119/020)

Nereak kontatzen du, oholtza gainean ez dela jakiten publikoak nola ikusten zaituen eta horren arabera gauza batzuk kantatzen dituela edo ez.

533. Bertsolaritza eta emakumearen identitatea (MAR-119/022)

Bertsolaritza munduan neska zela ez konturatzeak lasaitasuna eman dio oholtzan. Nereak "Kontrako eztarritik" liburua osorik irakurri zuen arte ez zen konturatu bertsolaritzan emakume izateagatik zituen arazoak beste emakumeek ere bazituztela. Plazetan bere adinekoekin edo gizon helduagoekin bertsotan aritzearen ezberdintasuna.

534. Bertsolaritza eta generoen arteko botere-harremanak I (MAR-119/023)

Bertsoetako gai batzuekin deseroso sentitu da Nerea. Askotan, gizon heldu eta neska gazteen arteko gaiak sexuaren ingurukoak dira eta botere-harreman batean bilakatzen da. Nereak kontatzen du, publikoak neska gazteak gizon helduari kontra egitea eskatzen duela, askotan bere fisikoarekin sartuz. Berak ordea, gaia beste modu batean jorratzeko nahiak azaltzen ditu.

535. Bertsolaritza eta generoen arteko botere-harremanak II (MAR-119/024)

Gaur egun, generoaren ikuspegitik botere-harreman batean oinarriturako gaiak ez dira horrenbeste jorratzen bertsolaritzan. Nerearen ustetan, ligatzearen inguruko gaiak desoroso bihurtu dira eta berriz horri buruz eroso kantatzeko bideak bilatu behar dira.

536. Bertsolaritza eta generoen arteko botere-harremanak III (MAR-119/026)

Bertsolaritzan, ligatzeari buruzko gaietan nola jokatu botere-harremanak eraiki gabe bertsolari guztiak eroso sentitzeko.

537. Bertsolaritza: gizonaren ahotsa garratzitsuagoa (MAR-119/028)

Askotan, bertsotan gizonaren ahotsaren tinbrea, tonua, eta abar dela eta, garrantzi gehiago ematen zaio bere mezuari. Emakume batek berdina esango balu, publikoak ez duela berdin erantzuten kontatzen du Nereak.

538. Bertsolaritza eta Feminismoa (MAR-119/030)

Nerearen ustetan, orain dela urte batzuk arte emakume bertsolarien ibilbidea bakartia izan da eta ez dute hitz egin oholtzan gertatzen zenaz beste emakume batzuekin, autoestimuari kalte eginez. Feminismoaren hedapenarekin ordea, gauzak beste modu batera ikusten direla kontatzen du.

539. Bere burua gorrotatzea emakume-rola ondo ez betetzeagatik (MAR-119/031)

Neska bezala eskatu izan zaiona egin ez duelako edo "ondo" egin ez duenean epaitua izan denean, bere burua gorrotatzeraino heldu da Nerea. Adibide bat kontatzen du. Kanon estetikoei buruz hitz egiten du. Emakume bertsolari gehienak, oholtzan janzkera diskretua dute.

540. Bertsolaritza eta Emakumea: Janzkera diskretua (MAR-119/033)

Nereak kontatzen du oholtzara igotzeko zein arropa jantziko duen ondo pentsatzen duela: kolore neutroak erabiltzea, emakume formak ez markatzea... Emakumez bakarrik osatutako bertso-saioetara beste modu batean jantzita joaten dela kontatzen du, dotore joaten dela, diskrezioari ardurarik eman gabe.

541. Bertsolaritza eta Emakumea: Saioa "salbatzea" (MAR-119/035)

Bertsolari bakoitzak bere estrategiak ditu oholtza gainean eroso sentitzeko baina emakumeen artean diskrezioa izaten da nagusia. Askotan "saioa salbatzea" izaten da Nerearen helburua, arriskurik hartu gabe eta horrek berarengan sortzen dituen kontraesanei buruz hitz egiten du.

542. Bertsolaritza eta Emakumea: Umorea gizonezkoena da (MAR-119/037)

Bertsolariak umore-kontuetan estereotipatuak egon daitezke. Bertsolariak umorea erabili badu eta horrek saio ona egiteko balio izan badio, hurrengoetan ere hori bilatzen da. Kontrakoa ere pasatzen da. Normalean gainera, gizonezkoak lotzen dira umorearekin edo nahiz eta biek berdina esan, gizonezkoena da grazia egiten duena

543. Bertsolaritza eta emakumeen arteko lehia (MAR-119/039)

Nereak, emakumeen arteko lehiakortasuna nola ikusten duen azaltzen du: gizonezkoen taldean sartzeko onarpena, beste emakume bat sartzeak

eragiten duen presio eta arriskua, konpetentzia... Honen aurrean, Nerearentzat oso garrantzitsua da emakume bertsolariak esperientziak partekatzea.

544. Bertsolaritza eta LGTBIQ+ (MAR-119/043)

Bertsolaritzaren eta bertsolarien aniztasunari buruz hitz egiten du. Gizon bertsolarien artean oso aniztun gutxi dago. Ez dira gizon bertsolari homosexualak edo trans-ak ikusten. Bertsolaritza beste gai batzuekin konparatuz ez du hain anitza ikusten Nereak.

545. Bertsolaritza, pandemia eta emakumearen irudia (MAR-119/046)

Koronabirusa hasi zenetik ez dira bertsotan plazetan ibili. Buelta nola izango den eta gizon helduagoekin harremana nolakoa izango den ere kezkatzen du Nereak. Pandemia garaian egin diren saioetan emakumeen presentzia handiagoa izan da eta hau emakumeak "lasaitasunarekin" erlazionatuta ote dagoenaren hausnarketa egiten du.

546. Gizonezko bertsolarien aitapontekotza jarrerak (MAR-119/048)

Gizonezko bertsolari heldu asko paternalistak ("aitakeria", "aitapontekotza") izaten dira emakume bertsolariekin. Adibideak ematen ditu.

547. Bertsolaritza eta emakumea: Ez-merezimendua (MAR-119/049)

Neska edo emakume izateagatik merezitakoa baino arreta gehiago jaso izanaren sentsazioa duten emakume bertsolariak daude. Nerearentzat, autoestimuarekin oso lotuta dago. Adibide batzuk jartzen ditu.

548. Bertsolaritza eta Emakumeak: Gaiak (MAR-119/050)

Bertsolaritzan beti gai unibertsal batzuk egon dira eta gaur egun hori aldatzen badoa ere, bertso-txapelketa baten aurrean Nerea dokumentatu egiten da zenbait gaitan: kirolak, ehiza, perretxikoak... Gai unibertsaltzat hartu dira bertsolaritzan gizonak zeudelako. Gaur egun ahalegina egiten da gaiak bestelakoak izateko edo beste ikusputu batetik jorratzeko baina gizon bertsolari askoren artean aurpegi txarrak ikusten dira.

549. Ahalduntze Bertso Eskola (MAR-119/052)

Emakumeak ahalduntzeko bertso eskola nola garatu zen. Nereak bere esperientzia kontatzen du.

550. "Ez da kasualitatea" bertso saioa I (MAR-119/053)

Uxue Alberdik proposatutako ideia batetik sortutako proiektua izan zen eta feminismotik eta Ahalduntze Bertso Eskolako ideia asko bertan jaso ziren. Nerearentzat, egin dituen saio onenak bertan egin ditu, beti eroso joan delako, ondo pasatzeko jarrerarekin. Feminismoa benetan bertsolaritzan praktikan jartzeko egitasmoetako bat izan da.

551. "Ez da kasualitatea" bertso saioa II (MAR-119/054)

"Ez da kasualitatea" bertso saioa espazio-libre bezalako bat da. Gainera, jai-jartzaileen babesa nabaritzen da eta arriskuan jartzen dituzte bertsolariak, beraiengan sinesten dutelako.

552. "Txakur Gorria" sormen-kolektiboa (MAR-119/056)

"Txakur Gorria" , Malen Amenabar, Ane Labakak, Mariñe Arbeok eta Nerea Ibarzabalek unibertsitate-garaian sortutako sormen-kolektibo bat da. Ilustrazioak eta hitzak elkartzen dituzte eta lanak autoeditatzen hasi baziren ere, pixkanaka elkarte txiki bat sortu zuten eta gaur egun hortaz bizi dira. Zer egiten duten azaltzen du. Feminismotik ere landu dute proiektua.

553. Euskalkiz aldatzeko gaitasuna (MAR-119/060)

Zumarraga eta Markina artean bizi izan denez, euskalki ezberdinetan hitz egiteko gai da Nerea. Xabier Amurizari esker, irratian euskara batuan egiten hasi zen.

554. Bertsolaritza eta Emakumea: "Orainmenean" I (MAR-119/062)

Denboran zehar emakume bertsolariak egon diren arren, isilduak izan dira eta gizonezkoek hartu izan dute nagusitasuna. Nereak kontatzen du, askotan gizonezko bertsolarien argazkiak ez dira errealak (Bilintx, Xenpelar...) baina beti irudikatu izan ditugula. "Txakur Gorria"-tik argitaratu duten "Orainmenean" liburuxkan, emakume bertsolarien informazioa emateaz gain, beraien argazkia ere sortzen saiatu dira. Bertso-saio berezi batzuk prestatu dituzte eta emakume bertsolariek, liburuan dauden beste emakumeei buruz kantatuko dute.

555. Profasadorak XIV. mendean (MAR-119/064)

Profasadorak zer ziren azaltzen du: XIV. mendean kantatu eta inprobisatzen zuten emakumeak ziren. Debekatuak izan ziren, bazter-nahasletzat hartu zituztelako.

556. "Orainmenean" liburuko ermakume bertsolariak I (MAR-119/066)

Nereak, "Orainmenean" liburua erakusten du eta azaltzen diren emakume bertsolari batzuei buruz hitz egiten du: lore-jokoen txapeldun izan eta isilduak izan ziren Maria Luisa Erdozio, Mariana Argain, Mariana Etxegarai; Leoni Etxebarren, Xalbadorren emaztea izan zena eta senarrari buruz idatzi zuena; Luzia Goñi...

557. Bertsolaritza eta Emakumeak: Pello Errotaren familia (MAR-119/068)

Pello Errota bertsolariak, bertsotan ibiltzen ziren bi alaba eta iloba bat zituen. Sagardotegietan gizonezkoei bertsotan erantzuten aritzen zirela kontatzen du Nereak.

558. Bertsolaritza eta Emakumeak: Joxepa Antoni Xenpelar (MAR-119/070)

Xenpelarren familian ere emakume bertsolariak zeudela kontatzen du Nereak. Joxepa Antoni Xenpelar, Xenpelarren iloba zen. Emakume ausarta eta ideologikoa.

559. Maurizia Aldeiturriaga (MAR-119/071)

Maurizia Aldeiturriaga eta bere "Aupa Maurizia!" lemari buruz hitz egiten du Nereak.

560. "Orainmenean" liburuko ermakume bertsolariak I (MAR-119/072)

Bertso-txapelketa modernoetako emakume bertsolariei buruz hitz egiten du: Cristina Mardaras, Arantzazu Loidi, Roxi Lazkano... Liburuarekin jaso izan nahi dena kontatzen du.

561. Etxean euskaraz, kalean gaztelaniaz (MAR-120/006)

Etxeko hizkuntza euskara zuten. Irratsaioren bat euskaraz entzuten zuten. Amonaren bi anai abadeak zirenez, etxean liburu asko zeuzkaten. Euskarazko bakar bat zeukaten baina komentura eraman zuten. Kalean ia dena gaztelaniaz egiten zuten.

562. Pilotari profesionala izan zen (MAR-120/007)

16 urterekin Mallorcara joan zen zesta-puntan jokatzera eta, bide batez, han soldadutza egitera. Hemezortzi urterekin Markinara bueltatu zen, baina Ameriketara jokatzera joateko kontratua egin zioten. Pneumonia zuela, Markinara bueltatu zen eta, sendatu eta gero, pilotan jarraitu zuen. Baina lesionatu egin zen eta, nahiz eta operatu, ez zen guztiz osatu.

563. Pilotako epailea Ameriketan (MAR-120/008)

Pilotako lesioetatik ez zenez osatu, lanean hasi zen Danobat lantegian, baina hilabete gutxira Ameriketara bueltatzeko aukera eman zioten, pilotako epaile bezala. Lantegian baimen bat eskatu zuen. Ameriketan 4-5 lagun bizi ziren etxe berean. Soldata. Bizimodua.

564. Etxepe lantegiaren sorrera I (MAR-120/009)

Danobat-eko lankide batzuk beste enpresa bat sortu nahi zuten eta Carmelori sortzaile izateko eskaera luzatu zioten. Baietz esan eta Ameriketara joan zen pilotako epaileko sasoia egitera.

565. Etxepe lantegiaren sorrera II (MAR-120/010)

Enpresa berri bat sortzeko ideia, Danobat-eko nagusien belarrietara heldu zen eta lana ez uzteko konbentzitzen saiatu ziren arren, Carmelo ez zegoen Danobat-eko baldintzekin ados.

566. Ameriketan ere euskaraz (MAR-120/011)

Ameriketan bizimodua euskaraz egiten zuten. Carmelori herriko hizkerak itsasten zitzaizkion. Danobat-en ere euskara asko entzuten zen eta euskara bultzatzeko proposamenak zeuden.

567. Etxeperen sorrera: euskara, sortzaileak, kokapena... (MAR-120/012)

Enpresa berria sortu zutenean, euskararen erabilera globala helburuetako bat zen: fakturetan, estatutuetan, bankuko harremanetan... horrek arazo dezente sortu zien hasieran gehienbat. Etxepeko sortzaileak. Korta baten lan egitetik pabiloi industrial batera pasatu ziren.

568. Etxepe eta euskara I (MAR-120/013)

Pabiloi berrian kokatu zutenean lantegia, makina handiagoak jarri zituzten, 24 orduz lanean egoteko. Eskola profesionaletako langileak kontratatzeko baldintzetako bat euskara menderatzea zen. Lantegi barruko funtzionamendu osoa hasieratik euskaraz izan da; gaur egun ere bai.

569. Etxepe eta euskara II (MAR-120/014)

Felix Etxeberria `Parapan´en ideiei jarraituz adostu zen enpresa guztiaren funtzionamendua euskaraz izatea. Gainerako bazkideak ados egon ziren hasieratik. Eskutitzak gaztelaniaz idazteko eskaerak jaso izan dituzte.

570. Etxepe eta euskararen aldeko apustua (MAR-120/015)

IMH-ren sorreran, herriko lantegiek zer behar zituzten jakiteko bilera bat egin zen. Etxepek langile espezializatu euskaldunak eskatzen zituen baina IMH-ko zuzendariarentzat ez zen garrantzizko kontu bat. Urteetara, Etxepe-ri barkamena eskatu zion.

571. Etxeperen funtzio soziala euskarekiko (MAR-120/016)

Etxepek diruz laguntzen zituen euskarazko ekimenak eta ekintza ezberdinak: ipuin-lehiaketak, Elgoibarko ikastola, kirolak... Etxepek beti izan du euskararekiko funtzio sozial sakona.

572. Etxeperen euskara politikarengatik kexak eta zorionak (MAR-120/018)

Fakturak, albaranak... euskaraz bidaltzeagatik kexak eta zorionak jaso dituzte. Kataluniako enpresa batetik zorion mezu asko jaso izan zituzten.

573. Korrikak Etxepe omendu zuenean (MAR-120/019)

Korrikak Etxepe omendu zuenean. Poz handia eman zien eta nahiz eta hasierako lana gogorra izan zen, lortutakoari buruz pentsatzeak harro sentiarazten du Carmelo.

574. Euskarazko korrespondentzia eskatzeko zigilu pertsonalizatuak (MAR-120/021)

Udaletxetik, Foru Aldunditik... heltzen zitzaizkien gaztelaniazko eskutitzak euskaraz eskatzeko zigilu bat sortu zuten. Eskutitzen bat gaztelaniaz heltzen bazen, zigilua gainean jarri eta bueltan bidaltzen zuten.

575. Etxepe beste enpresa batzuentzat bidea izan da (MAR-120/023)

Etxeperen euskararen aldeko apustua ikusita, beste enpresa batzuk ipini izan dira haiekin kontaktuan, eman beharreko pausuez galdezka.

576. Etxepeko langile guztiak euskaldunak dira (MAR-120/025)

Enpresetan euskara-planak garatzeko dirulaguntzak egon badira ere, Etxepek ez du inoiz laguntzarik jaso. Hasierako baldintza izan zen euskara menperatzea.

577. Elgoibarko euskararen egoera (MAR-120/032)

Nahiz eta ikasketa gehienak gaur egun euskaraz izan, kalean gaztelania asko entzuten da. Erabilera bultzatzeko pausoak falta dira.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com